

2 0 2 5
LURRALDE-TXOSTENAK

EUSKADIKO GIZARTE- BAZTERKERIARI ETA -GARAPENARI BURUZKO TXOSTENA

INTEGRAZIOARI ETA
GIZARTE-PREMIEI BURUZKO
INKESTAREN EMAITZAK (2024)



FUNDACIÓN FOESSA

FOMENTO DE ESTUDIOS SOCIALES
Y DE SOCIOLOGÍA APLICADA

Euskadiko gizarte- bazterkeriari eta -garapenari buruzko txostena

Integrazioari eta gizarte-premiei
buruzko Inkestaren emaitzak (2024)



FUNDACIÓN FOESSA

FOMENTO DE ESTUDIOS SOCIALES
Y DE SOCIOLOGÍA APLICADA

— Aurkibidea —

Koordinazioa

Thomas Ubrich
Raúl Flores Martos

FOESSA Fundazioko Batzorde Teknikoko kidea
FOESSA Fundazioko idazkaritza teknikoa

Analisia eta idazketa

Maria Amaya Izaola Argüeso
Raúl Flores Martos
Pedro Fuentes Rey
Idoia García Goikoetxea
Imanol Ilárraz Rodríguez
Sara Peña Valderrama
Daniel Rodríguez de Blas
Madalen Saizarbitoria Suinaga
Marina Sánchez-Sierra Ramos
Raquel Sanz Álvarez
Ana Sofi Telletxea Bustinz
Thomas Ubrich
Elisa Usategui Basozabal
Ana Irene del Valle Loroño
Joseba Zalakain Hernández

Euskal Herriko Unibertsitatea
FOESSA Fundazioko idazkaritza teknikoa
FOESSA Fundazioaren laguntzailea
SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketako Zerbitzua
SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketako Zerbitzua
SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketako Zerbitzua
FOESSA Fundazioko Batzorde Teknikoko kidea
SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketako Zerbitzua
FOESSA Fundazioko Batzorde Teknikoko kidea
SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketako Zerbitzua
Caritas Bizkaia
FOESSA Fundazioko Batzorde Teknikoko kidea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Euskal Herriko Unibertsitatea
SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua

Laginareen diseinua

Manuel Trujillo Carmona

Gizarte Ikerketa Aurreratuen Institutua

Landa-lana

Verian

Referencia bibliográfica

FLORES MARTOS, R. y SÁNCHEZ-SIERRA RAMOS, M. (coords.) (2025). *Informe sobre exclusión y desarrollo social en en Euskadi: Resultados de la Encuesta sobre Integración y Necesidades Sociales*. (Informes Territoriales). Madrid: Cáritas Española; Fundación FOESSA. 206 p.

Madrid, 2025

© FUNDACIÓN FOESSA

Embajadores, 162
28045 Madril
informacion@foessa.org
www.foessa.es

© Cáritas Española Editores

Embajadores, 162
28045 Madril
Tel.: 91 444 10 00
publicaciones@caritas.es
www.caritas.es

ISBN: 978-84-8440-899-4

Lege-gordailua: M-13891-2025

Aurreinprimaketa eta inprimaketa:

Gráficas Arias Montano. S. A.
www.ariasmontano.com

Espainian inprimatua/Printed in Spain

Aurkibidea

Hitzaurrea: gizarte-bazterkeriaren dinamikari buruzko begirada berritzen	7
Sarrera	17
Laburpen exekutiboa	21
1. blokea. Gizarteratzea eta gizarte-bazterkeriak eragindako pertsonen ezaugarriak Euskadin	41
1. kapitulua. Gizarteratzea eta gizarte-bazterkeria Euskadin	43
1.1. Gizarte-bazterkeria murrizten da, baina nabarmen handitzen dira gizarteratze prekarioko egoerak	44
1.1.1. 100 mila pertsona gutxiago gizarte-bazterkeriaren eremuan 2021. urteaz geroztik	48
1.1.2. Euskadin gizarte-bazterkeriako egoeran dauden hamar pertsonatik bi ez daude pobrezia-arriskuan	50
1.2. Gizarte-bazterkeriaren ardatzak eta dimentsioak Euskadin	53
1.2.1. Gora egin du ardatz politikoan bazterkeria-arazoak dituzten pertsonen eta herritarren ehunekoak, eta EAEko biztanleriaren % 38,5i eragiten dio	54
1.2.2. Dimentsio batean ere arazorik ez duten pertsonen ehunekoa murriztu egin da, baita eguneroko bizitzako hiru dimentsiotan edo gehiagotan arazoak dituzten pertsonena ere	58
1.2.3. Gizarte-bazterkeriak parte-hartze politikoaren dimentsioan eta, neurri txikiagoan, gizarte-isolamenduaren, hezkuntzaren eta enpleguaren dimentsioetan duen eragina nabarmen handitu da	63
1.2.4. Parte-hartze politikorako oztopoak eta gehiegizko etxebizitzagastuak dira arazo ohikoenak EAEko biztanleen artean	69

2. kapitulua. Gizarte-bazterkeriaren eragin desberdina Euskadin	79
2.1. Sarrera	79
2.2. Bazterkeriak gehien jotzen dituen gizarte-taldeak: familia-unitate pobreak edo diru-sarrerarik gabekoak, eta familia-burua lan bila dutenak	82
2.3. Bazterkeria hazi egin da diru-sarrerarik gabeko familien, landa-eremuetako familien eta pobrezia ertaineko egoeran dauden familia-unitateen artean	86
2.4. Gizarte-bazterkeriaren egoeran dauden kolektibo ugariak: seme-alabak dituzten bikoteak eta atzerritar jatorriko norbait buru duten etxeetan bizi diren pertsonak	90
2. blokea. Arrisku-elementuak euskal gizartean: Integrazio prekarioko eredu baterantz	99
3. kapitulua. Suspertzen ari den baina artean hainbat itzal erakusten dituen lan-merkatua	101
3.1. Sarrera	101
3.2. Enpleguak gora egin du, batez ere immigrazioari esker; soldatak, berriz, gelditu egin dira	102
3.3. Enpleguko bazterkeria-egoerak murriztu dira, egoerarik txarrenean dauden taldeentzat izan ezik	110
4. kapitulua. Pobrezia murriztu egiten da diru-sarrerak bermatzeko sistemara biltzen diren pertsonak gero eta gehiago direlarik	117
4.1. Sarrera	117
4.2. Pobrezia eta desberdintasuna murriztu dira 2020 eta 2022 bitartean	119
4.3. DSBEn erreformak eta BGDSen ezarpenak nabarmen handitzen dute diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituzten pertsonen kopurua	124
4.4. Familia-unitate ahulenek BGDS eskuratzeko zailtasun handiak dituzte oraindik	133
5. kapitulua. Etxebizitza lortzea gero eta zailagoa da eta egoera desagokian dagoen etxe batean bizi diren pertsonak gero eta gehiago dira	135
5.1. Sarrera	135
5.2. Etxebizitza eskuratzeko kostuak gora egin du, baina etxegabetzeak murriztu dira	136

5.3. Etxebizitzaren eremuan bazterkeriak ukituta dauden pertsonen ehunekoak murriztu egin da	141
5.4. Etxebizitza ez-seguruaren edo etxebizitza desegokiaren egoerek, Euskadin, hamar pertsonatik bat baino gehiago ukitzen dute	144
5.5. Familia-unitate pobreak, seme-alabekin eta gazteak edo atzerritarrak buru dituztenak, portzentaje oso handian ageri dira etxebizitza desegokian bizi diren familia-unitateen multzoan	149
6. kapitulua. EAEko herritarrek zerbitzuetan gehiago gastatzearen eta horien unibertsaltasuna indartzearen alde daude	153
6.1. Sarrera	153
6.2. Euskadin hamar pertsonatik bat azken urtean gizarte-zerbitzuetara jo duen familia-unitate batean bizi da	154
6.3. EAEko biztanleen % 90,1ek gizarte-zerbitzu publikoetara joko luke lehenik, behar ekonomikoa izanez gero	158
6.4. Hamar lagunetik zortzi gizarte-zerbitzuetako inbertsioa handitzearen aldekoak dira Euskadin, eta hamarretik ia bederatzi gizarte-zerbitzuak hobetzearen aldekoak, zerga gehiago ordainduta	161
6.5. Euskal herritarrek gizarte-eskubideen sarbidearen unibertsaltasunaren alde egiten dute	165
6.6. Prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonak beren egoeraren errudun direlako argudioekiko errefusa mantentzen da	168
7. kapitulua. Harremanen ardatzarekin lotutako arazoak murriztu egin dira	173
7.1. Sarrera	173
7.2. Gatazka sozialarekin lotutako arazoak murrizten dira, baina isolamendu-egoerekin lotutakoak mantentzen dira, batez ere bazterkeria-egoeran dauden pertsonen multzoan	174
7.3. Bazterkerian dauden lau familia-unitatetik bat inguruk uste dute haien harremanik hurbilenak ez direla erabat berreskuratu, pandemia aldiaren ondoren	179
7.4. Gizarte-bazterkeria egoeran dauden familia-unitateen herenak uste du familiako kideren bat diskriminatua izan dela	182

8. kapitulua. Osasun mentala eta ongizate emozionala: eragina prekarietatean eta gizarte-bazterkerian dauden herritarrengan, eta osasun-arreta jasotzeko aukera Euskadin	187
8.1. Gizarte-isolamendua eta osasun mentala	187
8.1.1. Osasun mentala, faktore anitzeko errealitatea	187
8.1.2. Ongizate emozionalaren eta osasun mentalaren determinatzaile sozialak	190
8.1.3. Gizarte-isolamendua eta osasun mentala	197
8.2. Osasuna eta gizarte-bazterkeria Euskadiko biztanlerian eta familietan	199
8.2.1. Gizarte-bazterkeria osasunaren dimentsioan	200
8.2.2. Gizarte-bazterkerian dauden pertsonen osasun fisikoa eta mentala	207
8.2.3. Osasunaren dimentsioan gizarte-bazterkeriak eragindako familiak	221
8.3. Zaurgarritasunera, gizarte-bazterkeriara eta osasun mentalera hurbiltzea Hirugarren Sektoreko langileen ikuspegitik	225
8.3.1. Prekarietatea eta gizarte-bazterkeria faktore anitzeko fenomeno konplexuak dira, elementu ekonomiko eta erlazionalen elkargu-neak eragindakoak	226
8.3.2. Buruko eta bizitzako ondoezak gizarte hauskor eta baztertzailerik baten hondoratzen ditu bere sustraiak	230
8.3.3. Ondoez emozionalak eta mentalak gizarte-talde guztiei eragiten diete, baina bereziki pertsona zaurgarrienei eta gizarte-bazterkeriako egoeran daudenei	233
8.3.4. Erakunde publikoek ez dituzte asetzen osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eskaerak, batez ere zaurgarritasun-egoeran eta gizarte-bazterkeriako egoeran daudenenak	242
8.3.5. Proposatutako esku-hartzeko neurrien helburua lotura komunitarioak sustatzea eta arreta sanitario pertsonalizatua eta eraginkorra garatzea da	246
Metodologia	259
Glosarioa	285

Hitzaurrea

Gizarte-bazterkeriaren dinamikari buruzko begirada berritzen

FOESSA txostenen azken etaparen (2000tik aurrera) helburu nagusia gure herrialdeko gizarte-garapenaren berri ematea da, gizartean erabat integratuta parte hartzearen abantailak ez dituzten horietan begirada jarrita. Soziologiak gizarte-bazterkeriaren kontzeptua erabiltzen du egoera horretan dagoen biztanleriak pairatutako fenomenoak izendatzeko.

IX. edizio honetan, urrats esanguratsu bat eman nahi dugu kontzeptu hori birdefinitzeko bidean. Izan ere, kontzeptu hori oraindik oso baliagarria bada ere, urteen joanak eta orain arte egindako azterketek erakusten dute zenbait gabezia daudela, batez ere fenomenoaren izaera dinamikoari dagokionez.

Aribideko prozesua da, eta oraindik ez da horrekin lotutako inkesta sortu, eta horixe da lurralde-mailako txosten hau garatzeko oinarria. Dena dela, egokia iruditu zaigu hausnarketa hau azaltzea, hitzaurre gisa behintzat, gaia edizio honetatik kanpo ez uzteko.

Deskribatzetik azaltzera

FOESSA Fundazioaren txostenen historian gizarte-zientziak eta egile askoren ekarpenak izan dira nagusi. Egile horiek pobrezia-aren gizarte-fenomenoa argitzeko asmoz idatzi dituzte beren lanak. Horrela, hasierako ikuspegi sinplifikatu hartatik, zeinetan baliabide materialen gabezia soilik hartzen baitzen kontuan, ikuspegi askoz osoago batera iritsi gara, eta, gaur egun, pobrezia gizarte-fenomeno konplexutzat hartzen da.

Bide horretan, hainbat termino adierazi dira, pertzepzio-aldaketa horren berri emateko. Horien artean, gizarte-bazterkeria nabarmentzen da. Baina termino-

logia zehatz bat aurkitzeko ahalegin guztiekin gertatzen den moduan, azkenean nominalismoaren tranpan sartzeko arriskua dago, eta garrantzizkoenetik aldentzeko. Izan ere, haxe da garrantzizkoa: proposatzen den terminoaren zergatiak ulertu, alde batera utzita zuzena edo zehatza den ala ez.

Horregatik, testu honetan pobrezia eta gizarte-bazterkeria berdin erabiliko ditugu. Biekin, gizarte-fenomeno konplexu bat adierazi nahi dugu, ezinezkoa baita hori termino bakar baten bidez erabat zehaztea. Ez da hori arazoa.

Deskribatzetik azaltzerako urratsa eman nahi badugu, kausen berri eman behar dugu; deskribatzean, ondorioez baino ez da hitz egiten. Eta, horretarako, beharrezkoa da arazoa testuinguruan kokatzea eta eragileen arteko harremanak ikustea, bai eta eragile horien eta gizarte-egituren arteko harremanak ikustea ere. Azaltzea gaiaren konplexutasunaren berri ematea da.

Aurpegi ugariko errealitatea

Errealitate horri begirada azkar bat emanez gero, berehala ikusiko dugu pobrezia materiala ez dela pobrezia-mota bakarra. Alderdi ekonomikoak, errenta... ez dira ia inoiz bakarrik agertzen. Ikusten dugu pobrezia-egoeran dauden pertsonak gutxi, gaizki edo gutxiago jan, jantzi edo gastatzeaz gain, ez dutela neurri berean parte hartzen kultura-ondasunetan, ez dituztela eskuratzen hezkuntza-maila eta osasun-parametro berberak, gutxiago elkartzen direla, askoz gutxiago bozkatzeko dutela... Eta diru-sarrera urriak ez dira beti eta soilik izaten beste pobrezia-mota horietako batzuen arrazoia, pobrezia-mota horien atzean eskubideak osoz erabiltzeko ezintasuna edo zailtasunak baitaude.

Beraz, dimentsio anitzeko errealitate baten aurrean gaude. Errealitate horretan, faktore desberdin askok eragiten dute, pertsona berberengan batera agertzen direnak eta elkarri eragiten diotenak eta indartzen edo deuseztatzen direnak. Hala, egoera iraunkorrak sortzen dira, aldatzen zailak direnak.

Pobrezia, beraz, zerbait konplexua da. Konplexua eta konplikatua hitz sinonimoak direla ulertu ohi dugu; hala ere, “konplexua” latineko *complexus* hitzetik dator (“ondo korapilatuta dagoena, oso txirikordatuta dagoena” esan nahi du).

Errealitate konplexua, alderdi indibidual eta sozialak dituena

Pobrezia denboraren ikuspegi longitudinal batetik aztertuz gero, ikus daiteke pobreen taldea osatzen duten pertsonen multzoa aldagarria izan daitekeela garai batzuetan eta besteetan, baina horrelako taldea ez dela desagertzen, ekonomia-zikloa edozein dela ere. Hau da, pobrezia dago krisi-garaietan, bai eta oparoaldietan ere, eta gizarte osoaren ehuneko esanguratsu bati eragiten dio. Gainera, gizarte garatuetan eta hain garapen-maila handia ez dutenetan dago.

Eta balio batzuk aldarrikatu eta eskubide batzuk adierazten dituzten gizarteetan eta gizarte-ereduen esparruan ere gertatzen da, nahiz eta gizarte horietan balio eta eskubide horiek gauzatu ahal izateko erakunde eta mekanismoak ere garatzen diren. Nolanahi ere, gizarte horien bilakaera historikoan, kontraesan handiak sortzen dira adierazten dutenaren eta benetan lortu dutenaren artean.

Pobrezia heredatu egiten da, belaunaldiz belaunaldi transmititzen da familia eta gizarte-talde berberen barruan eta lurralde berberetan. Horrela, pobrezia-egoeran dauden pertsonak gizarte-klase moduko bat osatzen dute, zehazgarria eta zehaztua. Ez da, beraz, banakoei soilik eragiten dien errealitate bat.

Baina, bestalde, pobreziaren azterketak agerian uzten du pertsona eta familia desberdinek, antzeko egoeretan, modu desberdinetan erreakzionatzen dutela, eta horrek, aldi berean, egoera desberdinak dakarzkiela batzuei eta besteei. Horrek erakusten du jarduteko modu horiek zerikusi handia dutela bereganatutako balioekin eta bizi-zentzuarekin, eta jokabide horiek erabakigarriak dira bizitzari aurre egiteko gaitasunetarako.

Gizabanakoen eta gizarte-egituren artean kokatzen dira, halaber, taldeak, komunitateak, familiak... eta ezaugarri bereizgarriak izaten dituzte pobrezia-egoeran dauden biztanleen artean. Beraz, oso garrantzitsuak dira horiek ere pobreziaren errealitatea aztertzeko.

Pobrezia behar bezala ulertzeko, ezin ditugu gizabanakoak eta haien portaerak soilik aztertu, ezta gizartea eta haren arau eta erakundeak soilik aztertu ere. Ezin dugu, halaber, bi errealitateak elkarren ondoan jarrita aztertu ere, besterik gabe. Beharrezkoa da bi alde horiek errealitatean elkarri lotuta dagoen osotasun (*complexus*) gisa ikustea.

Kausa-efektu erlazioa errepikakor bihurtzen duen errealitate konplexua

Konplexutasunari aurre egiteko, kausen eta ondorioen arteko benetako erlazioa zein den birpentsatu behar dugu. Newton eta Descartesen garaitik, oso modu linealean ulertu ohi dugu erlazio hori; hau da, kausa batek ondorio bat eragiten duela.

Demagun Jon izeneko pertsona bat langabezia kronikoan dagoela eta alkohol gehiegi kontsumitzen duela. Alkoholak eragiten du Jon langabezian egotea? Edo langabeziak eragiten du Jonen alkoholismoa? Jon ulertzeko eta hari lagun egiteko, ulertu behar da elkar elikatzen diren elementuak direla bata eta bestea, langabezia eta alkoholismoa (adibidea sinpleagoa egitearren adierazten ez ditugun beste aldagai askorekin batera). Kausa ondorio bihurtzen da, eta ondorioa kausa, erantzutean dugun ikuspegiaren arabera. Aurreko galderak, horrela adierazita, ez digu ezertan laguntzen.

Bukle horrek eta haren atzeraelikadurak adierazten digute, batez ere, Jonen egoeran barne-trinkotasun handiko elementuak dituela: “logikoa” da gertatzen zaiona; faktore batzuek beste batzuk finkatzen dituzte, orekatu egiten dira, eta finkatutako errealitate oro aldatzea zaila denez, aldagaitz ere bihurtzen da.

Gizarte-bazterkeria edo “zerbaitetik kanpo” egotearen metafora

Liburu honen lehen kapituluak, pertsona, etxe eta lurralde berberetan elkarre-ragiten eta metatzen diren gabezien multzo horren datuak agertzen dira, lurralde jakin bati buruzkoak, Integrazioari eta Gizarte Premiei buruzko Inkestaren (EINSFOESSA) azken edizioetatik hartuta. Datu horiek adierazten dute egoera horrek barne-trinkotasuna duela eta aldagaitz bihurtzen dela.

Iruditu zitzaigun errealitate horri pobrezia esaten jarraitzeak hori guztia kontuan ez hartzea ekar zezakeela, eta, horregatik, *gizarte-bazterkeria* kontzeptua proposatu eta erabiltzen hasi ginen; izan ere, elementu-multzo horrek eragin handia du pertsonengan, lurraldeengan eta taldeengan, eta horrek eragotzi edo oso zail bihurtzen du pertsona eta talde horiek bizi diren gizartean onargarritzat jotzen den erabateko parte-hartzea izatea. Ez da soilik “behean” egotearen egoera, “kanpoan” egotearena ere bada.

Giza komunikazioan, hitzez adierazi ezin diren errealitateei aurre egin behar zaienean, metaforak erabili ohi dira, eta “balitz bezala...”, “-(r)en antza du...” eta horrelako esamoldeak erabiltzen dira errealitate horiek adierazteko. Gizarte-bazterkeriaz hitz egitea horrelako baliabide-mota bat erabiltzea da, guztiz baliagarria, baldin eta “kanpoan baleude bezala” daudela inoiz ahazten ez badugu; izan ere, argi dago ez daudela kanpoan, bizi garen gizartearen parte direla eta gizarte horretan eta gizarte horrekin elkarreragiten dutela. Ziur asko, gizarte-ereduaren koherentziarik ezaren metafora bihurtzen dira.

Gizarte-bazterkeria: integrazio- eta sustraitze-asmoen huts egiteen ondorio

Aurreko guztia adierazteko modu sintetiko bat litzateke adieraztea gure gizarteak integrazioarako balio duten mekanismo batzuk (egiturazkoak) eta ekintza batzuk (banakako/taldeko portaerak) garatzen dituela, bai eta sustraitze-prozesurako beste batzuk ere.

Jaiotzean, ia gure neurona guztiak deskonektatuta ditugu, eta ez dugu geure buruaren, besteen edo gainerako guztiaren kontzientziarik. Eta hazten garen neurrian, biologiak eta bizi garen gizarteak lagundu egiten digu gainerakoaz eta besteez jabetzen, eta gure nia horrekin guztiarekin integratzen.

Familia eta haren zainketak, eskola eta haren irakaspenak, auzoa eta bertako lagunak, lana eta dagokion soldata, osasun-zentroa eta bertako tratamenduak... integrazio- eta sustraitze-mekanismo eta -ekintza horien zenbait adibide dira.

Gizarte-bazterkeria ulertzeraz hurbiltzeko beste modu bat da gizarte-integrazio eta -sustraitzerako mekanismo eta ekintzetan izandako akats eta desorekek eragindako prozesu gisa ikustea. Gizartearen parte izateak, integratuta egoteak, esan nahi du, alde batetik, ateak irekita eduki behar direla, eta, bestetik, sustraiak bota ahal izan behar direla, ateak zeharkatu ondoren. Ateak itxita badaude, ezin da sartu, eta lurzoru emankorrik ez badago, landatutakoa ez da errotzen. Loturarik gabe, ezin da kide izan, eta benetako eskubiderik gabe, ez dago benetako loturarik.

Desdoitze eta hutsegite deitu ditugun horiek asko dira, eta beste errealitate mingarri batzuk ere eragiten dituzte, eta, gizarte-bazterkeria bezala, izaki sozialak dira, eta, aldi berean, gizartea eraikitzen dute, gizarte-eredu jakin bat sortzen dute. Baina, beharbada, gizarte-bazterkeria izango da, bere larritasun berezia-

gatik, desiragarriak ez diren bide batzuetatik doan eredu baten agerpenik handiena eta kezkarria. Hori da, behintzat, FOESSAn lantzen dugun ikuspegia, eta, beti bezala, errealitatea eraldatzearen alde egiten dugu, beste eredu desiragarriago batzuk lortze aldera.

Gizarte-bazterkeria, gizartearen ispilu

Integrazio- eta sustraitze-mekanismo eta -ekintzetako hutsegiteak, gizarte-bazterkeriaren sustraian egoteaz gain, gertatzen diren gizartearen isla dira. Nabarmen erakusten dute zer balio praktikatzen dituen gizarte horrek aldarrikatzen dituenetik, eta zein diren adierazpen estetiko hutsak.

Horrela, bere biztanleriaren zati handi bati ateak ixten dizkio, ez dio errotzeko eta loturak ezartzeko aukerarik ematen, eta hori egin ezin dutenak erruduntzat jotzen ditu, integratu nahi ez dutela eta alferrak edo biziosoak direla leporatuta. Ziurrenik, ez duelako aitortu nahi bere ustez dituen balioetako batzuk ez direla bere *ethos* kolektiboaren parte.

Gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka ez da lehentasuna agenda politikoan eta sozialean. Badira izen hori duten politikak eta ekintzak, baina ia anekdotikoak dira ereduaren benetako balioak finkatzeko joera dutenekin alderatuta. Eta azkenean, ia beti, autobabes-neurri gehiago izaten dira, gehiegizko bazterkeriak beharrezko ordena oztopatu ez dezan, eta “pobreak” kontrolpean izatea dute helburu, pobreziaren aurka egitea baino gehiago.

Eta horrekin guztiarekin sortzen den biztanlerian, bazterkeria pairatzen duena barne, kontraesan horrekiko erabat funtzionala den *ethos* pertsonal bat eratzen da. Gainera, pixkanaka-pixkanaka, biztanleria hori bere eguneroko ekintzaren oinarri diren balio errealak ezkutatu beharretik askatzen ari da: indibidualismoa eta nork bere buruari begiratzea, edo berarentzako adina izaten ahalegintzea, edo politikaren erabili ohi den “*America First*” leloa. Horrekin guztiarekin, biztanleria gizarte-eragile eta -eratzailerik bihurtzen da, ez soilik gizartearen isla.

Begirada bat bazterkeriaren dinamikari

FOESSA txostenek gizarte-bazterkeriaren kontzeptua erabiltzen dute, eta kontzeptu teorikoa eta hura neurtzeko tresna pentsatu eta birpentsatu dituzte. Izan

ere, aztertutako errealitatea dinamikoa bada, haren azterketa-prozesuak ere dinamikoa izan behar du, eta erne egon behar du etengabe, egoerak ulertzeko eta neurtzeko modu berriak eta hobeak txertatzen joateko.

Edizio honetan, ahalegin berezia egin nahi izan dugu kontzeptua berrikusteko eta pertsonen esperientziaren kontakizunean oinarritutako ikuspegitik osatzeko. Horretarako, ikerketa bat jarri genuen abian, Pablo de Olavide Unibertsitateko Gizarte Ikerketako eta Parte-hartzezeko Ekintzako Taldeak (GISAP) garatua, lankidetzan estuan arituta 12 elizbarrutietako Caritasekin (Oviedo, Bizkaia, Gasteiz, Zaragoza, Bartzelona, Terrassa, Girona, Salamanca, Madril, Valentzia, Orihuela-Alacant eta Sevilla).

50 elkarrizketa mikrobiografiko egin zitzaizkien familiei, eta 13 tailer nominal zerbitzu publikoetako eta hirugarren sektoreko esku-hartze sozialeko profesional eta boluntarioekin. Azterlan honen ondorio nagusietako batzuk aurkeztuko ditugu hemen, balioan jarri nahi dugun hausnarketa orokorraren harira.

Bazterkeria, autonomiaren eta mendekotasunaren arteko bide gisa

Ikerketa orotan, kontzeptu teorikoak operatibo bihurtu behar dira, eta, hori egitean, ez da inoiz gai izaten lehenengoen sakonera eta ertz guztiak barneratzeko. Baina, hala ere, hori egitea ezinbestekoa da ikertutakoa mugatu eta egiteko moduko zerbait bihurtu ahal izateko.

Lan honetan, bazterkeria-/inklusio-prozesuetan eragiten duten faktore eta mugarrak asko formulatzen dira, bi mota ideal aintzat hartuta (hau da, errealitatean ez dira modu horretan % 100ean existitzen): bazterkeria hirugarrenen mendekotasun-egoera gisa, eta inklusioa erabateko autonomia-egoera gisa.

Faktore hauek hartu dira aintzat: bazterkeriaren azterketen elementu klasikoak, familiei eragiten dieten dimentsioei erreferentzia egiten dietenak (enplegua, kontsumoa, prestazioak, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, sare soziofamiliarak, balioak eta sinesmenak, bizi-trebetasunak eta -jarrerak...). Eta mugarriztat hartzen ditu faktore horien gauzatzeak gertakarietan eta gertaeretan (kaleratzeak, dibortzioak, etxegabetzeak, kontratuak, onartutako titulazioak, birtaldekatzeak...); izan ere, horiek guztiek, teoriarik behintzat, bazterkeriarantz edo inklusiorantz bideratu dezakete, mendekotasun handiagoa edo autonomia gehiago izatera.

Bazterkeria-/inklusio-prozesuak sare soziofamiliarrek ordenatutako kaosa dira

Hemen ez dago lekurik ikerketan garatutako azterketa sakona laburtzeko, eta haren ondorio nagusia zein den baino ez dugu adieraziko. Komatxo artekoak lanetik hitzez hitz hartutako pasarteak dira.

Faktoreek eta mugarriek elkarri eragiten diote, eta sistema konplexua osatzen dute, ibilbide eta prozesu “oso malguak, moldakorrak eta askotarikoak” garrantuz, “batzuetan oso nekez sailka daitezkeenak”. Hala ere, bada lotutako mugarri gehienak dituen faktore bat, “gainerako guztien ondorioak erlazionatzen eta artikulatzen dituen eta haiei zentzua ematen diena”: sare soziofamiliarrak. “Izan ere, enpleguak, etxebizitzak edo osasunak, prozesuak diren aldetik, zentzua hartzen dute harreman-sare jakin batean sartzeko gai garenean (sare trinkoa, ahula, gatazkatsua, existitzen ez dena, toxikoa...). Orduan bakarrik atzeman dezakegu beste faktore horien ondorioak familiaren ibilbiderako positiboak edo negatiboak diren”.

Ondorio horrek pisu handia izan beharko du *kafea denontzat* deiturikoaren linealtasun tradizionala hausteko, bai eta sustraitze-prozesuetan egiten den lanari garrantzi handiagoa emateko eta prozesu horiek hobeto ulertzeko ere. Batez ere, sare soziofamiliarrekin zerikusia dutenak, tradizioz garrantzi txikiagotzat hartzen baitira azterketan eta esku-hartzeetan, egiturazko faktoreei ematen diegun garrantziarekin alderatuz gero.

Sare soziofamiliarrak gizarte-bazterkeriako testuinguruetan

Zenbait ikerketa abiapuntutzat hartuta, hurbilketa egin nahi dugu gizarte-bazterkeriako testuinguruetako sare soziofamiliarren ezaugarrietara nolabait. EINSFOESSA 2024ko datuak abiapuntutzat hartuta (txosten honetan ere erabili dira), ikusten dugu, bazterkeriaren eremuan sartu ahala, gizarte-harreman ahulak edo gatazkatsuak dituzten familien ehunekoa esponentzialki hazten dela.

Horrela, bazterkeria larriaren eremuan, % 16ra iristen dira gizarte-harreman oso ahulak dituztenen edo ia batere gizarte-harremanik ez duten familia-unitateen ehunekoa. Harremanak egonda, harreman horiek txarrak, zailak edo are bortitzak diren kasuak % 20ra iristen dira; integrazio prekarioaren eremuan dauden

kasuak, berriz, % 6 dira, bi harreman-mota negatiboak (isolatuak eta/edo bortitzak) kontuan hartuta. Aurrekoaren zehaztapenetako bat izan daiteke, bazterkeria larriaren eremuan, hiru familietatik batek ez duela lagundu diezaiokeen pertsonarik, behar izanez gero.

Beste ikerketa kualitatibo batzuek ere erakusten digute sare soziofamiliarak ahulagoak direla bazterkeria-eremuetan, eta batzuetan ere, ez dagoela horrelako inongo sarerik. Gatazka ere eragin handiko ezaugarria da, eta endogamiarako joera nabarmen eta zabaldua izan ohi da. Horretan guztian, eremu geografikoak ere badu eragina; izan ere, espazioan kontzentratzen direnean, lurralde baztertuak sortzen dira gizarte-bazterkeriako errealitateen ondorioz.

Ez dugu aipatu gabe utzi nahi esku-hartzearen arloko profesionalak funtsezkoak direla gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen harremanetarako. *De facto* egindako lana egiten dute, baina ez da beti ondo integratuta egoten profesional horiek parte diren erakundeen lan-estrategietan.

Anaitasunari gorazarre egitea, egiturazko desatxikimenduaren esparruan

FOESSAren VIII. Txostenean (2019), desatxikimendu hori jada azpimarratu zen. 2008ko Atzeraldi Handitik irteten ari zen gizartea salatzen zen txostenean. Hartan, utilitarismoa zen irizpide nagusia pertsonen arteko harremanetan eta gizarte-harremanetan, eta konektatzeko gaitasun ikaragarriak izanda ere, atxikimendu-maila gero eta txikiagoa zen. Desatxikimendu hori ez da soilik agertzen gizarte integratuaren eta baztertutakoaren arteko distantzian; aitzitik, gizarte osoaren ezaugarri gisa eratzten da, eta, azkenean, txostenean, atxikimendurako eskubidea sartzeko aldarrikatzen zen, hirugarren belaunaldiko eskubideen adierazpenen esparruan.

“Askatasuna, berdintasuna, anaitasuna” hirukoa modernitatearen gizarte europarrek teoriarik eraikitzeke erabili zituzten balioen sinboloa izan da. Hala ere, badago oso ezaguna ez den bitxikeria historiko bat: 1793ko Frantziako konstituzioan (ez ziren hori aldarrikatzera iritsi), hirugarren hitza aldatu egin zuten, anaitasunetik jabetzara, eta hirukoa “askatasuna, berdintasuna eta jabetza” bihurtu zen.

Agian, pasadizo hori 1793ko testuaren egileen lapsus freudiar bati egotz diezaiokegu, XVIII. mendeko ilustratuen artean nagusi zen *habitus* burgesaren hegemonia

kulturalak eraginda. Baina, edonola ere, argi dago eredu soziopolitikoaren ondorengo bilakaerak argi eta garbi erakusten duela hitz-aldaketa hori egitean etorkizuna nola-bait ikusi zutela; izan ere, jabetza pribatua eta hura erabiltzeko eta ulertzeko modu desberdinak, adierazita ez egon arren, hiru elementu horietako esanguratsuna da bizi garen mundua ulertzeko. Gainera, 1980ko hamarkadan abiatutako iraultza neoliberalak hori kultura-humus gisa inposatzea lortu du.

Premiazkoa da anaitasunaren elementu ahaztua berriro txertatzea, mundua sororitatearen ikuspegitik eratu eta ulertzeko. Izan ere, horren arabera, lankidetzaz jartzen da erdigunean lehiaren aurretik, balio unibertsal gisa, bai eta ahalduztza ere, errealtatea eraldatzeko funtsezko tresna gisa.

Ikuspegi horretan, anai-arrebak elkarrekin bizi dira eta etxe komun bera partekatzen dute, bertan bizi dira eta hura zaintzen dute, eta egungo bizimodua eta etorkizuneko proiektuen garapena ahalbidetzeko moduko baldintzetan mantentzen dute. Etxe komuna bitarteko bat baino askoz gehiago da, etxea da, ez bakarrik anai-arrebak dauden tokia, baizik eta haiek anai-arreba diren eta anai-arreba izateko lekua. Sororitateak planetarekin eta gainerako biztanleekin izan beharko genukeen harremanaren esparru egokian ere kokatzen gaitu.

Bizikidetzaz “sororal” horrek lekua uzten die askatasunari eta berdintasunari, baina aniztasuna ere txertatzen du, gainerako pertsonak bizikidetzan legitimotzat hartzea, indartu egiten du adostasuna gatazkak konpontzeko metodo gisa, eta arau malguak eta erregulatuak ezartzen ditu.

Ermandadeak, formula gisa, aukera ematen digu ondasun komunak hesitzeko prozesu historikoa iraultzeko, bai eta komuna dena kudeatzeko modu berriak berreskuratu edo asmatzeko aukera ere, denona dena ez baita inorena, eta inork, ez gizabanako batek, ez erakunde batek, ezin du bereganatu. Halaber, aukera ematen digu guztion ongiaren eta interes orokorraren arteko identifikazioa lehengoratzeko, eta horrek ahalbidetu egingo luke elementu eta lotura komunitarioak balioes- tea, itotzen gaituen indibidualismoari eta utilitarismoari aurre egiteko.

Beharrezko aldaketa horrek loturak birkokatu egiten ditu, gizarte-bazterkeria ulertzeko eta hari aurre egiteko zerbait esanguratsu bihurtze aldera. Gainera, adierazten digu aldaketa lortzeko subjektua gizarte osoa dela, eta hori nahitaez sartu behar dela, bereizi gabe, gizarte-bazterkeriaren testuinguruaren azterketan eta hari aurre egiteko ahaletan orotan.

Sarrera

2025ean, FOESSA Fundazioak bere 60. urteurrena betetzen du, mugarri garrantzitsua. 1965ean sortu zen, Espainiako Caritasen bultzadarekin, Espainiako gizarte-egoera modu zorrotz eta objektibo batez ezagutzeko helburuarekin.

Sei hamarkada horietan, FOESSA aitzindaria izan da ikerketa enpirikoan, eta nabarmendu egin da Espainiako egoerari eta aldaketa sozialari buruzko bere txostenen bidez. Txosten horietan, Espainiako bilakaera sozialean eragiten duten prozesuak, egiturak eta joerak aztertzearen garrantzia azpimarratzen da. Ahalegin hori finkatu da, eta, horren emaitza, bost txosten global egin dira **(1)**, eta, azkenaldian, bazterkeriari eta gizarte-garapenari buruzko hiru txosten ere bai **(2)**. Lehenengo txostenetik (1966; Espainiako modernizazio-prozesuaren hasiera aztertu zen) VIII. Txostenera arte (2018; Atzeraldi Handitik izandako irteera-prozesua aztertu zen), FOESSAk bere etengabeko konpromisoari eutsi dio gizarte-errealitatearen azterketan. Txostenen artean, izaera espezifiko monografia ugari ere argitaratu dira, ikerketa-tentsioa mantentzea ahalbidetu dutenak, gero eta konplexuagoa den mundu honetan. Duela gutxiago, 2022an, COVID-19aren harira, Espainiako gizarte-kohesioaren bilakaerari eta pandemiak eragindako gizarte-ondorioei buruzko txosten bat argitaratu zen.

Hasieratik, FOESSAk funtsezko hiru helburu lortzeko asmoa izan du. Lehenik eta behin, giza garapenaren ikuspegi ekonomizista gainditu nahi izan zuen, frankis-

(1) Lehenengo biak Amando de Miguelek zuzendu zituen; hirugarrena, Luis González Searak, Juan Díez Nicolásen hasierako koordinazioari berriro helduz; Juan José Linzek eta Francisco Murillok IV.eko bi liburukietako bana zuzendu zuten, eta Miguel Juárezek, berriz, V.a.

(2) Víctor Renesek zuzendu zuen VI.a, Francisco Lorenzok VII.a, eta Guillermo Fernándezek VII.a.

moko garapen-planen ikuspegi azterketa sozial alternatiboa eskainita. Horretarako, garapenari buruzko ikuspegia aberastuko zuten elementu politiko, psikosozial eta pedagogikoak txertatu zituen, ekonomia tradizionalak aintzat hartzen ez zituen alderdiak nabarmenduta. Bigarrenik, gizarte-adierazleen sistemak ezarri zituen, gizarte-egitura eta -arazoak ebaluatzeko. Hasieratik, fenomeno sozial eta politikoak neurtzeko interesa agertu zuen, ikerketa-teknika aurreratuek erabilita. Integrazioari eta gizarte-premiei buruzko inkesta (EINSFOESSA) erreferente bihurtu da Espainiako bazterkeriaren eta integrazioaren azterketan. Azkenik, hirugarren helburua errealtate sozialari eta eskubideen urraketei buruzko ezagutza enpirikoa sortzea izan da, guztion onerako diren politika publikoak eta esku-hartze sozialak errazten laguntzeko, zorrotasuna eta irudimen soziologikoa uztartuz. 2024an, FOESSAk berretsi egin du errealtatea aztertzeko eta gure gizartean eragina duten fenomenoak deskribatzeko konpromisoa. Horretarako, gizarte-bazterkeriaren neurketa eta azterketa multidimentsionalari ekin zaio berriro, EINSFOESSAren edizio berri baten bidez. Inkesta hori Espainiako Bazterkeriari eta Gizarte Garapenari buruzko IX. Txostenaren prestaketaren parte da. EINSFOESSA 2024 tresna honen seigarren edizioa da. 2007an diseinatu zen, gizarte-bazterkeria modu integralean kuantifikatzeko eta fenomeno konplexu horren azterketa sakona ahalbidetzeko.

Garrantzitsua da gogoraraztea gizarte-bazterkeriaren kontzeptua pobrezia ekonomikotik harago doala, eta zenbait taldek gizarte-bizitzan bete-betean parte hartzeko dituzten oztopoak biltzen dituela. Horren barruan sartzen dira enplegua eta oinarriko ondasunak, bai eta eskubide politiko eta sozialak eskuratzeko aukerak eta sare sozial osasungarrietan integratzeko aukerak ere. Gizarte-bazterkeria egiturazkoa, dimentsio anitzekoa eta dinamikoa dela jotzen da, eta talde horien parte-hartzea eta ongizatea hainbat eremutan mugatzen duten zailtasunak hartzen dira ardatz.

Gure gizarteetako kohesio sozialerako mugak identifikatzeko, adierazle-sistema konplexu bat erabili da. Hasieran, 35 adierazle hartzen ziren kontuan, eta 2021eko ediziotik aurrera, kopuru hori 37ra handitu da. Harrezkero, etengabe-ko hobekuntza-prozesu bat egin da adierazle horien definizio operatiboan eta agregazio-prozesuan, betiere edizio desberdinak alderatzeko modukoak izango direla ziurtatuta.

Edizio berri honetan, beraz, metatutako jakintza jasotzen da, eta bazterkeria-prozesuek Espainiako gizartean ia bi hamarkadatan izandako bilakaeraren ikuspegia eskaintzen da. Bi hamarkada horietan, gizarte-krisi sakon eta luze bat gertatu da, 2008ko finantza krisiaren eta krisiari aurre egiteko ezarritako politika

murritzailleen ondorioz. Krisi laburragoak ere izan dira, sakonak horiek ere, hala nola COVID-19aren pandemiak eta haren osteko inflazioak eragindakoak. Bestalde, susperraldiak izan dira, eta gehiago nabaritu dira adierazle makroekonomikoetan eta lan-adierazleetan, biztanleriaren bizi-baldintzetan baino.

Fundazioaren beste ekarpen esanguratsua bat lurralde-eta eskualde-garapenarekiko gero eta interes handiagoa izan da. 1995etik, FOESSAk gizarte-garapena eta -bazterkeria izan ditu ardatz, bai Espainian, bai autonomia-erkidegoetan, eta aurre egin beharreko gizarte-erronkak hobeto ulertzen lagundu du.

Inkestaren hirugarren jasoalditik aurrera (EINSFOESSA 2013), hamahiru autonomia-erkidegotan inklusioa/bazterkeria ardatzaren egoerari buruzko txostenak egiten hasi ziren. FOESSA VIII. Txostenarekin, hamazazpi autonomia-erkidegoei eta Bartzelonako elizbarrutiari buruzko txostenak egin ziren. 2021ean, pandemia bete-betean, 7.000 familia baino gehiagoko jendea elkarriketatu zen, eta hamaika lurralde-txosten egin ziren. Edizio horretan, mugarri berri bat ezarri zen, sendotasun estatistiko handiko inkesta egin baitzen: 12.289 familia-unitate sartu ziren inkestan, eta autonomia-erkidego eta hiri autonomo guztietan, Bartzelonako elizbarrutian, Eivissa uhartean eta Albaceteko udalerrian egin ziren. Hori dela eta, aukera izan da hogeita bi lurraldetako gizarte-egoeraren azterketa xehatua egiteko.


Ondorioz, dokumentu hau proiektu zabalago baten parte da, eta, hainbat txosten independenteren bidez, integrazioa/bazterkeria sozialaren ardatzak gure herrialdeko autonomia-erkidego eta hiri autonomo bakoitzean duen egoera aurkezteaz gain, lotura du FOESSAk Espainiako Bazterkeria eta Garapen Sozialari buruz egindako IX. txostenarekin. Lurralde-mailako txostenek ikuspegi deskribatzailea dute batik bat; IX. Txostenean, berriz, diagnostiko bat ematen da eta aurkeztutako datuak interpretatzeko beharrezko esparrua ezartzen da. Hori dela eta, lotura handia dago bi txostenen artean, eta biak batera irakurtzea gomendatzen da.

Txosten honetan, aukera izango dugu Euskadiko gizarte-kohesioaren eredua Espainiakoarekin alderatuta ikusteko. EINSFOESSA 2024tik aurrera, gizarte-integrazioaren bilakaera eta bazterkeria sozialeko prozesuek lurralde bakoitzean eragindako pertsonen ezaugarriak aztertu genituen, bai eta gizarte bakoitzaren kohesioan eta garapenean eragina izan dezaketen arrisku-elementu nagusiak ere (enplegua, etxebizitza, pobrezia, gizarte-babesa eta kapital soziala, besteak beste).

FOESSA Fundazioaren helburua da errealitate soziala azaltzea, ebidentzietan oinarritutako azterketa baten bidez. Hala ere, ezagutza berriak sortzeaz gain,

gizarte gisa aurrez aurre ditugun erronkei aurre egiteko moduari buruzko eztabaida zabaldu nahi dugu. Erronka ugari ditugu aurrean, arreta handia eskatzen dutenak, ez soilik gehiengoan ikuspegitik, baizik eta ikuspegi berezia jarrita zailtasun eta eskubideen urraketa handienak jasaten dituzten gizabanako, etxe eta lurraldeengan, askotan elkarri lotuta baitaude. Une hau erabakigarria da etorkizun inklusiboagoa eraikitzeko, bizikidetzaren berri bat birdiseinatzeko, guztion ongia oinarri izanda.

Asmo horrekin, gizartearekin eta politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-arloetako aldaketa-eragile guztiekin partekatzen dugu gure lana, errealitate bidezkoago baterantz aurrera egiteko itxaropenarekin. Dei egiten diegu administrazio publiko guztiei beren komunitateen ahotsak entzuteko, bai eta zentzuz ebaluatzeko eta erabakigarritasunez jarduteko ere. Herritarren parte-hartzeak estrategia ororen ardatza izan behar du, eta erabakiek tokian tokiko nahiak islatu eta eskubideak babestu behar dituzte. Kontua ez da soilik datuak biltzea eta diagnostikoak egitea, baizik eta elkarrizketa eraikitzailea sustatzea, pertsonen bizitza hobetzeko politika eraginkorrak sortzeko. Funtsezkoa da gobernuak aldaketa-eragile bihurtzea, identifikatutako arazoen arrazoi sakonei helduko dieten eta oinarritzko eskubideak betetzen direla bermatuko duten konponbideak ezarriz. Era berean, administrazioen eginkizunarekin modu kontziente eta zorrotzean jokatzeko duen herritartasuna indartzeko eskatzen dugu; bai herritar konprometituak izateko nor bere espazio komunitarioetan eta pertsonaletan, bai eta herritar arduratsuak izateko ere, elkartasunez eta anaitasunez jokatu behar denerako. Benetako eraldaketak benetako konpromiso iraunkorra eskatzen du, diagnostiko bakoitza etorkizun bidezkoago eta ekitatiboago baterako iparrratza izan dadin.



Laburpen exekutiboa

Edukia

1.	Gizarte-bazterkeria murrizten da, baina nabarmen handitzen dira gizarteratze prekarioko egoerak	24
2.	Politikaren eta herritartasunaren (parte-hartze politikoa, hezkuntza, etxebizitza eta osasuna) ardatzarekin lotutako bazterkeria da gehien handitzen ari dena, eta Euskadiko biztanleriaren % 38,5i eragiten dio	25
3.	Arazoak dimentsio bakar batean pilatzen dituzten pertsonen ehunekoak gora egin du, eta gizarte-bazterkeria hazten ari da parte-hartze politikoaren dimentsioan	26
4.	Parte-hartze politikorako oztopoak, atzeritar jatorrikoa izateagatik, eta gehiegizko etxebizitza-gastuak dira arazo ohikoenak EAEko biztanleen artean	27
5.	Gizarte-bazterkeriak gehien eragindako gizarte-taldeak: familia pobreak edo diru-sarrerarik gabekoak, eta lan bila dabilen norbait buru duten familiak	27
6.	Bazterkeria hazi egin da diru-sarrerarik gabeko familien, landa-eremuetako familien eta pobrezia ertaineko egoeran dauden familia-unitateen artean	28
7.	Enplegua suspertu egin da, batez ere immigrazioari esker, baina soldatak ez dira igo	29
8.	Pobrezia eta desberdintasuna murrizten ari dira eta diru-sarrerak bermatzeko sistemaren estaldura handitzen ari da	31
9.	Gora egin dute etxebizitza eskuratzeko zailtasunek eta etxebizitza desegokiko egoerek	32
10.	Euskadiko herritarrak gizarte-zerbitzuetarako gastua handitzearen eta zerbitzuon unibertsaltasuna sendotzearen alde daude	34
11.	Gatazka sozialarekin lotutako arazoak murriztu egin dira, baina isolamendu-egoerekin lotutakoek bere horretan jarraitzen dute, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen artean batik bat	36
12.	Gizarte-bazterkeriak eta prekarietateak osasun mentala hondatzen dute Euskadin, eta egiturazko erantzun integrala behar da horri aurre egiteko	37

Laburpen exekutiboa

Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainia osoan bezala, ondorio anibalenteak ageri dira COVID-19aren krisiaren ondoren izandako ekonomia-susperraldian. Krisi soziosanitarioaren osteko egoeraren bilakaera aztertzean –Euskadin, gizarte-egoera ahulean zeuden egoera txartzea eta larritasun handieneko bazterkeria-egoerek nabarmen okerrera egitea ekarri zuen–, susperraldia positiboa da, gizarte-bazterkeria larriaren eremua nabarmen murriztu baita. Hobe-kuntza horiek lausotu egiten dira, neurri batean, egungo egoera 2018ko egoera-rekin alderatzen denean; izan ere, Euskadiko gizarte-bazterkeria ez da hainbeste murriztu, eta, horren ordainetan, nabarmen handitu dira gizarteratze prekarioko egoerak, erabateko integrazioaren espazioaren atzerakada nabarmenaren kontura. Hala, nahiz eta hazkunde ekonomikoak eta krisi soziosanitarioari aurre egiteko hartutako politika ekonomiko eta sozialek krisi soziosanitarioaren ondorio kaltegarrienak arintzea ahalbidetu zuten, eta gizarteratze-mailak Euskadin Estatuko batez bestekoaren oso gainera egon arren, lurraldean prekarietatearen eremua nabarmen zabaltzen dela ikusten da. Ondorioz, gizarte-bazterkeriako maila oso kontuan hartzekoa da (%10etik gorakoa), eta, horrekin batera, gero eta ohikoagoa da integratutako EAEko biztanleek gizarte-bazterkeriako arazoak izatea eguneroko bizitzako hainbat eremutan, hala nola etxebizitzan, osasunean, enpleguan edo eskubide politikoak benetan gauzatzean. Horrek, zalantzarik gabe, gutxitu egiten du gizarteak ezegonkortasun-egoerei aurre egiteko duen gaitasuna. Egoera horiek, hain zuzen, gure garaiko funtsezko ezaugarrietako bat dira.

Oinarritzko lehen diagnostiko horretatik abiatuta, jarraian laburbiltzen dira Euskadiko 2024ko Integrazio eta Gizarte Premiei buruzko Inkestatik atera daitezkeen ondorio nagusiak.

1. Gizarte-bazterkeria murrizten da, baina nabarmen handitzen dira gizarteratze prekarioko egoerak

FOESSA Fundazioaren Integrazioari eta Gizarte Premiei buruzko Inkestaren (aurrerantzean, EINSFOESSA) datuen arabera, 2024an, **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren erdia baino zertxobait gehiago (% 53,5) erabateko integrazioko egoeran zegoen; herena inguru (% 34,7), egoera prekarioan; % 7,9, gizarte-bazterkeria moderatuko egoeran, eta % 3,8, berriz, gizarte-bazterkeria larriko egoeran.** Horrek esan nahi du **259.000 pertsona inguru zeudela bazterkeriaren gizarte-eremuan**, eta pertsona horietatik 84.000 inguru egoera larrienean zeudela.

Konparazioz, **Euskadiko egoera Espainiako batez bestekoa baino positiboa goa da**; izan ere, integratutako biztanleria % 88,2 izanik –integrazioa erabatekoa edo prekarioa izan–, Euskadi zen integrazio-maila handieneko autonomia-erkidegoa Estatu osoan. Hala ere, datuek ez dute ezkututzen azken sei urteetan eremu horretan okerrera egin denik: gizarte-bazterkeriako arazorik ez duten pertsonen ehunekoa % 59,1etik (2018) % 53,5era (2024) jaitsi da, eta, aldi berean, gora egin du gizarteratze prekarioko egoeran dauden ehunekoa, % 27tik (2018) % 34,7ra (2024).

Nolanahi ere, esan daiteke **aldi horretan hobekuntza txiki bat egon dela gizarte-bazterkeriaren tasa globalean, ehuneko bi puntu baino gehiago murriztu baita 2018tik, 2024an % 11,8ra iritsi arte.** Beherakada txiki horrek eragin positiboa izan du gizarte-bazterkeria moderatuan eta larrian.

Egoera horri buruz egin daitekeen irakurketa nagusiaren arabera, **egoera one-nak nabarmen egin dute atzera, eta prekarietatea handiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen artean**; prekarietatearen espazioa handitu egin da, egungo testuinguruko egoera sozioekonomikoa ez baita nahikoa 2018an izandako ongizate-mailara iristeko. Dinamika hori, gainera, bat dator Estatu osoan ikusitakoarekin.

Hala ere, esan daiteke hazkunde ekonomikoak, krisi soziosanitarioaren ondorioak arintzeko hartutako neurriekin batera, **krisi horren ondorio kaltegarrienak arintzen lagundu duela; izan ere, oro har, gizarte-bazterkeriari dagokionez, gaur egungo egoera zertxobait hobea da 2018koa baino.** Hobekuntza hori, nolanahi ere, txikia da, eta ezin da ahaztu Euskadin biztanleriaren % 10 baino gehiago dagoela oraindik ere gizarte-bazterkeriako egoeran.

2. Politikaren eta herritartasunaren (parte-hartze politikoa, hezkuntza, etxebizitza eta osasuna) ardatzarekin lotutako bazterkeria da gehien handitzen ari dena, eta Euskadiko biztanleriaren % 38,5i eragiten dio

EINSFOESSAren metodologiak hiru ardatz nagusi bereizten ditu bazterkeriaren gizarte-eremuan: ardatz ekonomikoa, ardatz politikoa eta herritartasunarena, eta ardatz soziala eta harremanena. **Ardatz ekonomikoan**, enpleguaren eta kontsumoaren dimentsioak sartzen dira, hau da, lan-harreman normalizatuarekin eta pertsonen eta familiek gizartearen bete-betean parte hartzeko duten gaitasun ekonomikoarekin lotutako bazterkeria jorratzen da. Hor sartzen dira oinarritzotzat jotzen diren ondasunekiko gabezia-egoerak. **Ardatz politikoak eta herritartasunarenak** parte-hartze politikoaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren eta osasunaren dimentsioak biltzen ditu. Parte-hartze politikoari dagokionez, ordezkari politikoak hautatzeko eta hautatuak izateko eskubidea hartzen da kontuan, baita politikan eta herritar gisa parte-hartzerako benetako gaitasuna ere; herritartasunarekin zerikusia duten dimentsioetan, berriz, biztanleria osoak hezkuntza, etxebizitza eta osasuna antzeko baldintzetan eskuratzeko aukerak hartzen dira aintzat. Azkenik, bazterkeriaren arloan, **harremanen ardatzean**, funtsean, gatazka- eta isolamendu-egoerak hartzen dira kontuan. Egoera horietan sartzen dira, alde batetik, okerreko gizarte-harremanak eta gizarte- edo familia-gatazkako beste egoera batzuk, eta, bestetik, lotura eta babes sozialik eza.

Inkestaren datuen arabera, **EAEko biztanleen % 13,7k dituzte arazoak gizarte-bazterkeriako ardatz ekonomikoan; % 38,5ek, politikaren eta herritartasunaren ardatzean, eta % 6,3k, berriz, gizarte- eta harreman-ardatzetan**. Gizarte-bazterkeriak hiru ardatz horietako bakoitzean izan duen eraginaren bilakaera desberdina izan da EAEko testuinguruan: beherakada txikia izan da ardatz ekonomikoan, zertxobait handiagoa harreman-ardatzetan, eta, aitzitik, gizarte-bazterkeriaren eraginak gora egin du ardatz politikoan eta herritartasunarenean (% 5). Euskadiko biztanleriak parte-hartze politikoaren esparruan dituen zailtasunekin dago lotuta gorakada hori, batez ere. Zailtasun horiek, neurri handi batean, gizarte-bazterkeriako prozesuak atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean metatzeari egotzi behar zaizkio. Bestalde, Euskadiko egoera orokorra Espainiako baino positiboagoa da, gizarte-bazterkeriako tasak txikiagoak baitira aztertutako ardatz guztietan.

3. Arazoak dimentsio bakar batean pilatzen dituzten pertsonen ehunekoak gora egin du, eta gizarte-bazterkeria hazten ari da parte-hartze politikoaren dimentsioan.

Euskal biztanleriaren egoera EINSFOESSA inkestarako metodologian aintzat hartutako gizarte-bazterkeriako dimentsio desberdinetako arazoen arabera aztertzean, 2024an ikusten da **aztertutako zortzi dimentsioetako batean ere gizarte-bazterkeriako arazorik ez duen biztanleriaren portzentajea % 53,5ekoa dela, eta biztanleen % 3k, berriz, arazoak dituztela lau dimentsiotan edo gehiagotan**. Hainbat dimentsiotan arazoak pilatzeak -horrek gizarte-bazterkeriaren dimentsio anitzeko izaera erakusten du- askoz ere prebalentzia handiagoa du gizarte-egoera ahulagoan dauden biztanleen artean: Euskadin gizarte-bazterkeria larrian dauden pertsonen bi herenek 4 dimentsiotan edo gehiagotan dituzte arazoak.

Bilakaerari dagokionez, hauek dira identifikatzen diren aldaketa nagusiak: ezein dimentsiotan gizarte-bazterkeriako arazorik ez duten pertsonen ehunekoak behera egin du, eta dimentsio batean arazoak dituzten pertsonen ehunekoak nabarmen gora egin du. Neurri txikiagoan bada ere, eguneroko bizitzako hiru dimentsiotan edo gehiagotan arazoak dituzten pertsonen proportzioak ere behera egin du. Alde horretatik, 2018tik hona izan diren aldaketen ikuspegi orokor batek erakusten du biztanleria desabantaila-posizio ertain-altuetan kontzentratzeko joera dagoela; hau da, **arazoak dimentsio batean edo bitan dituzten pertsonak okupatutako espazioa zabalduta egin da**.

Bestalde, dimentsio horietako bakoitzaren gizarte-bazterkeriaren norainokoari erreparatuta, inkestaren emaitzek erakusten dute Euskadiko biztanleriak alderdi hauetan dituela gabezia-egoera handienak: parte-hartze politikoan (% 23), etxebizitzan (% 16,9), enpleguan (% 10,8) eta osasunean (% 9,2). Aztertutako zortzi dimentsioetatik zazpitan, Euskadik Espainiako gainerako lurraldeek baino egoera hobea du berriz ere, eta alde nabarmenak daude, bereziki, kontsumoaren, gatazka sozialaren, hezkuntzaren, osasunaren eta etxebizitzaren alorrean. Euskadin ez bezala, dimentsio horretan ditu zailtasunak pertsonen ehuneko handienak Estatu osoan (% 24,2).

Euskadin, 2018tik, parte-hartze politikoaren dimentsioan handitu da gehien gizarte-bazterkeria (% 10etik gora), Estatu osoan baino gehiago (Estatuan, % 6,6). Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren, osasunaren eta gatazka

sozialaren dimentsioetan hobekuntzak lortu eta mantendu dira. Alderdi horiek okerrera egin dute Estatuan. Kontsumoarekin lotutako gizarte-bazterkeriako arazoen intzidentzia ere nabarmen hobetu da Euskal Autonomia Erkidegoan; izan ere, 2018. urtean, biztanleriaren % 10i eragiten zioten horrelako arazoek, eta 2024an, berriz, % 4,9ri. Estatu osoan hobekuntza izan bada ere, Euskadin baino txikiagoa da.

4. Parte-hartze politikorako oztopoak, atzerritar jatorrikoa izateagatik, eta gehiegizko etxebizitza-gastuak dira arazo ohikoenak EAEko biztanleen artean

Aipatu berri diren dimentsioez gain, EINSFOESSAk aukera ematen du biztanleriari eta familiei eragiten dieten gizarte-bazterkeriako arazo zehatzagoen eragitan sakontzeko, bizitzarako zortzi dimentsio horiek osatzen dituzten 37 adierazle espezifiko bidez.

Inkestaren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen artean arazo ohikoenak (% 10etik gorako prebalentzia dute) hiru dira: **parte-hartze politikoa izateko arazoak, (% 13), erabaki kolektiboak hartzeko benetako gaitasunik eza (% 11,3) eta gehiegizko etxebizitza-gastuak (biztanleriaren % 11,3ri eragiten diote, eta EAEko familien % 12,9ri)**. Horrela, euskal gizartean ikusten diren parte-hartze politikorako mugekin batera, biztanleriak etxebizitza arazoizko prezioan eskuratzeko ahalmenarekin lotzen da gabezia-egoera ohikoa.

Nolanahi ere, adierazi behar da gizarte-bazterkeriaren zortzi dimentsioak osatzen dituzten 37 adierazleetatik, gehienak (21) EAEko biztanleriaren % 2ri baino gutxiagori eragiten diotela, eta horietatik 15ek % 1i baino gutxiagori eragiten diotela.

5. Gizarte-bazterkeriak gehien eragindako gizarte-taldeak: familia pobreak edo diru-sarrerarik gabekoak, eta lan bila dabilen norbait buru duten familiak

Aztertzen ari garen gizarte-bazterkeriako prozesuak ez dira halabeharrez banatzen biztanle guztien artean; aitzitik, gure gizarte-egiturarekin eta aldagai soziodemografiko eta sozioekonomiko zehatz batzuekin lotura handia du.

ten dinamikak daude prozesu horien atzean. EINSFOESSAren metodologiak integrazio- eta bazterkeria-egoerak aztertzei aukera ematen du, pertsonen eta familien ezaugarri soziodemografikoak abiapuntutzat hartuta, bai eta familia-unitatearen sostengatzaile nagusiaren ezaugarri espezifikoak abiapuntutzat hartuta ere.

Horretan oinarrituta, edizio honetako emaitzek agerian uzten dute **Euskadin gizarte-bazterkeriaren eragin handiena pairatzen duten gizarte-taldeak pobrezia larriko egoeran dauden familiak direla** -ia familia horiek guztiak gizarte-bazterkeriako egoeran daude-, **baita inolako diru-sarrerarik ez dutenak ere (% 92,3)**. Maila txikiagoekin, baina, nolana ere, oso handiekin, honako hauek daude: sostengatzaile nagusia lan bila duten familiak (% 78,2); pobrezia-egoera ez-larrienean bizi diren familiak (% 66,9); atzerriko nazionalitateko pertsona bat buru duten familiak (% 42,9) eta atzerriko nazionalitatea duten pertsona guztiak (% 40,7). Beste muturrean, gizarte-bazterkeriaren eragina bereziki txikia da seme-alabarik gabeko bikoteen artean, pobrezia-egoeran ez dauden familien artean, eta goi-mailako ikasketak dituen pertsona bat edo erretirodun edo pentsiodun bat buru duten familien artean.

Datu horiei esker, ondoriozta daiteke -azterketa zehatzagoak alde batera utzita- Euskadiko egungo testuinguruan gizarte-bazterkeria **gabekia materialarekin eta horren inguruko faktoreekin lotzen dela nagusiki**: pobrezia (larria edo moderatua) eragindako gizarte-taldeek, diru-sarrerarik ez dutenek eta lan bila ari den norbait buru duten familietan bizi diren pertsonen gizarte-bazterkeriako tasa bereziki altuei aurre egiten diete. **Atzeritar izatea** ere funtsezko elementua da Euskadiko gizarte-bazterkerian.

6. Bazterkeria hazi egin da diru-sarrerarik gabeko familien, landa-eremuetako familien eta pobrezia ertaineko egoeran dauden familia-unitateen artean

Denbora-ikuspegia hartuta, 2024ko EINSFOESSAren emaitzek agerian uzten dute azken sei urteetan gizarte-bazterkeriaren eragina nabarmen handitu dela inolako diru-sarrerarik gabeko familien artean (% 68,1etik % 92,3ra, nahiz eta zehaztu daitekeen familia horiek biztanleriaren % 1 bakarrik direla), landa-eremuko familien artean (% 9,3tik % 27,1era) eta pobrezia moderatuko egoeran dauden artean (% 54,8tik % 66,9ra). Igoerak izan dira, halaber, ikasketarik gabeko edo hezkuntza-maila baxuko pertsonak buru dituzten familia-unitateen artean,

pobrezia larriko egoeran dauden familia-unitateen artean, pertsona bakarreko familia-unitateen artean eta asistentziazko diru-sarrerak soilik jasotzen dituzten familia-unitateen artean.

Aitzitik, hobekuntza nagusiak gizarte-bazterkeriako tasa handiak dituzten biztanleria-taldeen artean izan dira: atzerritar jatorriko norbait buru duten familia-unitateen artean (gizarte-bazterketaren intzidentzia 17,2 puntu murriztu da), guraso bakarreko familia-unitateen artean (-15,7 puntu) eta bi adingabe edo gehiago dituzten familia-unitateen artean (-12,7 puntu).

7. Enplegua suspertu egin da, batez ere immigrazioari esker, baina soldatak ez dira igo

Azken sei urte hauetan, lan-merkatuak dinamismo handia izan du, neurri handi batean COVID-19aren pandemiak ekarri zuen inflexio-puntuaren ondorioz, une hartan gertatzen ari zen susperraldia eten baitzuen. 2022tik aurrera, eta pandemia gaundituta, lan-merkatuaren hobekuntza orokorra gertatu da, okupazioak gora egin baitu eta behin-behinekotasuna murriztu egin baita. Hori, zalantzarik gabe, inklusioaren dinamiketan azkenaldian izandako hobekuntzaren gakoetako bat izan da.

Euskadin, lan-merkatuan, enplegu berri asko sortu dira 2018tik, eta kopuru horrek argi samar gaunditu du COVID-19aren krisia hasi aurretik erregistratuta zeuden pertsona landunen kopurua. Hori dela eta, langabezia-tasek behera egin dute. Urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoa kontuan hartuta, **2019tik 2024ra, 42.000 enplegu inguru sortu dira Euskadin (zenbateko garbia)**. Hala eta guztiz ere, ElNen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak kontuan hartuta, azpimarratu behar da Euskadiko okupazioaren hazkundera (% 7) Espainiakoa (% 12) baino txikiagoa izan dela, eta zerbitzuen sektorean gertatu dela batik bat. Era berean, funtsezkoa da azpimarratzea **Euskadiko landunen kopuruaren igoera horren % 80 atzerrian jaiotako pertsonak Euskadiko lan-merkatuan sartzeagatik gertatu dela**.

Susperraldi ekonomikoak, aldi horretan enpleguan izan den gorakada garrantzitsuarekin batera, ez du ekarri soldaten hazkunde errealik. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2018 eta 2023 artean, hileko batez besteko soldata gordina % 17,1 igo zen Euskadin. Gorakada hori Espainian izandakoaren (% 16,9) antzekoa izan zen. Igoera horretan, hala ere, ñabardurak daude; izan ere, aldi

horretako inflazioa kontuan hartuz gero -KPlak hazkunde moderatua izan zuen 2018 eta 2020 artean, eta handia, berriz, 2021etik aurrera-, euro konstantee-tan, igoera oso txikia izan da, bai Euskadin (% 0,6), bai Espainiako Estatu osoan (% 0,7) **(3)**.

EINSFOESSAren emaitzek agerian uzten dute 2024an enpleguarekin lotutako gizarte-bazterkeriako egoerek Euskadiko familien % 11,3ri eta biztanleriaren % 10,8ri eragiten dietela. Enpleguaren eremuan gizarte-bazterkeriako egoeren intzidentzia 2021az geroztik nabarmen murriztearekin batera (hamaika puntu baino gehiago), Euskadin eragin txikiagoa dute dimentsio horrekin lotutako bazterkeria-arazoei Estatu osoan baino.

Hobekuntzak hobekuntza, enpleguaren arloko egungo bazterkeria-tasak 2018ko tasen antzekoak dira -edo zertxobait handiagoak-, COVID-19aren krisiaren aurrekoak (garai horretan, 2008an hasitako finantza-krisi luzearen osteko susperraldia gauzatu zegoen). Izan ere, bilakaera okerragoa izan da, 2024ko egoera 2018ko egoerarekin alderatzen bada, batez ere gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateen artean. Dimentsio horretan sartutako sei adierazleetatik, Euskadin gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateek ehuneko lau puntuko baino gehiagoko igoera izan dute horietako bostetan. Sei urte hauetan, kolektibo horretan bereziki handitu da laneko ezegonkortasun larriko egoeran dauden familia-unitateen ehunekoa. Hala eta guztiz ere, enpleguko bazterkeriaren adierazlean kontuan hartzen diren arazoetako batzuk murriztu egin dira aldi horretan biztanleria-talde horretan (bazterkeriako enpleguak dituzten familia-unitateen ehunekoa eta pertsona aktibo guztiak langabezia dituzten familia-unitateen ehunekoa), lan-merkatuaren hobekuntza orokorrarekin bat.

Oro har, Estatuko familiekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko familia-unitateen egoera -bai 2024. urtean, bai aztertutako urte guztietan- hobe da aztertutako ia problematika guztietan. Aldeak oso handiak ez badira ere,

(3) Euro konstanteak ondasun edo zerbitzu batek une jakin batean benetan zer balio duen jakiteko neurria dira, edozein inflazio-prozesuren (edo deflazio-prozesuren) ondorioz prezioek izandako igoera (edo jaitsiera) kontuan hartu gabe. Euro korranteek, aldiz, inflazioaren eragina kontuan hartzen dute. Esate baterako, aldi jakin batean batez besteko soldata % 8 igo bada -demagun 1.000tik 1.080ra igo dela-, baina aldi horretako inflazioa % 5 izan bada, batez besteko soldata % 8 handitu dela esango genuke euro korrantei dagokienez -1.000 eurotik 1.080 eurora arteko hazkunde portzentuala da-, baina % 2,86ko igoera euro konstanteei dagokienez -edo, bestela esanda, 1.050 eurotik 1.080 eurora arteko hazkunda-.

enpleguaren dimentsioan, bazterkeria-arazo ia guztien prebalentzia txikiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainiako gainerako lurraldeetan baino.

8. Pobrezia eta desberdintasuna murrizten ari dira eta diru-sarrerak bermatzeko sistemaren estaldura handitzen ari da

Pobrezia monetarioaren arriskuari dagokionez, EAEko biztanleriaren egoera nabarmen aldatu da 2021etik –EINSFOESSAren aurreko edizioaren urtea– 2024ra bitartean. Lan-merkatuaren bilakaera positiboarekin batera, Euskadin funtsezko aldaketa gertatu da diru-sarrerak bermatzeko politiken definizioan, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGDS) finkatzearekin eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) berritzearekin batera. Izan ere, aldaketa garrantzitsuak egin dira zenbatekoetan, eskuratzeko baldintzetan eta bi prestazioen arteko batera-garritasunean. Beste faktore batzuekin batera, faktore horiek eragina izan dute Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia- eta desberdintasun-tasen bilakaeran, bai eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren norainokoan eta eraginean ere.

Estatu osoan bezala, pobrezia-egoerak murriztu egin dira Euskadin 2020tik 2022ra bitartean: aldi horretan, pobrezia-arriskuaren tasa % 17,8tik % 16,5era jaitsi zen, eta pobrezia larriaren tasa, berriz, % 6,1etik % 4,9ra. Pobreziaren adierazleetan izandako hobekuntza horrekin batera, diru-sarreraren desberdintasuna neurtzen duten adierazleen bilakaera positiboa ere izan da; izan ere, Giniren indizea 28,2tik 26,9ra murriztu zen 2020 eta 2022 artean, eta S80/S20 erlazioa, berriz, 4,4tik 4,3ra. Aipatzekoa da Euskadiko pobrezia ekonomikoa eta desberdintasuna neurtzen duten adierazleak nabarmen txikiagoak direla Espainia osoan urte berberetan izandakoak baino.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2020tik 2022ra bitarteko aldiko bilakaera positibo horren ostean, adierazle batzuek egoera okertu dela adierazten dute. EINek bizi-baldintzei buruz egindako inkestako datuen arabera, 2018tik 2024ra bitartean, apur bat igo da gabezia material eta sozial larriaren tasa Euskadin, biztanleriaren % 4,3tik % 4,6ra. Horrela, 2024ko datuen arabera, EAEko biztanleen % 22,5ek ez dute ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasunik, % 17,7k ezin dira urtean gutxienez astebetez oporretan joan, % 16,3k ezin dituzte hondatutako altzariak edo altzari zaharrak aldatu, eta % 12k ezin dute etxebizitza tenperatura egokian mantendu.

Adierazi den bezala, azkenaldian garrantzi handiko aldaketak gertatu dira Euskadiko diru-sarrerak bermatzeko sisteman, eta eragin handia izan dute prestazio horien estaldurari eta eraginari dagokienez. Laburbilduz, BGDSa onartu denez, Euskal Autonomia Erkidegoa gutxieneko errentak jasotzen dituzten pertsonen kopurua handitu duten erkidegoetako bat da, eta, neurri batean, Estatuko prestazioa diru-sarrerak bermatzeko eredu bateratu batean sartu dutenetako bat ere.

Alde horretatik, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan pobrezia larrian dauden pertsonen % 69,3 izango lirateke BGDSaren modalitatearen bateko onuradunak. Espainiako estatuan, berriz, portzentaje hori % 51ekoa da. BGDSaren estaldura nabarmen hobetu da Euskadin azken hiru urte hauetan; izan ere, pobrezia larrian zegoen biztanleriari dagokionez, prestazio horren estaldura-tasa % 29,1ekoa zen 2021ean. Estatu osoan ere, nabarmen handitu da benetako pobrezia-egoeran egon eta prestazio hori jasotzen duten pertsonen ehunekoa.

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren estaldura eta eragina orokorra aztertzean, BGDSaren eta DSBEaren baterako estalduraren bidez, datuek agerian uzten dute EAEko familien % 7,7k hiru modalitate posibleetako edozein eskuratzeko dutela: EAEko familien % 4,6k DSBEda bakarrik jasotzen dute; % 1,5ek, BGDSa soilik; eta % 1,5ek bi prestazioak jasotzen dituzte. Azterketa horrek, halaber, agerian uzten du 2023an ustez benetako pobrezia-egoeran dauden biztanleen % 97,8k gutxienez bi prestazio horietako baten babes zutela. Bi dira estaldura handi horren arrazoiak: alde batetik, BGDSak estaldura-tasa handia du Euskadin benetako pobrezia-egoeran dauden biztanleekiko (% 33,2ra iristen da; Espainia osoan, berriz, % 14,0koa da). Bestetik, DSBEaren estaldura ere handiagoa da Euskadin benetako pobrezia-egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, kolektibo horren % 64,6ra iristen baita. Espainia osoan, berriz, gainerako gutxieneko errenten estaldura % 6,5ekoa da. Laburbilduz, Euskadi nabarmen-tzen da, batetik, bi prestazioen estaldura handiagoa delako -batera edo banaka hartuta-, eta, bestetik, autonomia-erkidegoko errentak pisu erlatibo handiagoa duelako prestazioen sistema autonomikoan/estatalean.

9. Gora egin dute etxebizitza eskuratzeko zailtasunek eta etxebizitza desagokiko egoerek

Etxebizitza arrazoizko prezioetan eskuratzeko arazo larria bihurtu da Estatu osoan, etxebizitzaren prezioa -dela erosteko, dela alokatzeko- familia-errentak

baino erritmo biziagoan igo delako, eskaintza mugatuko eta higiezinaren arloko espekulazioko testuinguru baten barruan. Etxebizitza lortzearekin lotutako arazoezko kezka areagotu egin da herritarren artean azken urteotan Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Kezka hori oso justifikatuta dago, etxebizitza duin eta egokia izatea gizarteratzeko oinarritzko baldintzetako bat dela kontuan hartzen bada.

Hain zuzen ere, etxebizitzaren garestitasunaren arazoa lehen mailako arazoa da euskal testuinguruan; alokairuko etxebizitzaren eskuragarritasun txikiaren arazoa nabarmendu behar da, hori baita etxebizitza eskuratzeko modalitate ohikoena Euskadin gizarte-bazterkeriako egoeran edo pobrezia-arriskuan dauden biztanleen artean. EAEko biztanleen % 16,6 bizi dira alokatutako etxebizitzetan, baina ehuneko hori % 52,4ra iristen da pobrezia-arriskuan dauden pertsonen kasuan. Gainera, arrakala hori Estatukoa baino askoz handiagoa da. Izan ere, edukitza-erregimena oso lotuta dago pobrezia-arriskuarekin lurralde honetan: pobrezia-arriskuak jabetza-erregimenean bizi diren pertsonen % 5,0ri soilik eragiten dio, baina portzentaje hori % 29,8ra igotzen da, alokairu-erregimenean daudenak kontuan hartzen baditugu -egoera horien portzentaje orokorra % 9,4koa izan zen Euskadin 2024an-.

Adierazi den bezala, 2024ko EINSFOESSAren emaitzek agerian uzten dute Euskadin biztanleriaren ia % 16,9 eta familien % 16,1 gizarte-bazterkeriako arazoren bat dutela etxebizitzaren dimentsioan. Bi kasuetan, tasa horiek Espainiako estatukoak baino txikiagoak dira; izan ere, Estatuan familia-unitateen % 22,4 eta biztanleen % 24,2 daude egoera horien eraginpean. Dimentsio horri dagokionez, gabezia-egoerarik ohikoenak gehiegizko etxebizitza-gastuak dira, alde handiz, EAEko familia-unitateen % 12,9ri eragiten baitiote. Espero zitekeen, egoera larri horien intzidentzia askoz ere zabalduago dago gizarte-egoera ahulagoan dauden familia-unitateen artean: gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateen erdiak baino gehiagok gehiegizko etxebizitza-gastuei aurre egin behar diete.

Era berean, egoera horien bilakaerak nolabaiteko aldeak erakusten ditu biztanleriaren gizarteratze-mailaren arabera. 2018-2024 aldian biztanleria osoarentzako adierazle gehienek egonkortasun nabarmena erakutsi arren, ondorioak kezkarriagoak dira azterketa gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateen artean izandako aldaketei erreparatzen zaienean. Kasu horretan, ia adierazle guztiek gorakada handia izan dute. Oro har, gorakada hori pixkanakakoa eta etengabea izan da. Salbuespen esanguratsuena gehiegizko etxebizitza-gastuak

neurtzen dituen adierazleari dagokio, behera egin baitu argi eta garbi gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateen artean.

EINSFOESSAk aukera ematen du, halaber, bizitegi-bazterkeriako egoerak eta, zehazkiago, etxebizitzaren arloko egoera ez-seguruak edo desegokiak pairatzen dituzten biztanleen ehunekoa aztertzeko. Hala, EAEko biztanleen % 1,9 bizitegi-egoera ez-seguruan daude, eta % 9,9, berriz, etxebizitza desegokiko egoeran. Horrek esan nahi du Euskadiko biztanleen % 11,3k -250.000 pertsona inguru-egoera horietakoren bat pairatzen dutela.

Bilakaerari dagokionez, biztanleria osoa kontuan hartuta, ikusten diren joerak nolabait kontraesankorrak dira. Espainian bi egoera-mota horiek pixkanaka gora egin duten arren, bizitegi-egoera ez-seguruak etengabe murriztu dira Euskal Autonomia Erkidegoan 2018tik 2024ra bitartean, eta etxebizitza desegokiko egoerek, berriz, gora egin dute pixkanaka eta etengabe, % 7,2tik (2018) % 9,9ra (2024).

10. Euskadiko herritarrak gizarte-zerbitzuetarako gastua handitzearen eta zerbitzuon unibertsaltasuna sendotzearen alde daude

Euskadin, gizarte-zerbitzuak eskuratzeko aukera eskubide unibertsal gisa aitortuta dago mendekotasunarekin, desgaitasunarekin, gaixotasun mentalarekin, indarkeria matxistarekin, babesgabetasunarekin edo gizarte-bazterketarekin lotutako premiak dituzten pertsona guztientzat. Izaera unibertsal hori izan arren, ezin da esan Euskadin gizarte-zerbitzuak eskuratzea maioritarioa denik. EINSFOESSAren 2024ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren % 10,8 azken urtean gizarte-zerbitzuetara laguntza bila joan diren familia-unitateetan bizi da. Zehatzago esanda, biztanleriaren % 10,7 gizarte-zerbitzu publikoetara jo duten familietan bizi da; % 1,3, Caritasen zerbitzuetara jo duten familietan; eta % 1, berriz, beste erakunde batzuetara jo duten familietan. Bilakaerari dagokionez, 2013tik 2024ra bitarteko aldia kontuan hartuta, esan daiteke gizarte-zerbitzuei laguntza eskatu dieten familietako pertsonen ehunekoa jaisten ari dela, 2021ean izandako gorakada kontuan hartuta ere (COVID-19aren krisiaren ondorioak eragin handia zuten oraindik ere).

EINSFOESSAk ere argi uzten du gizarte-bazterkeriako egoeran dauden Euskal Autonomia Erkidegoko familiek gehiago jotzen dutela gizarte-zerbitzuetara:

familia-unitate horien % 50,3k eskuratu dute zerbitzu horietakoren bat 2024. urtean; integrazio-egoeran dauden familia-unitateetako pertsonen % 5,6k jo dute gizarte-zerbitzuetara. Espainiarekin alderatuta, hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoko egoeraren ezaugarriak: gizarte-bazterkeriako egoeran daudenek gehiago jotzen dute gizarte-zerbitzuetara, eta integrazio-egoeran daudenek, berriaz, gutxiago.

Era berean, behar ekonomikoa izanez gero zer erakunde-motara joko luketen galdetuta, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek gizarte-zerbitzu publikoak hobesteko joera argia erakusten dute (% 90,1), Estatu osoan ikusten dena baino askoz handiagoa (% 68,4). Aitzitik, irabazi-asmorik gabeko erakundeetara –kasu gehienetan Caritasera– joko luketen pertsonen proportzioa askoz ere txikiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan (% 5,6 Euskadin, eta % 22,7 Espainian), baita aipatutako sare horietan laguntza eskatuko ez luketen pertsonen ehunekoa ere (% 8,0 Espainian, eta % 3,6 Euskadin). Gizarte-zerbitzu publikoei laguntza ekonomikoa eskatzeko prestasun horrek –jada handia zen 2018. urtean– gora egin du pixkanaka eta etengabe, biztanleriaren % 75,4tik (2018an) % 90,1era (2024an).

Inkestan, halaber, hautematen da Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen artean aldeko joera nabarmena dagoela gastu handiagoa bideratzeko gizarte-zerbitzuak finantzatzeko, bai eta presio fiskala areagotzearen aldeko joera ere, zerbitzu horien finantzaketa jasangarria izan dadin: EAEko biztanleen % 81,7k uste du administrazio publikoek gaur egun baino diru gehiago bideratu behar-ko luketela gizarte-zerbitzuetara, eta biztanleen % 87,3 zerbitzu eta prestazio gehiago izatearen aldekoa da, zerga gehiago ordainduta. EAEko herritarrek gizarte-zerbitzuetarako gastuari eta finantzaketari buruz duten pertzepzio horrek gora egin du azken urteotan, eta hori ez dator bat Espainia osoan izan duen beherakadarekin.

Ongizate-estatuaren esparruan garatzen diren gizarte-politikek izan behar duten unibertsaltasun- edo fokalizazio-mailari buruz galdetuta, euskal testuinguruan inkestatutako pertsona gehienek unibertsaltasunaren alde egiten dute (% 60tik gora, eta kasu batzuetan, % 80ra ere iristen da). Unibertsaltasunaren aldeko babes hori –azkeneko sei urteetan, nabarmen areagotu da unibertsaltasuna– handiagoa da Euskadin Espainia osoan baino.

11. Gatazka sozialarekin lotutako arazoak murriztu egin dira, baina isolamendu-egoerekin lotutakoek bere horretan jarraitzen dute, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen artean batik bat

EINSFOESSAren 2021eko edizioan jasota geratu zen zenbateraino tenkatu eta higatu zuen COVID-19aren krisiak, 2018ko egoerarekin alderatuta, familiako pertsonen arteko harremanen kalitatea, bai eta haien ingurunearekin zituzten harremanen kalitatea ere. Oraingo edizioari dagozkion emaitzek, ordea, erakusten dute harreman horiek berreskuratzen ari direla, aztertutako gai batzuetan behintzat.

Harremanen ardatza osatzen duten arazoen multzoari dagokionez, 2024ko emaitzek erakusten dute Euskadin arazo horiek nabarmen jaitsi direla 2021eko emaitzekin alderatuta; izan ere, ardatz horretan bazterkeriaren eraginpean dauden euskal familia-unitateen ehunekoa jaitsi egin da % 10,1etik (2018) % 7,6ra (2024). Estatu osoan ere gizarte-bazterkeriako egoerek harreman-ardatzean duten eragina murriztu da, baina 2024an egoera horiek eragindako pertsonen ehunekoa 2018an, COVID-19ak eragindako krisia baino lehen, erregistratzen zenaren gainetik dago oraindik.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko familia-unitateek ardatz horretan izandako bilakaera positiboa zehaztu egin behar da; izan ere, ardatz hori osatzen duten bi dimentsioetatik, gatazka sozialarekin lotutakoa da argi eta garbi behera egiten duen bakarra: 2018. urtean, familia-unitateen % 4,8ri eragiten zien, eta 2024an, berriz, % 2,8ri. Isolamendu sozialaren dimentsioa, aldiz, zertxobait murriztu egin da 2021etik 2024ra bitartean, % 6,5etik % 5,9ra, baina 2018an erregistratutako balioen gainetik mantentzen da, orduan familien % 5,3ri eragiten baitzien.

Harremanen ardatzaren barruan aztertzen diren bi dimentsioen artean ikusitako joera desorekatua dela eta, modu bereizian hartu behar dira kontuan haien eragina aztertzean, gizarte-bazterkeriako egoeran eta gizarte-integratioko egoeran dauden familia-unitateen egoera kontuan hartzen denean. Horrela, bada, lehenik eta behin gizarte-gatazkako egoerei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan ikusten da pixkanaka behera egin duela bai gizarte-integratioko egoeran dauden familia-unitateetan, bai gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateetan.

Gizarte-isolamenduaren kasuan, aldiz, bilakaera desberdina da Euskal Autonomia Erkidegoan: integrazio-egoeran dauden pertsonen kasuan, pixkanaka eta etengabe murriztu da gizarte-isolamendua 2018tik 2024ra; hala ere, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen kasuan, igoera gertatzen ari da, txikia 2021eko egoerarekin alderatuz gero, baina oso nabarmena 2018koarekin alderatuta. Denbora-tarte horretan, gizarte-isolamenduaren dimentsioari dagokionez, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen ehunekoa % 2,4tik % 15,3ra igo da.

Denbora aurrera joan ahala pandemiaren ondorioak gero eta lausoagoak dira, baina, hala ere, haren ondorioetako batzuk oraindik dira. 2024ko EINSFOESSAk emandako datuek agerian uzten dute Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 14,0rentzat harreman hurbilenak okertu edo ahuldu egin direla pandemiaren aurretik zituztenekin alderatuz gero. Antzeko portzentaje batek uste du sendotu egin direla, eta biztanleriaren multzo handienak -% 71,7- uste du mantendu egin direla.

EINSFOESSA inkestan diskriminazioaren gaia ere aztertzen da, hau da, pertsona edo pertsona-talde bati talde jakin bateko kide izateagatik edo ezaugarri espezifiko jakin batzuk izateagatik (arrazaz- edo etnia-jatorria, gizarte-maila, generoa, desgaitasuna edo sexu-identitatea) tratu desberdina edo zuzenean kaltegarria ematea.

Euskal Autonomia Erkidegoko familiei galdetu zaie ea jakin al duten beren familiako kideren bat inoiz diskriminatuta sentitu den arrazoiren batengatik, eta 2024. urterako lortutako emaitzek erakusten dute familia-unitateen % 22k adierazi dutela diskriminazioaren bat jasan dutela, eta ehuneko hori % 33,7ra igo zen da gizarte-bazterkeriako egoeran dauden Euskadiko familia-unitateen kasuan. Familia-unitate horiei dagokienez, honako hauek dira bi diskriminazio-mota ohikoak: arrazaz- edo etnia-jatorriagatikoa (% 22,5) eta emakume izateagatikoa (% 10,6).

12. Gizarte-bazterkeriak eta prekarietateak osasun mentala hondatzen dute Euskadin, eta egiturazko erantzun integrala behar da horri aurre egiteko

8. kapituluari, zehatz-mehatz aztertzen da Euskadiko osasun mentalaren, gizarte-bazterkeriaren eta prekarietatearen arteko lotura, eta problematika hori

egungo eraldaketa sozial, kultural eta ekonomikoen esparruaren testuinguruan kokatzen da.

Ardatz nagusietako bat da osasun mentalari buruzko modelo biologizistaren kritika. Horren orde, ikuspegi estruktural eta multifaktorial baten alde egiten da. COVID-19aren pandemiak agerian utzi zuen ongizate emozionalaren determinatzaile sozialak eta kulturalak kontuan hartu behar zirela. Ziurgabetasuna, balioren fragmentazioa, lotura komunitarioen ahultasuna eta bizi-baldintzen prekarizazioa nagusi diren gizarteetan, antsietatea, depresioa eta beste nahasmendu mental batzuk areagotzen dira, batez ere gazteen, etorkinen, LGTB komunitatekoen, emakumeen eta pobrezia-egoeran dauden pertsonen artean.

Nabarmentzen da kapitalismo berantiarraren dinamikek kalitatezko enpleguaren bermea hondatu egin dutela, lan-merkatu prekarizatu eta ezegonkorra nagusi baita kapitalismo-eredu horretan. Laneko segurtasunik eza -bereziki gazteen, emakumeen eta langile migratzaileen artean- identifikatzen da osasun mentalaren narriadura eragiten duen funtsezko faktore gisa. Egoera horrek estres kronikoa, autoestimu txikiagoa, gizarte-isolamendua eta bizitza-proiektu autonomo eta egonkor bat garatzeko zailtasunak dakartza.

EINSFOESSA 2024 inkestak erakusten du bazterkeriaren prebalentzia txikia dela osasunaren dimentsioan (% 9,2) Estatu osoarekin alderatuta (% 14,8), eta 2018tik hobera egin duela. Hala eta guztiz ere, adierazle larrienek -gosea, sendagaiak eskuratzeko ezintasuna, gaixotasun larrietarako laguntza medikorik ez izatea- eragin nabarmena dute oraindik ere bazterkeria moderatu edo larrian dauden biztanleengan, bai eta gizarteratze prekarioko egoeran bizi direnengan ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, osasun fisiko eta mentaleko egoeraren balorazio subjektiboa positiboa da gehienbat, baina narriadura progresiboa nabaritzen da bazterkeria-testuinguruetan. Osasun mentala hondatuago ageri da integrazio prekarioko eta bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonengan. 2024ko gogo-aldartearen hobekuntza orokorra ez dator bat pandemiaren ondoren izandako ondorio negatiboekin, nahiz eta oraindik ere ondoez handia dagoen biztanleria-talde ahulenetan.

Gizarte-bazterkeria eta osasun mentaleko arazoak elkar elikatzen direla ere egiaztatzen da: bazterkeria jasaten dutenek nahasmendu psikologikoak gara-

tzeko probabilitate gehiago dituzte, eta horiek, aldi berean, areagotu egiten dute haien marjinazioa. Arreta psikologikoa ezin eskuratzek –oztopo ekonomiko edo instituzionalen ondorioz– ziklo hori betikotu egiten du.

Azkenik, azpimarratzen da osasun-arreta eta estrategia sozial inklusiboak uztartzen dituzten politika publiko integralak behar direla; halaber, osasun mentalaren inguruko kultura sustatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko bazterkeriaren eta prekarietatearen egiturazko dimentsioak integratuko dituenak. Izan ere, arlo horretan, aurrerapen batzuk lortu diren arren, gizarte-sektore handien ongizate emozionalean eragin zuzena duten desberdintasunak daude oraindik ere.



blokea

Gizarteratzea eta gizarte-bazterkeriak eragindako pertsonen ezaugarriak Euskadin

Edukia

1. kapitulua. Gizarteratzea eta gizarte-bazterkeria Euskadin	43
2. kapitulua. Gizarte-bazterkeriaren eragin desberdina Euskadin	79

1. kapitulua

Gizarteratzea eta gizarte-bazterkeria Euskadin

Lehen kapitulu honen helburu nagusia da ikuspegi orokor batetik aztertzea EINSFOESSA 2024k Euskadiko gizarteratze-mailei buruz nabarmentzen dituen emaitzak, azken sei urteetan 2018, 2021 eta 2024 aldietatik aurrera izan duen bilakaerari dagokionez eta Espainia osoarekin alderatuta zer egoera duen.

Gogoratu behar da, gizarteratzeaz hitz egiten dugunean –edo haren aurkako aldeaz, bazterkeriaz–, pobrezia-aren ikuskera ekonomiko edo monetario hutsa gainditzeko duen nozio bati buruz hitz egiten dugula aspalditik, eta ikuskera hori dimentsio anitzekoa dela. Integrazioaren eta Gizarte Beharrezaneiei buruzko Inkestaren (EINSFOESSA) lehen ediziotik, FOESSA Fundazioaren helburua izan da gizarte-bazterkeria bezalako fenomeno konplexu bat behar bezala dimentsionatzea, izaera multidimentsional hori bere osotasunean hartuko zuen ikuskera batetik abiatuta. Premisa horri dagokionez, EINSFOESSA gizarte-talde eta familia jakin batzuek gizarte-bizitzaren eremu guztietan bete-betean parte hartzeko dituzten zailtasunetara eta aukeren galerara hurbiltzen da: ekoizpenaren (enplegua) edo kontsumoaren (oinarrizko ondasunak eskuratzea) bidez parte-hartze ekonomikoari lotutakoak, eskubide politikoak (erabakiak hartzeko partaidetza) eta eskubide sozialak (osasuna, hezkuntza eta etxebizitza) benetan gauzatzearekin lotutakoak, eta gizarte-harremanen sare zabal batean parte hartzeari (gizarte-isolamenduan erori gabe) eta harreman osasungarriei (ez-gatazkatsuak eta ez-anomikoak) lotutakoak.

Gizarteratzearen muga horiek guztiak identifikatzeko, 37 adierazle espezifiko sistema konplexu bat erabiltzen dugu. Adierazle horiek, aldi berean, eguneroko bizitzako zortzi dimentsiotakoak dira (enplegua, kontsumoa, parte-hartze politikoa, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte-gatazka eta gizarte-isolamendua), eta hiru ardatz nagusiren inguruan egituratzen dira (ekonomikoa,

politikoa eta herritartasunekoa, eta harreman-ardatza). Azken mailan, adierazle sintetikoa dago, familiak eta pertsonak gizarteratze-mailaren arabera sailkatzeko aukera ematen diguna. Horretarako, lau eremu bereizi hartzen dira abiapuntutzat: erabateko integrazioetik hasita, bazterkeria larrira arte, integrazio prekariotik eta bazterkeria moderatutik pasatuta.

Aurkibidea	Hiru ardatz	Zortzi dimentsio	Adierazleak	Bazterkeriaren espazioak
Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoa	Ekonomikoa	Enplegua	37 adierazle	Bazterkeria larria Bazterkeria moderatua Integrazio prekarioa Erabateko integrazioa
		Kontsumoa		
	Politikoa eta herritartasunekoa	Parte-hartze politikoa		
		Hezkuntza		
		Etxebizitza		
		Osasuna		
	Harreman-ardatza	Gizarte-gatazka		
		Gizarte-isolamendua		

Lehenengo kapitulu hau adierazleak gizarteratze-mailari buruz ematen duen ikuspegi orokor horrekin hasten da, luzetarako ikuspegitik eta Estatu osoarekin alderatuta. Lehen azterketa horren ondoren, kapituluaren bigarren zatiak gizarte-bazterkeriaren fenomenoan sakontzen du, arreta EINSFOESSAren metodologia osatzen duten ardatzetan, dimentsioetan eta adierazleetan jarrita.


1.1. Gizarte-bazterkeria murrizten da, baina nabarmen handitzen dira gizarteratze prekarioko egoerak

Lehen epigrafe honek Euskal Autonomia Erkidegoan 2018tik gaur egun arte gizarte-bazterkeriako egoerek izandako bilakaeraren berri ematen du, Espainia osoko egoerarekin alderatuta. Sei urte baino ez dituen aldi horren ezaugarria dinamismo handia da, hein handi batean 2020an krisi soziosanitarioak ekarri zuen inflexio-puntuaren ondorioz. Estatuan, 2018 hazkunde ekonomikoko une bat izan zen, 2008ko finantza-krisiaren ondorioek markatutako hamarkada bat atzean uzten zuena, eta Espainian langabeziari, pobrezari eta bazterkeriari dagokienez 2013an izan zuten unerik kritikoena. Susperraldi ekonomikoak krisiaren aurreko erabateko integrazio-mailetara itzultzea bultzatu zuen, baina ez zen nahikoa izan gizarte-bazterkeriaren handitzeari buelta emateko, gora egiten jarraitu baitzuen. Hala adierazi zuten EINSFOESSAren 2018ko

Euskadiko emaitzek. Izan ere, integrazio-eremuan hobekuntza erregistratu zen, baina gizarte-bazterkeriaren tasa globaletan, bereziki gizarte-bazterkeria larriaren eremuan, okerrera egin zuen. Polarizazio sozialeko une deitu zenaren esparruan sortu zen COVID-19aren krisia. Euskal testuinguruan, etapa berri horrek ahultasun soziala areagotzea ekarri zuen batez ere, larritasun handieneko bazterkeria-egoerak nabarmen okertuta, eta horixe adierazi zuten EINSFOESSA 2021eko emaitzek. Osasun arloan hasi eta arlo ekonomiko eta sozialeraino hedatu zen krisi berri eta berritzaile horren ondoren, ekonomia suspertzeko bideari ekin zitzaion, espero baino hazkunde azkarragoarekin, eta horren ondorioak nabarmenak dira edizio berri honetan aurkezten diren emaitzetan.

EINSFOESSA 2024ren emaitzek agerian uzten dute **EAEko biztanleriaren erdia baino gehiago (%53,5) erabateko integrazio-egoeran dagoela, herena inguru (%34,7) egoera prekarioan, biztanleriaren %7,9 gizarte-bazterkeriako egoera moderatuan eta %3,8 gizarte-bazterkeria larriko egoeran**. Horrekesan nahi du **259.000 pertsona inguru daudela bazterkeriaren gizarte-eremuan**, eta pertsona horietatik 84.000 inguru egoera larrienean daudela.

1. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren gizarteratze-mailen bilakaera (2018-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

Konparazioz, **Euskadik Espainiako batezbestekoa baino egoera positiboagoa du; izan ere, autonomia-erkidegoan integratzeko espazioa Estatu osokoa baino nabarmen zabalagoa da**: Euskadin biztanleriaren %88,2 integratuta dago, -erabat edo modu prekarioan- eta Espainian, berriz, portzentajea %80,7koa da. Izan ere, Euskadi da Estatu osoan integrazio-maila handiena duen autonomia-erkidegoa.

Era berean, erabateko integrazio-tasa -hau da, gizarte-bazterkeriaren eraginik ez duen biztanleriaren ehunekoa- nabarmen handiagoa da Euskadin: %53,5; Espainian, berriz, %45. Egoera hobea go hori egoera onuragarrienek gizarteratze-eremuan duten garrantzi erlatibo handiagoan ere nabarmentzen da: erabateko integrazioeko egoeran dauden pertsonak Euskadin integratutako pertsona guztien %60,7 dira, eta Espainian, berriz, %55,7.

Ondorioz, **bazterkeriaren gizarte-eremua txikiagoa da Euskadin Espainian baino, eta aldeak bereziki esanguratsuak dira larritasun handieneko egoeretan:** gizarte-bazterkeria moderatuak Espainiako biztanleria osoaren %10,5i eta EAEko biztanleriaren %7,9ri eragiten die, eta gizarte-bazterkeria larriaren eragina %8,8koa da Estatu osoan, baina erdira baino gehiago murrizten da Euskadin, eta lehen aipatutako %3,8an kokatzen da. Hain zuzen ere, prozesu horiek bazterkeriaren gizarte-espazioan duten garrantzi erlatiboaren ikuspegitik aztertzen direnean, ikusten da egoera larrienak bazterkeria-egoera guztien herena direla Euskadin (%32,4), eta Espainian, berriz, batez beste %45,5koa dela. Ikuspegi horretatik, esan daiteke, pertsonen ehuneko txikiagoari eragiteaz gain, gizarte-bazterkeriako prozesuek intentsitate txikiagoa dutela Euskadin Espainian baino.

Euskadik duen egoerarik baikorrena lausotu egiten da, neurri handi batean, denbora-ikuspegia hartzen denean; izan ere, **lurralde horretan gizarte-bazterkeriako prozesuen eraginik ez duten pertsonen ehunekoak okerrera egin du.** Izan ere, 2018an EAEko biztanleen %59,1 inguruk erabateko integrazio-egoera zuten, baina ehuneko hori %57,5era jaitsi zen krisi soziosanitarioaren eraginaren ondoren; eta ordutik ez da berreskuratu, eta, gainera, jaisten jarraitu du, jada aipatutako %53,5era arte. Aldi berean, **integrazio prekarioko egoerak nabarmen handitu dira, 2018an %27 izatetik 2024an %34,7 izatera igaro baitira.** Fenomeno hori Estatuko testuinguruan ere gertatu da, erabateko integrazioaren espazioan atzerakada izan baita (egoera horretan dagoen biztanleriaren ehunekoa %49,3tik %44,2ra igaro da) eta gizarteratze prekarioko egoeran dauden pertsonen proportzioak gora egin du (%31,2tik %35,7ra).


Esan daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan, **gizarte-bazterkeriako tasek nolabaiteko hobekuntza izan dutela aldi horretan, ehuneko bi puntu baino gehiago murriztu baitira 2018tik, eta 2024an %11,8ra iritsi dira.** Hala eta guztiz ere, hemen ere egin daiteke puntualizazioen bat. 2018arekin alderatuta, gizarte-bazterkeria moderatuaren eta larriaren tasak jaitsi diren arren, krisi soziosanitarioaren osteko bilakaeraren azterketak

agerian uzten du susperraldia bereziki larritasun handieneko egoeretan gertatu dela –gizarte-bazterkeria larria erdira baino gehiagora murriztu da, eta %9tik %3,8ra igaro da–, baina ez gizarte-bazterkeria moderatuaren eremuan, 2021ean erregistratutakoak baino maila apur bat handiagoak baititu. Hori ez da gertatu Estatu osoan, hazkunde txikiak izan baitira gizarte-bazterkeria moderatuaren eta larriaren eraginpean dauden pertsonen ehunekoan.

Zer ondorio atera daiteke bilakaera desberdin horretatik? Alde batetik, Euskadiri begiratuta, **egoera onuragarrienek nabarmen egin dute atzera, euskal biztanleen artean prekariedade handiagoa baitago**: 2018an, pertsona integratuen %31,4 egoera prekarioan zeuden, baina 2024an ehuneko hori %39,3ra igo da. Prekariedadearen eremua zabaltze horrek adierazten du egungo egoera sozioekonomikoa ez dela nahikoa 2018an erregistratutako ongizate-mailara iristeko, eta dinamika hori bat dator Estatu osoan ikusitakoarekin.

Hala eta guztiz ere, hazkunde ekonomikoak eta krisi soziosanitarioari aurre egiteko hartutako politika ekonomiko eta sozialek **krisi soziosanitarioaren ondorio kaltegarrienak moteltzea erraztu dute, eta, oro har, gizarte-bazterkeriaren egoera 2018an erregistratutakoa baino zertxobait hobea izan da**. Hobekuntza hori, nolana ere, txikia da, eta ezin da ahaztu Euskadin oraindik ere %10 baino gehiago dagoela gizarte-bazterkeriako egoeran.

2. GRAFIKOA. Euskadiko biztanleriaren eta familien gizarteratze-mailen bilakaera (2018-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

1.1.1. 100 mila pertsona gutxiago gizarte-bazterkeriaren eremuan 2021. urteaz geroztik

1. taulak zehatzago jasotzen du Euskadin eta Espainian gizarte-bazterkerian dauden pertsonen eta familien bolumena, eta 2018 eta 2024 artean izan duen bilakaera. Azterketa horretan, kontuan hartu behar da 2018tik gora egin duela bai biztanleriak, bai eta familien kopuruak ere. 2018 eta 2024 artean, adibidez, Euskadin etxebizitzetan bizi den biztanleriaren hazkundea (%0,4) Estatu osoan izan dena baino txikiagoa (%3,5) izan da. Ikuspegi horretatik, azterketa honetan aipatzen diren taldeen arteko eskualdaketek, batez ere, balio argigarria dute, ikusitako aldaketen artean aldaketa demografikoek eragindako zati bat baitago.

Adierazi den bezala, bilakaera hori, oro har, positiboa da Euskadin; izan ere, azken sei urteetan -eta betiere kalkuluak direla kontuan hartuta- 46.000 pertsona gutxiago egongo ziren bazterkeriaren gizarte-esparruan. Jaitsiera horrek (%15,2) esan nahi du 203.000 eta 316.000 pertsona artean zeudela Euskadin gizarte-bazterkeriako egoeran 2024an. Espero zitekeenez, murrizketa hori are handiagoa da egungo egoera 2020ko krisiaren ondo-ondoko egoerarekin alderatzen bada; kasu horretan, murrizketa 100 mila pertsona pasatxora igoko litzateke. Eboluzio-bide hori desberdina izan da Estatuko testuinguruan; izan ere, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kopurua % 8,9 handitu da 2018tik, 760.000 pertsona berri baitaude 9 eta 9,5 milioi pertsona artekoa den tartean.

Hurrengo taulan ageri diren datuen arabera, gizarte-bazterkeria larriaren intzidentziak behera egin du Euskadin aztertutako aldian. 13.000 pertsona gutxiago daude egoera horretan 2018arekin alderatuta (%13,5eko jaitsiera); hala, 2024an, 27.000 eta 141.000 pertsona artean egongo lirateke Euskadin gizarte-bazterkeria larriko prozesuen eraginpean. Berriz ere, fenomeno hori ez dator bat Espainia osoan ikusten den bilakaerarekin; izan ere, 220 mila pertsonatan -%5,5- handitu dira gizarte-bazterkeriako modu larrienen eraginpean dauden pertsonak, eta 3,9 eta 4,5 milioi pertsona artean daude egoera horretan.

1. TAULA. Gizarte-bazterkeriako eta bazterkeria larriko egoeran dauden Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren eta familien ehunekoa (eta %95eko konfiantza-mugak) eta kopuruaren estimazioa milaka pertsona eta familietan (2018-2024)

	2018	2021	2024
Espainia			
Biztanleria guztira (milakoak)	46.723,0	47.067,0	48.262,4
Gizarte-bazterkeria			
- Biztanleria osoaren gaineko proportzioa (%)	18,3 [17,7-18,9]	23,4 [22,6-24,1]	19,3 [18,7-19,9]
- Eragindako pertsonen kopurua (milakoak)	8.550 [8.280-8.810]	10.990 [10.650-11.330]	9.310 [9.040-9.580]
Bazterkeria larria			
- Biztanleria osoaren gaineko proportzioa (%)	8,6 [8,0-9,2]	12,7 [11,9-13,4]	8,8 [8,2-9,3]
- Eragindako pertsonen kopurua (milakoak)	4.010 [3.750-4.280]	5.960 [5.620-6.300]	4.230 [3.960-4.500]
Bazterkeria larria erabateko bazterkeriaren gainean (%)	47,0	54,2	45,5
Familiak guztira (milakoak)	18.535,9	18.539,2	19.316,4
Gizarte-bazterkeria			
- Familia guztien gaineko proportzioa (%)	15,9 [15,0-16,8]	20,8 [19,6-22,0]	18,0 [17,1-18,9]
- Eragindako familien kopurua (milakoak)	2.950 [2.780-3.120]	3.850 [3.630-4.070]	3.470 [3.290-3.640]
Bazterkeria larria			
- Familia guztien gaineko proportzioa (%)	6,9 [5,9-7,8]	10,6 [9,5-11,8]	8,0 [7,2-8,9]
- Eragindako familien kopurua (milakoak)	1.270 [1.100-1.430]	1.970 [1.750-2.180]	1.550 [1.380-1.720]
Bazterkeria larria erabateko bazterkeriaren gainean (%)	43,0	51,2	44,7
Euskadi			
Biztanleria guztira (milakoak)	2.199,1	2.193,5	2.207,4
Gizarte-bazterkeria			
- Biztanleria osoaren gaineko proportzioa (%)	13,9 [11,5-16,3]	16,5 [13,9-19,0]	11,8 [9,2-14,3]
- Eragindako pertsonen kopurua (milakoak)	306 [252-359]	361 [305-417]	259 [203-316]
Bazterkeria larria			
- Biztanleria osoaren gaineko proportzioa (%)	4,4 [2,0-6,9]	9,0 [6,5-11,5]	3,8 [1,2-6,4]
- Eragindako pertsonen kopurua (milakoak)	97 [43-151]	197 [142-253]	84 [27-141]
Bazterkeria larria erabateko bazterkeriaren gainean (%)	31,8	54,7	32,4
Familiak guztira (milakoak)	904,2	919,5	942,2
Gizarte-bazterkeria			
- Familia guztien gaineko proportzioa (%)	11,4 [7,6-15,2]	14,2 [10,2-18,2]	11,0 [7,0-15,0]
- Eragindako familien kopurua (milakoak)	103 [69-138]	131 [94-167]	104 [66-142]
Bazterkeria larria			
- Familia guztien gaineko proportzioa (%)	3,6 [0,0-7,5]	6,8 [2,8-10,8]	3,9 [0,0-7,9]
- Eragindako familien kopurua (milakoak)	33 [00-68]	63 [26-99]	37 [00-74]
Bazterkeria larria erabateko bazterkeriaren gainean (%)	32,0	48,1	35,3

Iturriak: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024; EIN. Biztanleriaren Estatistika Jarraitua (2021 eta 2024), Etengabeko Erroldaren Estatistika (2018) eta Familia Etxeei buruzko Etengabeko Inkesta (2018).

Oharra: biztanleriaren eta familien zifrak beherantz biribilduta daude.

Bilakaera hori familien ikuspegitik aztertuz gero, 2018an erregistratutako bazterkeria-mailei eusten zaiela ikusten da; gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familien ehunekoa %11 inguruan mantentzen da, eta %4 baino zertxobait gutxiago gizarte-bazterkeriako prozesu larriak dituzten familiena.

1.1.2. Euskadin gizarte-bazterkeriako egoeran dauden hamar pertsonatik bi ez daude pobrezia-arriskuan

Hurrengo taulak gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia ekonomikoaren artean dagoen lotura erakusten du, bai Euskadin, bai Espainian. Kasuen ehuneko handi batean informazio ekonomikorik ez izan arren, nahikoa informazio dugu zenbait ideia interesgarri ateratzeko aukera ematen diguten analisiak egiteko.

Horrela, alde batetik, eskura dauden datuei erreparatuta, ikusten da pobrezia askoz ere gehiago eragiten diela gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonari, eta hori, nolahi ere, espero daiteke: pobrezia-arriskuak bazterkeria-egoeran dauden EAEko biztanleen %77ri eragiten dio, eta tasa hori %4koa da integratuta dauden pertsonentzat. Alde horiek ez dira hain handiak Espainia osoan, baina hala ere oso nabarmenak dira: %72 eta %8, hurrenez hurren. Kasu horretan, nabarmentzekoa da Estatuan bizi diren pertsona guztien kasuan pobrezia-arriskuaren tasak handiagoak direla. Espainiako biztanleen artean %20,4koa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, %12,5koa.

2. TAULA . Pobrezia-arrisku-tasaren* eta Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren gizarte-bazterkeriaren arteko erlazioa (2024)

(%)	Espainia			Euskadi		
	Bazterkerian	Integrazioan	Guztira	Bazterkerian	Integrazioan	Guztira
Biztanleria osoaren gainerako banaketa						
Pobrezia-egoeran	13,8	6,6	20,4	9,1	3,4	12,5
Pobreziaz gabe	5,5	74,1	79,6	2,7	84,8	87,5
Guztira	19,3	80,7	100,0	11,8	88,2	100,0
Banaketa bertikala						
Pobrezia-egoeran	71,7	8,1	20,4	77,3	3,9	12,5
Pobreziaz gabe	28,3	91,9	79,6	22,7	96,1	87,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

(%)	Espainia			Euskadi		
	Bazterkerian	Integrazioan	Guztira	Bazterkerian	Integrazioan	Guztira
Biztanleria osoaren gaineko banaketa						
Banaketa horizontala						
Pobrezia-egoeran	67,8	32,2	100,0	72,6	27,4	100,0
Pobreziarik gabe	6,9	93,1	100,0	3,1	96,9	100,0
Biztanleria osoaren gaineko banaketa	19,3	80,7	100,0	11,8	88,2	100,0

* Taula honetako ehunekoak kalkulatzeko, familiak aitortutako diru-sarrerak erabili dira, eta alde batera utzi dira guztizko diru-sarrerak fidagarritasunez aitortu ez dituzten familien kasuak. Baztertutako pertsonen kasuan, informaziorik gabeko kasuak %39,4 izan dira Euskadin, eta %21,8 Espainian; baztertu gabekoen kasuan, ordea, proportzio hori %54,8ra igo da Euskadin, eta %41,3ra Espainian. Ehuneko horiek kontuan hartuta, taula honetako emaitzak zuhurtziaz interpretatu behar dira. Taula honen emaitzak zenbatespen doitu batetik datoz, eta ez datoz bat zehazki 2. kapituluaren erakusten diren bazterkeria-tasekin, pobrezia-egoeran daudenekin edo ez daudenekin lotutakoak. Hemen biztanleriaren ikuspegi orokorra eskaintzen da pobrezia-egoeran eta bazterkeria-egoeran arteko elkarrekintza irudikatzeko; 2. kapituluaren, aldiz, bazterkeria talde espezifikoaren barruan jorratzen da.

Oharra: Integrazioan, erabateko integrazioa eta integrazio prekarioko egoeran dauden biztanleen ehunekoaren batura da. Iturria: EINSFOESSA 2024.


Bestalde, eta aspalditik aipatu dugunaren ildotik, gizarte-bazterkeriaren fenomenoak, neurri handi batean, pobrezia monetarioaren fenomeno gaitzen du. Bi fenomeno horiek, elkarrekin estuki lotuta egon arren, ez dira baliokideak, eta ez dira beti aldi berean eta modu osagarrian agertzen. Gero eta nabarmenagoa da pertsonen gizarte-bazterkeriako prozesuak jasan ditzaketela, nahiz eta pobrezia-egoeran atalasea gaitzen duten diru-sarrerak izan edo, era berean, gizarte-bazterkeriako prozesurik ez duten diru-pobrezia-egoerak gertatu.

Hau da, 2. taulako datuek nabarmentzen dutena: 2024an, bazterkeriaren gizarte-eremuan kokatzen diren EAEko pertsonen %23k ez luke pobrezia-arriskurik izango, eta pobrezia-kasu guztien %27, berriz, gizarte-bazterkeriako egoeran ez dauden pertsonen artean gertatuko lirateke. Espainia osoan, ehunekoak handiagoak dira bi kasuetan; beraz, biztanleriaren %28 gizarte-bazterkeriako egoeran egongo litzateke, baina ez pobrezia-arriskuan, eta ia herena (%32,2) pobrezia monetarioko egoeran eraginpean egon liteke, baina ez gizarte-bazterkeriako prozesuen eraginpean.

Harreman horietan sakontzeko, interesgarria da gizarte-bazterkeriaren eta pobrezia monetarioaren presentzia konbinatua aztertzea. Konbinazio horrek lau eremu desberdin sortzen ditu, eta horietan kokatu behar da biztanleria osoa: pobrezia-egoeran gabeko integrazioaren espazioa, pobrezia-egoeran eta bazterkeria-egoeran ez dauden pertsonen dagokiena; pobrezia integratuarena,

	27 Arazo ekonomikoengatik eta pobrezia moderatuko egoerengatik botikak edo protesiak erosteari edo tratamenduei edo dietei jarraitzeari utzi dion familia, %60ko atalasetik behera (2018an ainguratutako balioa)	8,8	14,9	11,8	8,8	9,2	7,1

		Espania			Euskadi		
Kop.	Adierazleak	2018	2021	2024	2018	2021	2024
Gizarte-gatazka	28 Azken 10 urteetan norbaitek tratu txar fisiko edo psikologikoak jaso dituen edo jasotzen ari den familia	2,4	3,7	1,9	2,7	2,7	1,2
	29 Kideen artean harreman oso txarrak, txarrak edo txar samarrak dituen familia	0,6	1,8	0,5	1,1	(0,0)*	0,3
	30 Azken 10 urteetan alkoholarekin, beste droga batzuekin edo jokoarekin arazoak izan dituzten edo dituzten pertsonak dituen familia	2,0	2,5	3,2	2,5	1,0	(0,8)*
	31 Azken 10 urteetan norbait ama edo aita nerabea izan den edo izatear den pertsonaren bat duen familia	0,8	2,4	1,0	0,6	1,9	0,1
	32 Azken 10 urteetan justiziarekin arazoak (aurrekari penalak) izan dituzten edo dituzten pertsonak dituen familia	0,7	1,2	0,3	1,1	0,4	0,1
Gizarte-isolamendua	33 Harremanik ez duten eta gaixotasun-edo zailtasun-egoeretarako inolako laguntzarik ez duten pertsonak dituen familia	2,2	2,2	1,9	1,7	2,1	(0,6)*
	34 Auzoko bizilagunen arteko harreman txarrak edo oso txarrak dituen familia	0,4	0,5	0,2	(0,0)*	0,1	0,2
Gizarte-isolamendua	35 Noizbait erakundeetan egon diren pertsonak dituen familia (ospitaleak eta pisu psikiatrikoak, droga-mendekotasunen zentroak, adingabeentzako zentroak, espetxeak, iragaitzazkoentzako edo emakumeentzako zentroak)	0,5	1,8	3,7	1,9	1,6	4,4

Oharra: parentesi artean eta izartxo batekin, behar adinako fidagarritasun-maila eskaintzen ez duten balioak jaso dira, biztanleria osoa aztertzean adierazleek deskribatzen dituzten egoerei buruzko kasurik jaso ez delako edo 2024rako jasotako balioak 1 baino txikiagoak direlako eta aurreko urteetako batezbestekoarekin alderatuta aldaketa nabarmena dakartelako.

Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

2. kapitulua

Gizarte-bazterkeriaren eragin desberdina Euskadin

2.1. Sarrera

Aurreko kapituluan aurkeztu dira EINSFOESSA 2024 txostenak Euskadiko eta Espainia osoko biztanleriaren gizarteratze-mailen inguruan eta azken sei urteetan horiek izan duten bilakaeraren inguruan ekarri zituen emaitza nagusiak. Biztanleria integrazio osotik bazterketa larrira doan lerro jarraian nola banatzen den aztertu da, eta orobat aztertu dira gizartetik baztertzeko prozesuek nolako eragin desberdinak izaten dituzten dimentsio anitzeko fenomeno hori osatzen duten ardatz eta dimentsio desberdinetan. Azkenik, aztergai izan dira EINSFOESSA 2024 txostenaren metodologiak ekartzen dituen 37 adierazleen eragina eta 2018 eta 2024 bitartean aztertutako bi lurraldeetan izan duten bilakaera, txosten horretan aztertzen diren gizarte-bazterkeriako prozesuak agertzen direnean hartzen dituzten forma zehatzak eta ohikoenak erakutsi nahian.

Hala ere, ezin ukatuzko egitatea da gizarte-bazterkeriak indar handiagoz jotzen dituela gizarte-talde edo familia-tipologia jakin batzuk beste batzuk baino. Izan ere, honen aurreko kapituluan aztertu diren gizarte-bazterkeriako prozesuak ez dira hala eta hola, halabehar hutsez, banatzen biztanlerian; aitzitik, banaketa hori gizarte-egitura batzuekin eta aldagai soziodemografiko eta sozioekonomiko jakin batzuekin zuzenean lotutako dinamika espezifikoaren isla da. Banaketa desberdin horretan sakontzeko asmoz, Euskadiko biztanleriaren eta familia-unitateen ezaugarri desberdinen arabera egoera horiek hartzen duten garrantzia aztertzen du atal honek, lurralde honetako gizarte-bazterkeriarekin lotu daitezkeen profil eta faktore soziodemografiko esanguratsuenak era argian ikus daitezzen.

Analisi hau egiteko orduan biztanleria osoa hartu da aintzat, eta ikuspegi hirukoitza hartzen du, aztergai den bazterketa-unitatearen arabera: norbanakoen

ezaugarri soziodemografikoak (pertsonak); familiaren euskarri edo sostengu den pertsonaren ezaugarriak **(8)** (familiako pertsona baten ezaugarriak, familiako kide guztietara zabaldu daitezkeenak) eta, hirugarrenik, familia osoaren ezaugarriak (familia-unitateak). Lehenengo kasuan kontuan hartzen diren aldagaiak adinari, sexuari eta nazionalitateari dagozkio, eta EINSFOESSA 2024ko edizio honetako berrikuntza da jatorriari buruzko aldagaiak sartzea. Aldagai hori sartuta, zehaztasun handiagoz identifika daitezke Espainiako nazionalitatea izan arren jatorri atzerritarra duten populazio-taldearen artean gertatzen diren gizarte-bazterkeriako prozesuak.

Aipatutako lau aldagai horiez gain, familia-unitatearen sostengatzailearen kasuan, haren ikasketa-maila eta haren okupazio-egoera ere kontuan hartzen dira. Azkenik, familia-unitatearen ezaugarrien kasuan aintzat hartutako aldagaiak honako hauek dira: pobrezia-egoerak agertzea **(9)**, diru-sarreraren iturri nagusia, familia-unitatearen tamaina, 18 urtetik beherako pertsonak egotea familian, bizi diren udalerriaren urbanizazio-maila **(10)** eta familia-unitatearen osaera. Azken aldagai horretan, honako familia mota hauek bereizten dira: pertsona bakarreko familiak, seme-alabak dituzten bikoteak, seme-alabarik gabeko bikoteak, guraso bakarreko familiak eta bestelako familia-talde batzuk, non sartuko liratekeen gainerako kategorietan kokatu ezin diren familia-talde guztiak.

-
- (8)** Familien karakterizazioaren zati handi bat familia horren sostengatzaile nagusia den pertsonaren profilak ematen du. Kontzeptu-ondorioetarako, sostengatzaile nagusitzat hartu da familia horretako diru-sarreraren iturri nagusia ekartzen duen pertsona, berdin bere enpleguaren ordainsariaren bidez ekartzen duen edo prestazio baten edo bestelako gizarte-babesaren baten titular delako ematen duen.
- (9)** Aldagai horren barruan, biztanleriaren egoera honela banatzen da, familia-unitate bakoitzari dagozkion diru-sarreraren arabera. “Pobreziarik eza” kategorian sartzen dira pobrezia-arriskuan ez dauden familia-unitate guztiak, hau da, estatu mailan familia-unitate guztien artean kontsumo-unitate bakoitzeko batez besteko diru-sarreraren %60tik gorako diru-sarrera garbiak dituzten familia-unitate guztiak. Era berean, ‘pobrezia, baina ez larria’ kategorian daude pobrezia-arriskuan egon arren, pobrezia larriko egoeraren ez dauden familia-unitateak. Bestela esanda, hor leudeke Estatuko diru-sarreraren batez besteko atalasearen %40 eta %60 bitarteko diru-sarrera garbiak dituztenak. Azkenik, “pobrezia larria” kategorian daude gainerako familia-unitateak, hau da, batez besteko diru-sarreraren %40tik beherako diru-sarrera garbiak dituztenak.
- (10)** DEGURBA (Degree of Urbanisation) sailkapena da, eta haren metodologia eta datuak hemen kontsultatu daitezke: <https://ec.europa.eu/eurostat/web/nuts/local-administrative-units>. Eurostatek sustatzen du sailkapen hori, eta EBko tokiko administrazio-unitate guztiei aplikatzen zaie, biztanleriaren tamainaren eta dentsitatearen inguruko irizpideak erabiliz, hiru udalerrri mota bereizirik: dentsitate handiko hiriak eta eremuak; dentsitate ertaineko hiriak eta aldiriak; eta biztanle gutxiko landa-eremuak.

Kapitulu honen amaieran aurkezten diren 6. eta 7. tauletan jasotzen da biztanleriaren banaketa, integraziotik bazterketara bitarteko lerroan duten kokapenaren arabera eta arestian aipatu diren aldagai soziodemografiko eta sozioekonomikoen arabera, bai Espainia osorako, bai Euskadirako, 2018, 2021 eta 2024rako.

Kapitulu hau honela dago egituratuta: Lehenenik eta behin, analisi honetan aztertzen da gizarte-bazterkeria zein biztanle-taldek jasaten duten neurri handiagoan eta neurritxikiagoan, alegia, zein profiletan agertzen den nabarmenen gizarte-bazterkeriaren eragina, eta zein profiletan agertzen den gutxien. Horri esker, zenbait ondorio atera daitezke integrazio- eta bazterketa-egoerekin lotutako faktore soziodemografikoei buruz: zein diren familia edo pertsona bat gizarte-bazterkeriako egoeran egotea baldintzatzen duten ezaugarri edo aldagai esanguratsuenak, eta, era berean, gizarte-bazterketako prozesuei aurre egiteko nolabaiteko babes-eginkizuna eskaintzen duten faktoreak.

Horren ondoren, denboran izandako bilakaeraren ikuspegitik, analisiak identifikatzen du azken sei urteetan zein populazio-taldetan zabaldu diren gehien gizarte-bazterkeriako egoerak eta zein populazio-taldetan murriztu diren gehien. Kapituluaren amaieran aztertzen da biztanleriaren profil edo talde bakoitzak zer pisu espezifiko duen gizarte-bazterkeriaren eremuan; hau da, eremu horretan gizarte-talde ugariak zein diren aztertzen da.

Horretarako, hiru kasuetan, 48 kategoria biltzen dituen tipologia bat landu da, 16 aldagairen inguruan egituratuta: pertsonen adina, sexua, jatorria eta nazionalitatea; familia-unitatearen sostengatzaile nagusiaren adina, sexua, ikasketa-maila, okupazio-egoera, jatorria eta nazionalitatea; eta familia osoaren ezaugarriei dagokienez, familia horren pobrezia-maila, diru-sarrera mota, familiaren osaera eta tamaina, familia horretan 18 urtetik beherako pertsonarik baden edo ez, eta familia bizi den udalerriaren urbanizazio-maila.

Gauza bat argitu behar da, alegia, bigarren kapitulu honetan zehar, eta oso bereziki 2.2 eta 2.4, epigrafeetan, intzidentzia eta banaketa kontzeptuak erabiliko direla gizarte-bazterkeriako egoerek Euskadiko edo Espainiako biztanleen artean izaten dituzten hedapena eta ezaugarriak azaltzerakoan. Hori dela eta, zehaztu behar da, gizarte-bazterkeriaren intzidentziaz hitz egitean, gizarte-bazterkeriak guztizko biztanleriaren artean edo gizarte-talde espezifiko batean duen eraginaz edo hedapenaz ari garela, hau da, egoera horiek biztanleria-talde horien barruan noraino dauden zabaldua. Hala ere, aldagai

jakin baten arabera gizarte-bazterketaren banaketaz hitz egitean (adina, sexua, nazionalitatea), aldagai horren barruan bereizten den kategoria bakoitzak gizarte-bazterkerian dauden pertsonen artean duen pisu espezifikoak aipatzen da. Hori argiago ikus daiteke esaten dugunean, 2024an, gizarte-bazterkeriak Euskadiko atzerriar nazionalitateko biztanleen artean izan duen eragina %40koa dela (hau da, Euskadiko atzerriar nazionalitateko hamar pertsonatik lau gizarte-bazterketako egoeran daude); datu horrekin batera, ikusten da Euskadin, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsona guztietatik %42 atzerriar nazionalitatekoak direla, gizarte-bazterkeriaren banaketa aztertzen denean nazionalitatearen faktorea kontuan hartuta. Zalantzarik gabe, atzerriko nazionalitatea duten pertsonen gizarte-bazterkeriaren eremuan duten pisu espezifiko horrek lotura zuzena du talde horrek gizarte osoan duen tamainarekin edo pisuarekin. Kasu horietan, bereziki interesgarria da aztertzea gizarte-bazterkeriaren eremuan biztanleriaren banaketari dagokionez gertatzen diren errepresentazio hanpatuak, **(11)** horiek agertzen baitute zein diren gizarte-bazterkeria ezaugarritzen duten faktore soziodemografiko esanguratsuenak.

2.2. Bazterkeriak gehien jotzen dituen gizarte-taldeak: familia-unitate pobreak edo diru-sarrerarik gabekoak, eta familia-burua lan bila dutenak

12. grafikoa ikus daitekeenez, **Euskadin gizarte-bazterkeriak gehien jotzen dituen gizarte-taldeak dira pobrezia larriko egoeran bizi diren familia-unitateak -etxe horietako ia guztiak daude gizarte-bazterkeriako egoeran-eta, orobat, inongo diru-sarrerarik ez dutenak ere (%92,3).** Pobrezia-maila txikiagoak baina, nolana ere, oso maila handiak erakusten dituzte unitatearen sostengatzaile nagusia lan bila duten familia-unitateak (%78,2) eta pobrezia-egoera ez larrienak agertzen dituzten familia-unitateak (%66,9).

(11) Agerpen hanpatuak edo agerpen oso txikiak aipatzen ditugunean esan nahi dugu ez datozela bat, nabarmenki gainera, jende-multzo edo profil jakin batek gizarte-bazterkeriaren eremuan duen pisu espezifikoak eta jende-multzo edo profil horrek biztanleria osoan duen pisua. Adibidez, atzerriko nazionalitatea duten pertsonen multzoa oso hanpatuta agertzen da Euskadiko bazterkeriaren gizarte-eremuan; izan ere, baztertutako pertsona guztien %42 dira (pisu espezifikoak) atzerriko nazionalitatekoak, EAEko biztanleriaren %12,1 baino ez diren arren (populazioan duten pisua). Hau da, gizarte-bazterkeriaren eremuan duen presentzia biztanleria osoaren gainean duen tamaina baino askoz handiagoa da. Horrek adierazten du gizarte-bazterkeria proportziorik gabe kontzentratzen dela lurralde honetako atzerriarren artean.


Era berean, %40tik gorako bazterkeria-tasekin daude atzerriko nazionalitatea duen pertsona bat buru duten familia-unitateak (%42,9) eta atzerriko nazionalitatea duten pertsona guztien multzoa (%40,7). Nazionalitatearekin batera, atzerritar jatorria izateak ere bazterkeria-tasa nabarmen altuak ekartzen ditu: atzeritar jatorriko pertsonen herena baino gehiago (%33,1) eta horiek buru dituzten etxeetan bizi direnen herena baino gehiago (%35,3) gizarte-bazterkerian daude. Hemen sartzen dira, orobat, 5 pertsonaz edo gehiagoz osatutako familia-unitateak (%34,6). Gizarte-bazterkeriaren agerpena %20 tik gorakoa duten gizarte-taldeen edo sektoreen artean daude honako hauek: bizilekua landa-eremuetan duten familia-unitateak, familia-burua hezkuntza-maila baxuko pertsona bat edo pertsona ez-aktibo bat duten familia-unitateak (ez du lanik, ez dabil lan-bila, ez dago erretiratuta), diru-iturri bakarra gizarte-babesa duten familiak eta, azkenik, familian gutxienez bi adingabe bizi diren unitateak.

Beste muturrean, gizarte-bazterkeriaren irismena bereziki txikia da seme-alabarik gabeko bikoteen artean (%2,2), pobrezia-egoeran ez dauden familia-unitateen artean (%4,1), eta familiako burua goi-mailako ikasketak dituen pertsona bat (%4,2) edo pertsona erretiratu bat edo pentsiodun bat duten familia-unitateen artean (%4,2). Era berean, espainiar nazionalitatea duen pertsona bat buru duten familia-unitateetan bizi diren pertsonak eta 65 urtetik gorako pertsonen multzoak gizarte-bazterkeriako tasa nahiko baxuak dituzte, %5 ingurukoak.

Zein dira gizarte-bazterkeriaren ezaugarriak erabakigarriak? Eta zein ezaugarri eragiten dute babes-faktore gisa? Azterketa estatistiko zehatzagoak alde batera utzita -horietan jaso litezke aldagai bakoitzaren kategoria-kopurua, biztanleriaren banaketa kategoria horien arabera, eta ezkutuko loturak jaso ez diren faktoreekin-, argi dago **Euskadiko bazterkeria gabezia materialarekin eta hari lotutako faktoreekin lotzen dela nagusiki**: bazterkeriaren tasa bereziki altuak erakusten dituzte talde hauek: pobrezia (larria nahiz moderatua) jotzen dituen gizarte-taldeek, diru-sarrerarik eza bizi duten familia-unitateek eta familia-burua lan bila duten familia-unitateetan bizi diren pertsonen multzoak. Datu horiek adierazten dute EAEko testuinguruan pobrezia ekonomikoak eragin erabakigarria duela gizarte-bazterkeriako faktore gisa.

Era berean, argi agertzen da **atzerriko jatorria izatea** funtsezko eragina duen elementua dela Euskadin gertatzen den gizarte-bazterkerian. Faktore hori, gainera, ez dago egoera administratiboarekin bakarrik lotua; esate baterako, atzeritar jatorria izatea, kasu batzuetan Espainiako nazionalitatea izatearekin

12. GRAFIKOA. Euskadin gizarte-bazterkeriak ukitutako biztanleriaren portzentajeak, norbanakoen, sostengatzaile nagusien eta familia-unitateen hainbat ezaugarriren arabera (2024)



Oharra: norbanakoen ezaugarriak (N); sostengatzaile nagusiaren ezaugarriak (SN); eta familia-unitateen ezaugarriak (FU). Iturria: EINSFOESSA 2024.

bateragarria izanik ere, gizarte-bazterkeriako egoeran egoteko arriskua, neurri handi batean, eragin dezakeen ezaugarri gisa ere agertzen baita. Izan ere, **gizarte-bazterkeriaren agerpena, atzerriko nazionalitatea (egoera administratiboa) duten pertsonen artean, espainiar nazionalitatea dutenen artean baino 5 bider handiagoa da, eta atzerritar jatorria dutenen artean (jatorria), berriz, espainiar jatorria dutenen artean baino 4 bider handiagoa da.** Desberdintasun horiek areagotu egiten dira familia-unitatea sostengatzen duen pertsonaren jatorria kontuan hartzen denean.

Faktore horiek alde batera utzita, datu horietan ikus daitezke, halaber, gizarte-bazterkeriaren agerpen handian izaten diren zenbait desberdintasun, kontuan hartutako ezaugarriei dagokienez, eta merezi du horiek nabarmentzea.

Gure inguruneko errealitate sozialaren azterketan ohikoa den bezala, adinak eragin bereziki argia du gizarte-bazterketako arriskuaren gainean, adina handiagoa denean zaugarritasun egoeran geratzeko arriskua murriztu egiten baita. Izan ere, 18 urtetik beherakoen gizarte-bazterkeriaren tasak 65 urtetik gorakoen tasa baino 3,5 bider handiagoak izaten dira (%19,9 eta %5,5 hurrenez hurren). Desberdintasun hori familia-unitateen tamainari eta osaerari buruzko aldagaietan ere islatzen da, etxean adingabeak egoteak eragin nabarmena baitu gizarte-bazterkeriako egoeran egoteko arriskuan: gutxienez adingabeko bat duten familia-unitateen gizarte-bazterketako tasa adingaberik ez duten familia-unitateen tasa baino 1,5 bider handiagoa da, eta ia hiru bider handiagoa da bi adingabe edo gehiago bizi diren familietan. Beste ikuspegi batetik, nabarmena da gizarte-bazterkeriaren agerpen txikia seme-alabarik gabeko bikote batek osatutako familia-unitateen artean. Egoera horretan ez dira adingabeak bakarrik aipatzen, baina badirudi etxean ondorengorik ez izateak babes-faktorea dela familia-unitatea gizarte-bazterkeriaren arriskutik aldentzeko.


Era berean, interesgarria da aztertzea nola eragiten duen sexuaren aldagaiak gizarte-bazterketan egoteko arrisku handiagoan. Izan ere, alde nabarmena ikusten da gizonen eta emakumeen artean, %13,3ko eta %10,3ko bazterketa-tasekin, hurrenez hurren. Hala ere, desberdintasun horiek familia-unitateen ikuspegitik aztertzen direnean, harreman hori alderantzikatu eta areagotu egiten da: emakumeak buru dituzten familia-unitateek bazterketa-tasa handiagoak dituzte sostengatzaile nagusia gizona den familia-unitateek baino (%15,4 eta %10 hurrenez hurren). Fenomeno hori nabarmenagoa da Estatu osoan, bazterketa-tasak %17,1 baitira familia-buru gizonezkoa duten familia-unitateen kasuan, eta %24,3 emakumeak buru direnean.

2.3. Bazterkeria hazi egin da diru-sarrerarik gabeko familien, landa-eremuetako familien eta pobrezia ertaineko egoeran dauden familia-unitateen artean

Gizarte-bazterkeriak biztanleria-talde edo profil desberdinen artean duen proportzioa aztertu ondoren, bazterketa-tasek gizarteko talde horien artean izan duten bilakaera aztertuko dugu, zehaztu nahian zein gizarte-taldetan ugaritu diren gehien gizarte-bazterketako egoerak azken sei urteetan, eta era berean, zein gizarte-taldetan murriztu diren gehien. Ildo horretatik, 13. eta 14. grafikoetan, hurrenez hurren, jasotzen dira 2018tik eta 2021etik, gizarte-bazterketak EAEko biztanlerian duen intzidentzian izandako aldaketak, aztertutako ezaugarri soziodemografikoen arabera.

Egungo datuak 2021ean lortutakoekin alderatzen direnean, gauza bat ikusten da, alegia, gizarte-bazterkeriaren intzidentziak gora egin duela sei profil edo gizarte-taldetan: lehenik, gehien handitu da landa-eremuan bizi diren familia-unitateetan eta inolako diru-sarrerarik ez duten familia-unitateetan, eta ondoren, hazkunde tasa txikiagoekin, 65 urtetik gorako pertsonak buru dituzten familia-unitateetan, 65 urtetik gorako biztanleen multzo osoan, familia-unitatearen sostengatzaile nagusiak lehen mailako ikasketak eginda ditueneko familietan eta pobrezia larrian bizi diren familia-unitateetan. Beste muturrean, aztertutako gainerako sektoreetan edo profiletan beherakada orokorragoa dago; esaterako, aipagarriak dira, hiru urte horietan gizarte-bazterketaren irismenaren murrizketa nabarmenak izan dituztelako, ikasketarik gabeko norbait buru duten etxeetan bizi diren pertsonak, 18 urtetik beherako pertsona bat duten etxeak, nazionalitate edo jatorri atzerritarreko pertsonak, horiek buru dituzten etxeen unitateak eta pobrezia ertaineko egoeran dauden familia-unitateak. Murrizketa horiek kokatzen dira, neurri handi batean, gizarte-bazterkeriako tasa altuak dituzten talde edo profilen artean; ildo horretan, datu horiek islatzen dute krisi soziosanitarioak gizarteko sektore ahulenetan izan zuen eraginetik suspertzen ari dela gizartea.

13. GRAFIKOA. Gizarte-bazterkeriak Euskadiko biztanleengan duen eraginaren bilakaera, ehunekotan, norbanakoen, sostengatzaile nagusiaren eta familia-unitatearen hainbat ezaugarriren arabera (2021-2024)



Oharra: norbanakoen ezaugarriak (N); sostengatzaile nagusiaren ezaugarriak (SN); eta familia-unitateen ezaugarriak (FU).
Iturria: EINSFOESSA 2021 eta 2024.


Bazterketa-tasen bilakaera biztanleria-talde desberdinen artean ez da hain positiboa, eta zertxobait heterogeneoagoa da, begirada 2018ra arte luzatzen bada. Ikuspegi horretatik, 14. grafikoak erakusten duenez, gizarte-bazterkeriaren irismena oso nabarmen handitu da inongo diru-sarrerarik ez duten etxeetan (%68,1etik igo dira %92,3ra) **(12)**, landa-eremuan bizi direnen artean **(13)** (%9,3tik igo da %27,1era) eta pobrezia-egoera ez-larrian dauden pertsonen artean (%54,8 zen 2018an, eta %66,9 2024an). Hazkunde ez hain handiak izan dira, orobat, ikasketarik gabeko edo hezkuntza-maila baxuko pertsonak buru dituzten familietan, pobrezia larrian dauden familia-unitateetan, pertsona bakarreko familia-unitateetan eta diru-sarrera bakarrak gizarte-laguntzatik jasotzen dituzten kasuetan.

Beste muturrean, nabarmentzekoak dira jatorria eta etxean adingaberen bat izatea aldagaien inguruan gertatu diren hobekuntzak; izan ere, gizarte-bazterketaren tasak behera egin du atzerritar jatorriko norbait buru duten familia-unitateetan (-17,2 puntu) eta atzerritar jatorriko pertsonen multzoan (-12,6 puntu), guraso bakarreko familia-unitateetan (-15,7 puntu), baita bi adingabe edo gehiago dituztenen etxeetan (-12,7 puntu) eta adingabe bakarra duten etxeetan ere (-9,9 puntu). Hobekuntza horiek alde batera utzita, komenigarria da ez ahaztea biztanleria-talde horiek guztiek gizarte-bazterketako tasa nabarmen handiak dituztela.

(12) Aldaketa handia da mota horretako familia-unitateetan baina, egia esan, horietan bizi diren pertsonen proportzio txiki batez ari gara (%1) eta, beraz, emaitzak ideia bat egiteko soilik hartu behar dira aintzakotzat.

(13) 2024an, DEGURBA sailkapenaren arabera landa-eremukotzat sailkatutako udalerrietan EAEko biztanleriaren %11,5 bizi zen. Landa-eremu horietan bizi diren pertsonen artean gizarte-bazterkeria handitu izana, 2021etik ez ezik, 2018tik ere, Estatuan ere ikusten den fenomeno bat da, eta etorkizunean tasa horri arreta bereziz begiratzea komenigarria izango litzateke. Azken urteetan, adibidez, landa-eremuetan bizi diren pertsonak izaten dira, orain ere, AROPE tasak batez bestekoak baino handixeagoak izaten dituztenak.

14. GRAFIKOA. Gizarte-bazterkeriak Euskadiko biztanleengan duen eraginaren bilakaera, ehunekotan, norbanakoen, sostengatzaile nagusiaren eta familia-unitatearen hainbat ezaugarriren arabera (2018-2024)



Oharra: norbanakoen ezaugarriak (N); sostengatzaile nagusiaren ezaugarriak (SN); eta familia-unitateen ezaugarriak (FU). Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2024.

2.4. **Gizarte-bazterkeriaren egoeran dauden kolektibo ugarietak: seme-alabak dituzten bikoteak eta atzerritar jatorriko norbait buru duten etxeetan bizi diren pertsonak**

Gizarte-bazterkeriak biztanleria-talde edo profil desberdinen artean duen presentzia aztertu ondoren, azken epigrafe honen helburua da argitzea zein den gizarteratze-mailen banaketa aztertutako profilen arabera; hau da, bazterkeriak jotzen duen gizarte-esparruan profil bakoitzak duen pisu espezifikoaz aztertzen da, eta, aldi berean, egoera horiek kuantifikatu egiten dira. Lehen esan denez, pisu espezifiko hori talde bakoitzaren bazterketa-tasa handiago edo txikiagoen emaitza eta, aldi berean, talde horien tamainaren edo biztanlerian duten pisuaren emaitza ere. Ildo horretan, azterketak identifikatzen ditu, bazterkeriaren gizarte-espazioaren barruan ugarietak diren talde edo profilez gain, haien pisu espezifikoaz biztanlerian duten pisua baino askoz handiagoa dutenak eta, ondorioz, espazio horretan errepresentazio handia duten talde edo profilak ere; eta, beste muturrean, agerpen eskasa dutenak ere bai.

Ondoko grafikoak erakusten duenez **bazterkeriaren gizarte-eremuaren barruan den talderik ugariena zera da, bikotea eta haien seme-alabek osatutako familia-unitateak: Euskadin gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsona guztien ia %65 eta EAEko biztanleria osoaren %7,6 egoera horretan daude, alegia, familia osatzen dute bikoteak eta beren umeek.**

Era berean, **familia-burua atzerritar jatorriko pertsona bat duten etxeetan bizi diren pertsonak bazterketaren eremuko talderik handiena osatzen dute. Hain zuzen ere, bazterketa-egoeran dauden pertsona guztien %64,2 eta EAEko biztanleen %7,5 daude egoera horretan.** Datu horrek berresten du esaten ari garena, alegia, **gizarte-bazterkeriak oso izaera kanpotarra duela Euskadin**, atzerritar jatorriko pertsonak oso errepresentazio handia baitute eremu horretan: esate baterako, EAEko biztanleriaren bosten bat (%21,4) soilik bizi da atzerritar jatorriko pertsona bat buru duen familia-unitate batean, baina bazterkeriaren gizarte-eremuan duen pisu espezifikoaz askoz handiagoa da, izan ere, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsona guztien bi heren dira.

Bi talde edo profil horien atzetik, hiriguneetan kokatutakoak dira ugarietak: gizarte-bazterkeriako egoeran dauden biztanleen %62,1 -EAEko biztanleriaren %7,3- hiriguneetan bizi dira. Era berean, **gizarte-bazterkeriaren eremuan gehiago nabarmena dira Espainiako nazionalitatea duten pertsonak (%58) eta gizon bat buru duten familia-unitateetan bizi diren pertsonak (%57,4).**


Datu bat azpimarratzea merezi du: gizarte-bazterketako egoeran dauden eta familia-buru lanean ari den pertsona bat duten pertsonen portzentajea handia da, egoera hori iristen baita gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsona guztien erdira (%50,8). Azterketa sakonagorik ezean, badirudi datu hori bat datorrela egungo enplegua lan-merkatuan integratzeko gaitasuna galtzen ari dela adierazten duten baieztapenekin **(14)**.

Azkenik, galdera hau egin daiteke, ea zein diren Euskadin bazterkeriaren gizarte-esparruan errepresentaziorik urriena duten kolektiboak. Ondoko grafikoan ikus daitekeenez, seme-alabarik gabeko bikote batek osatutako familia-unitateetan bizi diren pertsonak bazterkeria-egoeran dauden pertsona guztien %2,5 baino ez dira, eta EAEko biztanleria osoa kontuan hartuta %0,3 dira. Euskal Autonomia Erkidegoan familia-unitate mota hori %13,4 da, alegia, bazterkeriaren gizarte-esparruan duen pisu txikia ikusita, errepresentazio nabarmen urria duela ematen du eta, beraz, lehen esan den bezala, badirudi seme-alabarik ez izatea gizarte-bazterkeriaren aurkako faktore babeslea dela.

Era berean, errepresentazio urrieneko taldeen artean daude ohiko tipologiekin batez datozen familia-taldeen osatutako familia-unitateetan bizi diren pertsonak, izan ere, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsona guztien %6,3 baitira. Bazterkeriaren gizarte-eremuan presentzia txikia dute diru-sarrerarik gabeko etxeetan bizi diren pertsonak ere, lehen ikusitako intzidentzia-tasa handiak badituzte ere. Pertsona horiek EAEko biztanleriaren %0,7 dira, eta gizarte-bazterketako prozesuek ukitutako pertsona guztiak EAEko biztanleriaren %6 dira. Pertsona horiek pisu txikia dute bazterketa-eremuan, batik bat, diru-sarrerarik gabeko familia-unitateek EAEko familia guztien %1 bakarrik direlako. Era berean, 65 urtetik gorakoek eta erretirodun bat buru duen familia-unitate batean bizi direnek pisu nabarmen urria dute bazterkeriaren gizarte-eremuan (%8,4 eta %7,7 hurrenez hurren); are urriago ageri da haien pisua, kontuan hartzen bada 65 urtetik gorako pertsonak EAEko biztanleria osoaren %17,8 direla eta erretirodun bat buru duten familia-unitateetan bizi direnak, berriz, %21,4.

(14) FOESSA Fundazioa. (2024). *Arriskua duen gizartea: Integrazio prekarioko eredu baterantz*. Madril: FOESSA Fundazioa.

15. GRAFIKOA. Euskadin gizarte-bazterkeriak ukitutako biztanleriaren portzentajeak, norbanakoen, sostengatzaile nagusiaren eta familia-unitatearen hainbat ezaugarriren arabera (2024)



1. oharra: ukitutako biztanleriaren zenbatespena egiteko, oinarritzat hartu dira EINen etengabeko estatistikako zifrak, 2021eko urtarrilaren 1ean etxebizitza familiarretan bizi ziren pertsonen dagozkienak. Ehuneko horrek adierazten du gizarte-bazterketako egoeran dauden eta ezaugarri jakin batzuk dituzten gizarte-talde bakoitzak Euskadiko biztanleria osoarekiko duen proportzioa; parentesi artean, berriz, beharrezko estimazioa ematen da, ezaugarri jakin batzuk dituzten eta gizarte-bazterketak ukitzen dituen pertsonen kopurua emanda, milakotan.

2. oharra: norbanakoen ezaugarriak (N); sostengatzaile nagusiaren ezaugarriak (SN); eta familia-unitateen ezaugarriak (FU). Iturriak: EINSFOESSA 2024; EIN. Biztanleriaren estatistika etengabea.

Ondoko bi taulek informazio xehatua ematen dute 2018., 2021. eta 2024. urteetarako, kapitulu honetan aztertu diren talde soziodemografikoetan gizarteratzeak eta gizarte-bazterketak duten agerpenari buruz eta gizarte-bazterketaren banaketari buruz, aintzakotzat hartzen diren aldagai espezifikoetako bakoitza kontuan hartuta.

6. TAULA. Gizarteko integrazioaren eta bazterkeriaren mailak Euskadiko biztanleengan duen intzidentziaren bilakaera, norbanakoen, sostengatzaile nagusiaren eta familia-unitatearen hainbat ezaugarriren arabera (2018-2024)

Intzidentzia (%)	Espainia						Euskadi					
	Integrazioa			Bazterketa			Integrazioa			Bazterketa		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024
Norbanakoen ezaugarriak												
Sexua												
Gizona	81,7	77,0	80,4	18,3	23,0	19,6	86,8	83,5	86,7	13,2	16,5	13,3
Emakumea	81,7	76,2	81,0	18,3	23,8	19,0	85,4	83,6	89,7	14,6	16,4	10,3
Adina												
18 urtetik behera	72,9	66,0	71,0	27,1	34,0	29,0	71,7	72,3	80,1	28,3	27,7	19,9
18-29 urte	76,7	71,5	75,2	23,3	28,5	24,8	86,9	78,2	90,8	13,1	21,8	9,2
30-44 urte	80,9	75,1	79,7	19,1	24,9	20,3	81,7	80,3	85,6	18,3	19,7	14,4
45-64 urte	83,3	77,2	83,0	16,7	22,8	17,0	88,8	83,2	90,2	11,2	16,8	9,8
65 urte eta gehiago	92,4	90,8	92,5	7,6	9,2	7,5	93,1	97,8	94,5	6,9	2,2	5,5
Jaiolekua												
Espainia	85,2	81,3	84,9	14,8	18,7	15,1	89,0	88,4	92,2	11,0	11,6	7,8
Beste herrialde bat	57,2	50,4	61,2	42,8	49,6	38,8	54,3	51,1	66,9	45,7	48,9	33,1
Nazionalitatea												
Espainiarra	85,0	80,5	84,7	15,0	19,5	15,3	88,6	87,7	92,2	11,4	12,3	7,8
Atzeritarra	52,4	44,4	55,2	47,6	55,6	44,8	50,9	41,2	59,3	49,1	58,8	40,7
Sostengatzaile nagusiaren ezaugarriak												
Sexua												
Gizona	83,0	79,7	82,9	17,0	20,3	17,1	90,4	84,5	90,0	9,6	15,5	10,0
Emakumea	78,5	70,1	75,7	21,5	29,9	24,3	77,4	81,3	84,6	22,6	18,7	15,4
Adina												
45 urtetik behera	76,0	69,8	72,5	24,0	30,2	27,5	79,9	74,6	81,1	20,1	25,4	18,9
45-64 urte	82,2	75,5	81,6	17,8	24,5	18,4	87,3	82,1	90,6	12,7	17,9	9,4
65 eta gehiago	90,0	88,6	90,9	10,0	11,4	9,1	89,2	96,5	93,2	10,8	3,5	6,8
Ikasketa-maila												
Ikasketarik ez edo lehen maila osatu gabe	69,6	63,3	68,4	30,4	36,7	31,6	82,5	55,3	74,7	17,5	44,7	25,3

Intzidentzia (%)	Espainia						Euskadi					
	Integrazioa			Bazterketa			Integrazioa			Bazterketa		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024
Lehen mailako ikasketak	78,3	70,5	75,3	21,7	29,5	24,7	81,9	78,4	76,2	18,1	21,6	23,8
Bigarren mailako ikasketak	85,7	81,8	86,1	14,3	18,2	13,9	84,5	86,0	93,3	15,5	14,0	6,7
Goi-mailako ikasketak	93,7	89,9	91,7	6,3	10,1	8,3	92,9	96,1	95,8	7,1	3,9	4,2
Egoera okupazionala												
Lanean	86,6	85,0	86,4	13,4	15,0	13,6	88,3	91,1	91,0	11,7	8,9	9,0
Lan bila	12,8	14,4	18,2	87,2	85,6	81,8	22,2	9,0	21,8	77,8	91,0	78,2
(Aurre-) edo erretiratua edo pentsioduna	88,4	86,2	90,1	11,6	13,8	9,9	90,0	95,8	95,8	10,0	4,2	4,2
Jarduerarik gabeko beste egoera batzuk	73,2	61,7	61,0	26,8	38,3	39,0	78,8	78,8	78,6	21,2	21,2	21,4
Jaiolekua												
Espainia	86,6	83,1	86,7	13,4	16,9	13,3	90,4	90,6	94,7	9,6	9,4	5,3
Beste herrialde bat	54,2	48,2	60,4	45,8	51,8	39,6	47,5	47,1	64,7	52,5	52,9	35,3
Nazionalitatea												
Espainiarra	85,6	81,2	85,7	14,4	18,8	14,3	89,2	87,6	93,7	10,8	12,4	6,3
Atzerritarra	51,7	41,5	54,3	48,3	58,5	45,7	48,6	40,4	57,1	51,4	59,6	42,9
Familia-unitateen ezaugarriak												
Pobrezia												
Pobreziarik ez	94,7	88,8	91,1	5,3	11,2	8,9	94,6	90,0	95,9	5,4	10,0	4,1
Pobrezia baina ez larria	51,9	40,1	40,0	48,1	59,9	60,0	45,2	17,9	33,1	54,8	82,1	66,9
Pobrezia larria	5,4	2,9	7,0	94,6	97,1	93,0	6,0	1,7	0,0	94,0	98,3	100,0
Diru-sarrerara mota												
Jarduerako sarrerak bakarrik	83,6	79,8	81,4	16,4	20,2	18,6	87,8	84,0	88,2	12,2	16,0	11,8
Jarduerako eta babeseko diru-sarrerak	80,9	71,3	74,9	19,1	28,7	25,1	80,5	81,1	85,7	19,5	18,9	14,3
Jarduerako sarrerak bakarrik	78,6	69,2	70,9	21,4	30,8	29,1	83,6	72,7	78,6	16,4	27,3	21,4
Jarduerako eta babeseko sarrerarik gabe	19,0	5,7	10,8	81,0	94,3	89,2	31,9	15,4	7,7	68,1	84,6	92,3
Familiaren osaera												
Pertsona bakarra	84,5	78,1	79,2	15,5	21,9	20,8	90,5	85,2	85,2	9,5	14,8	14,8
Seme-alabarik gabeko bikotea	91,8	90,7	90,5	8,2	9,3	9,5	94,4	96,4	97,8	5,6	3,6	2,2

Intzidentzia (%)	Espainia						Euskadi					
	Integrazioa			Bazterketa			Integrazioa			Bazterketa		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024
Bikotea seme-alabekin	81,2	75,6	81,1	18,8	24,4	18,9	85,5	81,6	86,8	14,5	18,4	13,2
Guraso bakarreko etxea	68,9	57,9	65,0	31,1	42,1	35,0	69,8	71,3	85,5	30,2	28,7	14,5
Beste talde batzuk	73,5	77,1	82,5	26,5	22,9	17,5	87,4	78,0	90,4	12,6	22,0	9,6
Familia-unitatearen tamaina												
Pertsona bat	84,5	78,1	79,2	15,5	21,9	20,8	90,5	85,2	85,2	9,5	14,8	14,8
Bi eta lau pertsona artean	85,5	80,7	85,0	14,5	19,3	15,0	88,3	86,8	92,2	11,7	13,2	7,8
5 pertsona edo gehiago	58,1	56,0	61,8	41,9	44,0	38,2	67,6	51,3	65,4	32,4	48,7	34,6
Umeak familian < 18												
Adingaberik ez	87,0	83,0	86,3	13,0	17,0	13,7	92,0	91,0	92,6	8,0	9,0	7,4
Adingabe bat	81,9	74,7	79,8	18,1	25,3	20,2	78,8	70,6	88,8	21,2	29,4	11,2
Bi adingabe edo gehiago	68,6	63,3	69,1	31,4	36,7	30,9	66,2	75,6	78,8	33,8	24,4	21,2
Urbanizazio maila												
Bi adingabe edo gehiago	68,6	63,3	69,1	31,4	36,7	30,9	66,2	75,6	78,8	33,8	24,4	21,2
Hiri-eremua	81,5	74,8	80,2	18,5	25,2	19,8	84,8	82,7	88,3	15,2	17,3	11,7
Eremu erdi-hiritarra	80,5	77,4	81,0	19,5	22,6	19,0	87,8	86,2	94,9	12,2	13,8	5,1
Biztanleria osoa	81,7	76,6	80,7	18,3	23,4	19,3	86,1	83,5	88,2	13,9	16,5	11,8

Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024

7. TAULA. Gizarteko integrazioaren eta bazterkeriaren mailak Euskadiko biztanleengan duen eraginaren bilakaera, ehunekotan, norbanakoen, sostengatzaile nagusien eta familia-unitateen hainbat ezaugarriren arabera (2018-2024)


Banaketa (%)	Espainia						Euskadi					
	Integrazioa			Bazterketa			Integrazioa			Bazterketa		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024
Norbanakoen ezaugarriak												
Sexua												
Gizona	48,9	49,2	49,0	49,0	48,0	50,0	48,0	48,9	48,3	45,1	49,1	55,4
Emakumea	51,1	50,8	51,0	51,0	52,0	50,0	52,0	51,1	51,7	54,9	50,9	44,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Adina												
18 urtetik behera	15,8	15,8	16,6	26,2	26,7	28,4	10,5	16,0	17,8	25,7	31,1	33,3

Banaketa (%)	Espainia						Euskadi					
	Integrazioa			Bazterketa			Integrazioa			Bazterketa		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024
18-29 urte	12,9	12,5	13,5	17,5	16,4	18,6	16,1	11,1	14,4	15,1	15,7	10,9
30-44 urte	21,9	20,1	19,1	23,2	21,8	20,4	14,7	18,0	17,2	20,3	22,5	21,8
45-64 urte	28,5	28,1	29,5	25,4	27,3	25,3	36,8	26,8	31,5	28,8	27,5	25,7
65 urte eta gehiago	20,9	23,4	21,3	7,6	7,8	7,2	21,9	28,1	19,1	10,1	3,2	8,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Jaiolekua												
Espainia	91,2	90,2	86,5	70,6	68,2	64,4	94,8	92,1	88,2	72,7	61,5	56,0
Beste herrialde bat	8,8	9,8	13,5	29,4	31,8	35,6	5,2	7,9	11,8	27,3	38,5	44,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Nazionalitatea												
Espainiarra	93,5	93,8	90,7	73,7	74,7	68,3	96,0	95,6	91,9	76,4	68,0	58,0
Atzeritarra	6,5	6,2	9,3	26,3	25,3	31,7	4,0	4,4	8,1	23,6	32,0	42,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Sostengatzailer nagusiaren ezaugarriak												
Sexua												
Gizona	72,8	70,6	71,1	66,7	58,8	61,3	70,3	71,5	68,8	46,5	66,6	57,4
Emakumea	27,2	29,4	28,9	33,3	41,2	38,7	29,7	28,5	31,2	53,5	33,4	42,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Adina												
45 urtetik behera	33,5	30,7	29,1	47,1	43,6	46,1	20,5	28,1	28,1	32,0	48,6	49,0
45-64 urte	42,2	42,3	46,2	40,8	45,0	43,5	53,7	41,4	50,9	48,6	45,8	39,4
65 eta gehiago	24,3	27,0	24,7	12,1	11,4	10,3	25,8	30,5	21,0	19,4	5,6	11,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Ikasketak-maila												
Ikasketarik ez edo lehen maila osatu gabe	19,4	18,5	19,1	37,9	35,2	36,7	14,7	5,3	11,8	19,3	21,8	30,2
Lehen mailako ikasketak	25,9	23,0	23,1	32,0	31,4	31,7	19,1	29,3	15,9	26,1	41,1	37,4
Bigarren mailako ikasketak	30,8	32,9	33,0	22,9	24,0	22,2	35,0	37,8	41,6	39,8	31,4	22,4
Goi-mailako ikasketak	23,9	25,6	24,8	7,2	9,4	9,4	31,3	27,6	30,6	14,8	5,7	10,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Egoera okupazionala												
Lanean	67,6	64,8	67,0	46,8	37,7	44,2	66,9	62,6	68,7	55,1	31,3	50,8
Lan bila	1,0	1,9	1,5	29,4	37,0	28,4	0,8	1,1	1,0	16,5	56,0	27,0
(Aurre-) edo erretiratua edo pentsioduna	26,3	28,2	25,7	15,4	14,8	11,9	26,1	32,2	23,2	18,0	7,2	7,7
Jarduerarik gabeko beste egoera batzuk	5,1	5,1	5,8	8,4	10,4	15,6	6,3	4,1	7,1	10,5	5,6	14,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Banaketa (%)	Espainia						Euskadi					
	Integrazioa			Bazterketa			Integrazioa			Bazterketa		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024
Jaiolekua												
Espainia	90,0	88,4	82,9	62,4	59,1	53,1	94,5	90,9	84,3	62,3	48,0	35,8
Beste herrialde bat	10,0	11,6	17,1	37,6	40,9	46,9	5,5	9,1	15,7	37,7	52,0	64,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Nazionalitatea												
Espainiarra	92,8	93,8	89,2	69,8	71,4	62,1	95,7	95,8	90,4	71,9	68,8	45,6
Atzerritarra	7,2	6,2	10,8	30,2	28,6	37,9	4,3	4,2	9,6	28,1	31,2	54,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Familia-unitateen ezaugarriak												
Pobrezia												
Pobreziarik eza	91,6	92,2	91,9	21,8	30,9	28,3	95,2	98,0	96,1	30,3	41,8	22,7
Pobrezia baina ez larria	7,8	7,3	7,2	30,9	29,1	34,1	4,3	1,9	3,9	29,2	32,6	43,9
Pobrezia larria	0,6	0,5	0,9	47,3	40,0	37,6	0,5	0,1	0,0	40,6	25,6	33,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Diru-sarrera mota												
Jarduerako sarrerak bakarrik	55,7	47,9	54,1	46,8	32,2	38,8	57,1	33,0	50,1	44,6	23,9	37,5
Jarduerako eta babeseko diru-sarrerak	24,2	29,7	25,2	24,5	31,8	26,6	18,2	40,3	32,9	24,6	36,0	30,6
Babeseko diru-sarrerak bakarrik	19,8	22,2	20,3	23,1	26,3	26,2	24,4	26,7	17,0	26,9	38,3	25,9
Ez jarduerako ez babeseko sarrerarik	0,3	0,2	0,3	5,6	9,6	8,4	0,3	0,1	0,1	3,9	1,8	6,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Familiaren osaera												
Pertsona bakarra	10,4	8,8	10,5	8,5	8,1	11,6	13,9	10,9	9,8	9,0	9,6	12,7
Seme-alabarik gabeko bikotea	20,2	23,6	18,3	8,1	8,0	8,0	20,6	24,2	14,8	7,6	4,6	2,5
Bikotea seme-alabekin	54,4	48,7	54,1	56,1	51,5	52,8	49,9	47,5	56,8	52,3	54,3	64,9
Guraso bakarreko etxea	8,0	10,0	9,1	16,0	23,7	20,6	9,6	10,8	10,6	25,7	22,0	13,5
Beste talde batzuk	7,1	8,9	8,0	11,4	8,7	7,0	6,0	6,6	7,9	5,4	9,4	6,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Familia-unitatearen tamaina												
Pertsona bat	10,4	8,8	10,5	8,5	8,1	11,6	13,9	10,9	9,8	9,0	9,6	12,7
Bi eta lau pertsona artean	80,0	79,9	77,4	60,4	62,7	57,2	76,5	83,8	81,3	62,7	64,9	52,0
5 pertsona edo gehiago	9,7	11,3	12,0	31,1	29,2	31,2	9,5	5,3	8,9	28,3	25,5	35,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Banaketa (%)	Espainia						Euskadi					
	Integrazioa			Bazterketa			Integrazioa			Bazterketa		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024	2018	2021	2024
Umerik familian < 18												
Adingaberik ez	60,4	60,5	59,7	40,4	40,8	39,7	75,3	62,8	56,3	40,6	31,7	33,9
Adingabe bat	20,2	19,9	18,6	19,9	22,1	19,7	12,5	15,4	20,5	20,7	32,6	19,5
Bi adingabe edo gehiago	19,4	19,6	21,7	39,7	37,1	40,6	12,2	21,8	23,2	38,7	35,7	46,7
Urbanizazio-maila												
Hiri-eremua	55,0	52,1	51,9	55,7	57,5	53,6	67,3	65,0	62,1	74,5	69,1	62,1
Eremu erdi-hiritarra	31,8	34,4	35,2	34,5	32,9	34,6	21,4	23,4	28,3	18,3	19,0	11,3
Landa-eremua	13,2	13,5	12,8	9,8	9,6	11,9	11,3	11,7	9,5	7,2	11,9	26,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.



2

● blokea

Arrisku-elementuak euskal gizartean: Integrazio prekarioko eredu baterantz

Edukia

3. kapitulua.	Suspertzen ari den baina artean hainbat itzal erakusten dituen lan-merkatua	101
4. kapitulua.	Pobrezia murriztu egiten da diru-sarrerak bermatzeko sistemara biltzen diren pertsonak gero eta gehiago direlarik	117
5. kapitulua.	Etxebizitza lortzea gero eta zailagoa da eta egoera desegokian dagoen etxe batean bizi diren pertsonak gero eta gehiago dira	135
6. kapitulua.	EAEko herritarrak zerbitzuetan gehiago gastatzearen eta horien unibertsaltasuna indartzearen alde daude	153
7. kapitulua.	Harremanen ardatzarekin lotutako arazoak murriztu egin dira	173
8. kapitulua.	Osasun mentala eta ongizate emozionala: eragina prekarietate eta bazterketako egoeran dauden herritarrengan, eta Euskadin jasotzen duten osasun-arreta	187

3. kapitulua

Suspertzen ari den baina artean hainbat itzal erakusten dituen lan-merkatua

3.1. Sarrera

Lan-merkatuaren egoerak dinamismo handia erakutsi izan du azken bosturtekoan. 2018ko egoeraren abiaburua zen lan-merkatuaren susperraldia, artean ere jarraitzen zuena, 2008an hasitako krisi ekonomiko luzearen ondoren. Langabezia, oraindik altua izan arren, jaisten hasia zen, baina egiturazko arazo handiek jarraitzen zuten, hala nola, behin-behinekotasun handiak eta gazteen langabeziak. Espainiako ekonomia egonkortzen hasia zen, eta enpleguaren sorrerak gora egin zuen. Egoera hori bat-batean eten zen 2020an, COVID-19aren pandemiaren ondorioz. Konfinamenduak eta birusaren hedapena kontrolatzeko eragozpen fisikoek krisi ekonomikoa ekarri zuten, langabeziaren eta aldi baterako lan-erregulazioen gorakada, baina, aldi berean, enplegua eta kaltetutako pertsonak babesteko neurri garrantzitsuak ere abiatu zituen gobernuak. Hala ere, 2022tik hona, pandemia gaingiduta, lan merkatuaren hobekuntza orokorra gertatu da, okupazioa handitu eta behin-behinekotasuna murriztu dira, eta zalantzarik gabe, gizarteratzearen dinamiketan berriki izandako hobekuntzaren gakoetako bat izan da hori.

Kapitulu honetan aztertzen da nolako bilakaera izan duten 2018tik aurrera Euskadin lan-merkatuarekin lotutako adierazle nagusiek. Lehenik eta behin, landunen kopuruaren eta langabezia-tasen bilakaera aztertzen da, eta enpleguaren kalitatearekin lotutako adierazle batzuk ere bai. Bigarren epigrafeak aztertzen du nolako lotura dagoen Euskadiko enpleguaren dimentsioko arazoen eta gizarte-bazterketako egoeren artean, eta halaber, EAEko biztanleriak enpleguaren dimentsioari dagokionez dituen arazo nagusiak ere.

3.2. Enpleguak gora egin du, batez ere immigrazioari esker; soldatak, berriz, gelditu egin dira


2018tik, lan merkatuak enplegu berrien kopuru nabarmena sortu du Euskadin, eta argi samar gainditu du COVID-19aren krisia hasi aurretik erregistratzen ziren pertsona landunen kopurua; horrekin batera, langabezia-tasen murrizketa etorri da. Urte bakoitzeko azken eta lehen hiruhilekoetan ikusten diren urtaroko aldaketa ohikoak agertzen badira ere, 2018tik 2024ra bitartean bizitasun handiko lan merkatua ikusi izan da, landunen kopuruaren igoera nabarmena ere tartean dela, eta horrenbestez, COVID-19ak eragindako pandemiaren aurreko enplegu mailak, berreskuratu ez ezik, gainditu ere egin dira **(15)**.

Erreferentzia gisa hartzen bada urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoa, 2019 eta 2024 bitartean 42.000 enplegu garbi inguru sortu dira Euskadin, hau da, %4,4ko igoera izan da pertsona okupatuen kopuruan. Izan ere, Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestak (BJA) 2024ko laugarren hiruhilekorako erregistratu duen biztanleria landuna serie historiko osoko -1985ean hasi zen- ugariena da, eta 2008an, hau da, finantza-krisi handiaren aurretik, erregistratutakoa gainditzen du. Ikuspegi horretatik, beraz, azken urteetan izandako bilakaera positibotzat har daiteke, EAEko lan-merkatuan milioi bat pertsona inguru baitaude okupatuta.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da Euskadiko okupazioaren hazkundera Espainiakoa baino txikiagoa izan dela, eta zerbitzuen sektorean zentratu dela. 8. taulan ikus daitekeenez (Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak erabili dira), 2018. eta 2014. urteen artean, pertsona landunen kopurua ia %7 hazi da Euskadin, eta Estatu osoan, berriz, %12. Okupazioaren bilakaera sektoreka aztertuz gero, ikusten da, arestian esandakoaz gain, hazkundera zerbitzuen sektorean bakarrik gertatu dela -ia

(15) 16. grafikoak ematen dituen datuak Eustatek egiten duen Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkestatik (BJA) datoz. Kasu honetan, epigrafe honetan bertan jasotzen diren gainerako emaitzetan ez bezala (horietan Euskadiren eta Espainia osoaren arteko konparazioa ematen da beti), datuak ez dira EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestatik atera, baizik eta estatistika-lan horretatik. Lan horrek, Euskal Autonomia Erkidegorako Biztanleria Aktiboaren Inkestak baino lagin askoz zabalagoa du eta, beraz, okupazioaren hiruhilekoetako aldakuntzek lagin-errorearen tarte txikiagoa dute. Pertsona landunen guztizko kopuruari dagokionez, bi eragiketek oso antzeko zifrak jasotzen dituzte: Biztanleria Aktiboaren Inkestak (EIN) 987,7 mila landun, batez beste, 2024an, eta Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestak (BJA), berriz, 991,4 mila.

16. GRAFIKOA. Euskadiko landunen kopuruaren bilakaera eta aldaketa hiru hilekoaren arabera (2018-2024)



Iturria: EUSTAT. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA)

75.000 enplegu berri-, eta gainerako produkzio-sektoreek, berriz, okupazioa galdu dutela. Industriaren kasuan, landunen kopuruaren murrizketa %3,0koa izan da -sei mila lagun inguru-; eraikuntzaren kasuan, berriz, murrizketa %6,8koa izan da, eta lehen sektorean %8,5ekoa. Horrek guztiak aldatu egin du EAEko produkzioaren egitura -gutxienez, pertsona landunen banaketaren ikuspegitik-, industriaren pisu erlatiboa zertxobait jaitsi egin baita, pertsona landunen kopuruari dagokionez. Hala eta guztiz ere, industriako enpleguaren pisua handiagoa da Euskadin Estatu osoan baino.

8. TAULA. Landunen kopuruaren bilakaera (milakotan) Euskadin eta Espainian, sektore ekonomikoaren arabera (2018-2024)

	Pertsona okupatuaren kopurua (milakotan)				Banaketa sektorearen arabera		
	2018	2021	2024	Bilakaera 2018-24	2018	2021	2024
Espainia							
Lehen sektorea	812,6	818,0	752,1	-%7,4	%4,2	%4,1	%3,5
Industria	2.708,3	2.710,6	2.886,8	+%6,6	%14,0	%13,7	%13,3
Eraikuntza	1.221,8	1.315,2	1.463,8	+%19,8	%6,3	%6,6	%6,8
Zerbitzuak	14.585,1	14.989,7	16.551,1	+%13,5	%75,5	%75,6	%76,4
Guztira	19.327,7	19.833,5	21.653,9	+%12,0	%100,0	%100,0	%100,0
Euskadi							
Lehen sektorea	9,3	8,6	8,5	-%8,5	%1,0	%0,9	%0,9
Industria	200,8	205,9	194,7	-%3,0	%21,7	%21,7	%19,7
Eraikuntza	50,3	46,5	46,9	-%6,8	%5,4	%4,9	%4,7
Zerbitzuak	663,3	685,8	737,7	+%11,2	%71,8	%72,4	%74,7
Guztira	923,6	946,8	987,7	+%6,9	%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Aurrerago erakutsiko dugun 9. taulak aztertzen du Euskadiko eta Espainiako landunen kopuruaren bilakaera, landunen ezaugarri soziodemografiko nagusietako batzuk kontuan hartuta (sexua, adina eta jaioterria). Azterketak 2018 eta 2024 artean izandako bilakaerari erreparatzen badio, ondorio nagusia sortzen da atzerrian jaiotako biztanleria okupatuaren hazkunde nabarmenaren inguruan: Euskadin, Espainiako estatutik kanpo jaiotako pertsona landunen kopurua %57,1 handitu da –Estatu osoan baino are gehiago, non hazkundera %52,3koa izan baita–, eta Espainiako estatuan jaiotako biztanleria landunaren kasuan, berriz, %1,4koa izan da hazkundera. Izan ere, Euskadin pertsona landunen kopuruan eman den hazkundearen %80 atzerrian jaiotako pertsonak EAEko lan-merkatura iristearen ondorio da, eta enpleguaren hazkundearen %20 inguru da, berriz, -11.000ren bat lagun– Espainian jaiotako pertsonak eskuratutako enpleguaren portzentajea. Sei urte horietan, Estatuan jaiotako pertsonen pisua biztanleria landunaren %90 izatetik %85era igaro da eta, beraz, aldaketa horiek gorabehera, gogoratu daiteke EAEko lan-merkatua Estatuan jaiotako pertsonen osatzen dela gehienbat **(16)**.

(16) Estatu osoan, nazionalitate espainiarra duen biztanleria okupatuaren pisua %83tik %77ra igaro da. Beraz, zera esan daiteke, EAEko lan-merkatuan atzerrian jaiotako biztanleria landunak duen presentzia Estatu osoan baino nabarmen txikiagoa dela.

EAEko lan-merkatuan pisu erlatiboa galdu duten taldeak Espainiako nazionalitatea duten gizonak -murrizketa oso txikia bada ere- eta, batez ere, 30 eta 44 urte bitarteko pertsonak dira. Hala eta guztiz ere, pentsa daiteke talde horretan okupatutako pertsonen kopurua gehiago murriztu dela talde horren biztanleria-hazkunde txikiagatik lan-merkatuaren funtzionamenduagatik baino. Aipatzekoa da, halaber, emakume landunen kopurua gehiago handitu dela (%8,6) gizon landunen kopurua baino (%5,4), eta, horrenbestez, emakumeek EAEko lan-merkatuan duten pisu erlatiboa neurri txiki batean hazi egin dela aldi horretan. Kasu honetan ere, Espainiako lan-merkatuarekiko desberdintasun batzuk ikus daitezke EAEko lan-merkatuan, oso nabarmenak ez badira ere: Espainian, pertsona okupatuen %46,4 dira emakumeak, eta Euskadin, berriz, %48,5.


9. TAULA. Landunen kopuruaren bilakaera Euskadin eta Espainian, sexuaren, adinaren eta jaiolekuaren arabera (2018-2024)

	Espainia				Euskadi			
	2018	2021	2024	Bilakaera (2018-24) %	2018	2021	2024	Bilakaera (2018-24) %
Gizonak	10.532,0	10.733,2	11.601,4	+10,2	482,4	491,2	508,6	+5,4
Emakumeak	8.795,7	9.100,3	10.052,5	+14,3	441,1	455,7	479,2	+8,6
16-29 urte	2.662,3	2.641,6	3.186,5	+19,7	113,6	116,7	128,5	+13,1
30-44 urte	7.961,5	7.528,8	7.581,1	-4,8	362,3	338,9	312,3	-13,8
45-64 urte	8.512,6	9.375,8	10.532,5	+23,7	440,0	478,5	530,8	+20,6
Jaiolekua Espainia	16.129,0	16.202,7	16.782,0	+4,0	832,0	827,0	843,8	+1,4
Jaiolekua atzerria	3.198,7	3.630,8	4.871,9	+52,3	91,6	119,8	143,9	+57,1
Gizonak 16-29	1.404,3	1.393,4	1.709,0	+21,7	59,0	59,4	63,8	+8,1
Emakumeak 16-29	1.258,0	1.248,3	1.477,5	+17,4	54,6	57,4	64,7	+18,4
Gizonak 30-44	4.298,1	4.018,5	4.039,9	-6,0	186,4	177,1	162,2	-13,0
Emakumeak 30-44	3.663,4	3.510,3	3.541,2	-3,3	175,9	161,9	150,1	-14,7
Gizonak 45-64	4.717,3	5.156,5	5.654,8	+19,9	231,8	247,7	274,6	+18,5
Emakumeak 45-64	3.795,3	4.219,4	4.877,7	+28,5	208,2	230,8	256,2	+23,0
Gizonak Espainia	8.877,2	8.817,5	9.067,3	+2,1	441,6	434,7	437,8	-0,9
Emakumeak Espainia	7.251,8	7.385,2	7.714,7	+6,4	390,3	392,3	406,0	+4,0
Gizon atzerritarrak	1.654,7	1.915,7	2.534,1	+53,1	40,8	56,5	70,8	+73,5
Emakume atzerritarrak	1.543,9	1.715,1	2.337,8	+51,4	50,8	63,4	73,1	+43,9
Guztira	19.327,7	19.833,5	21.653,9	+12,0	923,6	946,8	987,7	+6,9

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Bestalde, esanguratsua da kasu guztietan biztanleria landunaren ehunekoaren hazkundera biztanleria aktiboarena baino handiagoa izan dela. Gauza bera gertatzen da beherakaden kasuan ere, pertsona aktiboen kopurua landunen kopurua baino gehiago jaitsi baita. Bestela esanda, talde demografiko guztietan, 16 eta 29 urte bitarteko gizonetan izan ezik, landunen kopurua gehiago hazi da lan egiteko prest daudenen kopurua baino.

17. GRAFIKOA. Euskadiko pertsona aktiboen eta landunen kopuruetako aldaketen tasa 2018 eta 2024 artean, sexuaren, adinaren eta jaiolekuaren arabera




Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Logikoa denez, krisi pandemikoa gairitu ondoren okupazioak izan zuen bilakaerak langabezia-tasak ondorengo urteetan erakutsi duen joeran izan du isla. Gaur egun, Espainia osoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia-tasak $-11,3$ eta $8,1$ hurrenez hurren- are handiagoak dira, baina 2007an, krisi ekonomikoaren aurretik, zeuden tasen oso antzekoak (17). Epe laburragoan, 2018tik, langabezia-tasa ia 20 murriztu da Euskadin, $10,0$ tik $8,1$ era. Enpleguaren susperraldia, beraz, egitate bat da Euskadin.

(17) 2007an, esaterako, langabezia-tasa, BAiren arabera, $6,2$ koa zen Euskadin, eta $8,2$ koa Espainian.

18. GRAFIKOA. Enplegu, langabezia eta iraupen luzeko langabezia tasaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2018-2024)




Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Langabezia-tasa orokorrarekin batera, nabarmen egin du behera iraupen luzeko langabezia-tasak ere, izan ere, 2024. urtean %2,7koa izan baita Euskadin eta, beraz, 2008ko krisiaren aurretik zeuden oso antzeko mailetan. 2018 eta 2024 artean, tasa hori ehuneko 2,0 eta 2,6 puntu murriztu da Euskadin eta Espainian, hurrenez hurren. Murrizketa hori gorabehera, datu horrek esan nahi du Euskadin adin aktiboan dauden eta lan egiteko prest dauden pertsona guztien %2,7k gutxienez urtebete daramatela langabezian, eta langabezian dauden pertsona guztien herenak egoera horretan daudela.

Nolanahi ere, Euskadin langabezia-tasa %10etik %8,1era jaitsi da 2018 eta 2024 bitartean, baina murrizketa horrek ez du eragin bera izan talde sozialetan. Izan ere, langabezia-tasek nabarmen desberdinak izaten jarraitzen dute lan egiteko prest dagoen biztanleriaren sexua, adina edo jatorria kontuan hartzen bada. Ondoko grafiko honetan ikusten den bezala, langabezia-tasarik handienak jaso ziren, 2024an, gizon atzeritarren (%21,5), 16 eta 29 urte bitarteko gizonen (%20,5) eta atzeritarren biztanleria osoaren (%19,4) herritar-multzoetan. Bilakaerari dagokionez, eta termino erlatiboetan, langabezia-tasen jaitsierarik handienak 2018az geroztik izan dira emakumeen multzoan, Espainian jaiotako biztanleen multzoan eta 45-64 urtekoen multzoan.

19. GRAFIKOA. Langabezia-tasaren bilakaera Euskadin, sexuaren, adinaren eta jaiolekuaren arabera (2018-2024)



*Esp.: espainiarrak; Atz.: atzeritarrak.

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

Okupazioa hazi egin da eta langabezia murriztu, baina enpleguaren kalitatearekin lotutako adierazle batzuk ez dira neurri berean hobetu. Izan ere, susperraldi ekonomikoak, aldi horretan enpleguan izan den hazkunde garrantzitsuarekin batera, ez du ekarri soldaten egiazko hazkunderik. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2018 eta 2023 artean hileko batez besteko soldata gordina %17,1 igo zen Euskadin, Espainia osoan erregistratutako hazkundearen ildotik (%16,9). Hazkunde hori, hala ere, zehaztu egin behar da; izan ere, aldi horretako inflazioa kontuan hartuz gero -2018 eta 2020 artean KPI nolabait hazi zen, baina 2021etik aurrera nabarmen handitu zen-, hazkundea euro konstanteetan oso txikia izango zen, bai Euskadin (%0,6), bai Espainiako Estatu osoan ere (%0,7). Beraz, inkesta honen ikuspegitik behintzat, esan daiteke soldatak, termino errealetan, geldotu egin zirela. Hala ere, pentsa daiteke geldialdi orokor horrek hobekuntza bat ezkututzen duela soldata-desberdintasunari dagokionez. BAIK ematen dituen datuak **(18)** hileko batez besteko soldata gordinen banaketa deziletan.

(18) Aurkikuntza hori berresten dute, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuak egindako "Soldatak, pentsioak, langabezia prestazioak eta gizarte aurreikuspenek erreskateak Gipuzkoan" txostenari buruzko datuek. Horren arabera, soldata igoera handiagoa izan da 2018 eta 2023 artean soldata baxuenak dituzten taldeentzat eta, inflazioa egon arren, soldata txikiena duten langileen %50ek igoera izango lukete benetako diru-sarreretan. Aldi horretan, soldaten arteko desberdintasunen adierazle guztiak murriztu egin dira Gipuzkoan. Datuak Gipuzkoako Lurralde Historikoari buruzkoak badira ere, pentsa daiteke bilakaera antzekoa izan dela EAE osoan. Hemen eskuragarri: https://www.gipuzkoa.eus/documents/2456431/3749690/Txostena+2023_es.pdf/.

10. TAULA. Soldatapeko pertsonen enplegu nagusiaren hileko batez besteko soldata gordinaren bilakaera Euskadin eta Espainian (2018-2023)

(%)	Espainia		Euskadi	
	€ arruntak hilean	€ arruntak hilean 2023ko oinarria	€ arruntak hilean	€ arruntak hilean 2023ko oinarria
2018	1.944	2.258	2.242	2.609
2019	1.982	2.286	2.333	2.688
2020	2.039	2.358	2.279	2.629
2021	2.076	2.330	2.441	2.731
2022	2.119	2.193	2.518	2.609
2023	2.273	2.273	2.624	2.624
2018-23 (%)	+%16,9	+%0,7	+%17,1	+%0,6

Oharra: hileko batez besteko soldata gordina kalkulatzeko, autonomia-erkidego bakoitzeko KPIren urteko batez bestekoen aldaketa erabili da.

Iturriak: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta; Kontsumoko Prezioen Indizea autonomia-erkidegoen arabera.

Zer bilakaera izan dute enpleguaren kalitatearekin lotutako gainerako adierazleek? Behin-behinekotasun tasa %25,8tik %20,4ra igaro da. Pentsa daiteke murrizketa hori 2021eko lan-erreformaren ondorio dela,⁽¹⁹⁾ besteak beste, aldi baterako kontratuen erabileran murrizketak sartzen zituelako eta kontratu mugagabeak egiteko aukerak zabaltzen zituelako. Nolanahi ere, tasa horren jaitsiera askoz txikiagoa izan da Euskadin Espainia osoan erregistratutakoa baino, %26,8tik %15,9ra igaro baita aldi berean. Partzialtasun-tasa egonkor mantendu da eta nahi ez den partzialtasun-tasa pixka bat murriztu da. Bilakaera hori ez dator bat Espainia osoan izandakoarekin; izan ere, nahi ez den partzialtasunaren tasa neurri handiagoan murriztu da, eta gaur egun Euskadin erregistratzen dena baino txikiagoa da. Bestalde, aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen proportzioak gora egin du, oso gutxi bada ere, eta maila oso-oso apaletan mantentzen da.

(19) 2021eko abenduaren 28an Lan erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez onartutako lan erreforma da.

11. TAULA. Euskadiko eta Espainiako biztanleria okupatuaren partzialtasun-tasaren eta nahi ez den partzialtasunaren bilakaera, eta soldatapeko biztanleriaren behin-behinekotasun tasaren eta aldizkako kontratu finkoen tasaren bilakaera (2018-2024)

(%)	Espainia				Euskadi			
	Partzialtasun-tasa	Nahi ez den partzialtasunaren tasa	Behin-behinekotasunaren tasa	AKF tasa*	Partzialtasun-tasa	Nahi ez den partzialtasunaren tasa	Behin-behinekotasunaren tasa	AKF tasa*
2018	14,6	7,9	26,8	2,2	16,3	7,8	25,8	1,2
2019	14,6	7,6	26,3	2,2	16,7	8,3	24,3	1,0
2020	14,0	7,2	24,1	2,1	16,1	8,2	22,1	0,8
2021	13,9	7,3	25,2	2,1	15,4	8,0	24,1	1,1
2022	13,6	6,8	21,3	2,9	15,8	7,7	22,1	1,4
2023	13,3	6,4	17,2	3,6	16,1	7,7	20,7	1,6
2024	13,6	6,2	15,9	3,8	16,2	7,7	20,4	1,5
Dif. 2021-24	-0,3	-1,1	-9,4	+1,7	+0,8	-0,3	-3,8	+0,5
Dif. 2018-24	-1,1	-1,7	-10,9	+1,6	-0,1	-0,1	-5,5	+0,4

* Aldizkako kontratu finkoak dituzten landunen kasua da.

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.


3.3. Enpleguko bazterketa-egoerak murriztu dira, egoerarik txarrenean dauden taldeentzat izan ezik

2024.urterako enpleguaren dimentsioari buruz jasotako adierazleek, txosten honetan hainbat aldiz esan den bezala, bilakaera positiboa erakusten dute EINSFOESSAren azken edizioaren aldean, epe honetako azken aldian ekonomiak eta lan-merkatuak izan duten hazkundearen ondorioz, kontraste argian 2021eko inkesta egin zeneko une bereziki kritikoa, bai Euskadin, bai Estatu osoan, jaso ziren emaitzekin.

Aurreko kapituluan adierazi den bezala, 2024an enpleguaren eremuan izaten diren gizarte-bazterketako egoerek familia-unitateen %11,3 eta Euskadi osoko biztanleriaren %10,8 ukitzen dituzte. Enpleguaren eremuko gizarte-bazterkeriaren hedapenarekin batera, hurrengo grafikoan, Euskadirako jasotako datuek beste bi alderdi interesgarri ere agerian uzten dituzte: alde

batetik, gizarte-bazterkeriako egoerek enpleguaren eremuan duten eraginaren murrizketa oso nabarmena, ia hamar puntu murriztu baitira -ia erdira- familia-unitateen kasuan, eta hamaika puntu baino gehiago, familia-unitateen ordeztuak hartzen badira kontuan. Konparazioa eginda, aurreko kapituluaren jasotako datuen ildo beretik, enpleguaren eremuko gizarte-bazterkeriaren tasak Espainia osoan erregistratzen direnak baino txikiagoak dira Euskadin, oraindik ere, eta desberdintasun hori bereziki nabarmena da enplegutik kanpo geratzea aztertzen denean egoera horien kaltea jasaten duten pertsonen ikuspegitik.

20. GRAFIKOA. Euskadin eta Espainian Enpleguaren dimentsioan gizarte-bazterkeriako arazoak dituen biztanleriaren eta familia-unitateen portzentajearen bilakaera (2018-2024)




Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

Aurreko grafikoko datuek ere agerian uzten dute, nolanahi ere, enpleguaren eremuko bazterketa-tasak 2018koen antzekoak direla -are zertxobait handixeagoak ere-, COVID-19 pandemiaren krisiaren aurretik eta 2008an hasitako finantza-krisi luzearen ondoko susperraldia pizten hasi zenean.

Enpleguko bazterkeria-mailen murrizketa aztertzen bada biztanleriaren egoeraren ikuspegitik, bazterketatik gizarteratze prekarioa doan continuumean, ikusten da murrizketak biztanleria-multzo guztietan gertatu direla, intentsitate berekoak izan ez badira ere. Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen kasuan, murrizketa %23koa izan da -portzentajeko 16 puntu, bazterkeria moderatuaren kasuan, eta 21 puntu, bazterkeria larriaren kasuan-, baina gizarteratze prekarioaren kasuan nabarmen handiagoa izan da, bai termino absolutuetan -22 puntu- bai, batez ere, termino erlatiboetan, egoera horien intzidentzia %60 baino gehiago murriztu baita talde horretan. Bilakaera

antzekoa izan da Espainiaren kasuan: bazterketa-egoeran dauden pertsonen artean, enpleguarekin lotutako problematiken murrizketa ez da izan gizarteratze prekarioko egoeran dauden pertsonen artean bezain nabarmena.

21. GRAFIKOA. Euskadin eta Espainian gizarte-bazterkeriako arazoak dituen biztanleriaren ehunekoen bilakaera enpleguaren dimentsioan, gizarteratze-mailaren arabera (2018-2024), enplegua gizarteratze-mailaren arabera (2018-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

12. taulak enpleguaren dimentsioari buruzko adierazle guztiak biltzen ditu, bai Euskadirentzat, bai Estatu osoarentzat, 2018tik, haien artean bereiziz, alde batetik, familia-unitate guztiak eta, bestetik, gizarte-bazterketako egoeran daudenak.

Bilakaeraren ikuspegitik, Euskal Autonomia Erkidegoko kasuari erreparatuta, ikusten den lehenengo datu azpimarragarria da adierazle gehienak murriztu direla 2021arekin alderatuta, bai familia-unitate guztien kasuan, bai bazterketa sozialeko egoeran dauden familia-unitateetan ere. EAEko familia-unitate guztien artean gehien murriztu diren adierazleak honako hauek izan dira: sostengatzaile nagusiaren lan-ezegonkortasun larriarekin lotutakoa (-6,9 puntu portzentajea), sostengatzaile nagusia duela urtebetetik edo gehiagotik langabezian duten familia-unitateei buruzkoa (3,2) eta pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten familia-unitateen portzentajearekin lotutakoa (4,7 puntuko beherakada). 2021ean hedatuenak zeuden adierazleak dira, eta 2018 eta 2021 artean gehien hazi zirenak.

12. TAULA. Euskadin eta Espainian enpleguaren dimentsioan bazterketako arazoei ukitutako familia-unitateen portzentajeen bilakaera, familia-unitate guztiak eta gizarte-bazterketak ukitutako familia-unitateak bereizita (2018-2024)

	Familia-unitateak guztira				Bazterkerian dauden familiak			
	2018	2021	2024	Dif. 2018-24	2018	2021	2024	Dif. 2018-24
Espainia								
ID01 SN den pertsona urtebete edo gehiago langabezian duen familia	2,8	4,3	2,2	-0,6	17,1	20,7	11,3	-5,8
ID02 SN den pertsona bazterkeriako enplegu batean duen familia	1,1	1,1	2,7	+1,6	3,3	2,5	9,4	+6,1
ID03 SN den pertsona enplegu irregularrean duen etxea: kontraturik gabe eta Gizarte Segurantzaren estaldurarik gabe	1,3	1,0	2,2	+0,9	5,5	3,9	10,2	+4,7
ID05 Iraupen luzeko langabe bat, gutxienez, duen familia-unitatea, lanbide-titulurik gabea eta lanerako prestakuntzarik jaso ez duena, edo azken urtean ikasketarik egin ez duena	5,8	7,4	2,8	-3,0	27,6	29,9	14,0	-13,6
ID06 Pertsona aktibo guztiak langabezian dituen etxea	5,9	10,3	6,0	+0,1	32,5	45,1	29,4	-3,1
ID37 Sostengatzailer nagusia aktiboa eta laneko ezegonkortasun larrian duen familia (≥3 kontratu edo ≥3 enpresa edo ≥3 hilabete langabezian)	4,8	10,3	5,9	+1,1	18,3	25,0	19,7	+1,4
Euskadi								
ID01 SN den pertsona urtebete edo gehiago langabezian duten familia	1,4	5,3	1,9	+0,5	12,3	38,5	17,1	+4,8
ID02 SN den pertsona bazterkeriako enplegu batean duen familia	1,6	0,6	0,9	-0,7	7,3	2,7	3,0	-4,3
ID03 SN den pertsona enplegu irregularrean duen familia: kontraturik gabe eta Gizarte Segurantzaren estaldurarik gabe	0,8	1,6	1,0	+0,2	3,0	7,8	8,7	+5,7

	Familia-unitateak guztira				Bazterkerian dauden familiak			
	2018	2021	2024	Dif. 2018-24	2018	2021	2024	Dif. 2018-24
ID05 Iraupen luzeko langabe bat, gutxienez, duen familia-unitatea, lanbide-titulurik gabea eta lanerako prestakuntzarik jaso ez duena, edo azken urtean ikasketarik egin ez duena	2,1	5,5	3,1	+1,0	18,5	38,4	23,8	+5,3
ID06 Pertsona aktibo guztiak langabezia dituen familia	4,2	8,8	4,1	-0,1	33,2	57,5	30,0	-3,2
ID37 Sostengatzaile nagusia aktiboa eta laneko ezegonkortasun larrian duen familia (≥3 kontratu edo ≥3 enpresa edo ≥3 hilabete langabezia)	2,3	12,9	6,0	+3,7	8,8	36,8	22,6	+13,8


SN: etxeko sostengatzaile nagusia aipatzen da.
Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

Hala ere, joera hori askoz ere txarragoa da 2024ko egoera 2018an zegoenarekin alderatzen bada, bereziki gizarte-bazterketako egoeran dauden familia-unitateen artean. Dimentsio horretan sartutako sei adierazleetatik lautan, Euskadin gizarte-bazterketako egoeran dauden familia-unitateek lau puntu baino gehiagoko igoera izan dute portzentajea. Sei urte horietan, kolektibo horretan bereziki hazi da laneko ezegonkortasun larriko egoeran dauden familia-unitateen ehunekoa, eta biztanleria-talde horretan %8,8tik %22,6ra igaro da. Hala eta guztiz ere, enpleguko bazterkeriaren adierazlea osatzen duten arazoetako batzuk murriztu egin dira, aldi horretan, biztanleria-talde horrentzat (bazterkeriako enpleguak dituzten familia-unitateen ehunekoa eta pertsona aktibo guztiak langabezia dituzten familia-unitateen ehunekoa), lan-merkatuaren hobekuntza orokorraren ildo beretik.

Bestalde, konparazioa eginez gero, EAEko familia-unitateen egoera -bai 2024an, bai aztertu diren urte guztietan- Estatuko gainerako erkidegoetako familia-unitateetan ikusten dena baino hobea da, aztertutako ia problematika guztietan. Aldeak oso handiak ez badira ere, bazterketa-arazo ia guztien presentzia txikiagoa da Euskadin enpleguaren arloan, eta hori koherentea da kapitulu honen aurreko epigrafean aztertu diren enpleguari eta haren baldintzei buruzko adierazleek erakusten duten egoera hobea izatearekin. Hala ere, egoera hori familia-unitate guztien kasuan gertatzen da, baina ez bazterketa-egoeran dauden familia-unitateetan, horien egoera okerragoa baita Euskadin Espainian baino, aztertutako sei adierazleetatik lautan.

Azkenik, ondoko grafikoko datuek agerian uzten dute gizarte-bazterketako egoeren intzidentzia zuzenean lotzen dela okupazio-egoerarekin, eta beraz, Euskadin lana bilatzen ari den biztanleriaren gizarte-bazterketako tasek -%51-ia hamar bider handiagoa da lan egiten duen biztanleriari dagokiona (%6) baino. 16 urtetik gorako pertsona ez-aktiboen artean, gizarte-bazterkeriaren tasa %21,7koa da, eta pentsiodunen artean, berriz, %4,1ekoa. Kasu guztietan, 2024an talde bakoitzari dagozkion tasak talde horiek beraiek Espainia osoan erakusten dituztenak baino txikiagoak dira. Bestalde, bilakaerari dagokionez, 2018tik gizarte-bazterkeriaren tasak murriztu egin dira Euskadiko okupazio-talde guztietan, etxeko lanak egiten dituzten pertsonen taldean izan ezik.

22. GRAFIKOA. Euskadin eta Espainian bazterkeriako egoeran dauden pertsonen proportzioaren bilakaera, biztanleriaren jarduerarekiko erlazioaren arabera (2018-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

4. kapitulua

Pobrezia murriztu egiten da diru-sarrerak bermatzeko sistemara biltzen diren pertsonak gero eta gehiago direlarik

4.1. Sarrera

EAEko biztanleriaren egoera pobrezia monetarioaren arriskuaren aurrean nabarmen aldatu da 2021etik -EINSFOESSAren aurreko edizioa egin zen urtea- 2024ra bitartean. Alde batetik, lehen esan den bezala, lan-merkatuak hobekuntza handi samarra izan du, bai sortutako enpleguaren bolumenari dagokionez, bai enplegu horren kalitateari dagokionez ere. Egiaz, aldi horretan, soldaten nolabaiteko geldialdia gertatu dela pentsa badaiteke ere -soldatetan izandako igoerak ez baitira aski izan guztiz berdintzeko 2022an eta 2024an prezioetan izandako igoeraren inpaktua-, berriki emandako zenbait datuk adierazten dute badirela zantzuak baieztatzen dutenak soldaten arteko desberdintasunak murriztu egin direla azken aldian.

Lan-merkatuko aldaketekin batera, Euskadin funtsezko aldaketa bat gertatu da diru-sarrerak bermatzeko politiken definizioan. Alde batetik, hurrengo orrietan azaltzen den bezala, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGDS) finkatzeko eta hedatzeko prozesu bat gertatu da, horren araudi erregulatzaila 2021aren amaieran onartu zenetik. Prestazioa, ordea, 2020. urtearen erdialdean jarri zen martxan, pandemiaren garai betean. BGDS finkatzearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoak diru-sarrerak bermatzeko duen sistema propioa berritu du, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Legearen bidez, zeina geroago garatu baitzen Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen zuen azaroaren 21eko 173/2023 Dekretuaren bidez. Arau horiek aldaketa garrantzitsuak ekarri zituzten Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (aurrerantzean, DSBE) eskuratzeko baldintzetan eta zenbatekoetan, eta EAEko prestazio horren eta estatu mailako

Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren (BGDS) arteko bateragarritasuna arautu dute.

Arau-aldaketa horiei beste aldaketa garrantzitsu batzuk gehitu behar zaizkie, hala nola familia-prestazioen euskal sistemaren berrikuntza -hilean 200 euroko prestazio unibertsala sortu zen, hiru urtetik beherako haur guztientzat-, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) eustea lehen zeuden modu berean, edo etxebizitza eskuratzen laguntzeko zenbait laguntza sortzea.

Horrek guztiak eragina izan du, alde batetik, pobrezia- eta desberdintasun-tasen bilakaeran, eta bestetik, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren irismenean edo inpaktuan. Testuinguru horretan, kapitulu hau hiru epigrafe hauetan egituratzen da:

Lehenengoak pobrezia- eta desberdintasunari buruz Euskadin dauden adierazleen bilakaera aztertzen du. Metodologiaren ikuspegitik, epigrafe honetan aztertzen diren adierazle gehienak EINSFOESSA txostenekoak ez diren bestelako iturrietatik datoz, biztanleriaren diru-sarrerak berariaz aztertzen dituzten iturri estatistikoak erabili baitira. Gainera, beste autonomia-erkidego batzuei dagozkien txostenetan ez bezala, txosten honetan lehentasunez erabili da pobrezia- eta bazterkeriaren adierazleak Euskadin jasotzen dituen inkesta ofiziala, hau da, Pobrezia- eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta (PGDI), bi urtetik behin egiten duena Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saileko Estatistika Organo Espezifikokoak. Inkesta horrek, biztanleriaren lagin nabarmen handiagoa duenez, EINen Bizi Baldintzei buruzko Inkestak baino datu egokiagoak ematen ditu, errealitatea hobeto islatzen dutenak; gaur egun, ordea, 2022ra arteko informazioa bakarrik eskaintzen du. Hala eta guztiz ere, beste iturri estatistiko batzuetara ere jo da, hala nola, EINen Bizi Baldintzei buruzko Inkestara, Familia-unitateen errentaren banaketaren Atlasera, EINena hori ere, edota Familiei eta Familia-unitateei buruz Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saileko Estatistika Organo Espezifikokoak 2023an egindako Inkestara.

Bigarren epigrafeak ere EINSFOESSA-kanpoko datuak erabiltzen ditu, diru-sarrerak bermatzeko prestazioen hedapenean zentratuak; iturriak izan ziren Inklusio eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa, Estatuko BGDSren kudeaketaren arduraduna baita, eta Lanbide, EAEko lurraldean DSBE eta BGDS kudeatzeaz arduratzen den erakundea baita bera. Gai hori aztertzeko, epigrafeak, funtsean, EINSFOESSAren gainerako txosten autonomikoen egitura bera mantentzen du, adierazle eta analisi gehigarri batzuk sartuta.

Azkenik, hirugarren epigrafeak aztertzen ditu EAEko biztanleek BGDSren inguruan duten ezagutzari buruz EINSFOESSAk eskaintzen dituen adierazleetako batzuk.

4.2. Pobrezia eta desberdintasuna murriztu dira 2020 eta 2022 bitartean

Estatu espainiar osoari buruzko datuek agerian jartzen dute estatu-mailan pobrezia murrizteko prozesu argia gertatzen ari dela: pobrezia-arriskuaren tasa 2016an biztanleriaren %22,3 izatetik 2024an %19,7 izatera igaro da **(20)**, eta pobrezia larriaren tasa, berriz, %10,7tik jaitsi da %8,4ra. Beste adierazle batzuek ere hobera egin dute epe laburrean: gabezia material eta sozial larrian zegoen biztanleriaren portzentajea 2023an %9,0 izatetik 2024an %8,3ra igaro da, eta hilabete amaierara zailtasun handiarekin iristen den biztanleriaren ehunekoa ere zertxobait murriztu da, %9,3tik %9,1era.

Euskadiren kasuan, pobrezia-egoerak ere murriztu egin dira, behinik behin, 2020tik 2022ra bitartean. Hurrengo grafikoan Euskadiko PGDIren datuak erabiltzen dira, eta horiek erakusten dutenez, pobrezia-arriskuaren tasa 2020an %17,8tik izatetik 2022an %16,5 izatera jaitsi zen, eta pobrezia larriaren tasa, berriz, %6,1etik %4,9ra. Aldi horretan Euskadiko pobrezia-tasetan izandako jaitsierak ikusten dira, halaber, PGDIren adierazle espezifikoak **(21)**, hala nola mantenu-pobreziakoak edo benetako pobreziakoak **(22)**, erabiltzen direnean ere. Bi kasuetan ere, murrizketa argia gertatu da 2020tik 2022ra. Hala eta


(20) Kontuan izan behar da urte bakoitzeko datuak aurreko urteko diru-sarrerei buruzkoak direla.

(21) Mantenu-pobreziak esan nahi du egoera horretan ez dagoela diru-sarrera ekonomiko nahikorik oinarritzko premiei aurre egiteko, era berezian elikadurari, etxebizitzari, jantziei eta oinetakoei dagozkien gastuei aurre egiteko. Benetako pobrezia, berriz, nozio murriztaileagoa da. Horretan jasotzen diren inguruabarretan, pobreziaren dimentsio batean nahiz bestean (mantentzea edo areagotzea) agertzen diren oinarritzko premiak behar adinako estaldurarik gabe geratzeko arrisku-egoerak ez daude konpentsatuta herritarren eguneroko bizitzan eta, beraz, pobreziaren bizipenetik atera eta gutxieneko ongizate-maila lortzeko aukerak huts egiten die herritarrei.

(22) Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa (2024). 2022ko Gizarte Beharrei buruzko Inkestan jasotako PGDI-Pobrezia moduluaren txostena. Gasteiz, Eusko Jaurlaritz. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/epds_ens_2022/es_epds2012/INFORME_2022_cas.pdf.

gutziz ere, aipatzekoa da pobrezia- eta benetako pobrezia-aren arrisku-tasak Euskadin, 2008an, finantza-krisi handiaren aurretik, erregistratutako mailen gainetik daudela, oraindik ere, 2022an.

23. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako herritarren pobrezia-arriskuaren eta pobrezia larriaren tasen bilakaera (2008-2024) eta Euskadiko mantenu-pobrezia-aren eta benetako pobrezia-aren tasen bilakaera (2008-2022)



Oharra: Euskadiren kasuan, bilakaera 2022ra arte baino ez da iristen.

Iturriak: EIN. Bizi Baldintzei buruzko Inkesta (BBI); Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa. Pobrezia- eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta (PGDI).

Pobrezia-aren inguruko adierazleen hobekuntzarekin batera dator, Euskadiren kasuan, diru-sarreraren desberdintasuna neurtzen duten adierazleen hobekuntza. Hurrengo taulan ikusten denez, Gini-ren indizeak behera egin zuen 2020tik 2022ra bitartean, 28,2tik 26,9ra igaro baitzen, S80/S20 erlazioa 4,4tik 4,3ra jaitsi zelarik. **(23)** Pobrezia ekonomikoa neurtzen duten adierazleen kasuan bezala, Euskadin erregistratzen diren desberdintasun-adierazleak nabarmen txikiagoak

(23) Balioak desberdinak badira ere, erabilitako metodologiak eta datu-iturriak ere desberdinak direlako, EINek familia-unitateen errenten banaketari buruz osatutako Atlasak ematen dituen datuek adierazten dute, aldi horretarako, Euskadin desberdintasuna neurtzen duten adierazleek murrizteko joera dutela.

dira urte horietan bertan Espainia osorako jaso zirenak baino. Adierazi behar da, halaber, 2020tik 2022ra bitartean izandako murrizketa gorabehera, 2022an erregistratutako desberdintasun-tasak 2008ko finantza krisiaren aurretik erregistratutakoak baino handiagoak direla.

13. TAULA. Errenta mediana baliokidearen, S80/S20 erlazioaren eta Gini-ren koefizientearen bilakaera Euskadin eta Espainian (2008-2022)

	Errenta mediana baliokidea (euro/urteko)		Errenta mediana baliokidea (euro konstanteak urteko), 2024ko oinarria		Erlazioa S80/S20		Gini-ren koefizientea	
	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi
2018	13.966	15.710	5,6	3,6	32,4	25,2	0,332	0,303
2019	13.868	16.573	6,5	3,7	34,2	25,3	0,330	0,312
2020	13.269	16.238	6,8	4,2	34,7	27,1	0,321	0,317
2021	13.681	17.160	6,6	3,9	34,5	25,8	0,330	0,309
2022	14.785	17.913	6,0	4,1	33,2	26,7	0,320	0,300
2023	16.043	20.400	5,8	4,4	32,1	28,2	0,315	0,299
2024	16.814	19.920	5,6	4,3	32,0	26,9	0,312	0,290
2018-20*	-%5,0	+%3,4	+1,2	+0,6	+2,3	+1,9	-0,011	+0,014
2021-22*	+13,7%	+11,2%	-0,4	+0,2	-1,2	+0,2	-0,018	-0,019

*Bilakaera, errentaren kasuan, adierazten da portzentajezko aldaketa erakutsiz, eta desberdintasun-adierazleen kasuan, berriz, diferentzia gisa kalkulatu da, portzentajezko puntuetan adierazita.

Oharra: errenta mediana baliokidea euro konstantetan kalkulatzeko, inkesta egin aurreko urteari autonomia-erkidego bakoitzean dagozkion KPIen urteko batez bestekoen aldakuntza erabili da.

Iturriak: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta; Kontsumoko Prezioen Indizea autonomia-erkidegoen arabera.

Aipatu diren pobrezia-adierazleen murrizketaren arrazoiak da 2020tik 2022ra bitartean benetako diru-sarrerek bilakaera-eredu desberdina izan dutela -termino konstanteetan neurtuta-, aurreko urteetan gertatutakoarekin alderatuta. Hain zuzen ere, 2008 eta 2022 bitartean errentaren dezil bakoitzaren diru-sarrerek izan duten bilakaera aztertuz gero, ikusten da, talde guztietan batez besteko diru-sarrera baliokideen jaitsiera gertatuta ere, jaitsiera nabarmenagoa dela dezil txikienetan, eta jaitsiera hori leundu egiten dela dezil bakoitzaren diru-sarreraren mailan gora egin ahala. Beraz, esan daiteke Euskadin 2008 eta 2022 bitartean diru-sarreraren banaketan izandako aldaketek bereziki kaltetu dituztela hiru dezil baxuenak, portzentaje nabarmen handiagoa galdu baitute haiek, eta, aitzitik, bi dezil altuenei mesede egin dietela aldaketa horiek, beren errentan galdu baitute biztanleriaren multzo osoak baino portzentaje dezentez txikiagoa.

Patroi hori, ordea, aldatu egiten da 2020 eta 2022 bitartean, izan ere, dezil guztietan benetako diru-sarreraren jaitsiera izan bada ere, jaitsiera hori batez bestekoa baino txikiagoa izan da bi dezil baxuenetan (hau da, herritarren %20 pobreena). Izan ere, benetako diru-sarreraren murrizketa handiagoa izan da errenta-maila igo ahala, azken dezilean -%18,5era iritsi dela.

14. TAULA. Batez besteko diru-sarrera baliokideen bilakaera, diru-sarreraren dezilen arabera (hileko diru-sarrera garbi konstanteak), Euskadin (2008-2022)

	2008	2014	2018	2020	2022	Bilakaera 2008-22 %	Bilakaera 2020-22 %
D1 (%10 pobreena)	738,4	589,5	616,5	673,5	624,7	-15,4	-7,2
D2	1.052,4	890,7	956,1	1.078,4	950,1	-9,7	-11,9
D3	1.249,0	1.100,4	1.186,0	1.341,2	1.152,8	-7,7	-14,0
D4	1.459,0	1.310,2	1.401,8	1.591,4	1.383,6	-5,2	-13,1
D5	1.653,3	1.509,7	1.603,1	1.808,6	1.567,1	-5,2	-13,4
D6	1.845,4	1.705,5	1.804,6	2.044,0	1.757,7	-4,8	-14,0
D7	2.062,6	1.929,6	2.014,2	2.300,8	1.983,2	-3,9	-13,8
D8	2.325,7	2.197,1	2.308,6	2.591,5	2.261,0	-2,8	-12,8
D9	2.687,2	2.587,4	2.675,1	3.056,1	2.638,0	-1,8	-13,7
D10 (%10 aberatsena)	3.850,3	3.587,9	3.776,5	4.649,1	3.790,8	-1,5	-18,5
Guztira	1.892,4	1.740,4	1.835,2	2.113,9	1.812,4	-4,2	-14,3

Iturria: Eusko Jaurlaritz. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa. Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta (PGDI).

Hala ere, Euskadin 2020tik 2022ra bitarteko aldian pobreziari eta desberdintasunari buruzko adierazleek bilakaera positiboa izan duten arren, ondorengo adierazle batzuek adierazten dute badirudiela egoerak okerrera egin duela.

Izan ere, alde batetik, 2022 eta 2023 bitartean nabarmen handitu da pobrezia-egoerei buruzko pertzepzio soziala, eta, beraz, beren burua nahiko pobretzat jotzen duten etxeetan bizi diren herritarren portzentajea %5,9tik %15,6ra igo da, eta beren burua pobretzat edo oso pobretzat jotzen dutenena, berriz, %2,4tik %3,9ra. Inkesta horren arabera, handitu egin da, halaber, -kasu honetan 2019koarekin alderatuta- oinarrizko premiak asetzeko diru-sarrera nahikorik ez duten etxeen ehunekoa, %5,4tik %6,3ra igo baita (24).

(24) Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa (2024). 2023ko Euskal Familien eta Familia-Etxeen Inkestaren (FFEI) estatistika taulak. Gasteiz,

Bestalde, EINen Bizi Baldintzen Inkestaren datuen arabera, 2018 eta 2024 bitartean apur bat igo da gabezia material eta sozial larriaren tasa Euskadin, herritarren %4,3 izatetik %4,6ra izatera igo baita haien portzentajea. EINen datuen arabera, 2024an, EAEko biztanleen %22,5ek ez dute ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasunik, %17,7k ezin dute urtean astebetez bada ere oporretan joan, %16,3k ezin dute hondatutako altzaririk edo altzari zaharrik berritu, eta %12,0k ezin dute etxebizitza tenperatura egokian eduki. Era berean, adierazi behar da, kasu guztietan, gabezia material larria neurtzen duten adierazleek biztanleriaren ehuneko baxuagoa ukitzen dutela Euskadin Espainia osoan baino, han gabezia material eta larriaren tasa %8,3koa baita 2024an.

15. TAULA. Gabezia material eta sozial larriaren tasaren eta haren adierazleen intzidentziaren bilakaera Euskadiko eta Espainiako biztanlerian (2018-2024)

	Espainia				Euskadi			
	2018	2021	2024	Dif. 2018-24	2018	2021	2024	Dif. 2018-24
Ezin da urtean astebetez bada ere oporretara joan	34,1	32,7	33,4	-0,8	17,7	16,4	17,7	0,0
Ezin du haragirik, oilaskorik nahiz arrainik jan bi egunean behin bada ere	3,6	4,7	6,1	+2,5	1,6	4,5	4,1	+2,5
Ezin du etxebizitza tenperatura egokian mantendu	9,1	14,3	17,6	+8,4	5,4	7,2	12,0	+6,5
Ez du ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasunik	35,9	33,4	35,8	-0,1	20,7	18,4	22,5	+1,8
Atzerapenak izan ditu etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketan edo epekako erosketetan, azken 12 hilabeteetan	9,4	14,4	14,2	+4,9	5,4	8,8	7,0	+1,6
Ezin du ibilgailurik eduki	5,1	4,9	5,3	+0,2	4,1	4,3	5,6	+1,5
Ezin ditu altzari hondatuak edo zaharrak berritu	32,3	27,5	27,7	-4,7	27,4	15,5	16,3	-11,1
Ezin du hondatutako arropa berritu	8,9	8,7	8,0	-0,9	4,4	5,3	4,5	+0,1

Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/estadistica/tablas-estadisticas-de-la-encuesta-de-familias-y-hogares-vascos-efh-2023/web01-s2enple/es/>.

	Espainia				Euskadi			
	2018	2021	2024	Dif. 2018-24	2018	2021	2024	Dif. 2018-24
Ezin du egoera onean dauden bi zapata pare eduki	2,7	2,4	2,5	-0,2	1,1	1,8	1,4	+0,3
Ezin da lagunekin/familiarekin elkartu otordu bat egiteko edo zerbait hartzeko hilean behin bada ere	10,1	8,6	8,8	-1,3	5,0	5,0	4,9	-0,2
Ezin du erregulartasunez parte hartu aisialdiko jardueretan	13,9	12,5	13,2	-0,7	6,9	8,1	8,7	+1,8
Ezin du gastatu ez eta diru kopuru txiki bat ere	14,3	15,1	15,0	+0,6	7,1	8,7	9,2	+2,1
Ezin du interneterako konexiorik izan	5,6	2,7	1,6	-4,0	1,7	2,4	1,3	-0,4
Gabezia material eta sozial larriaren tasa	8,7	8,3	8,3	-0,4	4,3	4,6	4,6	+0,3

Iturriak: EIN. Bizi-baldintzei buruzko Inkesta.

4.3. DSBEn erreformak eta BGDSen ezarpenak nabarmen handitzen dute diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituzten pertsonen kopurua

Kapitulu honen sarreran adierazi den bezala, Euskadiko diru-sarrerak bermatzeko sistemaren bilakaera aztertzean, funtsezko bi elementu hartu behar dira kontuan, nahitaez: alde batetik, BGDS abian jarri izana, eta, horrez gain, prestazio horren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu izana, 2022aren hasieran. Eta bestetik, urte horren amaieran Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, onartzea. Lege hori onartzeak eta BGDS kudeatzeko eskumena eskualdatu izanak ahalbidetu dute, besteak beste, bi prestazio horiek administrazio batek berak kudeatzea (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak), eta horrek ondorio garrantzitsuak izan ditu laguntza horien estaldurari eta inpaktuari dagokienez.

Aldaketa horien ondoren, aurrerago esaten den moduan, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren erabiltzaileak hiru talde handitan banatzen dira gaur egun:

- erabiltzaileen zati handi batek bi prestazio horiek eskuratzen ditu, eta DSBeri dagozkion gehieneko zenbatekoak aplikatzen zaizkie, BGDSri

dagozkionak baino handiagoak (kasu horietan, errenta autonomikoak osatu egiten ditu Estatuan bermatutako zenbatekoak);

- erabiltzaileen beste multzo batek DSBE jasotzen jarraitzen du, baina ez du BGDS jasotzen baldintzak betetzen ez dituelako, eta beraz, DSBEri dagozkion zenbatekoak aplikatzen zaizkie haiei ere.
- Erabiltzaileen beste talde batek, baldintzak bete ez eta DSBE jasotzen ez duena, BGDS jasotzen du, DSBE baino zenbateko txikiagoekin.

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren estaldura eta inpaktua ulertzeko orduan, kontuan hartu behar da, era berean, DSBE jasotzeko aukera zabaldu dela 65 urtetik gorako pentsiodunentzat eta soldata baxuak dituzten langile batzuentzat ere, enplegurako pizgarrien sistemaren bitartez, eta era berean, hor direla udalek kudeatzen dituzten eta azterketa honetan kontuan hartzen ez diren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) ere.

Elementu horiei esker, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak nahiko berezia izaten jarraitu du Estatuko testuinguruan. Zenbait analisik hainbat kategoriatan sailkatu dituzte gutxieneko errenta autonomikoak Bizitzeko Gutxieneko Diru-Sarrerarekin egokitzeko ereduak. Ildo horretatik, gutxienez hiru ibilbide desberdin identifikatu dira lurraldeetan **(25)**:

- a) gutxieneko errenta autonomiko garatua duten erkidegoak, haien prestazio autonomikoetan BGDS “xurgatzeko” joera dutenak;
- b) gutxieneko errenta esanguratsua duten erkidegoak, baina arestiko horiek baino gutxiago garatuak, horien antzeko bideari jarraiki, baina BGDSren ekarpen askoz handiagoarekin; eta
- c) gutxieneko errenta mugatuena dituzten erkidegoak, non BGDSk ordezkatzeko duen desagertzeko bidean den gutxieneko errenta (kasu horren aldaera bat da BGDS gutxieneko errenta autonomikoak baino estaldura askoz handiagoetara iristen den erkidegoena). Azterketa horretan, lehenengo taldean, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea

(25) Aguilar, M. eta Arriba, A. (2024). “El IMV y las rentas mínimas, cuatro años después”, *Llei d’Engel*, 2024ko martxoak 19. Hemen eskuragarri: <https://lleienel.cat/imv-i-rendes-minimes/>.

bakarrik sartuko lirateke; talde horretan, hainbat arrazoiengatik, aurretik zegoen gutxienerako errenta autonomikoak integratu edo xurgatu egiten du BGDS.

Antzeko logika batetik, beste azterlan batzuek(26) gutxienez hiru logika identifikatu dituzte erkidegoetan:

- Lehenengoan, gutxienerako errenta autonomikoen hartzaileen kopurua murriztu eta horien ordeztatu Estatuko prestazio berria ematen den autonomia-erkidegoak sartzen dira. Adibidez, Asturias, Kantabria, Errioxa, Gaztela eta Leon eta Aragoi.
- Bigarren dinamika azpimarragarria da gutxienerako errenta autonomikoen titular diren herritarrek ugaritzeko joerari eusten dioten autonomia-erkidegoetan aurkitzen dena -Katalunian, Valentziako Erkidegoan, Kanarietan eta Euskadin ikus daitekeena-; izan ere, testuinguru horretan, BGDS, diru-sarrerak bermatzeko prestazioen titular berriak ekartzeaz gain, bi prestazioen titularren konbinaziora irekitzen da maiz.
- Hirugarren logikak sartzen diren erkidegoetan, BGDSk, egiaz, gizarte-babeseko modu berriak ekartzen ditu, prestazioen transferentzia huts bat izatetik harago. Babes-modu berri horien barnean aipatzen dira pertsonak errenta autonomikotik BGDSra igarotze hutsetik sortzen ez den BGDS multzoa, eta lotzen ez dena, ezta ere, bi prestazio motak konbinatzearekin. Kasu horietan daude Gaztela-Mantxa, Andaluzia, Murtzia, Ceuta, Melilla eta, salbuespen batzuekin, Galizia, Balear Uharteak eta Nafarroako Foru Erkidegoa.

Azkenik, BGDSri buruzko AIREF-en Hirugarren Iritziak, 2024an argitaratua bera ere(27), bi erkidego-multzo handi bereizten ditu, gai horri dagokionez. AA.: alde batetik, BGDS agertu zenetik gutxienerako errenten onuradunen kopuru handia mantentzen duten erkidegoak -Euskadi, Katalunia, Valentziako Erkidegoa, Kanariak, Asturiasko Printzerria, Nafarroako Foru Erkidegoa, Galizia, Balear

(26) Sanzo, L. (2024). "IMV, Rentas Mínimas Autonómicas y lucha contra la pobreza", *Llei d'Engel*, 2024ko abenduak 4. Hemen eskuragarri: <https://lleiengel.cat/imv-rendes-minimes-autonomiques-i-lluita-contr-la-pobresa/>.

(27) AIREF (2024), 3. Iritzia Bizitzeko Gutxienerako Diru-Sarrera, Iritzia 2/24, Madril. Hemen eskuragarri: https://www.airef.es/wp-content/uploads/2024/07/IMV/20240724_IMV_Opinion3_01Estudio.pdf.

Uharteak eta Kantabria-; eta, beste batetik, BGDS agertu ondoren gutxieneko errenten onuradunen kopurua nabarmen murriztuta ikusi dutenak (Madrilgo Erkidegoa, Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Murtziako Erregioa, Extremadura, Ceuta, Melilla, Errioxa eta Aragoi).

Azterketa horien irizpideak eta emaitzak alde batera utzita, hiruretan ere esaten da, Euskadiri dagokionez, gutxieneko errentak jasotzen dituzten pertsonen kopurua, BGDS onartu ondoren, handituta ikusi duten erkidegoetako bat dela eta, nolabait, estatuko prestazioa diru-sarrerak bermatzeko eredu bateratu batean txertatu dutenetakoa.

Esparru horretan, epigrafe honek aztertzen du, lehenik, Bizitzeko Gutxieneko Diru-Sarreraren estaldura Euskadin, bai biztanleria osoari dagokionez, bai pobrezia-egoeran dagoen biztanleriari dagokionez. Ondoren, BGDS+DSBE sistema bateratuaren estaldura eta Euskadin pobrezia murrizteko duen gaitasuna aztertzen dira.

Lehenengo taulan jasotzen dira EAEn nahiz Espainian BGDS hartzen duten familien eta pertsonen kopurua eta haiei dagozkien estaldura-tasak. Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioko Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzak eskaintzen dituen datuen arabera, 2024ko azaroan ia 30.000 etxek eta 70.000 pertsonak jasotzen zuten BGDS modalitatearen batean; estaldura %3,0koa zen etxeen kasuan, eta %3,2koa pertsonen kasuan. Bi kasuetan, estaldura Espainia osoan erregistratzen dena baino txikiagoa da.

16. TAULA. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren onuradun diren etxeen eta pertsonen kopuruaren eta estalduraren bilakaera Euskadin eta Espainian (2021-2024)

		Espainia		Euskadi	
		Kopurua	Estaldura %	Kopurua	Estaldura %
2021eko maiatza	Etxeak	260.206	1,4	15.405	1,7
	Pertsona onuradunak	682.808	1,5	25.546	1,2
2024ko azaroa	Etxeak	665.508	3,4	28.488	3,0
	Pertsona onuradunak	2.021.729	4,2	69.688	3,2
Metatua (2020ko ekaina - 2024ko azaroa)	Etxeak	933.496	4,8	37.256	4,0
	Pertsona onuradunak	2.774.812	5,7	86.416	3,9

Iturria: Gizarte Segurantzako eta Pentsioetako Estatu Idazkaritza. Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa

Euskadin, BGDSren estaldura herritar gutxiagorengana iristen da, bai laguntza horien onuradun diren familia-unitateen kopuruan, bai pertsonen kopuruan ere, eta horrez gain, autonomia-erkidego honek berariazko banaketa du antolatua Espainiarekiko, BGDSk izan ditzakeen modalitateei dagokienez. Familia-unitate onuradunen %17k soilik eskuratzen du, modu eskusiboan, Haurrentzako Laguntza Osagarria (HLO) **(28)**, eta Espainia osoan, aldiz, %37,3k. Izan ere, Espainian nolabait horien antzekoak diren hiru talde daudela esan daiteke -BGDS jasotzen dutenak HLO gabe (BGDS jasotzen duten etxe guztien %29,9); BGDS HLOrekin jasotzen dutenak (%32,8) eta HLO soilik jasotzen dutenak (%37,3)-; EAEn, berriz, familia hartzaileen ia erdiek jasotzen dute BGDS haurrentzako osagarririk gabe.

17. TAULA. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara jasotzen duten etheen kopurua Euskadin eta Espainian, prestazio motaren arabera (2024ko azaroa)

	Espainia			Euskadi		
	Kopurua	Banaketa (%)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)	Kopurua	Banaketa (%)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
BGDS (HLO-rekin edo gabe)	417.483	62,7	--	23.633	83,0	--
-- BGDS HLO gabe	199.211	29,9	509,5	13.405	47,1	517,0
-- BGDS HLO-rekin	218.272	32,8	820,0	10.228	35,9	864,2
HLO bakarrik	248.025	37,3	130,4	4.855	17,0	135,7
Guztira	665.508	100,0	470,1	28.488	100,0	576,6


Iturria: Gizarte Segurantzako eta Pentsioetako Estatu Idazkaritza. Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa

BGDSren biztanleria-estalduratik haratago, pobrezia-egoeran dauden pertsonen zein ehunekok eskuratzen du BGDS Euskadin? Kontuan hartzen badira, alde batetik, Gizarte Segurantzako eta Pentsioetako Estatu Idazkaritzak eskaintzen duen onuradun-kopurua eta, bestetik, 2024ko BBI inkestaren arabera, pobrezia larriko egoeran dauden pertsonen inguruan ematen den guztizko kopurua, emaitza litzateke gaur egun BGDSren onuradun izango liratekeela, modalitatearen batean, Euskadin pobrezia larrian dauden pertsonen

(28) Haurrentzako Laguntza Osagarria (HLO) Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren (BGDS) barruan sartutako prestazio ekonomiko gehigarria da. Prestazio horren helburu nagusia da beren kargura adingabeak dituzten eta ahultasun ekonomikoko egoeran dauden familiei laguntza ekonomikoa ematea, haurren pobrezia murrizteko helburuarekin.

%69,3, eta Espainiako estatuan, berriz, %51. Bilakaeraren ikuspegitik, BGDSren estaldura nabarmen hobetu da azken hiru urte hauetan, izan ere, 2021ean prestazio horren estaldura tasa, pobrezia larriko egoeran zegoen biztanleriari dagokionez, %29,1ekoa baitzen. Estatuko lurralde osoan ere nabarmen handitu da egiazko pobrezia-egoeran dauden eta prestazio horren estaldura iristen zaien pertsonen ehunekoa.


24. GRAFIKOA. Pobrezia larrian dauden pertsonen ehunekoaren eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren onuradunen ehunekoaren bilakaera, Euskadin eta Espainian pobrezia larrian dauden biztanleen aldean (2021-2024)



Iturriak: BGDSren 2021eko maiatzeko eta 2024ko azaroko nominen datuak, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioi Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzak emandakoak; EIN. 2021eko eta 2024ko Bizi Baldintzen Inkesta; Biztanleriaren etengabeiko estatistika. Familia-etxebizitzetako biztanleria. Urtarrilaren 1a.

Gainerakoan, prestazio horrek hainbat talde soziodemografikoren eta etxeren artean lortzen duen estaldurari dagokionez, betiere Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren datuen arabera, eta biztanleria osoa kontuan hartuta (eta ez pobrezia larriko egoeran dauden herritarrik bakarrik), ikusten da BGDSren estaldura bereziki handia dela 18 urtetik beherakoen eta adingabeak dituzten familien artean (bereziki guraso bakarreko familien artean), ziurrenik, HLOk prestazioaren hedapenean duen inpaktuagatik. Hala eta guztiz ere, BGDSren estaldura txikiagoa da Euskadin aztertutako kolektibo guztientzat, adingaberik ez duten etheen eta pertsona bakar batek osatutako unitateen artean izan ezik.

25. GRAFIKOA. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren estaldura Euskadiko eta Espainiako biztanleen eta bizikidetza-unitateen artean, pertsona eta etxe onuradunen hainbat ezaugarriren arabera (2024)



Oharra: PO pertsona onuradunen kopuruaren eta FU familia-unitate titularren kopuruaren artean kalkulaturako balioei dagozkie.

Iturriak: Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioi Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritza. 2024ko azaroko nominaren datuak; EIN. Biztanleriaren estatistika etengabea.

BGDSren estalduratik haratago, ezinbestekoa da, kasu guztietan ere, BGDSren eta DSBERen estaldura bateratua aztertzea, era horretan osorik ikusi ahal izateko Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren irismena eta eragina. Hurrengo taulan ikusten denez, 2022tik 2024ra bitartean, urte amaieran DSBERen titular ziren pertsonen kopurua 2022an 49.313 izatetik 2024an 58.234 izatera igaro da, hau da, %18,1eko igoera izan da.

Aldi horretan bertan, BGDSren titularrak %44,9 ugaritu dira, eta bi prestazio horietako baten titularrak %22,2 gehiago dira, 72.000 pertsonatik gora izateraino. Kopuru horretatik, %60,3k DSBE soilik jasotzen dute, %19,6k BGDS soilik, eta %20,1ek bi prestazioak batera. Bestela esanda, titularren %80,4k DSBERen bidez bermatutako zenbatekoak eskuratzen dituzte, eta %19,6k,

berriz, BGDSren bidez bermatutako laguntzak, nabarmen baxuagoak direnak. Estaldurari dagokionez, EAEko familia-unitateen %4,6k DSBE eskusiboki hartzen dute, %1,5ek BGDS soilik, eta %1,5ek biak jasotzen ditu. Guztira, EAEko familia-unitateen %7,7k aztertutako hiru modalitate horietako bat eskuratzen du.

18. TAULA. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (2018-2024) eta BGDSren (2022-24) titular kopuruaren bilakaera Euskadin

	DSBEren titularrak	BGDSren titularrak	DSBE-BGDS konbinazioa			
			Biak	DSBE bakarrik	BGDS bakarrik	Guztira
2018	55.605	--	--	--	--	--
2019	52.347	--	--	--	--	--
2020	52.555	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.
2021	52.839	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.	d.g.
2022	49.313	19.843	9.901	39.412	9.942	59.255
2023	55.487	24.485	12.297	43.190	12.188	67.675
2024	58.234	28.753	14.570	43.664	14.183	72.417
Bilakaera 2022-24 (%)	18,1	44,9	47,2	10,8	42,7	22,2
2024ko banaketa (% horizontala)	80,4	39,7	20,1	60,3	19,6	100,0
2024ko estaldura (%)	6,2	3,1	1,6	4,7	1,5	7,7

d.g.: daturik gabe.
Iturria: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua. Datuak urte bakoitzeko azaroan.

Prestazio horien baterako estalduratik eta banaketatik haratago, DSBE modalitateen irismena ere aztertzea komeni da. Hurrengo taulako datuek adierazten dute 2023ko urte osoan 65.000 bizikidetza-unitate eta 115.000 pertsona baino gehiago izan zirela prestazio horren onuradun. Erabiltzaile guztietatik, %20 inguruk laneko diru-sarrerak osatzeko errenta eskuratzen dute.

19. TAULA. **Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularren eta onuradunen kopuruaren eta tasaren bilakaera Euskadin (2019-2023)**

	Kopurua			Tasa** (%)		
	Titularrak			Pertsona onuradunak*		
	Laneko diru-sarrerak osatzeko			Pertsona onuradunak*		
	Guztira	diru-sarrerak osatzeko	oinarrizko errenta	Guztira	Titularrak %	Pertsona onuradunak %
2019	66.508	15.193	51.315	111.617	7,33	5,08
2020	66.375	13.696	52.679	111.774	7,29	5,05
2021	68.701	13.853	54.848	116.088	7,47	5,25
2022	64.706	12.414	52.292	117.347	6,97	5,32
2023	65.246	12.913	52.333	115.586	6,98	5,22

*Pertsona titularrak eta onuradunak ez direnak barne.
**Titularren tasa familia-unitate guztien ganean kalkulatu da; onuradunen tasa, berriz, Euskadin bizi diren biztanle guztien ganean kalkulatu da, EInen Biztanleriaren Estatistika Etengabeak biztanleriari eta etxeei buruz ematen dituen datuetatik abiatuta.
Iturria: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua. Urte bakoitzean zehar pertsona titular eta onuradun desberdinei dagozkien datuak.

Bi prestazio horiek pobrezia-erregimenaren murrizketan duten eraginari buruzko informazioa eskasa da. Ez EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak, ez Lanbidek, ez Ekonomia, Enplegu eta Lan Sailak ez dute gaiari buruzko informaziorik ematen; horri buruzko datu ofizial bakarrak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saileko Estatistika Organo Espezifikoak egiten duen Pobrezia-erregimenari eta Gizarte Desparekotasunari buruzko Inkestak (PGDI) ematen dituenak dira. 2022ko datuekin, alegia, txosten honetan aipatu diren erreforma gehienak aplikatu aurretik, PGDIk adierazten du DSBEn benetako pobrezia-erregimenaren dagoen biztanleriaren %75,5era iristen dela, hau da, EAEko biztanleriaren %5,6ra. Kolektibo horretatik, %60k prestazioak jasotzeko eskaririk ez duten erregimenaren arrisku-egoeratik irtena, eta %40k pobrezia-erregimenaren jarraitzen du, intentsitate txikiagokoa bada ere. Bestela esanda, benetako pobrezia-erregimenaren dagoen kolektiboaren %45 pobrezia-erregimenetik ateratzen da prestazio horiei esker, %24k jasotzen ditu baina pobrezia-erregimenaren jarraitzen du, eta %24,5ek ez ditu prestazioak jasotzen eta, beraz, egoera berean jarraitzen du **(29)**.

(29) Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak (2024). 2022ko Gizarte Beharrei buruzko Inkesta jasotako PGDI-Pobrezia modularen txostena. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren irismena, oro har, onuradun izan daitezkeen edo arrisku-egoeran dauden biztanleekiko konparazioan, aztertzeko datu ofizialik ere ez dago. Iturri ofizialetatik haratago, azken hilabeteetan Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren irismenari buruz argitaratu diren azterlanek, BGDSren eta DSBEren baterako eragina kontuan hartuta, adierazten dute benetako pobrezia-egoeran dauden biztanleen %36,2ra iristen dela BGDS Euskadin, PGDI metodologiaren arabera definituta, eta Espainia osoan, berriz, %17,1era **(30)**. Alde handiz, benetako pobrezia-egoeran dauden biztanleekiko BGDSren estaldura handiena duen autonomia-erkidegoa da.

DSBE batzen zaionean, bi prestazioen estaldura osoa, 2023an **(31)**, ustez benetako pobrezia-egoeran dagoen biztanleriaren %97,8koa da. Estaldura handi horren arrazoiak bi dira: alde batetik, Euskadin benetako pobrezia-egoeran dauden biztanleekiko BGDSk ematen duen estaldura handia, %33,2ra iristen baita, Espainia osoan %14ra iristen delarik. Bestalde, DSBEren estaldura are handiagoa da Euskadin benetako pobrezia-egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, kolektibo horren %64,6ra iristen baita; gainerako gutxieneko errentak, berriz, Espainia osoan %6,5era iristen dira. Laburbilduz, Euskadi nabarmentzen da, batetik, bi prestazioen estaldura handiagoa delako -denak batera edo banaka hartuta- eta, bestetik, errenta autonomikoak pisu erlatibo handiagoa duelako prestazioen sistema autonomiko/estatalean.

4.4. Familia-unitate ahulenek BGDS eskuratzeko zailtasun handiak dituzte oraindik


Aurreko ataletan agertutako datuak gorabehera, pobrezia larrian dagoen biztanleriaren zati handi batek adierazi du ez duela jaso Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzko informaziorik. EAEko bizikidetza-unitateen %76,7k esan du ez duela laguntza horri buruzko informaziorik jaso, Espainia osoan ageri den ehunekoaren gaineratik. Benetako pobrezia-egoeran dauden bizikidetza-unitateen kasuan, ehunekoa %65,4ra jaisten da, oso handia izaten jarraitzen

(30) Sanzo, L. (2024). "IMV, Rentas Mínimas Autonómicas y lucha contra la pobreza", *Llei d'Engel*, 2024ko abenduak 4. Hemen eskuragarri: <https://lleienel.cat/imv-rendes-minimes-autonomiques-i-lluia-contr-la-pobresa/>.

(31) Kasu honetan, 2023ko maiatzetik irailera bitarteko aldiko batez besteko datuak erabiltzen dira erreferentzia gisa.

badu ere. Datu horiek bat datoz, nolanahi ere, AIReF (32) erakundeak gizarte-bitartekarien erregistroan inskribatutako erakundeek osatutako foku-taldeekin egindako ikerketa kualitatiboaren emaitzekin; izan ere, agerian uzten zuten “non take-up delakoaren arrazoi nagusietako bat dela informazio ulergarri, fidagarri eta homogeneorik ez izatea bizikidetz-unitateentzat eta prestazioa eskatzeko prozesuan laguntza ematen dietenentzat”.

26. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako etxe guztien eta pobrezia larrian dauden etheen banaketa, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruz jasotako informazioaren arabera (2024)



Iturria: EINSFOESSA 2024.

(32) AIReF (2024), 3. Iritzia Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera, Iritzia 2/24, Madril. Hemen eskuragarri: https://www.airef.es/wp-content/uploads/2024/07/IMV/20240724_IMV_Opinion3_01Estudio.pdf.

5. kapitulua

Etxebizitza lortzea gero eta zailagoa da eta egoera desegokian dagoen etxe batean bizi diren pertsonak gero eta gehiago dira

5.1. Sarrera

Etxebizitza eskuratzea gero eta arazo handiagoa da, eta euskal gizartearen sektore askotara zabaltzen da. Euskal Soziometroaren azken edizioan, 2024an, **(33)** etxebizitza bigarren postuan zegoen (%38), lan-merkatuari lotutako arazoan ondoren (%45), Euskadiko hiru arazo garrantzitsuenen artean. Egia da, bilakaeraren ikuspegitik, EAEko gizartearen arazo garrantzitsuenetako bat etxebizitza eskuratzea delako pertzepzioa etengabe hazi dela 2021az geroztik, urte hartan EAEko 18 urteko eta hortik gorako herritarren %9k soilik aipatzen baitzuen gai hori. Etxebizitza lortzearekin lotutako arazoak direla-eta herritarrek duten kezka gero eta handiagoa izatea justifikatuta dago, kontuan hartzen bada etxebizitza duin eta egokia eskuratu ahal izatea oinarritzko baldintza dela gizarteratzeko. Hala ere, etxebizitza arrazoizko prezioetan eskuratzea arazo larria bihurtu da, prezioak igo egin baitira (erosketa dela nahiz alokairu-erregimenean dela), familien errentak baino abiadura handiagoan, eskaintza murriztua eta higiezinaren arloko espekulazioa ezaugarri dituen testuinguru baten barnean.

Bosgarren kapitulu honek lau zati ditu, eta bertan aztertzen dira gizarte-bazterkeriaren eta etxebizitzaren arteko loturan sakontzen duten elementuetako batzuk. Lehenengo epigrafeak arazoa testuinguruan kokatzen du eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dimentsionatzen ditu, erosteko nahiz alokatzeko prezioek azken aldian izan duten bilakaeratik abiatuta.

(33) Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2024). *Euskal Soziometroa 84 = 84. Euskal Soziometroa*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_84/es_def/adjuntos/24sv84.pdf.

Bigarren epigrafean, familia-unitateen eta pertsonen gizarte-bazterkeriako egoera garrantzitsuenen irismena eta bilakaera aztertzen da etxebizitzaren dimentsioan, arazo hori FOESSAren metodologian jasotzen den modu berean. Hirugarren zatian, etxebizitza ez-seguru edo desegoki bati lotutako egoerak herritarren artean duten irismena aztertzen da, ETHOS (34) tipologiak definitzen duen terminoetan, eta gizarte-bazterkerian dauden pertsonen artean duten hedadura espezifikoak ere bai. Azkenik, laugarren epigrafeak laburbiltzen du zein diren etxebizitza ez-seguruaren egoerek kaltetutako biztanleriaren profil ohikoenak eta profil horietatik zein diren zabalduek.

5.2. Etxebizitza eskuratzeko kostuak gora egin du, baina etxegabetzeak murriztu dira

Gure herrialdeko etxebizitza-bazterketako egoeren gorakada azaltzen duen elementu nagusietako bat, handiena ez bada ere, etxebizitza eskuratzeko prezioaren igoera da. Arazo horrek herritar guztiengan du eragina, zuzen edo zeharka, baina era oso berezian ukitzen ditu etxebizitza aldatu eta/edo emantzipatzeko helburuarekin etxebizitza bat eskuratu behar duten pertsonak (35), eta era berean, etxebizitza bat alokatzeak edo erosteak ekartzen dituen gastu arruntei aurre egin behar dieten pertsonak ere.


2008ko krisi ekonomikoarekin batera etxebizitzaren prezioak behera egin zuen arren, 2014tik aurrera etxebizitzaren prezioak gora egin zuen etengabe. 2018tik 2023ra doan tartean, Etxebizitzaren Prezioen Indizearen aldakuntza-tasa %19,8 handitu zen Euskadin, eta igoera hori askoz handiagoa izan zen etxebizitza

(34) Azterketa hori egiteko erabili da, egin ohi den bezala, FOESSA Fundazioak, Integrazioari eta Gizarte Premiei buruzko Inkestaren bidez, ETHOS tipologiako (European Typology on Homelessness and Housing Exclusion; FEANTSA erakundeak egiten du) 3. eta 4. kategorietara egiten duen hurbilketa.

(35) Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egiten duen Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitzaren Beharren eta Eskariaren Inkestak (2023) ondorioztatu zuenez, 18 eta 44 urte bitarteko herritarren %14,8 (94.975 pertsona) lehen etxebizitza eskuratzeko premian dago. Bestalde, inkesta horrek berak identifikatzen du EAEko familien %8,4k (77.369 familia) etxebizitza aldatu beharra duela; familia-unitateen %8,2k (75.620 familia), berriz, adierazten du beren etxebizitzak eraberritzeren bat behar duela, dela eraikineko elementu komunetan, dela etxebizitzaren berezko elementuetan, hiru mila eurotik gorako zenbatekoan. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ovv_personas_endv23_inf/es_def/ENDV23_Principales-Resultados_ES.pdf.

berrien kasuan (%33,7) bigarren eskuko etxebizitzaren kasuan baino (%17,1). Etxebizitza berriaren prezioaren igoera EAEko familien urteko batez besteko errentak izan duen igoera baino handiagoa da; izan ere, EInen Bizi Baldintzen Inkestaren arabera, epe horretan %22 handituko zen da, 30.499 eurotik 42.760 eurora iritsi arte. Erabilitako etxebizitzaren prezioa, aldiz, euskal familien urteko batez besteko errenta baino gutxiago igo da. Nolanahi ere, bi kasu horietan, etxebizitzaren prezioen igoerak Espainia osoan izandakoa baino txikiagoa izan da.

27. GRAFIKOA. Etxebizitzaren prezioen indizearen urteko bilakaera Euskadin eta Espainian. Oinarria 2018 (2018-2023)



Iturria: EIN. Etxebizitzaren Prezioen Indizea. Oinarria 2018

Alokairuen prezioen bilakaerari dagokionez, egoera ez da askoz ere pozgarriagoa. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak argitaratzen duen Alokairu-merkatuaren Estatistikak (AME) eman zituen datuen arabera, Euskadiko alokairuen kuotaren igoera %16,1ekoa izan zen 2018 eta 2023 bitarteko epean. Hiru lurralde historikoetako hiriburuetatik, hazkunderik handiena Gasteizen izan zen (%21,1) eta txikiena Donostian (%16,9). Alokairuaren prezioan izandako bilakaeratik haratago, Euskadiren barruan, Lurralde Historikoen eta hiriburuaren arteko desberdintasunak ere nabarmenak dira. 2023an, Donostiako hiriko batez besteko errenta (13,7 euro hilean metro koadroko) Euskadi osokoa baino %32 handiagoa zen, eta Arabako Lurralde Historikoko errenta, berriz, Euskadi osokoa baino %11 txikiagoa; horrek agerian uzten du etxebizitza eskuratzeko desberdintasun handiak daudela lurraldeen artean.

21. TAULA. Alokairuaren prezioaren bilakaera Euskadin (2018-2023)

	Batez besteko alokairu-kuota m ² -ko (euro/hilean)			Batez besteko alokairu-kuota (euro/hilean)		
	2018	2023	2018-23 %	2018	2023	2018-23 %
Gasteiz	8,12	9,77	20,3	619,5	750,5	21,1
Araba	7,71	9,29	20,5	592,5	716,6	21,0
Donostia	11,83	13,70	15,8	886,1	1036,0	16,9
Gipuzkoa	8,97	10,35	15,4	690,1	807,9	17,1
Bilbo	10,67	12,37	15,9	744,7	852,2	14,4
Bizkaia	9,29	10,71	15,2	671,2	768,3	14,5
Euskadi	8,94	10,37	16,0	667,0	774,7	16,1

Oharra: informazioa ohiko etxebizitza kolektiboaren alokairu libreko kontratuei buruzkoa da (ohiko etxebizitzaren kontratua), kontratuaren hasiera-urtearen arabera. Datu horien iturria Eusko Jaurlaritzaren fidantzen eta alokairu-kontratuen erregistroan, alokairu libreko modalitatean, ohiko etxebizitza-kontratuei lotuta, jasota dauden alokairuetako fidantzek ematen duten informazioa da.

Iturria: Iturria: Alokairu-merkatuaren Estatistika (AME). Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Eusko Jaurlaritza.


Nolanahi ere, kontuan izan behar da Alokairu-merkatuaren Estatistikak (AME) ematen dituen datuak ez datozela bat alokairu berrien prezioekin; aitzitik, urte jakin batean indarrean dauden alokairu guztien prezioei dagozkie AMEren datuak. Idealista izeneko higiezin enpresak bere webgunean eskuragarri dagoen eskaintzatik abiatuta kalkulatzan du alokairuaren prezioa, eta haren arabera, 2024ko abenduan, Euskadin eskaintako etxebizitzaren hileko batez besteko prezioa 14,4 eurokoa zen m²-ko eta 13,2 eurokoa m²-ko, 2023ko abenduan. Balio horiek Etxebizitza Alokatzeko Prezioaren Estatuko Erreferentzia Sistemak erkidego honetarako eskuragarri duen azken urtean bildutakoak baino handiagoak dira (10,37 euro m²-ko).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren mendeko Etxebizitzaren Euskal Behatokiak eskaintzen dituen datuek erakusten dutenez, Euskadin, 2024ko ekainaren 30ean, ohiko erabilerako etxebizitza kolektiboari lotuta, indarrean dauden etxebizitza libreen alokairu-kontratuen batez besteko errenta (merkatuko prezioetan) 754,3 eurokoa da hilean, eta 10,0 eurokoa m²-ko. Bilakaerari dagokionez, ohiko etxebizitza kolektiboaren alokairu libreko kontratuen metro koadro bakoitzeko batez besteko prezioa 8,4 eurotik

10,9 eurora igaro da Euskadi osoan, 2016 eta 2024 bitartean. Aldi horretan, etxebizitza horien batez besteko errenta 628,9 eurotik 807,2ra igaro da, hau da, %28,1eko igoera izan da **(36)**.

Alokairu-etxebizitzaren prezio garestien arazoak gizarte-bazterketako egoeran edo pobrezia-arriskuan dauden pertsonak ukitzen ditu bereziki, gainerako herritarrek baino ohikoagoa baita haiengan alokairu-erregimeneko etxebizitzara jotzea. EAEn alokairuko etxebizitzetan bizi diren herritarrak %16,6 dira, baina portzentajea %52,4ra iristen da, pobrezia-arriskuan dauden pertsonen kasuan. Bi zenbaki horien arteko arrakala estatuan baino askoz handiagoa da; izan ere, estatuan, alokairuan dauden pertsonen proportzioa %21ekoa da biztanleria osoarentzat –Euskadin baino handiagoa, beraz–, eta %35,7koa pobrezia-egoeran dauden pertsonentzat. Errealitate hori beste termino batzuetan ere adieraz daiteke: pobrezia-arriskuak jabetza-erregimenean bizi diren pertsonen %5,0 soilik ukitzen du, baina %29,8ra igotzen da portzentajea alokairu-erregimenean dauden pertsonak hartzen baditugu kontuan; egoera horien portzentajea, herritar guztiak kontuan hartuta, Euskadin, 2024an, %9,4koa da.

28. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako biztanleria osoaren eta pobrezia-arriskuan eta pobrezia larrian dagoen biztanleriaren banaketa, etxebizitza izateko erregimenaren arabera (2024)




Iturria: EIN. Bizi-baldintzen Inkesta.

(36) Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila (2024). Etxebizitza libreak. Alokairu-merkatuaren Estatistika (AME) 2016- 2024. Gasteiz Eusko Jaurlaritza. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/web01-s2ing/es/contenidos/informacion/122417_ema_oe_informacion/es_ovv_meto/index.shtml.

Etxebizitzaren prezioen igoerak ekartzen du, kasu batzuetan, etxebizitzaren gastuei aurre egiteko ezintasuna, eta luzera begira, batzuetan, etxebizitza galtzea ere bai. Ildo horretan, zalantzarik gabe, etxegabetzeak dira bizitegi-bazterketaren adierazlerik muturrekoenetako batzuk; izan ere, askotan, egoera ekonomiko txarren ondorioz, etxerik gabe uzten dituzte pertsonak, eta egoera oso ahulean geratzeko arriskuan jartzen dituzte.

Jarraian ikus daitekeenez, COVID-19aren pandemiagatik alarma-egoera deklaratu zen urtean zehar, pertsonak etxetik kanpora egozteko ekintzak nolabait gelditu ondoren, Espainiako Gobernuak etxegabetzeak eteteko onartutako hainbat neurrirenegatik, pertsonak etxetik kanpora egozteko ekintzak berriro ugaritu ziren 2021ean; hurrengo urteetan, ordea, joera beheranzkoa izan zen. 2018tik Euskadin egindako jaurtiketen (gatzelaniazko hitza etxetik kanporatzeko ekintza aipatzeko) kopurua ia erdira erori da, 2013 eta 2019 bitartean urtean izan ziren milatik gora jaurtiketen ondoren. 2023an, Botere Judizialak eskaintzen dituen datuen arabera, etxea jabetza-erregimenean zuten 55 pertsonen jaurtiketa izan ziren eta 518, berriz, alokairuen kasuan. Beste ikuspegi batetik, datu horiek argi erakusten dute, baita ere, etxebizitza izateko erregimentzat alokairua duten familien egoera ahulagoa dela, kuota ez ordaintzeagatik kaleratutako familien pisu espezifikoak 2018an %77,1 izatetik 2023an %87,4 izatera igaro baitzen.

29. GRAFIKOA. Euskadin gauzatutako kaleratzeen kopuruaren bilakaera, edukitze-erregimenaren arabera (2018-2023)



Oharra: jaurtiketa desahuzioa edo etxegabetzea ebatzi duen epai bat gauzatzeko egintza materiala da; hartan, ondasun higiezin baten edukitza ematen zaio berehala hartzeko eskubidea duenari.

Iturria: Botere judiziala. Estatistika judiziala. Seriea Krisiaren Efectua organo judizialean.


5.3. Etxebizitzaren eremuan bazterkeriak ukituta dauden pertsonen ehunekoa murriztu egin da

Etxebizitza eskuratzeko kostuen igoerak eragin zuzena du etxebizitza eskuratzeko zailtasunetan eta etxebizitzaren eremuari lotutako gizarte-bazterkeriako egoeretan. Hala eta guztiz ere, etxebizitzaren eremuan gizarte-bazterkeria neurtzeko erabiltzen diren adierazleen nolabaiteko igoera izan bada ere, 2018-2014 aldian murriztu egin da -gutxi bada ere- etxebizitzaren eremuan gizarte-bazterkeriako arazoak dituen biztanleriaren ehunekoa Euskadin. Familia-unitateen kasuan, ordea, igoera txiki bat gertatu da, 2021ean %14,1 izatetik 2024an %16,1 izatera igaro baita.

Euskadin, herritarren ia %16,9 eta familia-unitateen %16,1 daude, etxebizitzaren dimentsioan, gizarte-bazterkeriako arazoren baten eraginpean. Bi kasuetan, tasa horiek Espainiako estatuan jasotzen direnak baino txikiagoak dira; izan ere, estatu osoan, familia-unitateen %22,4 eta herritarren %24,2 daude egoera horien eraginpean.

Euskal Autonomia Erkidegoko egoerak alde nabarmena erakusten du Espainiako Estatu osoko egoerarekiko, lurralde-eremu bakoitzean erregistratutako joera kontuan hartzen bada: Estatu osoan, egoera horietan dauden pertsonen eta familia-unitateen ehunekoak gora egin du pixkanaka, %18,2tik igo baitzen %22,4ra familia-unitateen kasuan, eta %20,0tik %24,2ra, berriz, pertsonen kasuan. Euskadin, esan bezala, egoera horiek kaltetutako pertsonen kasuan pixkanaka murriztu da portzentajea -oso gutxi bada ere-, eta nolabait mantendu

30. GRAFIKOA. Euskadin eta Espainian etxebizitzaren dimentsioan gizarte-bazterketako arazoak dituzten herritarren eta familien portzentajeen bilakaera (2018-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

da familia-unitateen kasuan, hasierako erreferentziatzat 2018. urtea hartzen bada. Hala eta guztiz ere, 2024an, familien eta pertsonen %16 inguru daude, Euskadin, etxebizitzaren esparruan, bazterketa-egoera horien eraginpean.

Esan daiteke, beraz, Euskadin hobekuntza izan denik, dimentsio horri dagokionez? Analisisirako hartzen den ikuspegiaren arabera da erantzuna.

Biztanleria osoarentzat 2018 eta 2024 artean aintzat hartutako adierazleen bilakaera kontuan hartzen bada, egonkortasuna argia da, oso aldaketa txikiak izan baitira -gora nahiz behera- aztertutako zortzi adierazleetan. Kasu bakar batean -etxebizitzaren gastu gehiegi dituzten familia-unitateen ehunekoa neurtzen duen adierazlea- ikusten da hazkunde handi samarra izan duela, kaltetutako familia-unitateen tasa 2018ko %10,0tik 2024ko %12,9ra igo baita. Beraz, horren arabera, %30 inguruko igoera da hori, eta bat dator, alde batetik, lehen aipatutako alokairuen kostuaren igoerarekin, eta bestetik, hipoteken interes-tasen igoerarekin ere, testuinguru horretan -lehen ikusi dugun bezala-, soldaten geldialdia etorri baitzen, bai, behintzat, termino errealetan aztertuta. Jende-pilaketa larriko egoeran bizi diren familia-unitateen ehunekoak ere igoera erlatibo handi samarra izan du, 2018an %1,9 izatetik igaro baita, 2024an, %3,9 izatera eta, beraz, %100 inguruko hazkunde erlatiboaz ari gara. Azterketa epe laburrean egiten bada -2021etik 2024ra bitartean izandako aldaketak-, aldiz, adierazle gehienek intzidentziak gora egin duela ikusten da.

22. TAULA. Euskadin eta Espainian etxebizitzaren arloko gizarte-bazterketako arazoek ukitutako familia-unitateen portzentajeen bilakaera, familia guztiak eta gizarte-bazterketak ukitutako familia-unitateak bereizita (2018-2024)

	Familia-unitateak guztira				Bazterkerian dauden familia-unitateak			
				Dif.				Dif.
	2018	2021	2024	2018-24	2018	2021	2024	2018-24
Espainia								
ID14 Etxe txarrean bizi den familia: txabola, etxabea, barrakoia, aurrefabrikatua...	0,3	0,1	0,3	0,0	1,1	0,5	1,2	+0,1
ID15 Familia bizi den etxean eraikuntza-gabezia larriak	1,9	1,8	2,4	+0,5	5,3	6,3	9,4	+4,1
ID16 Osasun-egoera txarreko etxea: hezetasunak, zikinkeria eta usainak	3,2	4,0	5,9	+2,7	12,2	12,7	21,3	+9,1
ID17 Jende-pilaketa larria etxean (<15 m² pertsonako)	2,5	3,3	3,5	+1,0	12,3	12,1	13,2	+0,9

	Familia-unitateak guztira				Bazterkerian dauden familia-unitateak			
	2018	2021	2024	Dif. 2018-24	2018	2021	2024	Dif. 2018-24
ID18 Etxebizitza prekarioan edukitzea: beste pertsona edo erakunde batzuek doan emandakoa, berriz alokatua, legez kanpo okupatua edo kaleratzeko abisuarekin	3,7	4,3	6,6	+2,9	16,3	15,5	24,9	+8,6
ID19 Etxearen ingurunea oso degradatua	0,8	1,8	1,4	+0,6	2,7	5,8	5,9	+3,2
ID20 Mugikortasun urriko pertsonak eta oztopo arkitektonikoak etxean	2,2	2,2	3,4	+1,2	6,6	5,2	7,8	+1,2
ID21 Etxebizitzaren gastu gehiegi familiarentzat (diru-sarrerak / etxebizitza-gastuak < %40ko pobrezia larriaren atalasea 2018an ainguratua)	11,1	14,2	12,3	+1,2	49,5	50,0	43,9	-5,6
Euskadi								
ID14 Etxe txarrean bizi den familia: txabola, etxabea, barrakoa, aurrefabrikatua...	(0,0)*	0,3	0,8	--	(0,0)*	1,1	3,3	--
ID15 Familia bizi den etxean eraikuntza-gabezia larriak	1,9	1,2	1,0	-0,9	2,1	3,0	4,4	+2,3
ID16 Osasun-egoera txarreko etxea: hezetasunak, zikinkeria eta usainak	2,7	2,1	2,5	-0,2	6,0	11,3	12,1	+6,1
ID17 Jende-pilaketa larria etxean (<15 m ² pertsonako)	1,9	3,1	3,9	+2,0	8,0	16,5	21,9	+13,9
ID18 Etxebizitza prekarioan edukitzea: beste pertsona edo erakunde batzuek doan emandakoa, berriz alokatua, legez kanpo okupatua edo kaleratzeko abisuarekin	2,7	2,1	2,2	-0,5	11,7	11,5	10,5	-1,2
ID19 Etxearen ingurunea oso degradatua	0,5	1,2	0,7	+0,2	1,5	4,5	1,6	+0,1
ID20 Mugikortasun urriko pertsonak eta oztopo arkitektonikoak etxean	2,4	1,1	2,8	+0,4	7,2	3,6	10,6	+3,4
ID21 Etxebizitzaren gastu gehiegi familiarentzat (diru-sarrerak / etxebizitza-gastuak < %40ko pobrezia larriaren atalasea 2018an ainguratua)	10,0	11,8	12,9	+2,9	62,6	56,6	54,6	-8,0

Oharra: parentesi artean eta izartxo batekin seinalatuta jaso dira fidagarritasun-maila nahikoa eskaintzen ez duten balioak, dela biztanleria osoa aztertzean ez delako jaso adierazleek deskribatzen dituzten egoerei buruzko kasu bakar bat ere, dela 2024rako jasotako balioetan gertatu delako aldaketa nabarmenen bat, aurreko urteetako batez bestekoarekin alderatuta. Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

Urte horietan gertatu diren aldaketen azterketa gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateetara mugatzen bada, ondorioak kezkarriagoak dira. Kasu honetan, adierazle ia guztiek hazkunde handia izan dute, eta, oro har, pixkanaka eta etenik gabe egina. Salbuespen esanguratsuena etxebizitzaren gastu gehiegizkoak neurtzen dituen adierazlea da, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateen artean argi samar murriztu baita. Murrizketa hori gorabehera, ezin utzi azpimarratu gabe gizarte-bazterketako egoeran dauden familien erdiek baino gehiagok gabezia-egoerei aurre egin behar dietela etxebizitzaren esparruan.

EAEko egoera Estatu osokoarekin alderatzen bada, hainbat alderdi azpimarragarri ikusten dira. Lehenengoak zerikusia du Euskadin bazterkeria-egoerek etxebizitzan duten intzidentzia txikiagoarekin, gutxienez 2024an familia-unitate guztien egoera kontuan hartzen bada. Egoera hobe hori jasotzen da aztertu diren zortzi adierazleetatik bostetan; hala ere, intzidentzia handieneko kasuan -etxebizitzaren gehiegizko kostuak-, kaltetutako familia-unitateen ehunekoa handiagoa da Euskadin Espainia osoan baino (%12,3 Espainian eta %12,9 Euskadin). Hala ere, aldeak txikiak dira.

Gauza bera gertatzen da gizarte-bazterketako egoeran dauden herritarren kasuan, Euskadin Espainian baino familia gehiago ukitzen baitituzte gehiegizko etxebizitza-gastuek: Espainiaren kasuan, gizarte-bazterketako egoeran dauden familia-unitateen %43,9k du arazo hori, eta Euskadiren kasuan, berriz, ehunekoa %54,6ra iristen da. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko egoeran nabarmena da -bai familia-unitate guztietan, bai gizarte-bazterketako egoeran dauden familia-unitateetan- adierazle nagusiak, hau da, gehiegizko etxebizitza-kostuak familia gehiago ukitzen dituela.

5.4. Etxebizitza ez-seguruen edo etxebizitza desegokiaren egoerek, Euskadin, hamar pertsonatik bat baino gehiago ukitzen dute

Aurrez aipatutako arazoez gain, EINSFOESSAk aukera ematen du etxebizitza-bazterkeriako egoerak eta, zehazkiago, etxebizitza ez-seguruko edo desegokiko egoerak pairatzen dituzten herritarren ehunekoa aztertzeko, ETHOS tipologiak definitutako terminoetan.

Etxe-gabeziari eta etxe-bazterkeriari buruzko Europako tipologiaren (ETHOS) lau kategoria kontzeptualetako bat Etxebizitzaren segurtasunik eza

da; bizitzeko ezegonkortasun handi bati lotutako egoerak biltzen ditu, dela zalantza duelako epe labur-ertainean etxebizitza horretan jarraitu ahal izango den ala ez, dela etxebizitza horretan tratatu txarrak jasotzen direlako eta horri lotutako segurtasunik ezagatik edo kalteberatasunagatik. Euskadin 42.000 pertsona eta 22.000 familia-unitate -herritarren %1,9 eta familia-unitate guztien %2,3- segurtasunik gabeko egoeran bizi dira beren etxean. Ehuneko horiek Estatu osoan erregistratzen direnak baino txikiagoak dira, Estatuko eremuan etxebizitza ez-seguruan bizi baitira pertsonen %6,5 eta familia-unitateen %6,9.

Etxebizitza ez-seguruen kontzeptuan jasotzen diren egoeretako bat, pertsona kaltetu gehien biltzen dituen, legezko titulurik gabeko etxebizitza batean edo, gutxienez, prekariotzat jotzen den edukitze-erregimen batean bizitzea da. Euskadin, egoera horien kaltea herritarren %1,9k eta familia-unitateen %2,2k jasaten dute. Egoera horietakoak dira, orobat, azken aldian etxebizitzatik kanporatzeko mehatxuren bat jasotzearekin eta tratatu txar fisiko edo psikologikoak jasatearekin zerikusia dutenak. Egoera horiek ukitzen dituzte, hurrenez hurren, Euskadiko herritarren %0,6 eta %0,1.

Beste alde batetik, etxebizitza desagokian bizitzean, funtsean, bizitzeko baldintza egokirik ez izatea da, eta egoera hori lotuta dago, besteak beste, eraikuntzako egitura desagokietan bizitzearekin, behar diren higie-ne eta osasuna izateko oinarritzko hornikuntza edo ekipamendurik ez izatearekin edo erosotasunaz eta pribatutasunaz gozatzeko gutxieneko azalerarik ez izatearekin. Jarraian ikusiko den bezala, egoera horiek ugariagoak dira, etxebizitza ez-seguruekin lotutakoak baino. Euskadin, herritarren %9,9, hau da, 218.000 pertsona inguru, etxebizitzaren egoera desagokian bizi dira. Kaltetutako familia-unitateak %8 dira. Egoera horietatik ugarien aurkitzen direnak jende-pilaketa larriarekin lotutakoak dira; egoera horiek familia-unitateen %3,9 eta herritarren %7,6 ukitzen dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoan. Bestalde, bizitzeko guztiz desagokia den etxebizitza batean bizi izateak (etxebizitza hondatuta dagoelako edo oso ingurune degradatuan dagoelako kokatua, hornidurarik ez duelako edo higie-ne eta osasuna zaintzeko gutxieneko ekipamendurik ez duelako) edo, zuzenean, infraetxe batean bizitzeak (37), biztanleriaren %2,2 eta %0,6 ukituko lituzke, hurrenez hurren. Konparazioaren ikuspegitik, aztertutako ia adierazle guztiek intzidentzia txikiagoa dute Euskadin Espainia osoan baino (jende-pilaketak eta infraetxeak izan ezik).

(37) Inkestaren metodologiak, etxebizitza mota horien egoerak biltzean, erroldan ageri direnak bakarrik islatzen ditu, eta horrek pentsarazten du errealitatea, inondik ere, okerragoa dela.

23. TAULA. Etxebizitza ez-seguruaren eta etxebizitza desegokiaren egoeran dauden herritarren eta familien ehunekoa eta zenbatespena, milakotan, Euskadin eta Espainian (2024)

		Pertsonak		Familia-unit.	
		%	Kopurua (milaka)	%	Kopurua (milaka)
ETHOS kategoria operazionala	Definizioa FOESSA				
Espainia					
Etxebizitza ez-segurua	8. Legezko titulurik gabeko etxebizitza batean bizitzea (aldi batez senideekin edo lagunekin bizitzea nahi izan gabe, errentamendu-kontraturik gabeko etxebizitza batean bizitzea, etab.)	6,3	3.030	6,6	1.270
	9. Etxebizitza uztearen legezko jakinarazpena	2,3	1.090	1,9	350
	10. Familiaren edo bikotekidearen indarkeriaren mehatxupean bizitzea	0,4	170	0,4	70
	Guztira	6,5	3.140	6,9	1.320
Etxebizitza desegokia	11. Behin-behineko egitura edo txabola batean bizitzea	0,3	120	0,3	60
	12. Estatuko legediaren arabera egokia ez den etxebizitza batean bizitzea	5,2	2.480	5,1	980
Etxebizitza desegokia	13. Etxebizitza masifikatu batean bizitzea	7,0	3.380	3,5	670
	Guztira	11,0	5.320	8,2	1.570
Guztira		15,8	7.610	13,6	2.620

		Pertsonak		Familia-unit.	
		%	Kopurua (milaka)	%	Kopurua (milaka)
Euskadi					
Etxebizitza ez-segurua	8. Legezko titulurik gabeko etxebizitza batean bizitzea (aldi batez senideekin edo lagunekin bizitzea nahi izan gabe, errentamendu-kontraturik gabeko etxebizitza batean bizitzea, etab.)	1,9	41	2,2	20
	9. Etxebizitzatik alde egiteko legezko jakinarazpena	(0,6)*	12	(0,5)*	4
	10. Familiaren edo bikotekidearen indarkeriaren mehatxupean bizitzea	0,1	3	0,3	3
	Guztira	1,9	42	2,3	22
Etxebizitza desegokia	11. Behin-behineko egitura edo txabola batean bizitzea	0,6	14	0,8	7
	12. Estatuko legediaren arabera egokia ez den etxebizitza batean bizitzea	2,2	47	2,0	19
Etxebizitza desegokia	13. Etxebizitza masifikatu batean bizitzea	7,6	166	3,9	37
	Guztira	9,9	218	6,5	61
Guztira		11,3	250	8,5	80


Oharra: kaltetutako herritarren eta familia-unitateen zenbatespena egiteko, EInen biztanleriaren estatistika etengabearen zifra beharantz birbildeak hartu dira oinarritzat. Bi kasuetan ere, datuak 2024ko urtarrilaren 1ekoak dira, eta etxebizitza familiarretan bizi diren herritarrei edo familiei dagozkie. Zenbatespen horiek argigarri gisa bakarrik hartu behar dira kontuan.

Iturria: EINSFOESSA 2024.

Zenbat herritar dira gabezia-egoera horietako baten kaltea, gutxienez, jasaten dutenak? Aurreko taulan ikus daitekeenez, egoera horiek pertsonen %11,3 eta familia-unitateen %8,5 ukitzen dituzte (bi kasuetan ere, Estatu osoari dagozkion balioen azpitik, Estatu osoan %15,8ra eta %13,6ra iristen baitira datu horiek, hurrenez hurren). Guztira, 250 mila pertsona inguru dira.

Etxebizitza ez-seguruen egoerek, bereziki, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak ukitzen dituzte Euskadin eta, oso modu berezian, bazterkeria-egoera larrian daudenak. Etxebizitza desagokiaren kasuan, intzidentzia handixeagoa da bazterketa ertaineko egoeran dagoen biztanleriaren kasuan. Egoera, nolabait, hobe da gizarteratze prekarioko egoeran dauden pertsonen artean, jende-multzo horrentzat portzentaje horiek askoz ere txikiagoak direlako, baina, nolanahi ere, etxebizitza desagokiaren kasuan ere handiak dira, pertsona horien %14,1 baitira egoera horiek ukitzen dituztenak.


31. GRAFIKOA. Etxebizitza ez-seguruen eta etxebizitza desagokiaren egoerek Euskadin eta Espainian ukitzen dituzten herritarren ehunekoak, gizarteratze-mailaren arabera (2024)



Iturria: EINSFOESSA 2024.

Bilakaerari dagokionez, eta arreta herritarren multzo osoan jarrita, ikusten diren joerak kontraesankorrak dira, nolabait ere. Espainian bi egoera-mota horiek pixkanaka gora egin badute ere, etxebizitza ez-seguruen egoerak murrizteko joerak ez du etenik izan Euskadin 2018 eta 2024 bitartean, eta etxebizitza desagokian bizitzeko egoerak, berriz, ugaritu egin dira, pixkanaka eta etenik gabe, 2018ko %7,2tik 2024ko %9,9ra.

32. GRAFIKOA. Etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desegokian bizi diren herritarren portzentajeen bilakaera Euskadiko eta Espainiako (2018-2024)




Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

5.5. Familia-unitate pobreak, seme-alabekin eta gazteak edo atzerritarrak buru dituztenak, portzentaje oso handian ageri dira etxebizitza desegokian bizi diren familia-unitateen multzoan

Zein da etxebizitza desegokian bizi diren familia-unitateen profila? Beste era batera esanda, zein da etxebizitza desegokian bizi diren familia-unitateen %9,9 horien artean -93.000 inguru- zabalduen ageri den profila? Hurrengo grafikoan jasotzen da kolektibo horren barruan ezaugarri desberdinetako familia-unitateek duten pisua, baita etxe guztien artean dagokiena ere.

33. GRAFIKOA. Familia-unitate guztien eta etxebizitza desegokian bizi direnen banaketa, sostengatzaile nagusiaren eta familia-unitatearen hainbat ezaugarrien arabera (2024)



Oharra: familiak aztertzen dira sostengatzaile nagusiaren (SN) ezaugarrien arabera eta familia-unitateen (FU) beste ezaugarri batzuen arabera.
Iturria: EINSFOESSA 2024.

- Aurreko grafikoaren azterketak ematen dituen datuek hau adierazten dute:
- Etxebizitza desegokian bizi diren familia-unitateen artean, handiagoa da gizonak buru dituzten familien pisua, emakumeak buru dituzten familia-unitateena baino (aldea biztanleria osoaren kasuan baino are handiagoa da).
 - Sostengatzaile nagusiaren adinari dagokionez, etxebizitza desegokian bizi diren familia-unitateen ia erdien buru edo sostengatzaile nagusia 45 urtetik beherako pertsonak dira, baina familia horiek familia-unitate guztien %28,2

bakarrik dira. Agerpen hain hanpatu hori kontrastean dago etxeko buru 65 urtetik gorako pertsona duten familia-unitateen agerpen txikiarekin: familia-unitate guztien %28,8 dira, baina etxebizitza desagokian bizi diren familien %10,2 besterik ez dira.

Etxebizitza desagokia duten familia-unitateetatik, proportzio txikian ageri dira sostengatzaile nagusia unibertsitate-ikasketak egindako pertsona bat duten familiak: familia-unitateen %27,8 dira, baina egoera horretan dauden familien %12,3 baino ez.

- Etxebizitza desagokian bizi diren familien %80k lan egiten duen pertsona bat du sostengatzaile nagusitzat, baina familia-unitate guztien %56 baino ez dira halakoak.
- Sostengatzaile nagusiaren nazionalitate espainiarra babes-faktore gisa ageri da, etxebizitza desagokian bizitzeko arriskuaren aurrean; atzerriko nazionalitatearen kasuan, berriz, ez da hala: izan ere, familia-unitate horiek egoera horretan dauden familia-unitateen %40 dira, eta EAEko familia-unitate guztien %11,7. Bestela esanda, pisu demografikoaren arabera legokiokeenaren aldean, multzo horren presentzia lau bider handiagoa da, kasu horretan.
- Gauza bera gertatzen da pobrezia-egoerekin: etxebizitza desagokian bizi diren familia-unitateen %32 pobrezia-egoeran daude, baina familia-unitate guztiak kontuan hartuta, %15,3 dira. Nolanahi ere, aipagarria da, baita ere, etxebizitza desagokian bizi diren familia-unitateen %67 ez direla pobrezia-egoeran bizi.
- Umeak dituzten bikoteek ere oso multzo handia osatzen dute etxebizitza desagokiko egoeran dauden familia-unitateen kolektiboan: familien %38,7 dira, baina egoera horretan dauden familien %61,7.
- Landa-eremuetan bizi diren familia-unitateak ere oso ugari ageri dira etxebizitza-egoera desagokian bizi diren familia-unitateen artean: familia guztien %10,1 dira, baina etxebizitza desagokiaren arazoak dituzten familia-unitateen %26,0. Kontrakoa gertatzen da hiriguneetan eta eremu erdi-hiritarrean bizi diren familia-unitateen kasuan.

6. kapitula

EAEko herritarrak zerbitzuetan gehiago gastatzearen eta horien unibertsaltasuna indartzearen alde daude

6.1. Sarrera

Kapitulu honetan aztertzen dira gizarte-zerbitzuak eskuratzearekin eta administrazio publikoek gizarte-eskubideak bermatzeari dagokionez duten erantzukizunari buruz herritarrek duten pertzepzioarekin lotutako hainbat gai, eta halaber, aztergai dira ongizate-estatua osatzen duten prestazioekin lotutako zenbait planteamendu ere. Horretarako, kapitula sei epigrafetan dago antolatuta.

Lehenengoak izaera deskriptiboagoa du, eta azken urtean EAEko eta Espainiako herritarrek gizarte-zerbitzu publikoak zein gizarte-ekimenekoak eskuratzean izan dituzten mailak jasotzen ditu. Hurrengo epigrafeak, funtsean, herritarrek behar ekonomikoa izanez gero erabiliko luketen erakunde-motari eta gizarte-babeseko sistemaren diseinuari buruz duten pertzepzioan oinarritzen dira: esaterako, lehenik eta behin, inkestatutako pertsonen premiarik izanez gero aukeratuko luketen erakunde-mota aztertzen da; bigarrenik, herritarrak prest ote dauden gizarte-zerbitzuetako gastua handitzeko eta, horretarako, zergak handitzeko; hirugarrenik, inkestatutako pertsonen ustez gizarte-eskubide jakin batzuk eskuratzeko bermeak izan behar duen unibertsaltasunaren edo fokalizazioaren maila aztertzen da; eta, azkenik, herritarrek gizarte-prestazioen diseinuarekin eta inpaktuarekin lotutako mezu jakin batzuekin duten adostasun-maila.

Kasu guztietan ere, lehenik eta behin, Euskadiko 2024ko egoera aztertzen da, eta 2018an zegoenarekin alderatzen da; ondoren, adierazle horien bilakaerari buruzko datuak aztertzen dira, eta, azkenik, aztertutako gaiei dagokienez,

gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak eta gizarteratze-egoeran daudenak dituzten pertzepzio desberdinak aztertzen dira.

6.2. Euskadin hamar pertsonatik bat azken urtean gizarte-zerbitzuetara jo duen familia-unitate batean bizi da


Euskadin gizarte-zerbitzuak eskuratzeko aukera eskubide unibertsal gisa dago aitortua, pertsona guztientzat eskuragarri, mendekotasunarekin, desgaitasunarekin, gaixotasun mentalarekin, indarkeria matxistarekin, babesgabetasunarekin nahiz gizarte-bazterketarekin lotutako egoeretan. Gainera, EAEko gizarte-zerbitzuek -titulartasun publikokoak nahiz gizarte-ekimenak bultzatutakoak- pertsonen eta familien beste behar batzuk betetzen dituzte, hala nola, biziraupenarekin, aisiarekin eta denbora librearekin edo ostatua lortzearekin lotutakoak. Zerbitzu horietarako sarbidea unibertsala da -hau da, ez du errenta-mailak baldintzatzen-, betiere prestazio edo zerbitzu bakoitzerako ezarritako administrazio- eta premia-baldintzak betetzen badira.

Unibertsala den arren, ezin da esan Euskadin gizarte-zerbitzuetarako sarbidea gehiengoaren eskura dagoenik. EINSFOESSAren 2024ko datuen arabera, EAEko biztanleriaren %10,8 azken urtean gizarte-zerbitzuetara laguntza bila jo behar izan duten familia-unitateetan bizi da. Zehazkiago, %10,7 gizarte-zerbitzu publikoetara jo duten familia-unitateetan bizi dira, %1,3 Caritasen zerbitzuetara jo duten familia-unitateetan eta %1ek beste erakunde batzuetara jo duten etxeetan. Beste ikuspegi batetik, EAEko biztanleen %89,2 zentro horietara joan behar izan ez duten etxeetan bizi dira, %9k gizarte-zerbitzu publikoak baino ez dituzte erabili, %0,1ek pribatuak bakarrik, eta %1,7k bi mota horiek. Zerbitzu horietara jo duten pertsonak bakarrik kontuan hartuz gero, %83k gizarte-zerbitzu publikoetara jo du soilik, %15ek bietara eta %1ek pribatueta bakarrik.

Konparazioz, zerbitzu horietakoren bat baliatu duten familia-unitateetako pertsonen ehunekoa Euskadin -%10,8 arestian esan den bezala- nabarmen txikiagoa da Estatu osoan erregistratzen dena baino, eremu horretan %13,2ra iristen baita. Gizarte-zerbitzu publikoetarako sarbidea, ordea, antzekoa da bi lurraldeetan -zertxobait handiagoa, izatez, Euskadin-, eta Caritaserako eta beste erakunde batzuetarako sarbidea, berriz, ez da hain ohikoa Euskadin. Ildo horretatik, gizarte-zerbitzuak erabiltzeko tasak oso antzekoak izanik, Euskadi nabarmentzen da Estatu osoaren aldean, gizarte-zerbitzu publikoek protagonismo handiagoa dutelako: Euskadin, esan bezala, gizarte-zerbitzuak

baliatu dituzten pertsona gehien-gehienek gizarte-zerbitzu publikoetara jo dute; Espainia osoan, berriz, ehunekoa %70ekoa da, eta %30ek gizarte-ekimeneko gizarte-zerbitzuak baino ez dituzte baliatu, esate baterako, Caritas.

34. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren ehunekoa azken urtean laguntza bila hainbat zerbitzutara jo duten etxeetan (2024)




Iturria: EINSFOESSA 2013, 2018, 2021 eta 2024

Eboluzioaren ikuspegitik, 2013tik 2024ra bitarteko aldia aintzat hartuta, esan daiteke gizarte-zerbitzuen laguntza eskatu duten familia-unitateetan bizi diren pertsonen ehunekoa jaisten ari dela, kontuan hartuta ere, 2021ean, COVID-19aren krisiaren ondorioak oraindik oso presente zeudela, izan zen gorakada. Euskadiren kasuan, nabarmen murriztu da zerbitzu horietakoren batera jo duten familia-unitateetan bizi diren pertsonen ehunekoa, 2018ko %14tik 2024ko %10,8ra. Gizarte-zerbitzu publikoak eskuratu dituzten familia-unitateetan bizi diren pertsonen kopuruan ere murrizketa handia gertatu da, kasu honetan 2021etik 2024ra bitartean **(38)**. Caritasen kasuan eta, bereziki, Hirugarren Sektoreko gainerako erakundeen kasuan ere beherakada nabarmena izan da:

(38) Gizarte-zerbitzu publikoen erabilera urriago hori argi agertzen da, era berean, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saileko Estatistika Organo Espezifikoak urtero egiten duen Gizarte Premiei buruzko azken Inkestaren (GZEE-GPI) emaitzetan, 2024an. Eragiketa horren arabera, azken hiru urteetan oinarritzko gizarte-zerbitzu publikoetara jo duten EAEko familia-unitateen ehunekoa 2018an %16,4 izatetik 2022an %12,4 izatera jaitsi da. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/estadistica-de-demanda-de-servicios-sociales-encuesta-de-necesidades-sociales-edss-ens/web01-s2enple/es/>.

2021ean EAEko biztanleen ia %5ek adierazi zuten sare publikotik eta Caritasen saretik kanpoko gizarte-zerbitzuak erabili zituzten familia-unitateetan bizi zirela, baina 2018an ehunekoa %1era murriztu da. Murrizteko joera hori antzeko terminoetan gertatu da Estatu osoan, susperraldi ekonomikoaren eta txosten honetan aztertutako adierazleen hobekuntzaren ildo beretik.

35. GRAFIKOA. Euskadin eta Espainian azken urtean laguntza bila hainbat zerbitzutara jo duten familia-unitateetan bizi diren pertsonen ehunekoa bilakaera (2013-2024)




Iturria: EINSFOESSA 2013, 2018, 2021 eta 2024

Integrazio-egoeran dauden pertsonen eta gizarte-bazterketako egoeran dauden portaera kontuan hartuta aztertzen badira datuak, hainbat elementu interesgarri ikusten dira. Alde batetik, argi ikusten da gizarte-bazterketako egoeran dauden EAEko familiek gehiago jo dutela gizarte-zerbitzuetara: familia-unitate horien %50,3k eskuratu dute zerbitzu horietakoren bat 2024an, eta gizarteratze-egoeran dauden familia-unitateetan bizi diren pertsonen %5,6k. Beraz, zerbitzu horiek eskuratzeko beharra edo prestasuna ia hamar aldiz handiagoa da bazterketa-egoeran dauden familia-unitateen artean, gizarteratze-egoeran dauden familia-unitateen artean baino.

Espainiako egoerari dagokionez, hala ere, kontrastea da gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen Euskadin Espainia osoan baino gehiago jotzen dutela gizarte-zerbitzuetara -%50,3 eta %42,1 hurrenez hurren-; gizarteratze-egoeran dauden pertsonen kasuan, berriz, alderantziz gertatzen da: EAEko biztanleen %5,6 gizarte-zerbitzuak baliatu dituzten integrazio-egoeran dauden etxeetan bizi da, eta Espainian, berriz, %6,2. Gauza bera gertatzen da gizarte-zerbitzu

publikoak soilik kontuan hartzen badira: horietara jo dute Euskadin bazterketa-egoeran dauden familia-unitateen %49,1ek, eta Espainia osoan, aldiz, familia-unitate horien %32,9k. Integrazio-egoeran dauden biztanleen kasuan, aldeak askoz txikiagoak dira (%5,5 Euskadin eta %5,2 Espainian). Datu horietatik ondoriozta liteke, tentu handiz bada ere, euskal gizarte-zerbitzuak Espainia osokoak baino fokalizatuago edo orientatuago daudela gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzat, eta, beraz, praktikan, ez direla hain unibertsalak.


36. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako azken urtean laguntza bila hainbat zerbitzutara jo duten familia-unitateetan bizi diren herritarren ehunekoa, gizarteratze-mailaren arabera (2024)



Iturria: EINSFOESSA 2024.

Inpresio hori bera lortzen da datuak beste ikuspegi batetik aztertzen direnean. Ondoko grafikoak jasotzen du, bazterketatik integratziora doan eskalako egoeraren arabera sailkatuta, hiru talde zehatzen banaketa: gizarte-zerbitzuetara jotzen ez dutenak, publikoak izan nahiz pribatuak izan; zerbitzu publikoetara soilik sarbidea dutenak; eta pribatuetara soilik edo bietara iristen direnak. Euskadiren kasuan, integrazio osoko egoeran dauden pertsonen presentzia, zerbitzu publikoak soilik erabiltzen dituztenen artean, askoz txikiagoa da, herritar guztiekiko dutena baino (%10,1 eta %53,3, hurrenez hurren), eta kontrakoa gertatzen da bazterketako egoeran, ertaina nahiz larria, dauden pertsonen kasuan (%47,4 eta %11,8 hurrenez hurren). Egoera berbera da, baina ez hain markatua, Espainia osoan.

37. GRAFIKOA. Biztanleriaren banaketa, azken urtean laguntza bila hainbat zerbitzutara jo duen edo ez kontuan hartuta, gizarteratze mailaren arabera (2024)



Oharra: parentesi artean familia-unitate bakoitzeko biztanleriak duen pisu espezifikoak dago, baliatu dituen zerbitzuen arabera.

Iturria: EINSFOESSA 2024.


6.3. EAEko biztanleen %90,1ek gizarte-zerbitzu publikoetara joko luke lehenik, behar ekonomikoa izanez gero

Benetan erabilitako zerbitzuez gain, EINSFOESSA inkestaren galdetegiak behar ekonomikoa izanez gero inkestatutako pertsonen aukeratuko luketen erakunde motari buruz ere galdetzen zuen. Sei aukera eskaintzen dira: gizarte-zerbitzu publikoak, Caritas, Gurutze Gorria, irabazi-asmorik gabeko bestelako erakundeak (elikagaiak banatzeko erakundeak...), bestelako zerbitzu publikoak (enplegua...) eta batere ez.

Hurrengo grafikoko datuek argi eta garbi adierazten dutenez, biztanleria osoarentzat, gizarte-zerbitzu publikoak izango lirateke premia ekonomikoa izanez gero herritarrek aukeratuko luketen lehenengo tokia, haien %90,1ek haietara joko luketelako. %5,6k irabazi-asmorik gabeko erakunderen batera joko lukete -kasu gehienetan Caritasera-, eta %3,6k ez luke inora joko, behar ekonomikoa izanda ere. Deigarria da, bestalde, biztanleriaren %0,7k baino ez duela adierazten beste zerbitzu publiko batzuetara joko lukeela behar ekonomikoa izanez gero, baina, egiaz, enplegu-zerbitzu publikoak dira

-Lanbide-, eta ez gizarte-zerbitzu publikoak, diru-sarrerak bermatzeko prestazio gehienak kudeatzen dituztenak. Itxurazko kontraesan horren azalpena izan daiteke EAEko herritarrak ez direla erabat jabetzen gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko eskumen-banaketa, edo, bestela, Lanbide gizarte-zerbitzuen parte dela uste dutela.

38. GRAFIKOA. Biztanleriaren banaketa EAEn eta Espainian, behar ekonomikoa izanez gero lehenik aukeratuko luketen zerbitzu edo erakundearen arabera (2024)




Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

Era berean, oso adierazgarriak dira Euskadiren eta Estatu osoaren artean gai horri dagokionez gertatzen diren aldeak: alde batetik, premia ekonomikoa izanez gero lehenik gizarte-zerbitzu publikoetara joko luketen pertsonen proportzioa askoz ere handiagoa da Euskadin (%90,1) Espainian baino (%68,4). Aitzitik, lehentasunez irabazi-asmorik gabeko erakundeetara joko luketen herritarren proportzioa askoz ere txikiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan (%22,7 Espainian eta %5,6 Euskadin), bai eta aipatutako inongo saretan laguntza eskatuko ez luketenen ehunekoa ere (%8,0 Espainian eta %3,6 Euskadin). Horrek guztiak esan nahiko luke, agian, EAEko biztanleek Estatu osokoek baino neurri handiagoan barneratu dutela behar ekonomikoak estaltzeko dagokionez erakunde publikoek duten erantzukizuna, eta erantzukizun hori gizarte-zerbitzu publikoei esleitzen dietela, lehentasunez.

Zer bilakaera izan du laguntza eskatzeko prestasunak, behar ekonomikoa izanez gero?

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, gizarte-zerbitzu publikoei laguntza ekonomikoa eskatzeko prestasuna –2018an jadanik handia zen– pixkanaka eta etengabe hazi da, eta herritarren %75,4tik %90,1era igaro da, aldi horretan. Aitzitik, laguntza behar izanez gero erakunde batera joko ez luketela adierazten duten pertsonen proportzioa –2018an ere txikia zen– %11,6tik %3,6ra jaitsi da, eta Hirugarren Sektoreko erakundeetara lehenik jotzeko prestasuna %10,7tik %5,7ra jaitsi da. Bilakaera antzekoa izan da Estatu osoan; izan ere, laguntza behar izanez gero gizarte-zerbitzu publikoetara joko luketela adierazten duten pertsonen ehunekoa %58,4tik %68,4ra igaro da, aldi horretan. Espainiako Estatuaren kasuan, ordea, Caritasera jotzeko prestasuna ia ez da aldatu –%16an mantendu da–, eta Euskadin, berriz, %5etik %2,9ra igaro da.

39. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako herritarren ehunekoen bilakaera, behar ekonomikoa izanez gero lehenik aukeratuko luketen zerbitzu edo erakundearen arabera (2018-2024)




Oharra: grafikoak %2tik gorako balioak baino ez ditu erakusten.

Iturria: EINSFOESSA 2021 eta 2024.

Azkenik, hurrengo grafikoak jasotzen du nolako diferentziak sortzen diren –bai Euskadin, bai Espainia osoan–, behar izanez gero laguntza ekonomikoa eskatzeko prestasunari dagokionez, bazterketa-egoeren presentzia kontuan hartzen bada. Alde batetik, ikusten da gizarteratze-egoeran dauden EAEko herritarrek gehiago joko luketela gizarte-zerbitzu publikoetara, bazterketa-egoeran daudenak baino (%91,2 eta %82,2 hurrenez hurren). Horrekin batera, bazterketa sozialeko egoeran dauden pertsonen gizarteratze-egoeran dauden pertsonen baino neurri handiagoan joko lukete irabazi-asmorik gabeko erakundeetara. Estatu

osoan, berriz, integrazio- eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen neurri berean izango lukete sarbidea, gutxi gorabehera, gizarte-zerbitzu publikoetara.

40. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako herritarren ehunekoak, behar ekonomikoa izanez gero lehenik aukeratuko luketen zerbitzu edo erakundearen arabera, gizarteratze-maila kontuan hartuta (2024)



Oharra: grafikoak %2tik gorako balioak baino ez ditu erakusten.

Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.


6.4. Hamar lagunetik zortzi gizarte-zerbitzuetako inbertsioa handitzearen aldekoak dira Euskadin, eta hamarretik ia bederatzi gizarte-zerbitzuak hobetzearen aldekoak, zerga gehiago ordainduta.

Euskal Autonomia Erkidegoko herritar gehienek administrazio publikoen esku jartzen duten erantzukizuna, behar ekonomikoko egoeretan estaldura emateari dagokionez, jarraian ikusiko den bezala, gizarte-zerbitzuak finantzatzeko gastu handiagoa esleitzearekin eta, finantzazio handiago hori sostengarria izan dadin, zerga-presioa handitzeko herritarrek duten prestasunarekin bat dator. Izan ere, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, EAEko biztanleen %81,7k uste du administrazio publikoek gaur egun baino diru gehiago bideratu beharko

luketela gizarte-zerbitzuetara **(39)**, %16,6k uste du egungo gastu-mailari eutsi behar zaiola, eta %1,6k baino ez du defendatzen gastua murriztea arlo horretan. Antzeko zentzuan, biztanleen %87,3 zerbitzu eta prestazio gehiago izatearen aldekoak dira, zerga gehiago ordainduta, eta %12,7k nahiago dute zerbitzu eta prestazio gutxiago izan, zerga gutxiago ordainduta.

Grafikoan ikus daitekeenez, Euskadiko egoera ez dator bat Espainia osoan jasotzen denarekin. Espainiaren kasuan ere, gehiengo handia dira gizarte-zerbitzuetara diru gehiago bideratzea eta, horretarako, zerga gehiago ordainduta, zerbitzu eta prestazio gehiago izatea aukeratzen dutenak, baina portzentajeak txikiagoak dira eremu horretan, bi kasuetan ere: Espainiaren kasuan, biztanleriaren %69,7 gizarte-zerbitzuetako gastua handitzearen alde dago –Euskadin, aldiz, %81,7 da portzentaje hori– eta %67,5 gizarte-zerbitzuak eta prestazioak hobetzeko presio fiskala handitzearen alde dago; Euskadin, aldiz, %87,3 dago horren alde.

41. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, gizarte-zerbitzuetako gastuarekin eta finantzaketarekin lotutako hainbat neurri buruz duten iritzia arabera (2024)




Iturria: EINSFOESSA 2024.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatu osoaren arteko desberdintasunak argiago ikusten dira herritarrek gai horiei buruz duten pertzepzioaren bilakaera aztertzen

(39) Galdetegiak zehazki esaten du gizarte-zerbitzuetan sartzen direla hainbat zerbitzu eta prestazio, esaterako, etxe-gabezia nahiz mendetasuna bizi duten pertsonentzako laguntzak, babes-gabezia dauden adingabeentzako laguntzak, eta abar.

denean; izan ere, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, bilakaera oso desberdina izan da Euskadin eta Espainia osoan. Esaterako, 2021 eta 2024 bitartean, gizarte-zerbitzuen arloan diru gehiago gastatzea aukeratzen duten herritarren ehunekoa %75,3tik %81,7ra igo da Euskadin, eta Espainian, berriz, %82,3tik %69,7ra jaitsi da. Gauza bera gertatu da zerga gutxiago ordaintzeko zerbitzu eta prestazioetan gastua murriztea nahiago duten pertsonen kasuan ere: gutxiengo baten aukera izaten jarraitzen badu ere, Espainian 2021 eta 2024 bitartean %18,7tik %32,5era igo da, eta Euskadin, berriz, ia erdira murriztu da portzentajea, %24,4tik %12,7ra.

42. GRAFIKOA. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako biztanleriaren banaketaren bilakaera, gizarte-zerbitzuetako gastuarekin eta finantzaketarekin lotutako hainbat neurri buruz duten iritzia arabera (2018-2024)




Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2024.

Inkestak, jakina, ez du argitzen zein diren desberdintasun horien arrazoiak eta, batez ere, herritarrek gai horiei buruz duten pertzepzioaren bilakaeran hain desadostasun handia izatearen arrazoiak. Nolanahi ere, pentsa daiteke, inkesta honetan adierazitako iritzien arabera, behinik behin, Euskal Autonomia Erkidegoko gizartea ez datorrela bat herritarren behar sozial eta ekonomikoei modu bateratuan erantzuteko administrazio publikoek duten diru-bilketaren ahalmena murriztea hobesten duen diskurtsoarekin.

Gizarte-zerbitzuetako gastua handitzearen eta horiek finantzatzeko zergak handitzearen aldeko aukerak aldekatasun-maila desberdinak ditu, kontsultatutako pertsonen gizarte-bazterketatik integrazioa doan eskalan duten kokapenaren arabera.

Alde batetik, bazterketa-egoeran dauden eta integrazio-egoeran dauden biztanleen arteko aldeak urriak dira Euskadin, gizarte-zerbitzuetako gastua handitzeko aukera baloratzeari dagokionez. Datuak antzekoak dira bi taldeentzat, nahiz eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen gastuaren hazkunderako prestasun handixeagoa erakusten duten –persona horien %85,7 ados dago ideia horrekin, eta gizarteratze-egoeran dauden artean, berriz, %81,2-. Emaitzak ildo beretik doaz Espainian, baina kasu honetan aldeak nabarmenagoak dira (%78,3 eta %67,7 hurrenez hurren).

43. GRAFIKOA. Euskadiko biztanleriaren banaketaren bilakaera, gizarte-zerbitzuetako gastuarekin eta finantzaketarekin lotutako hainbat neurriari buruz duten iritzia araberak, gizarteratze-maila kontuan hartuta (2018-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2024.

Kontrakoa gertatzen da zergak igotzeko prestasunaren kasuan. Euskadin -gai horiek aztertzen direnean ohikoa den bezala- gizarte-bazterketako egoeran dagoen biztanleria ez dago, hain modu argian, gizarte-zerbitzuak finantzatzeko zergak handitzearen alde (%81,5 agertzen da ideia horren alde), gizarteratze-egoeran dagoen biztanleriaren aldean (%88,1). Gauza bera gertatzen da Espainian, baina kasu horretan aldea ez da hain nabarmena.

6.5. Euskal herritarrek gizarte-eskubideen sarbidearen unibertsaltasunaren alde egiten dute

Inkestak Ongizatearen Estatuaren esparruan garatzen diren gizarte-politikek izan behar duten unibertsaltasun- edo fokalizazio-mailari buruz ere galdetzen die inkestatutako pertsonari. Inkestaren beste edizio batzuetan bezala, berariaz galdetu zitzaizkien inkestatutako pertsonari ea gizarte-babeseko sistemako programak eta prestazioak herritar guztiei bermatu beharko litzaizkiekeen, edo premia-egoeran dauden herritarrei bakarrik, edo, aitzitik, ea administrazio publikoek ez luketen bermatu beharko prestazio horiek jasotzeko aukera.


Grafikoan ikus daitekeenez, egindako galderen ardatzak hauek izan dira: gizarte-zerbitzuak, mendetasunari arreta emateko zerbitzuak, gutxieneko diru-sarrerak, etxebizitza egokia, enplegua, seme-alabak hazteko zerbitzuak eta prestazioak eta gaixotasun mentalerako arreta terapeutikoa. Inkestari emandako erantzunetatik atera daitezkeen ideia nagusiak hiru dira.

Alde batetik, Euskadin unibertsaltasunaren aldeko apustua da nagusi, planteatutako gai guztiei dagokienez. Planteatutako zazpi eskubideetan, unibertsaltasunaren aldeko iritzia %60tik gora dira, eta kasuren batean %80ra iristen dira.

Bigarrenik, gradiente bat dago kontuan hartzen den eskubidearen edo prestazioaren arabera. Herritar gehienek iritziz, herritar guztiei lehentasunez bermatu behar zaien eskubidea, Euskadin, enplegua lortzea da. Ondoren datoz, hurrenkera honetan, osasun mentalerako arreta terapeutikoa izateko aukera, seme-alabak hazteko zerbitzuak eta prestazioak, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza egokia, gutxieneko diru-sarrerak eta mendetasunari arreta emateko zerbitzuak.

Kasu guztietan ere, unibertsaltasunaren aldeko hautua handiagoa da Euskadin Espainia osoan baino. Izan ere, Espainiaren kasuan, unibertsaltasunaren aldeko hautua bi kasutan bakarrik nagusitzen da: enplegua lortzeko kasuan eta, gutxigatik bada ere, buru-osasuneko arazoak dituzten pertsonen arretaren kasuan. Gainerako kasuetan, gehiengoaren aukera da aipatutako eskubideak premia-egoeran dauden pertsonentzat soilik bermatzea.


44. GRAFIKOA. EAEko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, administrazio publikoak hainbat eskubide sozial bermatzeko duen betebeharraren norainokoari buruz duten pertzepzioaren arabera (2024)



Iturria: EINSFOESSA 2024.

Euskadiko 2024ko unibertsaltasun-irizpideen onarpen zabalaren arrazioa da, neurri handi batean, 2018 eta 2024 artean unibertsaltasunari emandako laguntzaren mailan izandako gorakada, premia duten kolektiboetan fokatizatzearen ideiarekin kaltetan. Hurrengo grafikoa ikus daitekeenez, unibertsaltasunaren ideia gutxiengo batena izatetik -biztanleriaren %50ek defendatua- gutxienez biztanleriaren %60k onartua izatera igaro da, aintzat hartutako zazpi eskubideetatik seitan. Zazpigarren kasuan, enpleguan alegia, aukera unibertsalistak ere gora egin du, 2018an jadanik gehiengo batena bazen ere.


45. GRAFIKOA. EAEko eta Espainiako herritarren banaketaren bilakaera, administrazio publikoak hainbat eskubide sozial bermatzeko duen betebeharraren norainokoari buruz duten pertzepzioaren arabera (2018-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2024.

Azkenik, aipagarria da planteamendu unibertsalisten aldeko hautua zeharkakotzat har daitekeela Euskadin, gizarte-bazterketako egoeran daudenen artean eta integrazio-egoeran daudenen artean antzeko babesa jasotzen baitu. Egia esan, unibertsaltasunari emandako babesa handiagoa da gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen kasuan -aintzat hartutako eskubidea edozein dela ere-, baina kasu guztietan ere, aldea txikia da. Alderik handiena -10 puntu- gutxieneko diru-sarrera jasotzeko eskubideari dagokio, eta txikiena -hiru puntu eskas- enplegua lortzeari.

46. GRAFIKOA. EAEko biztanleriaren banaketa, administrazio publikoak hainbat eskubide sozial bermatzeko duen betebeharraren norainokoari buruz duten pertzepzioaren arabera (2024)



Iturria: EINSFOESSA 2024.


6.6. Prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonak beren egoeraren errudun direlako argudioekiko errefusa mantentzen da.

Gizarte-eskubideen unibertsaltasun-mailarekin edo gizarte-zerbitzuen arloko gastua handitzeko prestasunarekin lotutako planteamenduekin batera, oso interesgarria da, era berean, herritarrek ongizate-estatua osatzen duten gizarte-prestazioekin lotutako planteamendu arautzaile batzuei buruz duten pertzepzioa aztertzea. Horretarako, inkestan elkarrizketatutako pertsonen eskatzen zitzaien adierazteko ea zenbateraino onesten zituzten hiru baieztapen zehatz, lehenago erabili ohi zirenak, gizarte-politikei buruz herritarrek duten pertzepzioa aztertzeko lanetan. Hona baieztapen horiek: gizarte-laguntzak jasotzen dituzten pertsonen bizitzeko behar dituzte; gizarte-laguntzak jasotzeko aukeraren ondorioz, jendea alfertzen da; gizarte-laguntzetan iruzurra dago,

beste eremu batzuetan baino askoz txikiagoa bada ere, esaterako zergen ordainketan.

Ondoko grafikoko datuen argira, ondorio hauek nabarmendu daitezke: biztanleriaren %88,1 erabat edo nahiko ados dago gizarte-laguntzak jasotzen dituzten pertsonen bizitzeko behar dituztelako ideiarekin; biztanleriaren %66,7 erabat edo nahiko ados dago gizarte-laguntzak jasotzeko aukerak jendea alfertzen duela dioen ideiarekin; eta biztanleriaren %77,6 erabat edo nahiko ados dago ideia honekin: gizarte-laguntzetan iruzurra badago ere, iruzur hori beste eremu batzuetan baino askoz txikiagoa da, hala nola zergen ordainketan. Baieztapen horiei emandako babesa antzekoa da Euskadin eta Espainiako estatu osoan, nahiz eta kasu guztietan adostasun-maila pixka bat handiagoa izan euskal erkidegoan.


47. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, gizarte-laguntzei buruzko hainbat baieztapenekiko duten adostasun-mailaren arabera (2024)



Iturria: EINSFOESSA 2024.

Bilakaeraren ikuspegitik, ezin da esan Euskadin aldaketa handirik gertatu denik aldi horretan. Nolanahi ere, pixka bat murriztu da gizarte-laguntzak jasotzeko aukerak jendea alfertzen duela dioen ideiarekin oso ados edo nahiko ados agertzen direnen ehunekoa, eta handitu egin da, berriz, gizarte-laguntzetan iruzurra dagoela, baina beste eremu batzuetan baino askoz ere txikiagoa dela, hala nola zergen ordainketan, dioen ideiarekin nolabait ados edo oso ados daudenen portzentajea.

48. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketaren bilakaera, gizarte-laguntzei buruzko hainbat baieztapenekiko adostasun-mailaren arabera (2018-2024)




Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2024.

Espainia osoko eremuan, berriz, murriztu da gizarte-laguntzak jasotzen dituzten pertsonen bizitzeko behar dituztelako ideiarekin erabat edo nahiko ados daude herritarren portzentajea; handitu da gizarte-laguntzak jasotzeko aukerak jendea alfertzen duela dioten ideiarekin erabat edo nahiko ados dauden herritarren portzentajea; eta murriztu da, baita ere, ideia honekin erabat edo nahiko ados dauden herritarren portzentajea: gizarte-laguntzetan iruzurra badago ere, iruzur hori beste eremu batzuetan baino askoz txikiagoa da, hala nola zergen ordainketan. Aldaketak, nolahi ere, txikiak dira.

Beste alderdi batzuetan gertatzen zen bezala -hala nola eskubide jakin batzuk baliatzeko bermeari egotzitako unibertsaltasun maila-, hiru baieztapen horien balorazioa ez da oso desberdina Euskadin gizarteratze-egoeran dauden eta bazterketa-egoeran dauden artean.

49. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketaren bilakaera, gizarte-laguntzei buruzko hainbat baieztapenekiko adostasun-mailaren arabera, gizarteratze-maila kontuan hartuta (2018-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2024.

7. kapitulua

Harremanen ardatzarekin lotutako arazoak murriztu egin dira

7.1. Sarrera

EINSFOESSAren azterketaren esparruan, gizarte-bazterketako egoerak eragiten dituzten eremu guztietatik, harremanen ardatzarekin lotutakoak izan ohi dira -bai Espainian, bai Euskadin ere- eragin txikiena izan dutenak, ardatz ekonomikoarekin eta ardatz politikoarekin lotutako problematikek baino eragin txikiagoa izan baitute. Ikuspegi horretatik, lotura pertsonalek eta gizarte-harremanek egoera okertzeko indar txikiagoa dutela dirudi, eta gaitasun handiagoa dutela, berriz, gizarteratze-dinamikak errazteko, bai, behinik behin, gizarte-integrazioko eta -bazterketako egoeretan eragiten duten elementu materialek eta politikoek baino. Abiapuntu horrekin, kapitulu honek aztertzen ditu harremanen ardatzari lotutako bazterkeria-egoerak, hau da, gizarte-gatazkari lotutakoak, batetik, eta gizarte-isolamenduari lotutakoak, bestetik.

Kapitulua lau epigrafetan antolatuta dago: lehenengoak aztertzen ditu bazterkeriaren barneko harremanen ardatza eratzen duten gatazka eta isolamendu sozialen dimentsioei lotutako bazterkeria-egoeren intzidentzia eta bilakaera. Horren ondoren, bigarren epigrafearen helburua da egoera horiek ukitzen dituzten familia-unitateen ezaugarri soziodemografikoak deskribatzea. Hirugarrenik, aztertzen dira, alde batetik, familien artean ehuntzen diren laguntza-sareek 2018tik izan duten bilakaera, eta bestetik, COVID-19aren krisiak hurbileneko gizarte-harremanen intentsitatean utzi zituen aztarnei erreparatzen zaie. Azkeneko aztergaia, berriz, diskriminazioaren arazo soziala da, hau da, egoera horiek familia-unitateen multzoan sortzen duten aukera-galeraren arazo soziala, eta, bereziki, gizarte-bazterkeriako egoeran daudenen artean eragiten duten arazoa.


7.2 Gatazka sozialarekin lotutako arazoak murrizten dira, baina isolamendu-egoerekin lotutakoak mantentzen dira, batez ere bazterkeria-egoeran dauden pertsonen multzoan

2018ko txostenean jaso ziren familia-unitatea osatzen zuten pertsonen eta inguruko lagunen artean izaten ziren harremanak, eta 2021eko txostenean, berriz, agertu zen COVID-19aren krisiak zenbateraino tenkatu eta higatu zituen harreman horiek; eskuartean dugun edizioari dagozkion emaitzek, ordea, adierazten dute harreman horiek suspertzen ari direla, bai aztertutako gai batzuetan, behinik behin.

Erlazioen ardatza zeharkatzen duten arazo guztiei dagokienez, 2024ko emaitzek erakusten dute arazo horiek nolabait murriztu direla, 2021arekin alderatuta, bai Espainian, bai, bereziki, Euskadin ere. Hala, EAEn harremanen arloan bazterkeria jasaten duten familia-unitateen ehunekoa %10,1tik %7,6ra jaitsi zen, 2018tik 2024ra bitartean. Estatu osoaren kasuan ere, bazterketa sozialeko egoerek harremanen ardatzean duten eragina murriztu egin da, baina 2024an egoera horiek jasaten dituzten pertsonen ehunekoa 2018an jasotako ehunekoaren gainetik dago oraindik ere, alegia, COVID-19aren pandemiak eragindako krisiaren aurretik jasotakoaren gainetik.

Nolanahi ere, EAEko familia-unitateek ardatz horretan izandako bilakaera positiboari xehetasun bat erantsi behar zaio; alegia, haren barneko bi dimentsioetatik, jaitsiera argi bakarra ikusten da gatazka sozialaren arloan, 2018an familien %4,8 eta 2024an %2,8 ukitzen baitzituen. Isolamendu sozialaren eremua, aldiz, gutxi murriztu da 2021 eta 2024 bitartean, %6,5etik %5,9ra, baina 2018an erregistratutako balioen gainetik mantentzen da, orduan familien %5,3 ukitzen baitzituen.

50. GRAFIKOA. Espainian eta Euskadin harremanen ardatzak eta haren dimentsioek ukitutako familia-unitateen portzentajearen bilakaera (2018-2024)




Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2024.

Harremanen ardatzaren barruan aztertzen diren bi dimentsioen artean joera desberdinak ikusten direnez, beharrezkoa da modu bereizian hartzea, haien eragina aztertu ahal izateko, kontuan hartzen bada gizarte-bazterkeria egoeran eta gizarte-integrazio egoeran dauden familia-unitateen egoera.

Beraz, lehenik eta behin gizarte-gatazkako egoerei dagokienez, Euskadin ikusten da pixkanaka behera egin duela, bai gizarte-integratioko egoeran dauden familia-unitateetan, bai gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateetan. Murrizketa bereziki nabarmena da, bi etxe mota horietarako, 2021 eta 2024 bitartean. Espainiaren kasuan, bilakaera ez da hain argia -aztertutako bi multzo horietan 2018 eta 2021 bitartean igoera bat gertatu delako, Euskadin ez bezala-, baina 2021etik 2024ra izandako murrizketa antzekoa da.

Gizarte-isolamenduaren kasuan, aldiz, bilakaera gorabeheratsua da Euskadin: integrazio egoeran dauden pertsonen kasuan, pixkanaka eta etengabe murrizten ari da 2018tik 2024ra bitartean; gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen kasuan, ordea, igoera bat gertatzen da, ez oso handia, 2021eko egoerarekin alderatuz gero, baina oso argia 2018ko egoerarekin alderatzen bada. Epe horretan, bazterkeria-egoera jasaten ari diren eta gizarte-isolamenduaren dimentsioan arazoak dituzten herritarren portzentajea %2,4tik %15,3ra igo da. Alderdi horretatik, egoera Espainia osoan gertatzen denaren antzekoa da; izan ere, gizarte-bazterketako egoeran dauden eta gizarte-isolamenduaren dimentsioan arazoak dituzten pertsonen ehunekoa 2018an %7,7 izatetik 2024an %19,9 izatera igo da; gizarteratze-egoeran dauden pertsonen kasuan, berriz, murriztu egin da.

51. GRAFIKOA. Euskadin eta Espainian gatazka eta isolamendu sozialaren dimentsioetan bazterkeria-arazoen ukitutako familia-unitateen portzentajeen bilakaera (2018-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

Gatazka sozialaren ardatzean egoera problematikoak jasaten dituzten familia-unitateen ehunekoa murriztu da Euskadin, bai integrazio-egoeran dauden familia-unitateen multzoan, bai bazterketa-egoeran dauden familia-unitateen multzoan ere. Arrazoa da, bi kasuetan ere, murriztu direla gatazka sozialaren dimentsioan eragiten duten adierazle guztiak. Nolanahi ere, gogoratu behar da adierazle batzuek –bereziki azken hamar urtean familia-unitate horretako inork tratatu txar fisiko edo psikologikoak jaso ote dituen kontuan hartzen duenak– bazterketa egoeran bazterketa-egoeran dauden familia-unitateen %10,1 ukitzen dituela.

Gizarte-isolamenduaren kasuan, berriz, lehen ere esan den bezala, egoera aldatu egin da aztertutako talde bakoitzean: harreman sozialik ez duten eta gaixotasun-edo zailtasun-egoeretarako inolako laguntzarik ere ez duten pertsonak bizi diren familia-unitateen ehunekoa murriztu egin da gizarteratze-egoeran dauden familia-unitateen kasuan –%3,7tik %1,6ra–, baina igo egin da, %2,4tik %4,2ra, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateen kasuan. Dimentsio hori osatzen

duen bigarren adierazleari dagokionez –auzokoekin harreman txarrak edo oso txarrak dituzten familia-unitateak–, bi multzoetan ia maila nuluan mantentzen da; erakundeetan inoiz egondako pertsonak dituzten familia-unitateen kasuan (ospitale eta pisu psikiatrikoak, droga-mendetasunerako zentroak, adingabeen zentroak, espetxea, etxegabeen edo emakumeen zentroak), aldiz, gora egiten du bi multzoetan, bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateen %11,9ra iristen dela.

24. TAULA. Euskadin eta Espainian harremanen ardatzean bazterketako arazoei ukitutako familia-unitateen portzentajeen bilakaera, familia-unitate guztiak eta bazterkeriak ukitutako familia-unitateak bereizita (2018-2024)

	Familia-unitateak guztira				Bazterkerian dauden familiak			
	2018	2021	2024	Dif. 2021-24	2018	2021	2024	Dif. 2021-24
Espainia								
Gatazka soziala								
ID28. Azken 10 urteetan inork tratatu txar fisiko edo psikologikoak jaso dituen edo jasotzen ari den familia-unitatea	2,4	3,5	2,3	-1,2	7,8	9,7	10,4	+0,7
ID29. Etxekoan artean harreman oso txarrak, txarrak edo txar samarrak dituen familia-unitatea	0,5	1,5	0,4	-1,1	1,4	2,2	1,2	-1,0
ID30. Azken 10 urteetan alkoholarekin, beste droga batzuekin edo jokoarekin arazoak izan dituzten edo dituzten pertsonak bizi diren etxea	2,2	2,2	3,7	+1,5	6,6	5,8	11,8	+6,0
ID31. Azken 10 urteetan nerabe izanik ama edo aita izateko puntuan dagoen pertsona bat bizi den familia-unitatea	0,6	1,6	0,8	-0,8	2,9	5,4	2,2	-3,2
ID32. Azken 10 urteetan justiziarekin arazoak izan dituzten edo dituzten (aurrekari penalak) pertsonak bizi diren etxea	0,6	1,1	0,5	-0,6	3,1	4,0	1,8	-2,2
Isolamendu soziala								
ID33. Harreman sozialik ez duten eta gaixotasun- edo zailtasun-egoeretarako inolako laguntzarik ere ez duten pertsonak bizi diren etxea	5,4	5,4	4,7	-0,7	5,5	5,1	9,1	+4,0
ID34. Auzoko bizilagunekin harreman txarrak edo oso txarrak dituen etxea	0,5	0,6	0,2	-0,4	0,4	1,3	0,5	-0,8

ID35 Inoiz erakundeetan izan den norbait dagoen familia-unitatea (ospitaleak eta pisu psikiatrikoak, droga-mendetasunerako zentroak, adingabeentzako zentroak, espetxea, etxegabeentzako edo emakumeentzako zentroak)	0,7	1,7	3,8	+2,1	2,1	5,1	12,7	+7,6
Euskadi								
Gatazka soziala								
ID28. Azken 10 urteetan inork tratatu txar fisiko edo psikologikoak jaso dituen edo jasotzen ari den familia-unitatea	2,5	2,6	1,4	-1,1	13,6	12,3	10,1	-3,5
ID29 Etxekoen artean harreman oso txarrak, txarrak edo txar samarrak dituen familia-unitatea	0,8	(0,0)*	0,4	-0,4	2,5	0,2	2,5	0,0
ID30 Azken 10 urteetan alkoholarekin, beste droga batzuekin edo jokoarekin arazoak izan dituzten edo dituzten pertsonak bizi diren etxea	2,0	1,4	(1,3)*	--	8,9	6,6	2,0	-6,9
ID31 Azken 10 urteetan nerabe izanik ama edo aita izateko puntuan dagoen pertsona bat bizi den familia-unitatea	0,5	1,1	0,2	-0,3	4,3	7,3	1,6	-2,7
ID32 Azken 10 urteetan justiziarekin arazoak (aurrekari penalak) izan dituzten edo dituzten pertsonak bizi diren etxea	0,7	0,5	0,3	-0,4	3,5	1,2	2,1	-1,4
Isolamendu soziala								
ID33 Harreman sozialik ez duten eta gaixotasun- edo zailtasun-egoeretarako inolako laguntzarik ere ez duten pertsonak bizi diren etxea	3,7	4,9	(1,6)*	--	2,4	7,0	4,2	+1,8
ID34 Auzoko bizilagunekin harreman txarrak edo oso txarrak dituen etxea	(0,0)*	(0,0)*	0,3	--	(0,0)*	0,3	(0,0)*	--
ID35 Inoiz erakundeetan izan den inor dagoen familia-unitatea (ospitaleak eta pisu psikiatrikoak, droga-mendetasunerako edo adingabeen zentroak, espetxea, etxegabeentzako edo emakumeentzako zentroak)	1,6	1,6	4,3	+2,7	(0,0)*	6,2	11,9	--

*Parentesi artean eta izartxo batekin seinalatuta jaso dira fidagarritasun-maila aski ez duten balioak, dela biztanleria osoa aztertzean ez delako jaso adierazleek deskribatzen dituzten egoerei dagokien kasurik batere, dela 2024rako jasotako balioak 1 baino gutxiago direlako edo/eta aldaketa nabarmenen bat izan delako, aurreko urteetako batez bestekoarekin alderatuta.
Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2024.

7.3. Bazterkerian dauden lau familia-unitatetik bat inguruk uste dute haien harremanik hurbilenak ez direla erabat berreskuratu, pandemia aldiaren ondoren


COVID-19ak eragindako pandemiak pertsonen ongizatean ondorio ugari eta oso desberdinak izan zituen arren, iritsi zenetik lau urtera, une hartan bizi izan zenaren aztarna gutxi geratzen dira agerian. Hala ere, eta denborak aurrera egin ahala ondorioak gero eta gehiago lausotzen badira ere, horrek ez du esan nahi ondorio batzuek gaur egun irauten ez dutenik.

Pandemiaren ondoren Euskadin 2021ean egindako txostenak **(40)** agerian jarri zuen familia-unitate gehienek ez zutela aldaketarik sumatu ohiko harreman sozialei eusteari dagokionez baina, aldaketaren bat sumatu zutenen artean, gehien-gehienek zioten harremanak okertu zirela, eta ez harreman-sare horiek indartu zirenik. Horrenbestez, Euskadiko familia-unitate guztien %7,4 inguruk uste zuen familiarekiko harremanak okertu edo ahuldu egin zirela, %15,2k uste zuen gauza bera gertatu zela lagunekiko harremanetan, eta %9,9k auzokoekiko hartu-emanetan.

EINSFOESSAk 2024an emandako datuek agerian uzten dute EAEko herritarren %14,0ren iritziz beren harremanik gertukoena okertu edo ahuldu egin direla, pandemiaren aurretik zituen harremanekin alderatuz gero. Antzeko ehuneko batek uste du beren harremanak indartu egin direla, eta herritar gehienek -%71,7k- uste dute mantendu egin direla. Nolanahi ere, adierazgarria da gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen kasuan harremanak ahuldu direla uste dutenen portzentajea %23,5ekoa dela, eta harremanak sendotu direla uste dutenen ehunekoa %20,5ekoa dela. Beraz, esan liteke bazterketa-egoeran dauden pertsonak, pandemiaren ondoren, integrazio-egoeran dauden pertsonak baino aldaketa gehiago sumatu dituztela -positibo zein negatiboak- beren gizarte-harremanetan.

(40) FOESSA Fundazioa (2022), Euskadiko gizarteko bazterkeriari eta garapenari buruzko txostena. Integrazio eta beharrian sozialei buruzko inkestaren emaitzak 2021, Madril, FOESSA Fundazioa. Hemen eskuragarri: <https://www.foessa.es/main-files/uploads/sites/16/2022/02/Informes-Territoriales-2022.-EUSKADI.pdf>.

52. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako familia-unitateen banaketa, egungo egoera pandemiaren aurretik zutenarekin alderatuz beren harremanik hurbilenetan izan den bilakaerari erreparatuta, bazterketa sozialaren mailaren arabera (2024)




Iturria: EINSFOESSA 2024.

Harreman pertsonalen kalitatean edo maiztasunean izandako aldaketez gain, familien banaketa aztertzen da, halaber, beste familia batzuei ematen dieten edo haiek jasotzen duten laguntzaren arabera. Inkestaren beste edizio batzuetan bezala, EAEko familiak lau talde handitan sailkatzen dira: ongileak (laguntza ematen dutenak, baina jaso ez), laguntza eman eta jasotzen dutenak (elkar lagundu), laguntza soilik jasotzen dutenak, eta laguntza ez jaso ez ematen ez dutenak.

EINSFOESSAren datuen arabera, 2024an, EAEko familia-unitateen %1,5 ongiletzat har daitezke, %54,3k laguntza jaso eta ematen dute, %37,8k soilik jaso egiten dute, eta %6,4k ez du ez ematen ez jasotzen. 2018tik, COVID-19aren aurretik, handitu egin da beren burua hartzailetzat jotzen dutenen ehunekoa, %10,9tik %37,8ra, eta murriztu dira gainerako multzo guztiak, bereziki laguntza eman eta jasotzen dutela adierazten dutenak. Bilakaera antzekoa izan da, baina ez hain zorrotza, Espainia osoan. Nolanahi ere, 2024an, Espainiaren aldean Euskadi nabarmentzen da, elkar laguntzeko harremanetan inplikaturako pertsonen ehuneko handiagoa duelako, laguntzarik ez ematen ez jasotzen ez duten pertsonen ehuneko txikiagoa duelako, eta laguntza jasotzen dutela uste dutenen portzentajea oso antzekoa duelako (%37,8 Euskadin eta %35,0 Espainian).


53. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako familien banaketaren bilakaera, familiek jasotzen eta/edo eskaintzen duten laguntzaren arabera (2018-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

Espainia osoan gertatzen denaren aldean, familia-unitateen banaketa, Euskadin ematen eta/edo jasotzen duten laguntza motaren arabera, ia berdina da gizarte-bazterketako egoeran dauden familia-unitateen kasuan eta biztanleria osoa kontuan hartuta, eta, beraz, ia ez da alderik ikusten bi multzo horien artean. Espainia osoan, berriz, bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateen multzoan, laguntzarik ez eman ez jasotzen ez dutenen ehunekoa handiagoa da familia-unitate guztiei erreparatuta baino; aldiz, laguntza ematen eta jasotzen dutenen ehunekoa eta soilik jasotzen dutenena txikiagoa da, multzo horretan.

54. GRAFIKOA. Euskadin eta Espainian bazterkeria-egoeran dauden familia guztien banaketa, jasotzen eta/edo eskaintzen duten laguntzaren arabera (2024)




Iturria: EINSFOESSA 2024.

7.4. Gizarte-bazterkeria egoeran dauden familia-unitateen herenak uste du familiako kideren bat diskriminatua izan dela

Diskriminazioa arazo sozial larria da, funtsean dena pertsona edo talde bati tratu desberdina edo zuzenean kaltegarria ematea, talde zehatz bateko kide izateagatik, edo ezaugarri zehatz batzuk izateagatik, hala nola arraza- edo etnia-jatorria, klase soziala, generoa, desgaitasuna edo sexu-identitatea. Diskriminazioak berekin dakar inori ukatzea gizarte horretan gainerakoek dituzten eskubideak eta aukerak, eta, beraz, oinarrizko eskubideak urratzea. Izan ere, diskriminazioa ez da ekintza indibidual hutsa bakarrik, baizik eta egiturazko mekanismo bat, hainbat erakunde eta praktika sozial kutsatzen dituen, eta desberdinkeriazko harremanak sozialak indartu eta iraunarazi besterik egiten ez duena.

Familiei galdetu zaie ea jakin duten beren kideren bat inoiz diskriminatuta sentitu ote den, arrazoiren batengatik; 2024an lortutako emaitzek erakusten dute Espainiako hamar familiatik ia bik (%19) eta Euskadiko proportzio pixka bat handiago batek (%22,4) adierazi dutela diskriminazioaren bat jasan izan dutela. Bi ehuneko horiek berez altuak dira, baina are handiagoak dira bazterkeria-egoeran dauden familia-unitateen kasuan; Espainiaren kasuan %38,9ra igotzen dira eta %33,7ra EAEko familia-unitateen kasuan. Horrenbestez, pentsa daiteke integrazio-egoeran dauden pertsonak kasu gehiagotan sentitzen direla diskriminatuta Euskadin Espainian baino, eta kontrakoa gertatzen dela, berriz, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen multzoan. Bi multzo horien arteko aldea, beraz, txikiagoa da Euskadin Espainia osoan jasotzen dena baino.


55. GRAFIKOA. Familiako kideren bat inoiz diskriminatuta sentitu dela jakin duten Euskadiko eta Espainiako familia-unitateen portzentajea, integrazio-mailaren arabera (2024)



Iturria: EINSFOESSA 2024.

EAEko familia-unitate guztiak kontuan hartuta, gehien aipatu diren diskriminazio motak lotuta daude nazionalitatearekin edo arraza- edo etnia-jatorriarekin (%6,9), generoarekin -zehazki, emakume izatearekin- (%9,5) eta adinarekin (%2,2). Bazterketa-egoeran dauden familia-unitateen artean, aldiz, ehuneko horiek handiagoak dira; bi diskriminazio-mota arruntenak nazionalitatearekin edo etnia- nahiz arraza-jatorriarekin (%22,5) eta emakume izatearekin (%10,6) lotutakoak dira. Generoaren kasuan, ordea, ia ez legoke alderik diskriminazio-egoeran eta integrazio-egoeran dauden familia-unitateen artean; genero-diskriminazioa -adinarekin, sexu-orientazioarekin eta ideologiarekin batera- nazionalitate edo jatorriarekin lotutakoa baino askoz zeharkakoagoa da. Aitzitik, argi agertzen da bazterkeriako egoeran daudenen eta baztertuta ez daudenen artean dagoen aldea, itxura fisikoagatik eragindako diskriminazioari dagokionez.


56. GRAFIKOA. Euskadiko familia-unitate guztien eta bazterkeriako egoeran dauden familia-unitateen ehunekoa, haietako kideren batek sumatu duen diskriminazio-motaren arabera (2024)



Oharra: agian familia batek diskriminazio mota bat baino gehiago jaso du. Parentesi arteko zifrek diskriminazioak ukitutako familia-unitateen kopurua adierazten dute, aipatutako mota desberdinen arabera.
Iturria: EINSFOESSA 2024.

Diskriminazioak era askotako esparruetan izan dezake eragina, besteak beste, psikologikoak edo/eta sozialagoak, aukerak galtzearekin lotutako arazoetan, adibidez. Diskriminazioren bat jasan dutela adierazi duten familiei galdetu zaie ea diskriminazio horrek aukerarik galarazi ote dien, eta Espainiako familia-unitateen bi herenek eta Euskadiko familia-unitateen %61,3k baietz erantzun dute. Logikoa denez, esperientzia horiek ohikoagoak izan ziren gizarte-bazterketako egoeran dauden familia-unitateen artean; izan ere, hiru familia-unitatetik bik (%68,6) adierazi zuten bazterketa-egoerak eragin zuzena izan zuela haien bizitzeko aukeretan.


57. GRAFIKOA. Diskriminatuta sentitu diren familia-unitate guztietatik, diskriminazio horren ondorioz aukeraren bat galdu duten Euskadiko eta Espainiako familia-unitateen ehunekoa, haien integrazio-mailaren arabera (2024)



Iturria: EINSFOESSA 2024.

Aukerak galtze hori gehien bat lan-arloan gertatzen da: gizarte-bazterketako egoeran egonik diskriminatuta sentitu diren pertsonen %47,5ek eta diskriminatuta sentitu diren pertsona guztien %36,6k adierazten dute aukerak galtze hori lan-eremuarekin lotzen dela. Ondoren, garrantziaren arabera hurrenkeran datoz harremanen esparrua, kirola eta aisialdia, hezkuntza eta etxebizitza.

58. GRAFIKOA. Euskadiko familia-unitate guztietatik, eta gizarte-bazterketako egoeran dauden familietatik, jasandako diskriminazioaren ondorioz aukeraren bat galdu duten familia-unitateen ehunekoa, galera hori gertatu den eremuaren arabera (2024)



Iturria: EINSFOESSA 2024.

8. kapitulua

Osasun mentala eta ongizate emozionala: eragina prekarietatean eta gizarte-bazterkerian dauden herritarren, eta osasun-arreta jasotzeko aukera Euskadin

8.1. Gizarte-isolamendua eta osasun mentala

8.1.1. Osasun mentala, faktore anitzeko errealitatea

Gaur egun, osasun mentalaren arloan punta-puntakoak diren ikerketek duela urte batzuk *American Journal of Psychiatry* aldizkarian argitaratutako artikulu bat aipatzen dute; artikulu hura osasun mentala aztertzean biologizismoaren eredu klasikoa behin betiko uzteko beharrari buruzkoa zen. Nolabait, aldi pandemikoak jada bermatu zuen bere determinatzaile sozialak aztertze eskakizuna, osasun mentaleko arazoak, gai pertsonaltzat hartzetik, kutsu soziala eta dimentsio estrukturala hartzera igaro zitezen. Izan ere, pandemiak agerian utzi zuen praktika medikoak berak ikuspegi psikologikoa eta ikuspegi soziala txertatu behar zituela.

Egia esan, osasun mentalaren, ongizate emozionalaren eta pertsonen gizarte-egituraren duten posizioaren arteko harremanen azterketa ez da berrikuntza bat ikerketa sozialaren arloan. Zalantzarik gabe, tradizioz gizarte-zientzien eremuan kontuan hartu izan da “existentziaren baldintza materialek eta sozialek pertsonen osasunean eragina dutela” (Sánchez Moreno, 2019: 2). Baina berria da baldintza materialak ez direla ikuspegi ekonomizista soiletik interpretatu.

Hau da, osasun mentaleko arazoak planteatzen direnean, kontuan izan behar da harreman- eta komunitate-loturak gero eta ahulago dauden testuinguru batean bizi garela, eta horrek egoeren multzo oso bat sortzen duela, subjektua tentsio eta kontraesan etengabeen mende jartzen duena eta, azkenean, pertsonen

ongizate emozionalari eta, beraz, osasun mentalari eragiten diona (Portera, 2006; Agost Felip eta Martín Alonso, 2012; Escarbajal-Frutos, Izquierdo-Rus eta López Martínez, 2014; PRESME txostena, 2023).

Koordenatu horietatik abiatuta, gaur egungo mendebaldeko gizarteak kulturalki anitzak eta askotarikoak diren ingurune globalizatu gisa deskribatzen dira, non erakundeek lehengo trinkotasuna galdu duten, eta horrek zailtasun handiak dakartza gizabanakoak gizarte-sare batean integratzeko orduan, eta, beraz, gizarte-ereduak desagitea da horren ezaugarria.

Zalantzarik gabe, antzeko egoera batean -postmodernitate gisa definitua-, balioek eta arauak beren izaera objektiboa galtzen dute, eta norbanakoen produkzio bihurtzen dira, besteekin duten elkarreraginean sortzen direnak (Dubet eta Martuccelli, 1999); horrela, xede anizkoitzeko eta, askotan, kontraesankorreko unibertso bat sortzen da, zeinaren barnean gizabanakoak bere bizi-esperientzia eraiki behar duen, eta bere burua aktore eta subjektu gisa eraiki eta gauzatu. Gizartea puzzle handi gisa agertzen da, eta gizabanakoak bere zentzua aurkitu behar du, jada agerikotzat jotzen ez zaizkion piezak aukeratuz. Arazoa da balioak errealitate subjektibo huts gisa agertzen direnean, gizabanakoek askotan erabaki bateraezinak hartzen dituztela (Dubet, 1994).

Balorazio-opakutasunaren eta erreferente sendorik ezaren testuinguru horrek gizabanakoa bere gizarte-munduaren uzurtasunera eramaten du. Era berean, gizabanakoaren atzera-egite horrek hautsi egiten ditu erakunde haiekiko loturak (familia, komunitatea, eliza, eskola eta abar), duela gutxi arte beren bizi-esperientziak bideratzen eta arautzen zituztenak. Orain, gizabanakoak libreagoak dira eta beren bizi-proiektuak autonomoagoak eta pertsonalagoak, baina, aldi berean, sozializazio-eremu desberdinetatik ezartzen zitzaizkien rol eta arauetatik askatzen dira, eta segurtasun-maila handiak ere galtzen dituzte (Lewkowicz, 2004). Horren emaitza dira, besteak beste, gizarte-harremanen isolamendua eta prekarietatea, bakardadea areagotzea, gizarte-babesa murriztea, komunitatearekiko mesfidantza eta etorkizunarekiko ziurgabetasuna, erresilientzia komunitario txikiagoa (Touraine, 2000).

Jakina, horrela, ziurgabetasunaren eta segurtasunik ezaren gizarte bati forma ematen zaio, eta gizarte horretan “betiko” horrek zentzua izateari utzi dio. Ez dago ezer berrikuspenaren eta iraungitzearen mende ez dagoenik, lanetik hasita norberaren identitatera arte, besteekiko harremanetik igarota. Gizabanako bakoitzaren esparru osoa behin-behinekotasun hutsa da, eta, are gehiago,

besteekiko harreman estuagoek soilik irauten dute pertsonen haiengandik zerbait lor dezaketen bitartean edo edozein motatako poztasuna ematen dien bitartean (Bauman, 2002).

Gaur egungo gizartearen beste alderdi garrantzitsu bat da ia trabarik gabe eraikitzen bultzatzen den gizabanako horri, aldi berean, bere buruari bakarrik egozten zaiola errua, saiakeran porrot egiten badu, hau da, berak ez beste inork ez du bere porroten, zoritxarren, arazoen, atsekabeen eta abarren errua.

Gaur egungo gizartearen diseinuak ezkututzen du arriskuak, kontraesanak eta mugak sozialki sortzen direla, eta gizabanako bakoitzaren sorbaldeen gainean baino ez dela kargatzen haien jatorria, aurre egiteko zeregina eta ez konpontzearen ezintasuna (Usategi eta Valle, 2019).

Beraz, ulertzen da delako postmodernitateko pertsona, ziurgabetasunean, aurreikusezintasunean, arau argirik ez izatean, indarkeria-, lehiakortasun- eta desberdintasun-maila esanguratsuen testuinguruan bizitzera behartuta dagoena, bere arazoak eta zailtasunak bere porrot pertsonalen ondorio baino ez direla hautemanda, eta, aldi berean, balizko laguntza-baliabideak eskuratzeko zailtasunak dituen, askotan depresioan eta antsietatean erortzea, eta ongizate emozionala berreskuratzen duela uste duena bere baitatik ihes egitean, bai “masarekin” identifikazio akritikoan, bai askotariko substantzien kontsumoan, bai bi gauzetan. Gainera, narriatutako osasun mentalak ez die soilik erasandako pertsonen eragiten, baita haien familia eta komunitateei ere.

Ataka horretatik irtetea zaila egiten zaie pertsonen; izan ere, arlo pribatuaren eta publikoaren arteko lotura falta hori herritarren izaera ahultzen duen begizta bihurtzen da, eta eragotzi egiten du arazo biografikoak dimentsio sozialean kontuan hartzea eta bere existentzia bihurtu den irteerarik gabeko kalezuloatik aterako duten ekintza kolektiboak aurrera eramatea.

Beraz, funtsean, osasun mentaleko arazoak azaltzen dituzten faktoreak aztertzeke orduan ikuspegi-aldaketa eragin duen errealitate sozial bera da. Gainera, ondoezak dibertsifikatzeko, eta osasun mentaleko arazoak eta ongizate emozionalik eza gizarte-maila zabalagoetara -gazteak, emakumeak, etorkinak, etab.- zabaltzeko, subjektuak garatzen diren paradigma zibilizatzailaren erreferentzia-esparrua zabaltzeko behar zen.

Hala ere, deskribatzen ari garen faktore kulturalak ahaztu gabe, bereziki nabarmendu behar da herritarren osasun mentaleko eta ondoez emozionalako arazoez larritasun handiagoa hartzen dutela zaugarritasun-egoera bereziki larriak dituzten kolektiboek erreparatzen diegunean (Pedersen, 2009; Villegas, Ibabe eta Arnoso, 2021; Magallanes Sanjuán, 2011). Espainian osasun mentalari buruz egin berri diren ikerketek agerian utzi dute harreman hori, eta erakutsi dute osasun mentaleko arazoez eragin handiagoa dutela bazterkerian eta integrazio prekarioko egoeran dauden herritarrengan (EINSFOESSA, 2021, Fundación Mutua Madrileña, 2023). Ildo horretan, pobrezia-egoeran dauden pertsonak aipatu behar dira, besteak beste, etorkinak, gutxiengo etnikoak, desgaitasunen bat duten pertsonak, eta genero-arrazoiengatik edo sexu-orientazioagatik diskriminazioa jasaten dutenak. Buruko nahasmenduak izateko joera handiagoa duten pertsonak eta kolektiboak dira; adibidez, depresioa, antsietatea eta trauma osteko estresaren nahasmendua. Gainera, suizidiorako eta nork bere buruari kalte egiteko arrisku handiagoa izan dezakete.

Hori horrela da, eta horregatik guztiagatik, beharrezkoa da honako hauek ikertzea: a) desberdintasun-faktoreek eta faktore horiek eragiten duten dimentsioek eragina dutela pertsonen osasun mentalaren eta ongizate emozionalaren prekarizazioan; b) eragin handiena jasaten ari diren populazio-kolektiboak identifikatzea, eta c) zaugarrienek behar dituzten gizarte- eta osasun-arretako beharrak hautematea (Castel, 2004).

8.1.2. Ongizate emozionalaren eta osasun mentalaren determinatzaile sozialak

8.1.2.1. Ziurgabetasun soziala eta osasun mentala

Gaur egungo gizarteetan aldaketa sozial, kultural eta teknologiko sakonak gertatzen ari dira, eta aldaketa horiek aldatu egin dute pertsonen mundua eta bertan duten lekua hautemateko modua. Aldaketen abiaduraren eta ziurtasun tradizionalen galeraren ondorioz, munduak lehengo trinkotasuna galtzen du eta "mundu likido batean, ziurtasunak desagertzen dira eta harremanak iragankor bihurtzen dira" (Bauman, 2007).

Esan dugun bezala, arintasun horrek segurtasun ezaren eta ziurgabetasunaren sentrazioa sortzen du, eta pertsonen beren bizitzari zentzua emango dioten

ainguratze egonkorrak izateari uzten diote. Hala, ez dira gutxi soziologiatik (Bauman, 2005, 2007; Beck, 2006) gizakiak ziurgabetasun endemiko orokortu eta globalizatuan murgilduta ikusten dituztenak, beren kontrol-mekanismoetatik kanpo.

Zalantzarik gabe, bizitzaren eguneroko osagaitzat aldakortasuna, arriskua, segurtasunik eza eta errezeloa dituen gizarte batean bizitzeak pertsonen ongizate emozionalari eta osasun mentalari eragin die azkenean, gizarte horrek nahasmena eta aurreikusi ezina sortzen baitu, eta horrek beldurra, antsietatea, depresioa eta neurosi kolektiboen sorta handitzea eragiten du nahitaez.

Ziurgabetasunak tentsio emozional handiko egoerak sortzen ditu, eta horrek alerta-egoera normalaren antsietatea ordeztzen du gauza berrien aurrean, niaren jarraitutasuna zatikatzen duen eta erabakiak hartzea asaldatzen duen antsietate patologikoaren aurrean, erabakitzen duenaren inguruabarren eta iraganaren arabera. Horrek estres akutuen aurreko sintoma errektiboetatik (arazoak) funtzio mentalen alterazio iraunkorretara (nahasmenduak) pasatzeko arriskuan jartzen gaitu, hala nola depresioa izateko arriskuan (Rodríguez, 2021:1).

Eta, agian, ziurgabetasunaren eta osasun mentalaren arteko erlazio estruktural horretan bilatu behar da -adibidez- gazteen eta nerabeen artean osasun mentaleko arazoen gorakada kezagarria azaltzen duen gakoetako bat. Jakina da gaur egun talde zaurgarrienetako bat eta osasun mentaleko arazoak izateko joera dutenak 18 eta 34 urte bitarteko gazteak direla, eta batez ere emakumeetan eta LGTB kolektiboan dutela eragina. Fundación Mutua Madrileña eta FAD-Juventudek Osasunari eta Ongizateari buruz 2023an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean egindako IV. Gazte Barometroan, ondorio orokorra zen gazteen %40 inguru sintoma negatiboak izaten ari dela jada oso maiz, hala nola energia falta (%46,2), tristura (%44,2), kontzentratzeko arazoak (%44,9), etorkizunaren aurreko beldurra (%42,7), gauzak egiteko interesik eza (%40,7) eta lo egiteko arazoak (%39,2). Gainera, nahiz eta osasun mentaleko nahasmendu larriei buruzko egoera pixka bat hobetu den pandemia amaitu zenetik, antsietateak gorantz jarraitzen du. Sakoneko arazoak hor jarraitzen du: 2023an, gazteen ia %40k (%37,8) esan du pairatu duela, eta %31,4k, berriz, bi urte lehenago. Beraz, ulertzen da osasunaren arloko profesionalek eta gizarte-zientzien alorretik erabakiak hartzeko orduan blokeatuta dagoen, motibaziorik gabe dagoen, gero eta estimulu biziagoak behar dituen eta helduleku handirik ez duen gazteriar buruz hitz egitea, bizitza orok dituen une gogorrak gainditzeko.

Datu horiek agerian uzten dute gaur egungo gizartearen paradoxetako bat: gazteek, aurreko belaunaldiek baino baldintza material onuragarriagoetan bizi arren, osasun mentaleko eta ondoez emozionaleko arazo handiagoak dituzte. Hainbat gizarte-faktorek azaldu dezakete hori.

Lehenik eta behin, gaur egun, gazteek aurrekaririk gabeko presio sozialari aurre egin behar diote beren bizitza profesionalean eta pertsonalean arrakasta izateko. Gainera, sare sozialek bultzatu duten "mundurako leihoak" presio horretan lagundu du, itxaropen handi horiek handituz, parekoen bizitza "perfektuak" erakusten baititu Instagram eta TikTok plataformetan, besteak beste. Daukagunak axola beharrean besteekin alderatuta zenbat daukagun axola duen kultura horretan, asegabetasunaren putzua zabaldu egiten da, eta desberdintasunaren pertzepzio subjektiboa zorrotzagoa bihurtzen da. Eta egiaztatu da estandar eskuraezinak betetzeko beharrak eragina izan dezakeela gazteen ongizate emozionalean, gutxiegitasun, antsietate, estres eta abarreko sentimenduak sortzean (Haidt, 2024; Rojas, C., eta Valenzuela, 2020; Martinez eta Fernandez, 2018).

Aldi berean, digitalki inoiz baino konektatuago egon arren –eta, agian, horregatik, hain zuzen ere– gazte askok benetako gizarte-isolamendua bizi dute. Aurrez aurreko interakzioak murriztu egin dira komunikazio birtualaren mesedetan, eta horrek lotura emozional sakonik eza ekar dezake. Isolamendu horrek bakardade eta depresio sentimenduetan lagundu dezake, giza harremanak funtsezkoak baitira ongizate psikologikorako (García eta López, 2015; Cruz eta Salazar, 2017; Sánchez eta Torres, 2014).

Ez da ahaztu behar, halaber, gazteek baliabide material gehiago eskura ditzaketan arren, ziurgabetasun ekonomiko nabarmenari aurre egin behar diotela. Laneko prekarietatea, bizitzaren kostua handitzea, etxebizitza-arazoak, emantzipatzeko eta bizitza-proiektu pertsonal bat aurrera eramateko zailtasunak eta abar kezka komunak dira gazteen artean (Pérez eta Gómez, 2016).

Azkenik, aipatzekoa da familia-egiturek azken hamarkadetan izan duten aldaketa esanguratsua; izan ere, askotan, bakardade-arazoak eragin dituzte haurtzaroan eta nerabezaroan. Familiaren laguntza sendorik gabe, adin horietako pertsonak bereziki zaurgarriak dira arazo emozionalen aurrean (Pérez eta Gómez, 2016).

Beraz, egungo gazteak berehalakotasuna, presio soziala eta itxaropen handiak ezaugarri dituen mundu batean bizi dira; hau da, frustrazio-maila handiak

sor ditzakeen testuinguru sozial bati aurre egin behar diote. Hala ere, gazte asko ez daude hezita emozio horiek behar bezala kudeatzeko. Bai familian bai ikastetxeetan, frustrazioa eta porrota kudeatzeko trebetasunei buruzko hezkuntza emozionala falta da. Martínezek eta Fernándezek (2018: 23) argudiatzen dute “tresna emozionalik ezak eguneroko bizitzako egoeretan gazteak gaindituta egotea errazten duela”. Erronkei aurre egiteko ezintasun horrek frustrazioaren ziklo arriskutsu eta autosuntsitzailea elikatzen du, “frustrazioa maneiatzeko ezintasunak jokabide autosuntsitzaileak eta pertsonen arteko harremanen narriadura ekar baititzake” (García eta López, 2015: 45).

8.1.2.2. Lan-prekarietatea eta osasun mentala

Ziurgabetasuna ekonomiaren eta lanaren arloan ere agertzen da, globalizazioak, gizartearen arteko lotura areagotu badu ere, desberdintasunak handitu baititu. Joseph Stiglitz ekonomialariak adierazi duenez, “globalizazioak gutxi batzuei egin die mesede, eta asko atzean utzi ditu”. Desberdintasun horrek ziurgabetasun soziala elikatzen du, eta pertsonak ahul sentitzen dira elite bati bakarrik mesede egiten diola dirudien sistema baten aurrean.

2008ko finantza-krisiak muturrera eramanez 70eko hamarkadaren amaieratik –produktzio-eredu fordistaren beherakadaren ondorioz (Buchholz *et al.*, 2009)– iragartzen ari ziren ekonomia- eta gizarte-krisia. Orduan, sektore asko, eraikuntza eta manufaktura kasu, bereziki kaltetuak izan ziren, eta langabezia-tasak maila kezkagarriak lortu zituen. Enpresak, eskariaren murrizketari eta likidezia-arazoei aurre eginez, enpleguak kaleratzen eta lanorduek murrizten hasi ziren. Horrek ziurgabetasun- eta beldur-giroa sortu zuen lan-merkatuan. Gainera, krisiak aldaketak eragin zituen enpresek jarduteko eta kontratatzeko moduan ere. Lan-malgutasuna eta aldi baterako kontratuen erabilera lehenesten hasi ziren. Une horretatik aurrera, Mendebaldean enplegu-baldintzen degradazio-prozesua hasi zen, eta orain arte jarraitu du (Duran eta Isusi, 2010), eta, gainera, zorrozetasun fiskaleko baldintzek babes fiskaleko politikak higatu dituzte, eta, aldi berean, ezarritako lan-erreforma askok kaleratzea erraztu eta enpleguaren babesa murriztu dute (Miguélez eta Prieto, 2009; Verd eta López-Andreu, 2012; Dooley, Fielding eta Levi, 1996). Izan ere, paradigma sozial berri batekin egiten dugu topo (Bauman, 1998, 2011; Tezanos, 2022), ongizate-estatu keynestarraren antitesia irudikatzen duena eta desberdintasuna dakarrena bere funtzionamendu ekonomiko eta sozialerako egiturazko elementu gisa (Llosa *et al.*, 2019, 2020; Piketty, 2013)

Horrek guztiak enpleguaren arau soziala haustea dakar. Horrela, enplegu estandarra -kontratu mugagabea, lanaldi osoa, soldata erregularra eta "behar bestekoa" eta lan-eskubideak-, oparoaldiaren berezkoa dena, malgutasunak eta prekarizazioak markatutako enpleguen hedapenaren aurrean uzkuertzen da. Segurtasunik eza lan-merkatuaren, enpleguaren (egonkoraren) eta lan-baldintzen ezaugarri bihurtzen da, bai eta langileen bizitza profesional eta sozialaren ezaugarri ere, batez ere gazteena, emakumeena eta etorkinena, eta horien artean sustraitzen hasi da lan-segurtasunik eza saihestezina den ideia (Utzet, Valero, Mosquera, 2019: 3).

Prekarietate-egoera hori -hau da, segurtasunik eza eta ziurgabetasuna enpleguaren eta okupazioaren edozein dimentsiotan- pertsona gehienen lan-egoeraren ezaugarri nagusi bihurtu da, kualifikazio txikiagoko eta babesik gabeko enpleguetan nagusitzen baita, eta aldi baterako langileei zein kontratu mugagabeak dituztenei eragiten die (Julià, Vives eta Tarafa, 2017).

Zalantzarik gabe, lan-egoera prekarietatetik bizitzeak zaurgarritasun-testuinguru batean kokatzen ditu langileak, eta horrek eragina du haien ongizate emozionalean eta osasun mentalean (De Moortel, Vandenheede, eta Vanroelen, 2014; Vives et al., 2013; Benach et al., 2014; Quinlan, Mayhew eta Bohle, 2001). Logikoa da, beraz, garrantzi handiko osasun-determinatzailetzat hartzea (Tomba et al., 2007; Benach et al., 2014). Horregatik, Europako Parlamentuak bere estatu kideei eta bere erakundeei eskatu zien "kontzientzia har dezatela Batasun osoan lanarekin lotutako osasun mentaleko arazok lortutako maila handiez, eta konpromiso sendoa har dezatela osasun mentaleko arazoak prebenitzen, osasun mentala babesten eta bizitza profesionala eta pribatua modu osasungarrian uztartzen lagunduko duen eta lan-eremuan babes sozialeko eskubideak indartuko dituen lan-mundu digitala arautu eta errealitate bihurtuko duten ekintzei ekiteko" (Europako Parlamentua, 2022).

Gomendio horiek hainbat azterlanetan oinarritzen dira, eta azterlan horiek agerian utzi dute enplegu ezegonkorreko egoera batek, soldata baxuekin, irabazirik gabe edo laneko segurtasunik ezarekin, estres- eta antsietate-maila altuak ekar ditzakeela (Ervasti, 2014), larritasun psikologikoa (Bültmann et al., 2002), osasun mental txarra (Burgard, Brand eta House, 2009) eta droga psikotropiko batzuen erabilera (Lassalle, Chastang eta Niedhammer, 2015). Etengabeko ziurgabetasun horrek depresioa, neke emozionala, ondoez psikologikoa, autoestimua murrizketa eta beste zenbait arazoak ekar diezazkioke langileari (Virtanen et al., 2016; Ervasti et al., 2014; Quesnel-Vallée, DeHaney eta Ciampi, 2010). Era berean, lan "duina" edo egonkorra ez

izatearen pertzepzioak gutxiagotasun-sentimenduak eta balio pertsonalik eza eragin ditzake. Hori bereziki garrantzitsua da lana identitatearekin eta estatus sozialarekin lotzen den testuinguruetan. McKee-Ryan et al.-ek (2005) egindako azterlan batek iradokitzen du lan-ezegonkortasunak eragin negatiboa izan dezakeela autoestimuan eta autoefikazian.

Faktore anitzeko ikuspegitik egindako azterlan batzuek sintoma depresiboak eta ondoez psikologikoa aldi baterako enpleguaren eta hezkuntza-maila baxuaren konbinazioarekin lotu dituzte (Hammarström, Virtanen, eta Janlert, 2011). Beste batzuek egonezin psikologikoa eta enplegu prekarioa ere lotu dituzte, lan-segurtasun faltaren, kontratu motaren eta langabeziaren arabera (Canivet et al., 2016).

Laneko prekarietateak langileen harremanen dimentsioari ere eragiten dio. Eta, gizarte-isolamendua eragin dezake. Enplegu ezegonkorretan dauden langileek sarritan aukera gutxiago dituzte lan-harreman sendoak izateko, eta horrek gizarte-laguntzako sare mugatu bat ekar dezake. Isolamendu horrek osasun mentaleko arazoak larriagotu ditzake, gizarte-laguntza faktore babeslea baita depresioaren eta antsietatearen aurrean (Cohen eta Wills, 1985).

Gainera, enplegu prekarioak eta enplegu egonkorra lortzeko behar den denbora luzatzeak zaildu egiten du bizitza-proiektu pertsonal bat aurrera eramatea eta, batzuetan, eragotzi egiten du (Mills, Blossfeld, eta Klijzing, 2005; Utzet, Valero, Mosquera, 2019), eta horrek ongizate emozionalik eza eta osasun mentaleko arazoak eragiten ditu azkenean (Bolibar et al., 2021).

Bestalde, autore askok lan-prekarietateko egoera gisa jartzen dituzte lantokian langilearen inguruan ageri diren eskari psikologikoak –lanak egiteko azkartasuna eta intentsitatea, lanaren izaera asaldatua, lanak egiteko denbora nahikoa izatea, lan kantitatea, behar den kontzentrazio-maila, eskaera gatazkatsuak egotea, lanak eteteko edo lana moteltzeko maiztasuna besteen zain egon beharragatik, nagusien eta lankideen laguntza, langileak bere lanaren gainean duen erabaki-ahalmena eta kontrola, zereginen aniztasuna eta sormena, etab.–, hau da, estresa eta ondoez emozionala dakarten egoeren multzoa (Theorell, Karasek, eta Eneroth, 1990; Karasek, 1979).

Ez da ahaztu behar osasun mentala eta osasun fisikoa elkarri lotuta daudela. Laneko prekarietatearekin lotutako estres kronikoa osasun fisikoko arazoetan ager daiteke, hala nola gaixotasun kardiobaskularretan, nahaste

gastrointestinaletan eta arazo muskulu-eskeletikoetan. Theorell *et al.*-en (2015) azterlan baten arabera, laneko estresak gaixotasun fisikoak izateko arriskua handitzen du, eta horrek osasun mentalari eragin diezioake, eta hausteko zaila den ezinegon-begizta bat sortu.

8.1.2.3. Zaurgarritasuna ez da neutrala: emakumeak eta etorkinak

Azkenik, aipatzekoa da laneko prekarietateak gizonengan eta emakumeengan duen eragina ez dela berdina, nahiz eta Valero *et al.*-ek adierazten duen bezala, oraindik gai horri buruzko azterlanetan nekez ageri da sexuaren araberako analisirik, edo generoaren araberako desberdintasun hori azaldu dezakeen faktore posiblerik.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako azterlan batek frogatu zuen laneko prekarietatea nabarmen lotzen dela osasun mental txarrarekin, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Hala ere, lan prekarioko egoeretan dauden emakumeek hiru aldiz baino gehiago dituzte osasun mentaleko arazoak izateko aukerak, enplegu egonkorak dituzten emakumeekin alderatuta (Valero *et al.*, 2021).

Gainera, emakumeek erronka eta baldintza bereziei egin behar diete aurre lan-eremuan, eta, ondorioz, prekarietateak osasun mentalaren narriaduran dituen ondorio negatiboetarako arrisku handiagoa dute. Hala, datuek ez dute genero-arrakalarik aipatzen enplegu-tasetan, kontratuen behin-behinekotasunean eta partzialtasunean, jarduerarik ezaren tasetan, soldatetan, eta seme-alaben eta mendeko pertsonen zaintzan (EIN, 2023).

Kontuan izan behar da, halaber, emakumeak gehiegi ordezkatuta daudela baldintza prekarioak dituzten eta abusu-egoerak errazten dituzten lan-sektoreetan, hala nola etxeko lanetan eta zaintza-lanetan. Askotan, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuetako langileek hedabideetan salatu dute erabiltzaile ugariren sexu-jazarpena eta tratu txarrak jasan dituztela, bai eta haien lan-baldintzak prekarizatu egin direla ere. Egoera horiek guztiek nahitaez eragin behar dute haien ongizate psikologikoan.

Prekarietateak beren osasun mentalari eta ongizate orokorrari bereziki eragiten dion beste biztanleria-sektore bat biztanleria etorkina da. Langabeziaren murrizketan eta integrazio-ekimenen inplementazioan aurrerapenak lortu badira

ere, arreta behar duten erronka esanguratsuak daude oraindik. Hala, gaur egun oraindik ere, lantokian diskriminazioa, arrazakeriak eta xenofobiak nahasmendu psikologikoak izateko arriskua areagotzen dute (Sanchís-Ruiz *et al.*, 2013).

Ildo beretik, Gaceta Sanitaria (Porthé *et al.*, 2009) aldizkarian argitaratutako azterlan batek erakutsi zuen etorkinen lan-ezegonkortasuna eta babes sozialik eza kolektibo horren osasun mentalaren narriadura nabarmenarekin lotuta daudela. Gainera, gehiegizko kualifikazioak eta kualifikazio gutxiko lanak egiteak frustrazio- eta desbalarizazio-sentimenduak sortzen dituzte, eta horrek eragin negatiboa du haien ongizate psikologikoan.

8.1.3. Gizarte-isolamendua eta osasun mentala

8.1.3.1. Kontzeptura hurbiltzea

Gizarte-bazterkeriako egoerek pertsonen ongizate emozionalean eta osasun mentalean duten eragina aztertzean, kontzeptuaren beraren konplexutasunaren zailtasuna aurkitzen dugu. Tradizioz, pobreziarekin eta gizarte-desberdintasunarekin lotu izan da. Hala ere, fenomeno hori ekonomikoaz haragoko hainbat dimentsiotan ager daiteke, nahiz eta askotan ekonomikoa ere barne hartzen duen, hala nola politikan (eskubideak, aukerak eta zerbitzuak baztertzea), kulturean (praktikak eta balioak ez ezagutzea eta gutxiestea) eta gizartean (gizartean garrantzi txikiagotzat jotzen diren posizioak betetzen dituzten pertsonak baztertzea).

Beraz, marjinazioak biztanleriaren sektore ugari eragiten die, hala nola gutxiengo etnikoei, desgaitasunen bat duten pertsonei, etorkinei, emakumeei eta muturreko pobrezian bizi diren pertsonei. Beraz, gizarte-bazterkeriaren kontzeptuak askotariko egoerak hartzen ditu bere baitan: parte-hartzerik eza -hau da, gizarte-babes desagokia eta gizarte-isolamendua-, eskubideak, aukerak, gaitasunak eta erabateko gizarte-integratziorako oinarritzko baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukerak ukatzea, eta horrek desberdintasun- eta zaurgarritasun-zikloak betikitzen ditu (Subirats *et al.*, 2004). Ziklo horiek, azkenean, osasunari eragiten diote, osasun mentala barne; izan ere, gizarte-bazterkeriako egoerek berekin dakarten eta, logikoa denez, nahasmendu psikologikoak eragin edo areagotu ditzaketen marjinazioak eta isolamenduak bereziki eragiten diote osasunari (Popay, 2010).

Bestalde, faktore asko eta askotarikoak dira pertsonak gizarte-bazterkeriako egoerara eraman ditzaketenak: finantza-baliabiderik ez izatea oinarritzko zerbitzuak -hala nola hezkuntza, osasuna eta etxebizitza- eskuratzeko aukera mugatu dezake; hezkuntzaren kalitate eskasak edo horretarako sarbiderik ezak pobrezia- eta bazterkeria-zikloak betikotu ditzake; desberdintasun kulturelek -hala nola hizkuntzak edo tradizioek- talde batzuk baztertuta sentitzea eragin dezakete, nortasuna galtzea, gizartean ez onartzea eta gizartean inolako ordezkartzarik ez izatea; arrazagatik, generoagatik, sexu-orientazioagatik edo desgaitasunagatik diskriminatzea; politika inklusiborik ez egotea; baztertutako eremuetan edo baztertutako komunitateetan bizitzea; osasun mentaleko arazoak. FOESSA 2022 txostenak erakutsi zuen gaur egun Espainian generoa eta atzeritar jatorria direla gizarte-bazterkeriako egoerekin oso estu lotuta dauden bi faktore, nahiz eta beste txosten batzuek osasun-arazoak aipatzen dituzten. Nolanahi ere, analista guztiak bat datoz esatean etxerik gabeko pertsonak adierazten dutela gizarte-bazterketarien maila gogorrena, haietan bat egiten baitute gizarte-bazterkeriaren ezaugarri izan ditugun ia ezaugarri guztiek: pobrezia, gizarte- eta familia-deslotura, lan-merkatuan sartzeko ezintasuna, osasun fisiko eta mentaleko arazoak (Gómez Ramos, 2017; Cuesta, 2015; González, 2018; López, 2012; Lucas, 2016).

8.1.3.2. Gizarte-bazterkeriaren eragina osasun mentalean

Gizarte-bazterkeriaren eta osasun mentalaren arteko harremana norabide bikoia eta alderdi anitzekoa da. Alde batetik, gizarte-bazterkeria osasun mentaleko arazoak eragiten dituen faktorea izan daiteke; bestetik, nahasmendu mentalak dituzten pertsonak estigmatizazioari eta diskriminazioari aurre egin behar izaten diete askotan, eta horrek gizarte-bazterkeriako arriskuan jartzen ditu (Muñoz *et al.*, 2009). Halaber, aipatu behar da osasun-bazterkeriak berak eta osasun mentaleko zerbitzuak eskuratzeko zailtasunek bazterkeria-egoerak abiarazi eta betikotu ditzaketela. Beraz, gizarte-bazterkeria osasun mentaleko arazoen kausa eta ondorioa izan daiteke.

Gauza bera gertatzen da alkoholaren eta drogen kontsumoarekin. Ikerketa guztietan agertzen da gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak -etxerik gabekoek batez ere- substantzia horien kontsumo handiagoa dutela biztanleriak oro har baino, baina baliteke kontsumo hori lehenagokoa izatea (Panadero *et al.*, 2017), nahiz eta ez den eztabaidatzen kontsumo horrek eragin zuzena duela gizarte-bazterkeriako egoeren kronifikazioan (Roca *et al.*, 2019).

Hainbat ikerketak dokumentatu dute marjinazioak eta gizarte-isolamenduak areagotu egiten dutela hainbat nahasmendu izatea, hala nola depresioa, antsietatea eta trauma osteko estresa. Era berean, ikusi da parte-hartze sozial eta ekonomikorik eza talde zaurgarrietan ongizate psikologiko txikiagoa izatearekin lotuta dagoela (González, 2015).

Gainera, gizarte-bazterkeriak alferreko, itxaropenik gabeko eta autoestimu gutxiko sentimenduak sor ditzake, eta horiek osasun mentala hondatzen laguntzen dute. Laguntza-sarerik ez egoteak eta baztertua izatearen pertzepzioak sentimendu horiek indartzen dituzte, eta apurtzeko zaila den ziklo bat sortzen da (López, 2018; Fernández, 2017).

Ez da ahaztu behar talde baztertuetako pertsonen sarritan aurre egin behar izaten dietela aurreiritziei eta jarrera diskriminatzaileei, eta horrek haien aukerak mugatzen dituela eta osasun mentalari modu negatiboan eragiten diola (Martínez, 2019).

Nolabait laburbilduz, gizarte-bazterkeriaren eta osasun mentalaren arteko harremanari buruzko ikerketek agerian uzten dute, lehenik eta behin, harreman horretara dimentsio anitzeko ikuspegiarekin hurbiltzeko beharra; bigarrenik, herritarrak sentsibilizatzearen garrantzia, osasun mentaleko arazoei lotutako estigma murrizteko eta laguntza- eta onarpen-kultura sustatzeko; eta, azkenik, gizarte-bazterkeria zein osasun mentaleko arazoak modu integralean lantzeko politikak eta programak ezartzeko premia. Horren barruan sartzen dira osasun mentaleko zerbitzuetarako sarbidea, inklusioaren garrantziari buruzko hezkuntza eta gizabanako guztien parte-hartze aktiboa erraztuko duten inguruneak sortzea.

8.2. Osasuna eta gizarte-bazterkeria Euskadiko biztanlerian eta familietan

Osasuna da pertsonen bizitzako kezka nagusietako bat, eta baita XX. mendearen bigarren erdiko ongizate-gizartearen lorpen nagusietako bat ere. Osasun-sistema nazionalak sozietate horietan hedatzeak bermatu du gutxieneko estaldura eta eskuragarritasun sanitarioa emango zaiela biztanleriaren sektore fisiko zabalei, batez ere baldintza material prekarioagoak dituztenei. Baina osasunerako sarbidea ez da soilik kuantitatiboki zabaldu. Osasuna kontzeptualki ere zabaldu egin da. Bigarren modernitateko gizarteetako kultura-aldaketa buruzko

azterlanek (Inglehart 2001, 2006) balioen eta itxaropenen kultura bat marraztu zuten, eta horietan ongizatearekiko eta osasunarekiko kezka ez dio soilik balio eta itxaropen horiek termino fisiko edo materialetan duten ikusmoldeari erantzuten, baizik eta beste alderdi subjektibo eta afektibo batzuetan barneratzen da, non osasunak eta ongizate mental eta emozionalak garrantzi bera hartzen duten. Hala ere, zerbitzu publikoek jasan dituzten ondoz ondoko murrizketek, pribatizatzeko joerak eta COVID-19aren pandemiak atzera egitearen agertoki horretan sartzeak kolokan jarri dituzte konkista horiek, eta, aldi berean, are gordinago azaleratu dituzte osasun-sistema publikoen ahuleziaren ondorioak –sistemaren josturak, esan izan den bezala–, baita osasuna eta estaldura sozialki banatzeko aukera ematen duten desberdintasun-baldintzak ere, pertsonen bizi-prekarietatearen eta osasun fisiko eta mentalaren arteko lotura estua eta iraunkorra agerikoago eginez.

Illo horretan, EINSFOESSAk, azken boladan, pertsonen eta familien osasun-egoerari buruzko informazioa bildu du, balorazio subjektiboa eta osasun-arazoak eta/edo osasun-arreta kontuan hartuta. Aurreko kapituluetan gizarte-bazterkeriaren ardatzak eta dimentsioak aztertu dira, baita Espainian eta Euskadin duten eragina eta bilakaera ere, EINSFOESSAren azken hiru boladen bidez. Atal honetan, osasunari buruzko kontuak eta osasunak bazterkeria- eta prekarietate-egoerekin duen lotura aztertzen dira, bi helbururekin: (i) osasun fisikoak eta mentalak biztanlerian eta familietan duen eragina ezagutzea, integrazio-/bazterkeria-egoera kontuan hartuta; (ii) osasunean dauden gabezia-edo prekarietate-egoerekin lotutako ezaugarri sozialak identifikatzea.

8.2.1. Gizarte-bazterkeria osasunaren dimentsioan

Gabezia-egoerek edo zailtasunek biztanlerian eta familietan duten inpaktua neurtzen duten adierazleetatik abiatuta, EINSFOESSAk biztanleriaren eta familien gabezia-egoera erradiografiatzen du zenbait bazterkeria-ardatzetan. Horietako bat da ardatz politikoa eta herritartasunekoa, eta haren dimentsioetako bat da, besteak beste, osasunaren dimentsioa.

2024ko emaitzek erakusten dute osasuna ez dela EAEko eta Espainiako biztanleen zailtasun nagusietako bat. Hala, Euskadiko eta Espainiako biztanleen %9,2k eta %14,8k zailtasunak eta gabeziak dituzte dimentsio horretan, beste gai batzuen azpitik, hala nola parte-hartze politikoa eta etxebizitza, eta enplegutik distantzia txikira. Datuak ikusita, eta ikuspegi konparatibo batetik, Euskadik

Estatu osoak baino egoera hobea du, baita 2018tik izan duen bilakaeran ere. **Hala, azken hirurtekoan murriztu egin da bazterkeriak osasunean duen eragina Euskadiko biztanlerian eta familietan, eta ehuneko lau puntu inguru jaitsi da duela sei urteko mailekin alderatuta. Aldiz, Estatu osoan, aldi pandemikoan gorakada izan ondoren, duela lau urteko balioetara itzuli da.**

25. TAULA Osasunaren dimentsioan bazterkeria-arazoak dituzten Euskadiko eta Espainiako biztanleen eta familien ehunekoa

	Biztanleria			Familiak		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024
EAE	13,6	11,7	9,2	14,3	13,2	9,5
Espainia	14,1	17,0	14,8	14,2	17,2	15,2

Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024

Baina, zertan zehazten da osasun-bazterkeria? Bazterkeria-dimentsioen osagaiei erantzuteak horiei lotutako arazoak, gabeziak edo zailtasunak ezagutzeko aukera ematen du, baita horien nagusitasuna eta bilakaera ere. Osasunaren kasuan, honako taula honetan agertzen diren seiak dira, Euskadiko eta Espainiako pertsonen eta familien nagusitasun-mailekin **(41)**.

(41) Euskadiko biztanleentzako estimazioa txosten honetako 4. taulan (67. orrialdea eta hurrengoak) jasotzen da, eta bertan nola egin den ere azaltzen da. Taula horretan esaten den bezala, argigarri gisa bakarrik hartu behar diren estimazioak dira.

26. TAULA Osasun-arloko bazterkeria-adierazleek eragindako pertsonak eta familiak Euskadin eta Espainian

Osasunaren dimentsioaren adierazleak	Euskadi				Espainia	
	Pertsonak		Familiak		Pertsonak	Familiak
	%	Kop. (x1000)	%	Kop. (x1000)	%	%
27. ADI_Arazo ekonomikoengatik eta pobrezia moderatuko egoeragatik botikak edo protesiak erosteari edo tratamenduei edo dietei jarraitzeari utzi dion familia, %60ko atalasetik behera (2018an ainguratutako balioa)	7,1	157	5,7	54	10,5	11,8
23. ADI_Azken 10 urteetan norbait maiz goseak egon den edo orain ere goseak dagoen familia	2,7	58	2,4	23	3,4	3,5
24. ADI_Pertsona heldu guztiek desgaitasuna, gaixotasun kronikoa edo osasun-arazo larriak dituzten familia, eguneroko bizitzako jardueretarako mugak sortzen dizkiena.	1,7	36	3,4	32	3,6	1,7
26. ADI_Gaixotasun larria edo kronikoa duen eta urtebetean laguntza medikorik jaso ez duen pertsonaren bat duen familia.	1,1	23	1,2	11	3,1	3,5
25. ADI_Mendekotasuna duen pertsona bat duen familia, beste pertsona baten laguntza edo zaintzak behar dituen (eguneroko bizitzako jarduerak egiteko) eta jasotzen ez duena	1	21	0,8	7	0,6	0,8
22. ADI_Pertsonaren bat osasun-estaldurarik gabe duen familia	0,4	8	0,3	3	0,7	0,8

Iturria: EINSFOESSA 2024.


Euskadik, osasun orokorreko bazterkeriaren adierazleetan, Estatuak baino egoera hobea du, eta adierazle nagusietan, hau da, osasun-arazoei (sendagaien erosketa, protesiak, tratamenduak, etab.) eta goseari (pertsonen %7,1 eta %2,7) erantzuteko zailtasun ekonomikoarekin lotutakoetan, beherantz aldentzen da. Era berean, familian desgaitasunen bat duen edo eguneroko bizitzarako mugak sortzen dituzten osasun-arazo larriren bat duen kideren bat egoteari dagokionez, %1,7an kokatzen da azken urtean gaixo larri edo kronikoren bat izanda laguntza

medikorik ez duen biztanleria, eta Euskadin %1,1era iristen da. Aurreko 26. taulanikus daitekeenez, Espainiaren kasuan, osasun-gabeziako, kronikotasuneko eta asistentzia-gabeziako egoerak aipatzen dituzten adierazleek ere ehuneko handixeagoak dituzte (%3,4 eta %3,6, hurrenez hurren). Osasun-estaldurarik ezak eta laguntza medikorik edo mendekotasunagatik zaintzarik ez izateak dira urrienak, Estatuko oso antzeko mailekin. **Horrez gain, Euskadiko ezein familiatan ez da hiru arazo baino gehiago detektatzen, eta gehiengoa (%90) osasunean bazterkeria-arazo bat baino gehiago pilatzen ez duten pertsonak eta familiak dira.** Aitzitik, arazo bati baino gehiagori aurre egin behar dion kolektiboa ugariagoa da Espainian (pertsonen %17), familia batzuetan zailtasun horietako bost ere biltzen baitira.

Adierazle horien azken sei urteetako azterketa konparatiboak ere datu interesgarriak ematen ditu. Aurrez ohartarazi den bezala **(42), 2018ko EINSFOESSAren emaitzei dagokienez, argi eta garbi ikusten da osasun-bazterkeriako adierazleak hobetu egin direla, salbuespen nabarmen eta kezkarri batekin: gosearekin lotutako egoeren proportzioa hazi egin da (23. ADI), eta Estatu osoan baino gehiago hazi da. COVID-19aren ondoren gora egin zuen, eta berriro gora egin du hiru urteren ondoren. Aitzitik, deigarria da murriztu egin direla familiako kide guztiek desgaitasuna, gaixotasun kronikoa edo eguneroko bizitzako jardueretarako osasun-arazo larriak dituzten egoerak (24. ADI); batez ere jaitsiera hori 2021etik aurrera gertatu zen, eta hori, agian, COVID-19ak talde zaurgarrien eta mendekoen hilkortasunean izandako intzidentzia handiagatik azaldu daiteke.**

(42) Txosten honen lehen kapitulu, 1.2.4 atalak ikuspegi bateratu eta konparatibo batetik aztertzen du bazterkeria-adierazleen nagusitasuna eta bilakaera ardatz bakoitzaren zortzi dimentsioetan; guztira 37 adierazle dira. Emaitzak portzentajeetan eta zenbatespenetan aurkezten dira, pertsonen eta familien biztanleriari dagokionez (4. taula, 67. orrialdea eta hurrengoak).

59. GRAFIKOA. Osasun-bazterkeriako adierazleen nagusitasunaren bilakaera, ehunekotan, Euskadin eta Espainian. 2024-2018.



Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2024.

Osasunaren dimentsioaren azterketak datu interesgarriak ematen ditu bazterkeriaren eraginpeko biztanleria gizarteratze-mailaren arabera nola banatzen den aztertzen denean (43). Pentsa daitekeen bezala, Euskadin eta Espainian zailtasunak eta gabeziak dituzten pertsona eta familia guztien artean, bat ere ez dago erabateko integrazioan. Izan ere, gehienak bazterkerian kokatzen dira, baina ez horretan bakarrik. Euskadin, egia bada ere bazterkeria larriak arazo horren heren bat biltzen duela, garrantzitsuena da **handiagoa dela gizarteratze prekarioko egoeran dauden eta osasunean bazterkeria arazoak dituzten biztanleen ehunekoa eta ehuneko hori hazten ari dela**. Izan ere, esku-hartze sozialari begira, azpimarratzekoa da bazterkeriaren maila moderatuena eta integrazioaren maila prekarioena osasunean bazterkeria-arazoak dituzten biz-

(43) Hurrengo inkestetan erabili diren kasuen kopuru absolutua txikia da agregazio mailan jaisten den heinean. Euskadiren kasuan, 2024ko EINSFOESSAn 606 familiak eta 1538 gizabanakok osatutako lagin batetik abiatzen gara, eta, beraz, horren ondoriozko azpi-laginak nabarmen txikiagoak dira une bakoitzean aintzat hartutako kategorietarako, eta, bereziki, gabezia-, prekariedade- edo bazterkeria-egoerekin lotutako aldagai eta kategorietarako. Horrek guztiak ehunekoen irakurketan eta emaitzak orokortzean tentuz jotzea gomendatzen du, baina joerak ulertzeko eta hautemateko aukera ematen digu.

tanleen %69,5 biltzen dutenak direla. Konparazioan ikus daitekeenez (27. taula), egoera hori 2018an ere gertatzen zen, COVID-19aren eraginaren ondoren polarizatu egin zen, eta berriro finkatzeko joera dago, Espainian ez bezala, non bazterkeria larriak osasun-gabeziak dituzten herritar gehienak biltzen jarraitzen duen.

27. TAULA Osasunaren dimentsioan bazterkeria-arazoen eragindako Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren banaketa, gizarte-bazterkeriako mailaren arabera (% bertikala)

	Euskadi			Espainia		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024
Erabateko integrazioa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Integrazio prekarioa	42,5	44,2	46,8	37,5	30,3	36
Bazterkeria moderatua	32,4	14,7	22,7	21,5	17,8	24
Bazterkeria larria	25,1	41,1	30,4	41,0	51,9	40

Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

Ikusi den bezala, osasunaren dimentsioko bazterkeria ez da bazterkeria larria eta moderatua duten kolektiboena soilik. Osasuna ere ez da pertsonen eta familien bazterkeria azaltzen duen dimentsio bakarra. Izan ere, osasunarekin lotutako gabezia-egoerak Euskadin bazterkerian dauden erdiek baino gutxiagok pairatzen dituzte (%42k), eta Espainian, ia erdiek (%49k). Horregatik, komeni da biztanleria zaurgarrienaren osasun-gabeziaren adierazleen nagusitasunari erreparatzea, horrek bazterkeriaren mapa eta osasunarekin duen harremana osatzen laguntzen baitu.

28. TAULA Osasunaren dimentsioko gizarte-bazterkeriaren adierazleen nagusitasuna integrazio prekarioan eta bazterkerian (larria+moderatua) kokatutako populazioan, Euskadin eta Espainian. 2018-2024. (% integrazioa/bazterkeria kategoriaren gainean)

OSASUNAREN adierazleak	Euskadi		Espainia	
	2024	2018	2024	2018
27. ADI Arazo ekonomikoengatik eta pobrezia moderatuko egoeragatik botikak edo protesiak erosteari edo tratamenduei edo dietei jarraitzeari utzi dion familia, %60ko atalasetik behera (2018an ainguratutako balioa)				
Integrazio prekarioa	0,9	5,0	3,0	3,6
Bazterkeria larria+moderatua	45	49,7	44,6	40,7

OSASUNAREN adierazleak	Euskadi		Espainia	
	2024	2018	2024	2018
23. ADI Azken 10 urteetan norbait maiz goseak egon den edo orain ere goseak dagoen familia				
Integrazio prekarioa	3,2	0,6	1,4	0,4
Bazterkeria larria+moderatua	13,3	4,4	15,5	13,8
26. ADI Gaixotasun larria edo kronikoa duen eta urtebetean laguntza medikorik jaso ez duen pertsonaren bat duen familia.				
Integrazio prekarioa	2,2	6,5	7,2	5,5
Bazterkeria larria+moderatua	2,8	5	5,2	2,3
22. ADI Pertsonaren bat osasun-estaldurarik gabe duen familia				
Integrazio prekarioa	0,4	1,7	0,3	1,4
Bazterkeria larria+moderatua	1,7	4,4	3,5	1,9
24. ADI Pertsona heldu guztiek desgaitasuna, gaixotasun kronikoa edo osasun-arazo larriak dituzten familia, eguneroko bizitzako jardueretarako mugak sortzen dizkiena.				
Integrazio prekarioa	4,3	10,1	3,8	6
Bazterkeria larria+moderatua	1,1	11,4	1,9	3,6
25. ADI Mendekotasuna duen pertsona bat duen familia, beste pertsona baten laguntza edo zaintzak behar dituen (eguneroko bizitzako jarduerak egiteko) eta jasotzen ez duena				
Integrazio prekarioa	2,6	3,7	1,5	1,9
Bazterkeria larria+moderatua	0,6	8	1,4	1,8

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2024.

28. taulan, biztanleriaren osasun-adierazleen emaitzak ikus daitezke, bazterkeria-mailaren arabera, bi kategoriari erreparatuta, hau da, gizarteratze prekarioari eta bazterkeriari. Azken horretan bi mailak biltzen dira, moderatua eta larria. Erabateko integrazioan dagoen biztanleria ez da kontuan hartzen, adierazleek ez baitute talde horretan intzidentziarik izan. Azpimarratzekoa da baztertutako pertsonak bizi diren familien **ia erdiek utzi egiten diotela botikak edo protesiak erosteari, edo tratamenduei edo dietei jarraitzeari arazo ekonomikoengatik eta pobreziaengatik**. Komeni da gogoratzea, inkestaren bidez neurtutako 37 gizarte-bazterkeriaren adierazleetatik, arazo hori eraginpeko biztanleriaren proportzio handiena duten bostetako bat dela **(44)**, hau da, gizarte-bazterkeriako egoeretan ohikoena den modu zehatz baten aurrean gaudela. **Horren atzetik, % 13,3ko nagusitasunarekin, azken hamar urteetan**

(44) Adierazle horren nagusitasuna ehunekoetan adierazle hauek soilik gaintitzen dituzte, eta ordena honetan: parte-hartze politikoan gabeziak neurtzen dituzten 9. eta 10. adierazleak eta etxebizitzako zailtasun eta gabeziei buruzko 21. eta 17. adierazleak (pilaketa eta gehiegizko gastuak). Xehetasun gehiagorako, txosten honen 67. orrialdean eta hurrengoetan aurkezten den taula kontsulta daiteke.

gosea pasatzeak edo pasatu izanak jarraitzen dio. Bazterkeria-adierazle hori areagotu egin da 2018tik, baita integrazio prekarioa duen kolektiboan ere. Gaixotasun larria edo kronikoa duen eta urtebetean laguntza medikorik jaso ez duen pertsonaren bat duten familietan bizi direnen ehunekoa (%2,8) txikiagoa da. Egoera hori arindu egin da, eta haren eragina nabarmen murriztu da, bai bazterkeria-egoeran dagoen taldearentzat, bai prekarietatean dagoen taldearentzat.

Gainerako adierazleetan ere ikusten da osasun-gabeziaren eraginaren gutxitzea, eta horien intzidentzia nabarmen jaisten da 2018. urtearekin alderatuta. Horrela, Euskadin murriztu egin da bazterkeria-egoeran dauden herritarren intzidentzia osasun-estaldurarik ezarekin, etxean gaixo larriak edo eguneroko bizitza mugatzen duten desgaitasunak izatearekin, artatzen ari ez diren gaixotasun larriekin eta zaintza fisikorik edo medikurik gabeko mendeko pertsonekin lotutako egoeretan. Adierazle horietan, duela sei urteko datuekin alderatuta, integrazio prekarioan dagoen kolektiboaren hobekuntza ere ikusten da. Eta, hain zuzen ere, horietako biren kasuan (24. ADI eta 25. ADI), biztanleria prekarioak du intzidentziarik handiena. Adierazleen analisiak, era berean, osasun-bazterkeriaren intzidentzian prekarietatearen eta bazterkeriaren artean egindako mugimendu batzuk erakusten ditu. Mugimendu horiek koherenteak dira lehen ikusitako desberdintasunekin, eta, 2018an egiaztatutakoan ez bezala, prekarietatean inpaktu handiagoa eta bazterkerian txikiagoa iradokitzen dute.

Bestalde, Estatuarekiko konparazioak agerian uzten du Euskadin integrazio prekarioan nahiz bazterkerian dauden biztanleei gutxiago eragiten dietela osasun-bazterkeriako arazoek. Adierazle guztietan, eraginpeko biztanleriaren ehunekoa zertxobait jaitsi da Espainiaren kasuan, baina ez dago alderik rankingean. Gainera, Espainiak ere bilakaera okerragoa izan du azken sei urteetan, ez baita ikusten bazterkeria-kolektiboan higadurarik dagoenik, ezta integrazioaren kontura ere, eta hori koherentea da osasunaren dimentsioaren azterketan ikusitako joerarekin.

8.2.2. Gizarte-bazterkerian dauden pertsonen osasun fisikoa eta mentala

Gizarte-bazterkeriako egoera batean, pertsonen osasun fisikoak eta mentalak neurri handi batean baldintzatzen ditu bai egunerokoan dituzten problematika eta zailtasunen aniztasuna, bai osasun-arlotik aurre egiteko modua. Horregatik,

garrantzitsua da osasun-egoeren eta pertsonen gizarteratze-egoeraren edo gizarte-bazterkeriaren arteko harremanak aztertzea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan kokatuta, eta eboluzioaren eta Estatuarekiko konparazioaren ikuspegitik, atal honek hurrengo inkestetan (EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024) osasunaren egoerari buruz jaso diren emaitzak aurkezten ditu. Osasun-egoeren balorazio subjektiboekin batera, inkesta horiek informazio ugari ematen dute osasunarekin lotutako hainbat alderdiri buruz (gaixotasunak eta/edo ezintasunak, osasun-estaldurarako sarbidea, osasun-baliabideak, etab.), eta horrek herritarren osasunari buruzko begirada orokorra osatzen du. Baina, Euskadiko osasunaren eta familien balorazio eta baldintza horien eragina aztertzeaz gain, osasun-egoera hori biztanleria eta familiak sailkatzeko bazterkeria-maila desberdinen arabera nola aldatzen den jakin behar da.

8.2.2.1. Biztanleriaren banaketaren bilakaera Euskadin eta Espainian, osasun fisikoaren eta mentalaren balorazioa kontuan hartuta, gizarte-bazterkeriako mailaren arabera (2021-2024)


EINSFOESSA 2024k osasun mentalarekin lotutako aldagaiei buruzko informazio zehatza ematen du; aldagai horiek ez ziren sartu aurreko edizioetan. Hala, berritasun nabarmenetako bat da osasun fisikoa eta osasun mentala bereizi egiten direla. Nahiz eta horrek zaildu egiten duen 2018 eta 2021eko inkestetako datuekin alderatzea -osasuna orokorrean aipatzen zen-, egia esan, osasun mentalari eta ongizateari buruzko begirada zehatz-mehatz ezagutzeko eta zabaltzeko aukera ere ematen du. Gure gizarteetan ongizatearekin eta osasun mentalarekin lotutako arazoak areagotzen ari diren honetan, ahalegina egin da berrikuntza horiek txertatzeko, testuinguru soziosanitarioari lotutako arazo edo egoera espezifikoiei buruzko informazio eguneratua emateko.

Hasiera batean, Euskadiko biztanleriak oso balorazio positiboa egiten du bere osasun-egoerari buruz, bai fisikoari bai mentalari buruz, eta egoera hori ez dago Estatu osorako ikusitakotik urrun. Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen ia erdiek oso ontzat jotzen dute beren osasun fisikoa. Nahiko osasun ona dutela diotenak kontuan hartuta, hamar pertsonatik zortzik (%82,9) ez dute osasun-arazorik ikusten, eta %4,3k, berriz, kontrakoa adierazten dute, hau da, osasun-egoera txarra.

Estatu osoarekin alderatuz gero, alde txikiak baino ez daude ehunekoetan, baina ez dira esanguratsuak, eta inola ere ez dute adierazten bi populazioen osasun fisikoaren egoeraren balorazioa nabarmen desberdina denik.

Osasun mentaleko egoeraren balorazio subjektiboari erreparatuta (2024ko EINSFOESSAren berritasuna), ikusten da bi lurraldeetako biztanleen erdiak baino gehiagok uste duela osasun mental oso ona duela; Espainian zertxobait gehiago (%54,4). Hemen ere oso txikia da osasun mental nahiko txarra edo oso txarra dutela dioten ehunekoa, eta bi lurraldeetako biztanleen %2,9k soilik hautematen du egoera hori. Nolanahi ere, osasun fisikoa eta mentala alderatzen baditugu, Euskadin eta Espainian osasun mental ona duen biztanleriaren bolumena pixka bat handiagoa da.

60. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako biztanleen osasun fisikoaren eta osasun mentalaren egoeraren pertzepzioa (2024) (%)



Iturria: EINSFOESSA 2024.

Euskadiko osasun-egoeraren autoebaluazioaren bilakaeraren ideia bat izateko, aldagai horiek bi inkestaren edizioetan kontsultatu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkestan eta txosten honetan bertan. OSALANen Osasun Inkestak inkestatuaren osasunaz galdetzen du, beste xehetasunik gabe. EINSFOESSAren kasuan, esan bezala, 2021ean inkestak osasunaren pertzepzioa orokorrean jasotzen zuen, eta 2024an osasun fisikoaren eta mentalaren arteko bereizketa ematen du. Horregatik, bi balorazioak konbinatzen dituen aldagai

berri bat landu da **(45)**. Galderaren formulazioan eta bi inkestaren metodologian dauden desberdintasunak alde batera utzi gabe, eta erabilitako eskala bera dela aprobetxatuz, 2018-2024 aldirako emaitzak jaso dira hurrengo taulan, eta, jakina denez, COVID-19aren pandemiaren agerpenak eta horrek herritarren osasunean duen eragin handiak markatzen dute. Oro har, alderaketa horri esker, osasunaren pertzepzio horrek lurraldean izan duen bilakaeraren ideia bat lortu daiteke.

29. TAULA EAEko osasun-egoeraren pertzepzioa 2018-2024 aldian, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkestan (OSALAN) eta Integrazioari eta Gizarte Beharrei buruzko Inkestan (EINSFOESSA) (%)

	EINSFOESSA					EAEOI	
	Osasun-egoera					Osasun-egoera	
	Orokorra	Orokorra	Orokorra	Fisika	Mentala	Orokorra	
	2018	2021	2024	2024	2024	2018	2023
Oso txarra	2,09	1,8	0,0	0,6	0,4	0,8	0,7
Nahiko txarra	3,5	3,5	1,2	3,7	2,5	2,6	2,9
Erdipurdikoa	15,1	14,6	7,2	12,7	7,2	11,9	16,5
Nahiko ona	54,7	42,8	35,4	33,5	39,3	59,7	54,6
Oso ona	24,3	37,2	56,1	49,5	50,6	25	25,3

Iturria: EINSFOESSA 2018 eta 2024 eta OSALAN 2018 eta 2024.

OSALANen inkestak osasun orokorraren higadura txiki bat erregistratu zuen 2018 eta 2023 artean, eta goranzko portzentaje-alde txiki bat izan zuen (+%5,4) osasuna erregulatzea baloratzen zuten biztanleen artean, batez ere osasun nahiko ona zuen taldearen kontura. Aldi pandemikoaren osasun-kolapso betean gertatu zen higadura hura. EINSFOESSAk ere erakusten du osasunaren pertzepzioak hobera egin duela 2018tik gaur egunera arte. Osasun orokorra

(45) EINSFOESSA 2024an, osasun fisiko eta mentaleko egoerari buruzko galderetatik abiatuta (C21 eta C22 galderak, hurrenez hurren), bi egoerak konbinatzen dituen osasun orokorreko indize bat eraiki da. Horretarako, bi aldagaien balioak batu dira, eta hamar puntuazioko eskala bat sortu da, gutxienez 1 baliokoa (osasun mental eta fisiko oso txarra) eta gehienez 10 baliokoa (osasun mental eta fisiko oso ona). Ondoren, balioak birkodetu dira jatorrizko eskalarekin bat datozen bost tartetan (1-2 = oso txarra; 3-4 = nahiko txarra; 5-6 = erdipurdikoa; 7-8 = nahiko ona; 9-10 = oso ona). Horrela, aldagai berriaren eskala ordinalak osasun mentaleko eta fisikoko egoeren balorazioen bat-egitea neurtzen du.

oso ontzat jotzen duen biztanleria %18,1 igo da, eta erdiek baino ez dute erdipurdikotzat edo nahiko txartzat jotzen. Egia da bi inkesten emaitzak ez direla guztiz parekagarriak, baina bietan antzeko joerak ageri dira. Eskalaren beste aldeari erreparatuz gero, esan daiteke osasun-egoera negatiboa hautematen duen biztanleriaren higadura progresiboa dela.

Testuinguru orokorra aztertu ondoren, gizabanakoek beren osasun fisiko eta mentalari buruz duten pertzepzioa aztertu da, gizarteratzeko eta gizarte-bazterkeriako maila guztietan. **Euskadin, Espainian bezala, ez dago aldaketa handirik biztanleria-balioei dagokienez, eta, beraz, ezin da esan osasun fisiko eta mentaleko egoeren banaketa argi eta garbi bereizirik dagoenik pertsonen gizarteratze-egoeraren edo gizarte-bazterkeriaren arabera.** 61. grafikoan ikus daitekeenez, banaketa-jarraibideek antzeko profilak dituzte bi aldagai eta lurraldeetarako.

Hala ere, kategoria batzuen artean portzentajezko aldeak nabarmendu behar dira, osasunaren eta bazterkeriaren arteko loturak adierazten dituztelako. Hala, ez dago zalantzarik erabateko integrazioko kolektiboa dela osasun fisiko eta mentaleko egoerarik onena duena, kategoria horretan lortzen baitira osasunarekin pozik dauden biztanleen ehunekorik handienak. Eta, gainerako kategorietan, ehuneko hori pixka bat jaisten da eta osasun oso ona edo nahiko ona dutela dioten artean ehunekoetan aldaketak daude. Nolanahi ere, **gizarteratze prekarioan edo bazterkeria-maila desberdinetan dauden lau pertsonatik hiruk, gutxienez, ontzat edo oso ontzat jotzen dute beren osasuna. Hau da, ez dugu bazterkeria-egoeretan osasun-egoera eskasen kontzentrazio kezkarrik aurkitzen.**


Hala eta guztiz ere, **osasun-egoera onaren pertzepzioa higitu egiten da prekarietatea edo bazterkeria dagoenean.** Kolektibo horietan gora egiten du beren osasuna erdipurdikoa eta txarra edo oso txarra dela esaten dutenen ehunekoak.

Euskadiko biztanleentzat, bazterkeria larrian aurkitzen da osasun fisikoaren egoeraren baloraziorik txarrena. Dezente gutxiago dira oso ona dela diotenak – hamar puntu baino gehiagoko aldea dago, ehunekoetan, gainerako egoerekiko –, eta gehiago erdipurdikoa dela diotenak (%17). Hala ere, talde horretan ez da osasun fisikoko egoera txarraren intzidentziarik handiena lortzen, bazterkeria moderatuan ageri da intzidentzia hori (%7,9). Espainian, erabateko integrazioa ez duten kolektiboetan ere osasun fisikoa higitzen da, baina profila ia bera da, %7,5

inguru baitira osasun nahiko txarra edo oso txarra duten pertsonak. Printzipioz, eta oro har, badirudi Euskadiren egoera zertxobait hobea izan daitekeela.

Osasun mentalaren kasuan, Euskadin integrazio prekarioko kolektiboa da pertzepzioa higituen duena. Batezbestekoaren azpitik jaitsi da osasun-egoeraren pertzepzio onena jasotzen duen kategoriaren pisua (%45,4), eta igo egin da ontzat (%40) eta erdipurdikotzat (%10,8) hartzen dutenena. Eta bazterkerian aitortzen dute pertsona gehienek osasun mental txarra edo oso txarra dutela, %6 inguruko intzidentziarekin. Laburbilduz, Espainiako biztanlerian higadura nabarmenagoa antzematen da bazterkeria larrian eta moderatuan, eta osasun mental eskaseko egoeren intzidentzia handiagoa da.

61. GRAFIKOA. Euskadiko eta Espainiako biztanleen osasun fisikoaren eta osasun mentalaren egoeraren pertzepzioa, gizarteratzearen eta gizarte-bazterkeriaren mailen arabera (2024) (%)




Iturria: EINSFOESSA 2024.

2021ean osasunaren eta bazterkeriaren arteko harremanaren azterketak ez du aukerarik ematen osasun fisikoa eta mentala bereizteko; beraz, 2024rekiko konparazioak tentuz hartu behar dira. Hala eta guztiz ere, 2021etik 2024ra bitartean pertsonen osasun-egoerari buruzko iritzia aztertzeak informazio interesgarria ematen du, batez ere, osasun fisikoari zein mentalari dagokienez, bazterkeria-maila guztietan hobekuntza nabarmena izan delako. Euskadin eta Espainian gertatzen da, baina Euskadin nabarmenagoa da.

Bi urteen konparazioan, EINSFOESSA 2024ren osasun fisikoaren eta mentalaren adierazleen konbinaziotik abiatuta egindako osasun orokorraren indizea baliatu da berriro. 62. grafikoan ikus daitekeenez, 2021arekin alderatuta, integrazio prekarioan eta bi bazterkeria-mailetan, nabarmen igo da oso osasun ona dutela dioten biztanleen ehunekoa, batez ere osasun ona dutela diotenaren kontura. Era berean, osasun-egoera negatiboari buruzko hiru kategorietan atzera egin dela ikusten da. Biztanle ezegonkorren eta baztertuen kasuan, nabarmen jaitsi da erdipurdiko osasuna dutenen ehunekoa -batez beste, zortzi puntu, ehunekotan-, eta, nahiz eta ez hainbeste, osasun-egoera txarra edo oso txarra dutela uste dutenena ere murriztu egin da. Bazterkeria moderatu eta larriko taldeek oso eraginkortasun gutxi dute inkesta horietan, eta zuhurtziaz baloratu behar dira desberdintasun horiek. Baina, egia esan, osasunaren autopertzepzioaren hobekuntza esanguratsu horrek, lehen ikusi den bezala, biztanleria osoarentzat ere ikusten denak, zentzua izan lezake pandemiatik ateratzeko agertokian, eta egoera pixkanaka berreskuratzen ari dela adieraz lezake.

62. GRAFIKOA. Biztanleriaren osasun-egoera orokorren balorazioa, gizarte-bazterkeriako mailen arabera, Euskadin. 2021 eta 2024



Iturria: EINSFOESSA 2024.

8.2.2.2. Biztanleriaren banaketaren bilakaera Euskadin eta Espainian, gogo-aldartearen eta gizarte-bazterkeriako mailaren arabera (2021-2024)

Pertsonen gogo-aldarteak, batzuetan, gainbehera pertsonal hutsetik harago doazen ondorioak ditu, eta osasun mentalari eragiten dioten hainbat ondorio izan ditzake, diagnostikoetan islatzen direnak, hala nola estresa eta antsietatea; eta horiek pertsonen osasun mentalean eragiten dute. EINSFOESSAren galderetako batek elkarrizketaren unean pertsonaren gogo-aldartearen balorazioa egiten du, aurreko urtearekin alderatuta. Galdera hau antzeko terminoetan planteatzen da, bai 2021ean, bai 2024an, baina ñabardura desberdinekin. Bietan, gogo-aldartearen beste pertzepzio batzuen artean zehazten da, hala nola apatia, justifikatu gabeko beldurrak edo justifikatuak, gogo-aldarte depresiboa, antsietate-egoerak, inkesta honi erantzun dioten aldartearen aldaketak zehazten dituztenak. Diferentzia hori balorazioa egiteko erreferentziatzat hartzen den unean dago.

Argi dago gertakari politiko, sozial edo pandemikoek beren arrastoa uzten dutela pertsonengan. Eta lerro hauetan gogorarazi den bezala, edozein alderaketetan ikus daiteke 2020. urtea COVID-19aren pandemiaren urtea izan zela; normaltasuna hautsi eta eguneroko bizitzako arlo guztietan eta, bereziki, herritarren aldartearen asaldura handia eragin zuen ustekabeko gertakaria izan zen. Pandemiaren hurrengo urteko aldarteari buruz termino konparatiboetan galdetzeak COVID-19a agertu aurreko agertokia erreferentziatzat hartzera behartzen zuen. Horregatik, 2021ean, galdera honela planteatu zen: *“Oro har, familiako kideen gogo-aldartearen (...) 2020ko martxoko konfinamenduaren AURRETIKOAREN berdina, hobe edo okerragoa da”*. Pandemia gaudituta, 2024an galdera familiako kide guztiei zuzendu zaie, eta azken urtea hartu da erreferentzia-esparru gisa. Honela dio galderak: *“Oro har, eta aurreko urtearekin alderatuta, hau da, bere gogo-aldartearen bilakaerarekin alderatuta (apatia, justifikatu gabeko beldurrak, depresio-gogo, antsietate-egoerak)”*. Nolanahi ere, bietan hartzen da kontuan gogo-aldarteak urtebeteko aldian izan duen bilakaera.

Une bakoitzeko agertokiaren inpaktu diferentziala eta 2021eko inkestaren eta 2024koaren arteko alderdi horren konparazioa nola baldintzatzen duen kontuan hartuta, ez da harritzekoa 2021ean biztanleriaren erdiak bere aldarteak okerrera egin zuela pentsatzea -ia inork ez zuen hobekuntzarik ikusiko- eta beste erdiak berdin jarraitzea. Aldartearen agertoki hori partekatua zen bi lurraldeetan, nahiz eta adorerik ezaren pertzepzioa handiagoa zen Euskadin. 2024ko

edizioan sentimendu hori erabat aldatu da hobera, bai Euskadin, bai Espainian. **Zalantzarik gabe, 2024ak hobekuntza handia ekarri du biztanleriaren aldateari dagokionez.** Ikus daitekeenez, gehienen gogo-aldarteak berdin jarraitzen du, baina lautik batentzat hobera egin du eta %10entzat bakarrik egin du okerrera.

30. TAULA Biztanleriaren gogo-aldartea. Euskadi eta Espainia, 2021 eta 2024

%	Euskadi		Espainia	
	2021	2024	2021	2024
Okerragoa	49,3	10,2	39,3	14,9
Berdina	49,7	66,7	57,6	66,0
Hobea	0,9	23,0	2,9	18,9
Guztira	100	100	100	100

Iturria: EINSFOESSA 2021 eta 2024.


Orain ikusi behar da gogo-aldartearen pertzepzioaren hobekuntza hori bazterkeria-egoeran dauden taldeek ere partekatzen duten. 63. grafikoan, bi aldietako integrazio- eta bazterkeria-mailetako hiru talde ahulenen gogo-aldarteari buruzko galderaren banaketa zehazten da.

Zein kolektibok ikusi dute beren egoera gehien okertzen? 2024an, gogo-aldartearen narriaduraren pertzepzioa bikoiztu egin zen bazterkeria larriaren mailan (%22,9) eta intentsitate txikiagoarekin bazterkeria larriaren egoeran. Aitzitik, bai egoera horretan, bai bazterkeria-maila ertainean, nabarmen jaisten da gogo-aldartea hobeto ikusten dutenen ehunekoa (%9,4 eta %14,1, hurrenez hurren). Eta gizarte-bazterkeriako hiru mailetako edozeinetan, pertsonen %63k baino gehiagok uste du bere gogo-aldartea aurreko urtekoa bezalakoa dela, eta ehuneko hori %78raino igotzen da bazterkeria moderatuaren mailan.

Hiru urte lehenago erregistratutakoarekin alderatuz gero, orduan ere narriadura horren intzidentzia handiagoa zen zaurgarritasun-testuinguruetan, haien ustez beren gogo-aldarteak okerrera egin baitzuen pandemiaren aurretik, %61,2 bazterkeria moderatuan, %51,9 gizarteratze prekarioan eta %48,5 bazterketa larrian. Espainiarekiko konparazioari esker, gizarte-bazterkeriako hiru mailetako edozeinetan aldartearen bilakaeran dauden ezberdintasun horiek ere ikus daitezke. Espainiaren kasuan, hobetu egin da sentimendua aurreko urtearekin alderatuta, batez ere bazterkeria moderatuan; izan ere, %22,2k uste du gogo-aldarteak hobera egiten duela; Euskadin, berriz, %9,4k uste du hori. Orain,

bazterkeria larri eta moderatuan ere nabarmen igo da gogo-aldarteak okerrera egiten duela pentsatzen dutenen proportzioa (%19,7 eta %29,4), eta behera egin du gogo-aldarte berdin ikusten dutenena. Hala eta guztiz ere, bi bazterkeria-maila horien alderaketak Estatuaren gogo-aldarte hobea erakusten du.

63. GRAFIKOA. Gogo-aldartearen balorazioa (apatia, justifikatu gabeko beldurrak, gogo-aldarte depresiboa, antsietate-egoerak), oro har eta aurreko urtearekin alderatuta, Euskadiko eta Espainiako gizarte-bazterkeriaren mailen arabera (2024-2024)



Iturria: EINSFOESSA 2021 eta 2024.

Zalantzarik gabe, testuinguru sozial orokorrak biztanleriaren gogo-aldartean eragiten du, eta gizabanakoen bizitza garatzen den baldintza partikularrek, sozialek, lanekoek eta ekonomikoek ere eragiten dute. Sarritan pobrezia, gizarte-bazterkeriaren eta osasunaren irudi poliedrikoa aipatzen da. Baina inkestaren bidez ez da beti posible gogo-aldartearen, apatiaren, justifikaziorik gabeko beldurren, gogo-aldarte depresiboaren eta antsietate-egoeren esanahietan eta kausetan sakontzea, ezta beste gabezia- edo premia-egoerekin duten harremanean ere. Gizarte-bazterkeria atzeraelikatze prozesu iraunkor baten ondorio da, eta prozesu horretan sakontzeko, beste hurbilketa batzuk behar dira, diskurtsiboagoak, ikuspegi holistiko eta ulerkor hori emango dutenak.

8.2.2.3 Euskadiko eta Espainiako biztanleriaren bilakaera, osasun-arazo larriak eta gaixotasun edo nahasmendu mentala izatearen mende, gizarteratze-mailaren arabera (2018-2024).


Osasun-egoera neurtzearen osagarri gisa, EINSFOESSAn gaixotasun larriaren eta/edo osasun-arazo kronikoaren (46), urritasunaren edo desgaitasunaren diagnostikoa buruzko informazio zehatza ere jasotzen da (47). Atal honek biztanlerian eta, txosten honetan egiten den bezala, integrazio-/bazterkeria-mailetatik abiatuta identifikatutako taldeetan duten presentzia aztertzen du.

2024an, Euskadiko biztanleen %17,3k gaixotasun larri edo/eta osasun arazo kroniko, urritasun edo desgaitasun bat diagnostikatuta dute. Lurralde horretan, COVID-19az bestelako gaixotasunen eta arazoen presentzia %5,5 igo zen 2018-2021 aldian, eta duela sei urteko mailetara itzuli zen 2024an. Adierazle horrek Estatu osoan izan duen bilakaerak ere bost puntuko igoera izan du hasierako hirurtekoan, baina ez da gerora aldatu, eta %17 inguruan geratu da. Bi lurraldeak alderatuta, ikusten da Euskadik nagusitasun handiagoa duela 2018an eta 2021ean, gaixotasun kronikoekin eta/edo osasun arazo larriekin diagnostikatutako EAeko biztanleriaren ehunekoa Espainiakoa baino ehuneko lau handiagoa baitzen bi une horietan. Nolanahi ere, 2024an bi lurraldeak beherantz parekatzeak erakusten du bilakaera ez dela hain ona Espainiarentzat.

(46) EINSFOESSAk “osasun kronikoko arazo” gisa definitzen du gutxienez sei hilabeteko iraupena duena edo iraupen hori izatea espero dena.

(47) Hainbat unetan aipatu da nola COVID-19aren pandemiak baldintzatu zuen 2021eko galdetegiko galderen formulazioa eta 2024ko galdetegiko ondorengo aldaketak, huragaitu ondoren. Galdera horren kasu zehatzean, ez dago aldaketarik galderan (diagnostikatuta al duzu gaixotasun larriaren bat edo osasun kronikoko, urritasuneko edo desgaitasuneko arazoren bat?), baina bai erantzunean, baiezko kategorian bi aukera bereizten baititu: “Bai, COVID ez dena” eta “Bai, COVID”. Azterketa eta irudikapen grafiko hori egiteko, lehenengo aukera hautatu duten pertsonak bakarrik hartu dira kontuan, hau da, “Bai, COVID ez dena” erantzun dutenak.

64. GRAFIKOA. Gaixotasun larriren bat edo osasun-arazo kronikoren bat, urritasunen bat edo desgaitasunen bat diagnostikatuta duen biztanleriaren bilakaera Euskadin eta Espainian



Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024

Biztanleriaren gaixotasunak aldian-aldian jasotzen dira osasunari buruzko inkesta orokorretan, eta horien eragina eta nagusitasuna aztertzeko metodologia egokia eta zehatza dute. EINSFOESSAk alderdi horretan dituen mugak onartuta, soilik argigarri gisa eta aurreko datua osatzeko, 2024an elkarrizketatutako pertsonen diagnostikatuta dituzten **(48)** gaixotasunak, gaitzak edo arazoak jaso dira taula honetan. Biztanleen gaitzik ohikoenak zein diren adierazten du. Zerrendan osasun fisikoko gaixotasunak edo arazoak agertzen dira, gehienak eta zabalduenak, desgaitasunen bat, eta buruko gaixotasunak eta depresioa; inkesta honetan %4 eta %3 dira, hurrenez hurren. Hain zuzen ere, osasun mentalari eskaini zaio tarte azken edizioan, eta, hala, gizartearen dagoen kezkari erantzuten zaio. Eta horri dagokionez, aipatu beharreko datu bat da tratamendu psikologikoa behar duten eta hori lortzeko ezintasuna duten biztanleei buruzkoa dela. 2024an Euskadin eta Espainian biztanleriaren %3,5 eta %4,9 dago egoera horretan, hurrenez hurren.

(48) Inkestan diagnostikatutako gaixotasunen zerrenda luzea aurkezten da, biztanleek zer gaixotasun duten adieraz dezaten.

31. TAULA. Gaixotasun larriak edo osasun-arazo kroniko ohikoenak Euskadin eta Espainian (2024)

Gaixotasun mota %	Euskadi	Espainia
Bihotzeko gaixotasuna	12,0	8,5
Hezurretako gaixotasunak (artrosia, artritisa)	19,1	23,4
Diabetesa	7,0	11,5
Hipertentsioa	6,5	7,9
Asma	5,7	4,8
Arazo neurologikoak edo nerbio-sistema zentraleko arazoak	5,6	5,3
Kolesterola	4,8	4,0
Minbizia	3,8	6,9
Neurogarapenaren nahasmenduak	3,8	3,0
Zirkulazio-gaixotasunak	3,5	3,0
Urritasun fisikoa	3,4	4,0
Arnas sistema, alergiak	6,4	5,0
Gaixotasun mentalak	4,0	4,9
Depresioa	3,5	5,6

Iturria: EINSFOESSA 2024.

Beste aldagai batzuen araberako eraginen azterketa zehatzak mugak ditu, oso kolektibo gutxi baitira. Hori dela eta, gizarte-integrazioaren eta -bazterkeriaren maila guztietako gaixotasunen nagusitasuna aztertzean, osotasunarekin lan egin da, gaitz espezifikoak kontuan hartu gabe. Hala, hurrengo taulan, bazterkeria-maila guztietan gaixotasun larriak edo osasun-arazoak izan direla erakusten da. Lehenik eta behin, gaixotasunaren eta bazterkeriaren arteko lotura argirik ez dagoela ondorioztatzen da. Beste era batera esanda, gaixotasunen presentziak ez du aldi berean zaurgarritasuna areagotzen. Hala ere, datu batzuk aipatzea merezi du.

32. TAULA. Diagnostikatu al dizute gaixotasun larriren bat edo osasun-arazo kronikoren bat, urritasunen bat edo desgaitasunen bat?


%	Euskadi			Espainia		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024
Erabateko integrazioa	11,9	20,9	14,1	13,3	13,1	8,3
Integrazio prekarioa	26,7	27,8	21,8	22,6	23,6	20,2
Bazterkeria moderatua	18,6	22,5	17,9	20,4	18,9	15,0

%	Euskadi			Espainia		
	2018	2021	2024	2018	2021	2024
Bazterkeria larria	21,7	17,2	20,2	18,7	22,4	13,4
Guztira	17,0	22,5	17,3	13,1	18,2	17,8

Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2024.

Pentsatzekoa denez, gaixotasunak presentzia txikiagoa du biztanlerian erabateko integrazioaren testuinguruan, eta hori egiaztatu egiten da ondorengo inkestetan. 2024an aldea nabarmenagoa da Espainian, ehunekoa (%8,3) biztanleria osoan ordezkatzeko duenaren erdia baita (%17,8). Ez, ordea, Euskadin, gainerako taldeekiko ehuneko-aldaketak txikiagoak baitira. Erabateko integrazioaren lerroa igarota, gaixotasun larrien eta osasun kronikoko, urritasuneko edo desgaitasuneko arazoen presentziak gora egiten du. Bai integrazio prekarioaren testuinguruan, bai bazterkeria moderatu eta larriaren testuinguruan, eraginpeko biztanleriaren ehunekoa handitu egiten da. Eta integrazio prekarioan dauden biztanleen pisuari esker egiten du bereziki. Bi lurraldeetan ehuneko handiena talde horretan dago. 2024an, lau pertsonatik batek gaixotasun larriaren, arazo kronikoaren, desgaitasunaren edo urritasunaren diagnostikoa du; duela sei urte baino ehuneko bi (Espainia) eta ehuneko bost artean (Euskadi) gutxiago, nahiz eta sei urteko aldi osoan kolektibo kaltetuena den. Zalantzarik gabe, datu hori garrantzitsua da esku-hartze sozial eta sanitarioari begira; izan ere, txosten honetan ikusi den bezala, bazterkeriatik harago, osasunaren dimentsioan urritasunen eta gabezien inpaktu esanguratsuak ere gertatzen dira.

65. GRAFIKOA. Gaixotasun larriaren edo osasun-arazo kronikoaren, urritasunaren edo desgaitasunaren diagnostikoa duen biztanleria Euskadin eta Espainian, gizarteratze-mailaren eta bazterkeria-mailaren arabera. 2018-2024



Iturria: EINSFOESSA 2018, 2021 eta 2014.

8.2.3. Osasunaren dimentsioan gizarte-bazterkeriak eragindako familiak

Familien eta pertsonen ezaugarriek eta horiek egitura sozialean eta ekonomikoan duten posizioak gizarteratze-dinamikak eta -prozesuak azaltzen eta baldintzatzen dituztenez, atal honek Euskadin osasunaren dimentsioan dauden bazterkeria-egoeren eraginpeko familien %9,5en profila aztertzen du. Eta talde horrek Euskadiko laginean duen tamaina txikiak aztertzeke aukerak mugatzen baditu ere, eta ondorioak ateratzeko orduan kontuz ibiltzeko gomendatzen badu ere, gizarte-talde desberdinen osasun-bazterkeriako egoeraren banaketa aztertzeak ere aukera ematen du haien aurpegia zehazteko eta horrekin lotzen diren faktore soziodemografikoak hautemateko. Horretarako, eta gizabanakoen zein familien posizionamenduari erreparatuta, osasunaren dimentsioan bazterkeriaren profil soziodemografikoak aztertu dira.

33. taulak banakoen eta familien aldagaien banaketa jasotzen du, osasunean bazterkeria-gunearen osaera deskribatzeko, familia guztien banaketarekin alderatuta.

33. TAULA. Osasunaren dimentsioan gizarte-bazterkeriak eragindako familien profil soziodemografikoa. (Euskadi 2024)

	EAEko familiak Osasun-bazterkeria (N=57)	EAEko familiak Guztira (N=606)
Sexua [SN]		
Gizonezkoa	45,6	60
Emakumezkoa	54,4	39,3
Adina [SN]		
29 urtetik behera	3,5	7,1
30-44 urte	28,1	21,1
45-64 urte	35,1	42,9
65 urtetik gora	33,3	28,9
Egoera okupazionala [SN]		
Lanean	39,7	56,5
Lan bila	10,3	4,3
Pentsioa/aurretiko erretiroa.	29,3	28,2
Beste batzuk	19	10,9
Ikasketa-maila [SN]		
Eskola-graduatu arte, DBH	25,5	16,4
Goi-mailako Batxilergo arte	57,2	61,3
Emakumea da [B]	61,4	55,4
Landuna da [B]	46,6	67,1
Lan bila (azken 4 asteetan) [B]	46,2	33,5
Langabea da (2018ko irizpidea) [B]	24,1	10,2
Jatorri atzerritarra du [B]	33,3	18,3
Familiako kideen kopurua [E]		
Pertsona bakarra	31,6	20,5
2 eta 4 kide artean	56,1	72,4
5 kide eta gehiago	12,3	7,1
Guraso bakarreko nukleoa [E]	17,5	13,7
Ama seme-alabekin eta erantzukizun eskusiboarekin [E]	23,5	14,6
Familiaren jatorria [E]		
Guztiak jatorriz espainiarrak	65,5	79,1
Norbait jatorriko atzerritarrekoa	34,5	20,9

	EAEko familiak Osasun-bazterkeria (N=57)	EAEko familiak Guztira (N=606)
Pobrezia (2018an ainguratuta) [E]		
Ez-pobrea	22,8	41,2
Pobrezia moderatua	17,5	4,3
Pobrezia larria (%40)	15,8	3
Auzo mota [E]		
Auzoa egoera onean	78,9	85,6
Auzo degradatua, marjinala	21,1	14,4
LANDA urbanizazioaren maila [E]	19,3	10,1

Oharra: [SN] Sostengatzaille nagusia; [B] Banakoak; [E] Etxeak.

Iturria: EINSFOESSA 2024.

Ikus daitekeenez, osasun-gabeziak eta -zailtasunak dituzten familietako buru direnentzat alde nabarmenak daude biztanleriaren batezbestekoarekin alderatuta. **Horietan emakume gehiago daude, ikasketa-mailak behera egiten du, baita landunen ehunekoak ere, eta bikoiztu egiten da lan bila dabiltzanen ehunekoa.** Bertan bizi diren pertsonen ezaugarriei erreparatuz gero, berriz ere **biztanleria osoarenak baino okupazio-maila txikiagoak daude, langabezia bikoitza da, eta atzerritar jatorrikoak izateko probabilitatea ia bi aldiz handiagoa.**

Profil hori osatzeko, familiekin lotutako aldagai batzuek ematen duten informazioa erabiltzen da. Familia horien erdia 2-4 kidek osatzen dute, baina talde hori gutxiegi ordezkaturik dago bakarrik dauden pertsonen kontura (familia guztietan baino %11 gehiago), eta familia ugariak pisu handiagoa dute hemen, gutxi badira ere. Gainera, ikusten da **osasunaren bazterkeriaren eremuan familia gehiago daudela guraso bakarreko nukleoak dituztenak eta seme-alabak eta erantzukizun eksklusiboa duten amak dituztenak.** Eta **atzerritarren presentzia** bere profilean nabarmentzen den ezaugarri gisa berresten da. Gainera, eta espero litekeenez, **osasunaren eremuko bazterkeria pobreziarekin lotuta dago.** Pobrezia-egoeran ez dauden familien intzidentzia erdira jaitسي da, pobrezia moderatuaren presentzia lau aldiz handiagoa da, eta pobrezia larriaren presentzia, bost aldiz handiagoa. Eta gehienak baldintza onetan dauden auzoetan kokatutako familiak badira ere, auzo marjinaletako familien kopurua ere nabarmentzen da.

Azkenik, interesgarria da aztertzea bazterkeriaren eraginpean dauden familia horietako pertsonen osasuna eta ingurukoena nola hautematen duten.

Osasun-bazterkeria osasun fisikoaren eta mentalaren eta gogo-aldartearen balorazio okerragoarekin lotuta dago. Biztanleriarekin alderatuta, eta espero daitekeen bezala, osasun-bazterkeriaren eraginpean dauden familietan, talde horien egoera txarra edo erdipurdikoa dela adierazten duten taldeek beren ordezkaritza biderkatzen dute.

34. TAULA. **Pertsonen osasun fisiko eta mentaleko egoera osasun-bazterkeriaren eremuan.** (Euskadi 2024)

	Pertsonak EAE Osasun- bazterkeria	EAEko pertsonak guztira
Azken hamabi hilabeteetan, nola kalifikatuko zenuke zure familiako pertsona bakoitzaren osasun fisikoa?		
Oso + Nahiko txarra	12,7	4,3
Erdipurdikoa	21,80	12,7
Nahiko + Oso ona	65,5	82,8
Azken hamabi hilabeteetan, nola kalifikatuko zenuke zure familiako pertsona bakoitzaren osasun mentala?		
Oso + Nahiko txarra	5,6	3
Erdipurdikoa	17,60	7,2
Nahiko + Oso ona	76,7	89,8
Oro har, eta aurreko urtearekin alderatuta, nolakoa da zure gogo-aldartearen bilakera?		
Okerragoa	21,8	10,2
Berdina	62,7	66,7
Hobea	15,5	23

Iturria: EINSFOESSA 2024.

2018-2024 aldian osasun-gabeziaren egoerek eta horiei lotutako zailtasunek pertsonengan eta familiengan duten eraginari eta bilakaerari buruzko azterketak, bai eta EINSFOESSAtik abiatuta osasunean dagoen gizarte-bazterkeriari lotutako ezaugarriak eta faktoreak identifikatzeak ere, ebidentzia argiak ematen ditu gabezia horien eta laneko zailtasunen, jatorriaren, etxearen osaeraren edo pobreziaren arteko erlazioari buruz. Inkestaren emaitzek erlazio hori kokatu eta kuantifikatu egiten dute, osasuna gizarte-bazterkeriaren maparen osaeran integratzeko beharrari buruz zalantzarik utzi gabe, bai Euskadin, bai Espainian. Orain, pertsonen bizitzetan nola gorpuzten den aztertu behar da. Horri buruzkoa da hurrengo atala.

8.3. Zaurgarritasunera, gizarte-bazterkeriara eta osasun mentalera hurbiltzea Hirugarren Sektoreko langileen ikuspegitik

Euskal Autonomia Erkidegoan osasun mentalarekin batera gertatzen diren prekarietate-prozesuei eta gizarte-bazterkeriako prozesuei buruzko datuak aztertu ondoren, komeni da Hirugarren Sektoreko profesionalek arazo horri buruz duten pertzepzioa aztertzea. Arrazoia sinplea da: haiek dira zaurgarritasunak eta gizarte-bazterkeriak pertsona zaurgarrien errealitate zehatzean eta haien osasun mentalean duten eragina zuzenean ezagutzen dutenak, gizarteko kolektibo zaurgarrienekin lan egin eta haiei laguntzen dietenak direlako –etorkinak, bakarrik bizi direnak, guraso bakarrekoak, prekarietate- eta bazterkeria-egoeran dauden biztanleak, adinagatik, generoagatik, etniagatik edo desgaitasunagatik diskriminatutako pertsonak–.

Atal honen helburu nagusia Hirugarren Sektoreko profesionalek zaurgarritasunaren, gizarte-bazterkeriaren eta osasun mentalaren arteko erlazioei buruz duten pertzepzioa aztertzea da. Helburua da pertsona zaurgarrien beharrak eta zailtasunak hobeto ulertzea, politika bidezkoak eta inklusiboak garatzen eta ezartzen lagunduko duten esku hartzeko sistemak diseinatze aldera.

Informazioa lortzeko, datuak biltzeko bi tresna erabili dira: elkarrizketa sakona eta eztabaida-taldeak. Bi teknikak fase berean egin dira. Zehazki, honela jaso da informazioa:

- A. *Irabazi-asmorik gabeko erakundeetan lan egiten duten eta oinarritzko proiektuetan esperientzia eta inplikazio handia duten pertsonen elkarrizketakegitea.* Guztira lau elkarrizketa egin dira. Lehen helburua prekarietatea eta gizarte-bazterkeria definitzea eta faktore eragileak ikertzea izan zen. Bigarrena, osasun mentalean izan ditzakeen ondorioak ebaluatzea. Hirugarrena, buruko ondoeza duten pertsona zaurgarriek dituzten erronkak eta oztopoak aztertzea. Laugarrena, administrazioak eta Hirugarren Sektoreak pertsona horien beharrei eta eskaerei ematen dizkieten erantzunak aztertzea. Eta, bosgarrena, esku hartzeko ildo posibleak aztertzea.
- B. *Esku-hartzean eta lan komunitarioan ibilbide luzea duten pertsonen osatutako eztabaida-taldea.* Bi talde egin dira. Horietako bat Euskadiko Caritaseko profesionalek osatzen zuten. Bigarrena, EAEko hiru lurraldeetako hirugarren sektoreko puntako hiru erakundetako profesionalek. Lortu

beharreko helburuak elkarriketa sakonekin lortu nahi ziren berberak izan ziren. Taldeak online egin ziren.

Subjektuen bilaketa Bizkaiko Caritasen lankidetzarekin egin zen, eta haien partaidetza borondatezkoa eta ordaindu gabea izan zen. Elkarriketa gehienak Bilboko Caritas Riberaren lokaletan egin ziren. Elkarriketetan eta eztabaida-taldeetan laguntza-gidoia izan zuten. Elkarriketak eta taldeak grabatu egin ziren, parte-hartzaileen baimenarekin.

Kapituluak landa-lan horren emaitzak jasotzen ditu, eta honela egituratzen da. Lehenik eta behin, elkarriketatutako pertsonen diskurtsoan gizarte-zaugarritasuneko prozesuak azaltzen dituzten elementu sozialak aztertu ziren. Bigarren atalean, gizarte-bazterkeriako eta -prekarietateko egoerek pertsonen osasun mentalean dituzten ondorioak aztertu ziren. Hirugarren atalean, osasun mentaleko arazoak dituzten kolektiboek aurre egin behar izaten dieten zailtasunak aztertu ziren. Laugarren atalean, osasun mentaleko arazoak dituzten biztanle zaugarrien beharrei eta eskaerei erakunde publikoek ematen dieten erantzuna aztertu zen. Azkenik, bosgarren atalean, ikerketan parte hartzen zuten pertsonen proposatutako jarduera-ildoak adierazi ziren.

8.3.1. Prekarietatea eta gizarte-bazterkeria faktore anitzeko fenomeno konplexuak dira, elementu ekonomiko eta erlazionalen elkarguneak eragindakoak.

Profesionalen diskurtsoa aztertuta, prekarietateko eta gizarte-bazterkeriako egoeren azalpenak bi ardatz nagusitan kokatzen ditugu: ardatz ekonomikoa eta harreman-ardatza.

A. Ardatz ekonomikoa

Elkarriketek zaugarritasunari lotutako lau eremu handi ezartzeko aukera ematen dute: langabezia, lan-prekarietatea, soldata baxuak, prezioen igoera. Dimentsio horiek segurtasun-gabezia eta prekarietatean bizitzera behartzen dute biztanleriaren sektore esanguratsu bat, aurreikusi gabeko krisi batek edo intzidentzia txikiagoak bazterkeria-arriskuan jartzen baititu. Elkarriketatutako pertsonen arabera, zaugarritasunak beren bizitzaren kontrola ukatzen die.

Zaugarritasunaren zatiak egoera sozioekonomikoagoak jasotzen ditu, aukerak lortzeko ezintasuna; izan ere, pixka bat prekaritatearen muga biziz, jakina da zerbait falta denean, alde batera uzten dela. Eta hori alde batera erortzea edo beste batera erortzea da. Beraz, uste dut pertsona zaugarri horiek batzuetan pertsona normalizatuak direla, baina diru-sarrera oso baxuekin, oso muga, eta, orduan, egoera jakin batzuek alde batera edo bestera joatea eragiten dute (EIM).

Elkarrizketatutako pertsonak bizi-prekarietate hori egungo gizartea definitzen duen ezaugarri gisa interpretatzen dute, eta COVID-19aren pandemiaren etorrerak nabarmen areagotu zuen. Hala, aipatu dute -birusa agertu aurretik- lan-merkatuan sartzeak egonkortasun ekonomikoa bermatzen ziela familiei. Birusaz geroztik, lana izateak ez ditu gutxieneko bizi-baldintzak bermatzen. Testuinguru horrek guztiak segurtasunik eza eta beldurra eragiten ditu herritarrengan.

Ea, nik, hasi naizenetik orain arte, ikusten dut lehen pertsona zaugarriak edo arriskuan zeudenak, arrazoren batengatik zeudela egoera horretan. Azaldu dezadan. Lanean hasten baziren eta lanerako gaitasuna bazuten, aurrera egiten zuten. Lana zegoen. Bizi-egoera gogorrak zeuden, zailak, baina aurrera egiten zuten familiak ziren. Orain, gaitasun horrekin eta gainerakoekin lanean ari diren arren, erabateko pobrezia-arriskuan dauden langileak aurkitzen dituzu (EIM).

Eta prekarietatea, denok sentitzen dugu egia dela; izan ere, ikusten da lanbide batzuetan deitzen dizutela, ez dizutela deitzen. Lanaren prekarietatea, laguntza ekonomikoekin osatu behar dena. Halako gauza bat da... Eta inork ez du erreakzionatzen. Eta lehen ez zen gertatzen. (...) Ni batzuetan prekarietatean sentitzen naiz. Eta ez naiz sentitzen... Esan nahi dut... Baina nire alabak... Ikusten dituzu eta esaten duzu... Hau beldurra! Hau beldurra! (EMM).

Pandemiaren ondoren, zaugarritasuna zabaldu egin da, ezta? Agian lehen oso pobeak ziren, baina oraingo pobeak..., hau da, zaugarritasun handiagoa dago, adibidez, hilabete amaierara iristen ez diren familia arruntetan; daukatenarekin, ez dira hilabete amaierara iristen, ez dute hipoteka ordaintzeko beste diru (...) Beraz, denok dugu nolabaiteko segurtasunik eza, nik uste. Zer etorkizun dugu? (CGIM).

Profesionalek azpimarratu dute lan-prekarietateak pertsonak errotzeko eta gizarteratzeko faktore garrantzitsu bat mehatxatzen duela: etxebizitza. Lan-egonkortasuna, soldata txikiak, alokairuen eta etheen prezioaren igoera eta inflazioaren igoera -hori guztia elkartuta eta elkarri lotuta- direla-eta, familien sektore esanguratsu batek ezin die aurre egin alokairuei edo hipotekei, eta

kalean bizitzeko arriskua aurrez aurre izaten dute. Duela denbora gutxi arte pentsaezinak ziren egoerak dira, eta horrek haurren pobrezia nabarmen handitzea ere azaltzen du.

Etxebizitza. Nire ustez, batez ere etxebizitza da. Hau da, etxebizitzarako bideratu behar duten dirua eta eskaintzarik ez dagoela ikusita, niretzat aspaldi pentsaezina izango litzatekeen zerbait aurkitu dezakezu. Demagun, pertsona nazional bat ostalaritzan lanean ari dena, adibide bat jartzearen, lanaldi osoko kontratu batekin eta abarrekin, eta egoera prekario batean auto batean lotan egotea. Hori pentsaezina zen lehen. Izan ere, lan bat banuen eta kontratu bat banuen eta irabazten ari nintzen (EIM)

Etxebizitza-arazoak eragina izaten ari dira. Eragin galanta. Gainera, bolante sentsazioa da, lekurik ez izatearena, kokapenik ez izatearena (EMM).

B. Harreman-ardatza

Elkarrizketatutako pertsonen iritziz faktore ekonomikoak ez dira gizarte-zaugarritasuna azaltzen duten osagai bakarrak eta nagusiak. Aitzitik, ikerketa eta politika publiko askotan harreman- eta kultura-faktoreen axolagabekeria kritikatzeko dute.

Bai, urteekin horixe ikusten ari gara, ikusi dugu urteekin alde horretatik okerrera joan dela. Pertsona askok izan zitzaizkieten zailtasunak ekonomikoak zirelakoan, familiei eta pertsonari beste baliabide batzuk eman dizkiegu, baina baliabide komunitarioez ahaztu gara. Sareak ehuntzeko, auzotasuna ehuntzeko, nik uste dut ez dagoela auzo-sare garrantzitsurik. Ez dago eskailerako auzo-sarerik. Ez dago auzo-elkarteen auzo-sarerik edo desagertzen ari dira (ESM).

Diskurtso horiek gizarte indibidualista bat aipatzen dute, elkartasun gutxikoa, askotan berekoa, lehiakorra, balio-krisi betean dagoena, eta, ororen gainetik, arrakasta indibiduala eta dirua balioesten dituen. Gizarte zatikatuak, bazterkeria eragiten dutenak, komunitate, kide eta errotze, euskarri eta laguntza zentzua galdu delako, eta komunitaterik gabe -dela herria, auzoa, eskailera, etab.- elkartasunik ez dagoelako. Beraz, bigarren modernitateko gure gizarte sozilogiatik ematen zaizkien ezaugarriak inplizituki atzean dituzten diskurtsoak dira.

Eta beti adibide bera jartzen dut, oso adibide sinplea, baina niri oso grafikoa iruditzen zait. Ama Eskurtze auzoan hazi zen, auzo batean, Errekaldeko gunen batean, kito. Han norbait hiltzen zenean eta ehorzketa ordaintzeko dirurik ez zuenean, normalean ez zuten aseguruirik izaten, aseguruak eta ez baitziren existitzen. Eta orduan, auzoko jendearen artean, diru-bilketa txiki bat egiten zuten pertsona horren ehorzketa ordaintzeko. Gaur egun, hori gertatzen bazaizu, edo asegurua duzu edo Udalak ordaintzen dizu (EPV).

Zalantzarik gabe, ez da ukatzen gure gizartean eskubideak irabazi direnik, baina komunitatean galdu egin da: gutxitan gertatzen da komunitateko kide bati zerbait negatiboa gertatzen zaionean, gainerakoek pertsona horri laguntzeko zerbait egin beharra sentitzea. Gizarte indibidualizatu batez hitz egiten digute, non gizabanakoak independenteagoak diren, baina, aldi berean, gero eta isolatuago dauden. Eta harreman falta horrek eta komunitatearen zentzuaren galera horrek ezinbestean dakar bakardadea.

Prekarietate handiko langileen guneak, eta, gainera, drogek eta gainerakoek kolpatuak, ezta? Baina familiek euskarri izugarria zuten. Hau da, bat eginda zeuden. Adibidez, Otxarkoagan pertsona bat etortzen zitzaizun eta ama, amona, izeba,... (...). Proiektu bat egiteko, batez ere Gizakia Helburu, drogatik eta horrelakoetatik ateratzeko zena, eta laguntza eskatzen zuten. Hau da, eguneko 24 orduetan lagunduta egon behar zuten (...). Nire ustez, gaur egun, adikzioen tratamendua egiteko, adibidez, 24 orduz laguntzeko baldintza hori jarriko balitz... Ezingo litzateke. Pentsaezina litzateke. Orduan, niri, adibidez, detaile horrek lehengo eta oraingo testuinguruak nola ziren erakusten dit. Orain jende asko aurkitzen duzu, batez ere bakardadean bizi direnak. Hau da, gainerako guztiaz harago, bakarrik daudela esaten dute (EIM).

Zalantzarik gabe, lan-prekarietatea duten pertsonak, bizitzeko gizarte-prestazioen laguntza behar dutenak, harreman-laguntzarik gabe, erreko-nozimendu eta eginkizun sozial esanguratsurik gabe, azkenean erabateko autoestimua falta gertatzen da, edo, elkarriketatutako pertsona batek adierazi bezala, “betiereko egoera subdepresiboa” (EPV), askotan bazterkeria eragiten duena.

Bestalde, elkarriketatuen diskurtsoak gizarte batera garamatza, herritar asko ez zaintzeaz gain, beren bizitzako unerik batean gaizki pasatzen ari diren pertsonak estigmatizatzen eta erruduntzat jotzen dituenak. Eta populazio pribilegiatuak “ez dakit zertaz kezkatzen diren, laguntzak dituzte”, “laguntzak dituzte eta ez dituzte aipatzen nahi” aipatzen hasi dira.

Baina, nire ustez, landu ez duena, txikiteroa zelako, makinarekiko mendekotasuna zeukalako, gizarte-sare bat sortzen jakin ez duelako, nik daukadan hori benetan osatzen jakin ez duelako da. Nolabait, ez dakit merezi duen, baina oraindik badago pentsamendu hori, gaur egun baliabideak daudela pentsatze hori, eta bost kartoiren artean Corte Ingleseko baxuetan lo egiten ari bada, nahi duelako dela. Nik nolabaiteko elkartasunik eza sumatzen dut, eta gero baliabide batzuk daudenean eta poltsikoa ukitzen denean, dirua betikoentzat dela esaten dute (ESM).

Nik ez badut ezertarako balio, inork ez badu aitortzen zer egiten dudana, eta, gainera, bizitza osoa igaro behar dut esaten dizkidaten ondorio negatiboen aurka borrokan, nire erruz direlakoan, hau ez da bizitza eta ez da ezer (EPV).

Koordenatuta horietatik, gizarte honetan baztertuta eta egoera zaugarrian dauden pertsonen oztopo handiak dituzte beren egoeratik ateratzeko. Ulergarria da, beraz, bide faltsuak hartzea, beren egoera aldi baterako ahazteko aukera ematen dietenak, baina, aldi berean, txertatuta dauden zaugarritasun-zirkulua indartzen dutenak: droga eta sare sozialen konpainia faltsua.

8.3.2. Buruko eta bizitzako ondoezak gizarte hauskor eta baztertzaile batean hondoratzen ditu bere sustraiak

Diskurtsoek azpimarratzen dute baldintza sozioekonomiko kaltegarriek osasun mentalean duten eragin negatiboa, eta patologien nagusitasuna eta larritasuna eragiten dute. Hala ere, elkarrizketetan harreman-testuinguruaren garrantzia ere agertzen da; izan ere, beren lanbide-esperientziak erakutsi die gizarte-testuinguruetan eta familia-testuinguru egonkorretan patologia mental larriak dituzten gaixoei aukera handiagoak dituztela bizi-proiektu iraunkorrak garatzeko eta nolabaiteko oinarritzko ongizatea lortzeko.

Hau da, pertsona egonkortu egiten da gaixotasunean, eta ez du zertan bazterkeriara igaro. Gaixo kronikoa besterik ez da, gaixotasun fisikoarekin izan litekeen bezala. Kontua da aukerarik ez dagoenean, ez daudela gauzak errazten dituzten euskarri horiek guztiak. Osasun fisikoarekin gertatzen den bezala. Ez da gauza bera gaixotasuna bitartekoekin edo bitartekorik gabe. Bada, horrekin berdin gertatzen da (EIM).

Beraz, gizarte-testuinguruak gizarte-prekarietateko egoeran dauden pertsonen osasun mentalean duen eragina zehazterakoan, ardatz ekonomiko bat eta harreman-ardatz bat bereizi behar dira.

A. Ardatz ekonomikoa

Diskurtsoek zeregin erabakigarria ematen diote faktore sozioekonomikoek osasun mentalean duten eraginari. Hala, prebentzioari buruz hitz egitean, eztabaida-talde bateko partaide batek honako hau adierazi zuen: “ez litzateke suizidioaren prebentzio hoberik egongo mundu guztiak etxebizitza duina, lan duina eta gozatzeko eta elkarreraginerako espazioak izatea baino, egin daitezkeen politiketatik harago” (EJSF).

Beraz, gizarte-bazterkeriak eragina du buru-nahasteen garapenean, beren lanbide-esperientzian egiaztatu baitute baliabide ekonomiko eskaseko maila ekonomiko batekoa izateak, egoera txarrean dauden etxebizitzekin -baita etxebizitzarik gabe ere- eta hezkuntza-maila baxuarekin egoteak, osasun mentaleko arazoak izateko aukera ematen duela. Aldi berean, alkoholaren edo beste droga batzuen kontsumoa areagotzen duen egoera da. Gainera, sarritan, era askotako ezintasunak egoten dira.

Bestalde, desberdintasun sozialak eragin nabarmena du patologia mentalen tratamenduan, eta osasun-zerbitzuetara jotzeari eta jasotako arretaren kalitateari eragiten die. Pobrezia-egoeran dauden pertsonak ezin dute onartu arreta psikologikoaren edo psikiatrikoaren kostua, eta horrek mugatu egiten die beharrezko tratamenduak jasotzeko aukera. Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsona zaurgarrien zailtasunek betikotu egin dezakete pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren zikloa.

Ni medikuarengana depresio-ezaugarriekin joaten naiz, agian psikologo bat behar dut, baina agian une horretan osasun mentaleko arazo bat badut, dena delakoagatik azkenean psikologo pribatu batengana jo behar dut antsietate hori sendatzeko, depresio hori, baliabide ekonomikoak izan ditzakedalako eta psikologo bat ordaindu dezakedalako. Baina prekarietatean dagoen pertsona batek osasun mentaleko medikuarengana joan beharko du; ez dakit osasun mentalera bideratuko duten, hau da, ilara luzeetara, oraindik zerbitzu-sare asko behar da osasun mentaleko tipologia horiek guztiak tratatzeko, eta orain profesional gutxi daude (CGIM).

B. Harreman-ardatza

Nolanahi ere, pertsona guztiak bat datoz gaixotasun mental orok gaixoei laguntzea eskatzen duela esatean. Aitzitik, pertsonak -ikusidene bezala- bakarrik daude eta bakarrik sentitzen dira. Koordinatu horietatik, elkarrizketetan azaltzen da gero eta ohikoagoa dela takikardiak, urdaileko arazoak, estresa, depresioa eta, are, suizidio-arazo autolitikoak dituzten pertsonak hirugarren sektoreak artatutako zentroetara joatea. Eta kezkagarriena da “nire ustez, handitzen ari da, gai hau” (CGIM), eta sufrimenduaren adierazpen larriena ere areagotzen du, suizidioa, alegia. Gaur egungo gizarteetako tentsio sozial, ekonomiko eta kulturek nahasmendu mental eta emozionalak nabarmen handitzen lagundu dute.

Diskurtsoen azterketa batek agerian uzten du gizabanakoak gizarte-kategoria eta -erakundeekin (hala nola komunitatearekin, auzoarekin, bizilagunekin, elizarekin eta abarrekin) zituen lotura tradizionalen haustura; izan ere, haiek ematen zioten segurtasunak ahultzen dira, eta prozesu guztiak bere ongizate emozionalari eta mentalari eragiten dio.

Bada, nire ustez, arriskueta bat antsietatea eta depresioa da, eta beste bat gizarte-isolamendua, laguntza-sarerik ez dagoelako. Beste arrisku garrantzitsu bat autoestimu baxua eta itxaropenik eza da, eta hor sartuko litzateke aurreiritzien eta estigmaren gaia. Eta hori guztia oso garrantzitsua iruditzen zait, halaber, pertsona mota horiek guztiek bizi duten etengabeko ziurgabetasunak eta osasun mentaleko zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak eragindako estres kronikoa, oztopo ekonomiko eta sozial asko baitaude (CGFM).

Bestalde, diskurtsoen arabera, buru-patologiengaineko aurreiritziek eta estigmek eragotzi egiten diete pertsonari gaixotasuna modu egokian bizitzea. Are gehiago, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak bazterkeriaren eta gaixotasunaren gurgilean hain sakon sartzen dituzte, non azkenean beren nortasunaren parte direla uste baitute. Eragindako pertsonen badakite beren buruko ondoreak zer gutxiespen dakarren.

Erdian daudenak jabetzen dira batzuetan ezin dutela, batez ere lanagatik, ezin diotela enplegu bati jarraipena eman edo elkarrizketei ekiteak beldurra ematen diela, eta gero ez dute esaten edo badira esaten dutenak, esaten dutenak eta gero baztertzen dutenak, eta dena kontatu behar ez duten haiekin lan egin behar duzu (EIM).

Elkarrizketetan eta eztabaida-taldeetan zehar ez da falta izan diskurtsorik estigmaren pisua egozten dionik erakundeek askotan oinarrizko eskubideak zapaldu izanari.

Gaixo mentalak, seme-alabak dituztenak. Erabateko estigma. Nik ama batzuk askoz arriskutsuagoak ikusten ditut, ondoez emozionala dutenak, seme-alabekiko nahiko paranoikoak, gaixotasun mentala duten emakume gaixo mentalak baino, sentsazio mugatu samarra eman diezazuketenak. Baina ama bikainak dira, oro har. Baina Aldundiak ez du errukirik izan. Seme-alaba asko eta asko kendu dira (EMM).

Estigmak baztertu egiten du, eta askotan eragozten du ondoez emozionala edo mentala duten pertsonen laguntza eskatzea une jakin batean, baita beren gaixotasuna ukatzea ere. Horrez gain, diskurtsoetan estigma zenbait fisionomiarekin agertzen da, baina horiek guztiek gaixoaren estresa areagotzen dute, buruko arazoak ukatzera behartzen dute eta sendatze-prozesua hastea zailtzen diote. Estigmaren ondorioz, pertsonen gaixotasuna isilpean bizitzen dute, isilpean eta beldurrez. Estigmaren aurpegi batzuk hauek izan daitezke:

- Genero-estereotipo hegemonikoak oztopatzen dituen estigma bat: gaixotasunak edo ondoez emozional iragankor soilak eragotzi egiten die gizonen eta emakumeen beren genero-aginduak betetzea eta garatzea, hornitzea eta zaintzea, hurrenez hurren.
- Estigma aurreiritzi kultural gisa, hau da, bitarteko kulturaletako pertsonetan jarduten duenean, non gaixotasun mentala -eromena- tabu gisa agertzen den, hitz egiten ez den zerbait bezala, sorginkeriarekin edo begizkoarekin lotutako zerbait bezala.
- Emozioen estigma esterilizatzailea, pertsonengan egoera emozionalaren irakurketa faltsuak eragiten dituenak. Beren beldurren, antsietateen, estresaren eta erreakzio oldarkorren irakurketa sakon eta lasaia egin ezinik, medikazio hutsean bilatzen dute konponbidea.

8.3.3. Ondoez emozionalak eta mentalak gizarte-talde guztiei eragiten diete, baina bereziki pertsona zaurgarrienei eta gizarte-bazterkeriako egoeran daudenei.

Elkarrizketatutako pertsona guztiak bat datozesatean osasun mentaleko arazoak gainditu egiten dituztela klaseko, etniako, generoko eta adineko oztupoak, eta gizarte-talde guztiei era askotara eta era konplexuan eragiten dietela. COVID-

19aren pandemiak areagotu egin ditu baldintza horiek, osasun mentalak maila sozial guztietan duen hauskortasuna agerian utzi du, eta nahasmendu horien arretan eta prebentzioan ikuspegi holistikoago baten beharra erakutsi du.

Hala ere, onartzen dute ondoez emozionalak eta mentalak edozein pertsonari eragin diezaiokeela, baina faktore sozial eta ekonomikoek berebiziko garrantzia dutela esperimentatzeko eta lantzeko moduan. Migratzaileak, pobrezia-egoeran dauden pertsonak eta genero-, etnia- edo desgaitasun-arrazoiengatik diskriminazioa jasaten duten pertsonak egoera zaurgarriagoan daude, eta horrek areagotu egin dezake haien sufrimendu emozionala. Osasun mentaleko zerbitzu egokietarako sarbiderik eza, osasun mentaleko arazoei lotutako estigma eta laguntza-sarerik ez izatea dira kolektibo horiek dituzten oztopoetako batzuk.

8.3.3.1. Gazteak

Gazteei buruzko diskurtsoen analisiak adierazten du elkarrizketatutako pertsonak kezkatuago daudela gazteen bazterkeria-egoerak eta buruko ondoeza eragiten dituzten gizarte-baldintzak deskribatzeaz, dagoeneko baztertuta geratzeko arriskuan dauden gazteen osasun mentalean eragiten duten faktoreak azaltzeaz baino. Agian, prebentzioak kezkatzen dituelako eta txertatuta dauden errealitate sozialetik abiatuta soilik ikusten dutelako posible prebentzioa.

Nolanahi ere, elkarrizketetan egungo gazteen ezaugarri gisa hutsune existentziala agertzen da, hau da, munduan egoteko asmo, norabide eta esanahi falta. Ia xederik gabeko eta bizi-helbururik gabeko gazteak dira, hutsune sententzioa dutenak, beren nortasuna eta munduan duten lekua zalantzan jartzera eramaten dituztenak, eta horrek, kasu askotan, sufrimendu emozional sakona dakar. Ez dakite zer nahi duten eta beren burua ere ez dute ezagutzen. Horri familia-egoera desagituratua eta babesgabetasuna gehitzen bazaizkio, bazterkeria eta buruko ondoeza izateko arriskua biderkatu egiten da.

Aldi berean, familiek eta ingurune permisiboak gehiegi babesten duten belaunaldia da, baina, ordainetan, oso bakarrik daude eta oso bakarrik sentitzen dira, ahulagoak eta zalantzatiak dira, nahiz eta, egia esan, oso lehiakorra den gizarte bati aurre egitea eskatzen zaien -behar duten tresnarik eta heldutasunik gabe-. Arrakasta lorpen material eta sozialen arabera neurtzen den mundu batean, gazte askok uste dute ez dituztela betetzen itxaropen horiek, eta horrek frustrazioa, etsipena eta ondoez emozional eta mentala ekar ditzake.

Gizarte indibidualista batean hazteak, non irudiak pisu handia duen eta pertsonak askotan bakarrik dauden, frustraziorako prestakuntzarik gabe, etorkizun zalantzagarria dutela, eguneroko zailtasunei eta porrotei aurre egiteko tresnarik gabe, adingabeen, batez ere nerabeen, eta gazteen arteko ondoez emozionala areagotzea azaltzen du, autolesioetara eta, are, suizidiora ere irits daitekeena.

Gizarte guztiz merkantilista batean murgilduta, dirua beren egoeratik ihes egiteko ate bihurtu dute. Diruak lagunak erosten ditu, diruak osasuna erosten du, diruak dibertsioa erosten du, diruak ongizatea erosten du, diruak dena ematen du eta dirurik gabe ez dago ezer. Beren helburua bizitzan dirua azkar eta erraz izatea da.

Esaten dizute: (...) “diruak osasuna erosten du, diruak lagunak erosten ditu, diruak maitasuna erosten du, hau da, zein da nire arazoa, esaten dizut (...), zein da nire arazoa, dirurik ez daukadala”. “Nik dirua badut, lagunak ditut, dirua badut...”. “Dirua baduzu, etxe bat, gela bat..., horra arte onartuko dizut, jakina, diruak honetarako ematen baitizu..., baina zuk benetan uste duzu diruak adiskidetasuna erosten duela?”. “Beno, baina nire lankideak gonbidatzen badituzte, nirekin daude”. “Hori adiskidetasuna al da?”. “Beno, baina ez dut laguntzarik behar” (ESM).

Harremanen merkantilizazio hori zirkulu bat da, eta zaila egiten zaie bertatik irtetea; izan ere, giza harremanak merkaturatu diren testuinguru bat bizi dute: harremanak laburrak dira, interesean oinarritzen dira, ez dago inolako konpromisorik... Eta ez baduzu, hutsik.

Hala ere, badirudi neskek gehiago eusten diotela harremanetako dimentsio afektiboari, hau da, lotura emozionalak bilatzen dituzte beren harremanetan, konfiantzazko lagunak. Hala ere, bikotekideek induten lotura moduari dagokionez –zaintza, babesa eta segurtasuna eskatzen baitiete–, mendeko harreman baten berezko elementuak daude, abusu- eta indarkeria-egoeretarako eremu egoki bihurtu daitezkeenak.

Sare sozialek funtsezko zeregina dute gazteen munduan egoteko, eta itxura batean kontraesankorra da, baina bizi-atsekabe bera eragiten du. Alde batetik, adiskidetasun-sarerik ezean, beren bakardadeari ihes egiteko tresna gisa erabiltzen dituzte:

Orduan, zein da beren ongizatea? Bakarrik ez egotea eta bakarrik ez egoteko, zer behar duzu? Dirua. Eta zirkulu hori da etengabe; izan ere, gainera, gazteetako batekin tutoretzapean nengoela, galdetzen banion: baduzu lagunik?, benetako lagunik? Eta Chatgpt esaten dit, eta esaten diot, barkatu? eta esaten dit, bai, chatgpt, hori da nire lagunik onena, dena galdetzen diot, nahi al duzu proba bat egitea? Bai, erakutsiezadazu bidea, proba bat egingo dugu, eta orduan gpt esaten dio: nire lagunik onenaren neskalaguna gustatzen zait eta ez dakit zer egin eta abar, eta dena erantzuten dio. Eta gazte horrek ere izan zituen zailtasunak lehendik, eta esaten du badirela online psikologoak, larrialdiko psikologoak, antsietate- edo izu-atakeren bat badut, antsietate-atake asko baitaude, deitzeko. Eta esaten diot, baina ez duzu uste hobe denik profesional batekin harremanetan jartzea, pertsona batekin, lehenik pertsona batekin, eta pertsona hori profesionala izatea. Ez (ESM).

Baina, bestalde, sare sozialen eragina ere funtsezkoa da hutsune hori sortzeko. Itxuraz perfektuak diren beste batzuen bizitzekin etengabe alderatzeak areagotu egin dezake gutxiegitasunaren eta bakardadearen sentrazioa. Gazteak, arrakasta- eta zorientasun-irudiak online ikustean, beren errealitatetik are deskonektatuago senti daitezke, eta horrek asegabetasun- eta hutsune-ziklo bati laguntzen dio.

Hutsune horri ematen zaion erantzunik ohikoenetako bat hainbat drogaren erabilera da, eta hori gazteen bizitzako larritasunari eta ziurgabetasunari aurre egiteko ihesbide bihurtzen da. Alkoholak eta substantzia psikoaktiboek aldi baterako euforia sentrazioa, min emozionala arintzea eta errealitatetik deskonektatzeko modu bat eskain dezakete. Hala ere, arintze hori ziklo suntsitzaile bihurtzen da, existentzia hutsa betikotzen duena eta patologia mental garrantzitsuak ekar ditzakeena.

Gizarte indibidualista bat, non irudiak pisu handia duen, jendea jendez inguratuta dagoela dirudien, baina frustrazioak eta ikusten ari diren etorkizunik ezak bakarrik eragiten duten (...) oso eskura dugin zerbaitekin ihes egiten laguntzen die gazteei, hau da, gure belaunaldian eskura ez genituen adikzioekin, jokoarekin, drogekin eta alkoholarekin, zeina erabat normalizatuta baitago eta, jakina, hori guztiontzat eskuragarria baita. Eta, hori ez ezik, adikzio horien ondorioz osasun mentaleko arazo larriak izan dituzten gazte asko ezagutu ditut, drogak hartzeagatik, eskizofreniagatik, diagnostikatuta daudenak (...). Nik uste dut bizi garen gizartea ez dela onuragarria gazteenganako osasun emozional horretarako, uzten ari gatzazkien ondare horretarako (CGCHM).

Beraz, gazteak bazterkerian eta buruko ondoezean erortzeko arrisku etengabea hautematen dituzten diskurtsoekin egiten dugu topo. Bigarren modernitatearen gizartearen jostailu hautsiak dira.

8.3.3.2. Migratzaileak

Migrazioa areagotuz joan da azken urteotan Espainiako gizartean, eta -elkarriketatutako pertsonen arabera- kolektibo hori bereziki zaurgarria da gizarte-bazterkeriako egoeran erortzeko. Migratzaileak hainbat arrazoiengatik iritsi dira: aukera ekonomiko hobeak bilatzeko, gatazketatik ihes egiteko, jazarpen politikoa edo bizitza seguruagoa bilatzeko. Nolanahi ere, migrazioa esperientzia estresagarria eta traumatikoa da, eta eragin nabarmena du gizabanakoen osasun emozionalean eta mentalean.

Migrazioak, askotan, senideak, lagunak eta komunitateak atzean uztea dakar. Banantze horrek galera- eta dolu-sentimenduak sor ditzake, eta maneiatzen zailak izaten dira.

- Fernández, J. (2017). *Impacto de la exclusión social en la salud mental*. Valentzia: Editorial Universitat Politècnica de València.
- FOESSA (2022). *Evolución de la cohesión social y consecuencias de la COVID-19 en España*. Madril: FOESSA.
- Fundación Mutua Madrileña (2023). *La situación de la salud mental en España*. Madril: Fundación Mutua Madrileña.

- García, A., eta López, M. (2015). Juventud y salud mental: Un enfoque sociológico. *Revista de Estudios Sociales*, 52, 45-60.
- Gómez Ramos, T. (2017). *Personas sin hogar. Un análisis de género del sinhogarismo*. Málaga: UMA editorial.
- González, A. (2015). *Exclusión social y salud mental: un enfoque multidimensional*. Madril: Editorial Síntesis.
- González, M. J. (2018). *Sin hogar: una mirada desde la sociología*. Bartzelona: Ediciones del Serbal
- Haidt, J. (2024). *La generación ansiosa*. Bartzelona: Paidós.
- Hammarström, A., Virtanen, P. eta Janlert, U. (2011). Are the health consequences of temporary employment worse among low educated than among high educated? *European Journal of Public Health*, 21(6), 756-761. <https://doi.org/10.1093/eurpub/ckq135>
- Inglehart, Ronald (2001) Modernización y posmodernización. El cambio cultural, económico y político en 43 sociedades. Madril: CIS.
- Inglehart, Ronald y Welzel, Christian (2006). Modernización, cambio cultural y democracia. Madril: CIS.
- EIN (2023). *Mujeres y hombres en España*. Madril: Ministerio de Sanidad, Consumo y Bienestar social, EIN.
- Informe PRESME (2023). *Precariedad laboral y salud mental. Conocimiento y Políticas*. Madril: Gobierno de España, Vicepresidencia Segunda del Gobierno, Ministerio de Trabajo y Economía.
- Julià, M., Vives, A. eta Tarafa, G. (2017). Changing the way we understand precarious employment and health: Precarisation affects the entire salaried population. *Safety Science*, 100, 66-73.
- Karasek, R.A. (1979). Job Demands, Job Decision Latitude, and Mental Strain: Implications for Job Redesign. *Administrative Science Quarterly*, 24, 285-308.
- Lassalle, M., Chastang, J.F. eta Niedhammer, I. (2015). Working conditions and psychotropic drug use: Cross-sectional and prospective results from the French national SIP study. *Journal of psychiatric Research*, 63, 50-57.
- Lewkowicz, I. (2004). *Pensar sin Estado: La subjetividad en la era de la fluidez*. Buenos Aires: Paidós.
- López, A. M. (2012). *Viviendo en la calle: Testimonios de personas sin hogar*. Málaga: Ediciones Aljibe.
- López, M. (2018). *Salud mental y exclusión social: un reto para la sociedad*. Bartzelona: Editorial Graó.

- Lucas, J. de (2016). *La exclusión social y los sin hogar*. Valentzia: Tirant Lo Blanch.
- Llosa, J. A., Agulló-Tomás, E., Menéndez-Espina, S., Rodríguez-Suárez, J., eta Boada-Grau, J. (2020). Incertidumbre Laboral, Salud Mental y Apoyo Social en trabajadores pobres. *Athenea Digital. Revista De Pensamiento E investigación Social*, 20(1), e-2178. <https://doi.org/10.5565/rev/athenea.2178>.
- Llosa, J.A., Menéndez-Espina, S., Agulló-Tomás, E., Rodríguez-Suárez, J., Lasheras-Díez, H., eta Saiz-Villar, R. (2019) La psicopatologización del trabajo: el estado de malestar del sujeto responsable. *Aposta, Revista de Ciencias Sociales*, 80, 82-97. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=495960725005>.
- McKee-Ryan, F., Song, Z., Wanberg, C.R., eta Kinicki, A.J. (2005) Psychological and physical well-being during unemployment: a meta-analytic study. *The Journal of Applied Psychology*, 90(1), 53-76. DOI: 10.1037/0021-9010.90.1.53.
- Magallanes Sanjuan, A. (2011). El estigma de los trastornos mentales: discriminación y exclusión social. *Quaderns de psicologia*, 13(2), 7-17.
- Martínez, R. (2019). *Salud mental y vulnerabilidad social*. Sevilla: Editorial Alfar.
- Martínez, I. eta Fernández, J. (2018). La construcción social de la salud mental en la adolescencia. *Sociología y Salud*, 10(1), 23-40.
- Miguélez F. eta Prieto C. (2009). Transformaciones del empleo, flexibilidad y relaciones laborales en Europa. *Política y Sociedad*, 46(1), 275-287.
- Mills, M. C., Blossfeld, H. P., & Klijzing, E. (2005). Becoming an adult in uncertain times: a 14-country comparison of the losers of globalization. In H. P. Blossfeld, E. Klijzing, M. Mills, & K. Kurz (Arg.), *Globalization, uncertainty and youth in society* (393-411). Routledge.
- Muñoz, M. et al. (2009). *Estigma y enfermedad mental*. Madrid: Universidad Complutense.
- Panadero, S. et al. (2017). Consumo de alcohol entre personas sin hogar y en riesgo de exclusión en Madrid. *Adicciones*, 29(1), 33-36.
- Pedersen, D. (2009). Estigma y exclusión en la enfermedad mental: Apuntes para el análisis e investigación. *Acta psiquiátrica y psicológica de América Latina*, 1, 39-50.
- Pérez, S. (2020). *La relación entre exclusión social y trastornos mentales*. Bilbo: Editorial Desclée de Brouwer.
- Pérez, C. eta Gómez, L. (2016). Juventud y vulnerabilidad psicosocial: Un análisis desde la sociología. *Revista de Sociología*, 34(2), 78-95.
- Piketty, Th. (2013). *El capital en el Siglo XXI*. Bartzelona: RBA.

- Popay, J. (2010). Understanding and tackling social exclusion. *Journal of Research in Nursing*, 15(4), 295-297.
- Portera, A. (2006). *Globalizzazione e Pedagogia interculturale*. Trento: Erikson.
- Porthé V. (2009). Proyecto ITSAL. La precariedad laboral en inmigrantes en situación irregular en España y su relación con la salud. *Gaceta Sanitaria*, 1, 107.-14. or.
- Quesnel-Vallée, A., DeHaney, S., eta Ciampi, A. (2010). Temporary work and depressive symptoms: a propensity score analysis. *Social science & Medicine*, 70(12) 1982-1987. <https://pmc.ncbi.nlm.nih.gov/articles/PMC3762747/>.
- Quinlan, M., Mayhew, C., eta Bohle, P. (2001). The global expansion of precarious employment, work disorganization and consequences for occupational health. *International Journal of health services*, 31(2), 335-414. DOI: 10.2190/607H-TTV0-QCN6-YLT4.
- Roca, P., Panadero, S., Rodríguez-Moreno, S., Martín R.M. eta Vázquez, J.J.. (2019). The revolving door to homelessness. the influence of health, alcohol consumption and stressful life events on the number of episodes of homelessness. *Anales De Psicología*, 35(2), 175-180. <https://doi.org/10.6018/analesps.35.2.297741>.
- Rodríguez, C. E. (2021). Vencer los estigmas para mantener la salud mental en tiempos de incertidumbre. *Revista Repertorio de Medicina y cirugía*, 308(1), 1-3.
- Rojas, C., eta Valenzuela, J. (2020). Impacto del contexto social en la salud mental juvenil. *Revista Chilena de Sociología*, 38(1), 15-30.
- Sánchez, M. eta Torres, E. (2014). La relación entre redes sociales y salud mental en jóvenes. *Sociología y Salud Mental*, 8(2), 101-115.
- Sánchez Moreno, E., De la Fuente Roldán, IN., eta Gallardo Peralta, G. (2019). *Gran recesión, desigualdades sociales y salud en España*. Madril: Cáritas Española.
- Sanchis-Ruiz, A., Varela-Hall, C., Martins-Muñoz, G., eta Díaz-Sotero, M. (2013). Riesgo psicosocial de los trabajadores inmigrantes en España. *Medicina y Seguridad del Trabajo*, 59(232), 345-360. <https://dx.doi.org/10.4321/S0465-546X2013000300005>.
- Subirats, Joan [Zuz.] (2004). *Pobreza y exclusión social: un análisis de la realidad española y europea*. Bartzelona: Fundación La Caixa.
- Tezanos, J. F. (2022). *La sociedad dividida. Estructuras de clases y desigualdades en las sociedades tecnológicas*. Madril: Biblioteca Nueva.
- Theorell, T., Karasek, R.A. eta Eneroth, P. (1990). Job strain variations in relation to plasma testosterone fluctuations in working men - a longitudinal study. *Journal of Internal Medicine*, 227, 31-36.

- Theorell, T., Hammarström, A., Aronsson, G. et al. (2015). A systematic review including meta-analysis of work environment and depressive symptoms. *BMC Public health*, 15, 738. <https://pubmed.ncbi.nlm.nih.gov/26232123/>.
- Tomba, E., Scott-Marshall, H., Dolinschi, R., Trevithick, S., eta Bhattacharyya S. (2007). Precarious employment experiences and their health consequences: Towards a theoretical framework. *Work*, 28(3), 209-224.
- Torre-Luque, A., Perez-Diez, I., Pemau, A., Martinez-Ale, s G., Borges, G., Perez-Sola, V., eta Ayuso-Mateos, J.L. (2024) Suicide mortality in Spain during the COVID-19 pandemic: Longitudinal analysis of sociodemographic factors. *Neuropsychopharmacol*, 82, 29-34.
- Touraine, A. (2000). *Igualdad y diversidad. Las nuevas tareas de la democracia*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- Usategui, E. eta Valle, A. I. de (2019) *Retos educativos para la escuela y la familia. Documento de trabajo para el VIII Informe FOESSA*. Eskuragarri hemen: <https://www.foessa.es/main-files/uploads/sites/16/2019/05/5.4.pdf>
- Utzet, M., Valero, E. eta Mosquera, I. (2019). Precariedad laboral y salud mental, entendiendo una realidad compleja: una revisión sistemática. *OPIK Working papers/Lan koadernoak* 5. <https://www.ehu.es/documents/3638427/0/Working+paper+5+Utzet/ca7f6f68-3810-fbed-c84c-f88e44fcb18d>.
- Valero, E., Martin, U., Bacigalupe, A., eta Utzet, M. (2021). The impact of precarious jobs on mental health: a gender-sensitive literature review. *International archives of occupational and environmental health*, 94, 577-589.
- Villegas, C., Ibabe, I., eta Arnoso, A. (2021). People at risk of social exclusion: Mental health, structural-economic factors and sociocultural factors. *International Journal of Social Psychology*, 36(1), 122-148.
- Virtanen, P., Hammarström, A., eta Janlert, U. (2016). Children of boom and recession and the scars to the mental health--a comparative study on the long term effects of youth unemployment. *International Journal of Equity Health*, 20. <https://pubmed.ncbi.nlm.nih.gov/26792092/>.
- Vives, A., Amable, M., Ferrer, M., Moncada, S., Llorens, C., Muntaner, C., Benavides, F.G. eta Benach, J. (2013). Employment precariousness and poor mental health: evidence from Spain on a new social determinant of health. *Journal of environmental and public health*, 2013(1). <http://dx.doi.org/10.1155/2013/978656>.
- Verd, J. M. eta López-Andreu, M. (2012). La inestabilidad del empleo en las trayectorias laborales. Un análisis cuantitativo. *REIS*, 138, 135-148.

Metodologia

A. UNIBERTSOA, LAGINA ETA ERRORE-MARJINA

1. Galdetegiak aplikatzeko prozedura

EINSFOESSA inkestak Espainiako familia-unitateetako pertsona guztiei buruzko informazioa biltzen du. Beraz, bi azterketa-maila nagusi ditu: familia-unitateena eta biztanleriarena. Euskadiko eta Espainiako familia-unitate guztien multzoak eta familia-unitate horietako kide guztien multzoak osatzen dute azterlanaren unibertsoa.

Espainiarako, lagin teorikoa 12.483 galdetegi izango zirela erabaki zen. Euskadirako, berriz, guztizko lagin teorikoa 600 galdetegi izango zirela finkatu zen: 400 galdetegi bazterkeria-zantzuak dituzten familia-unitateetarako, eta beste 200, halakorik ez dutenatarako. Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, familia-unitateen kopuruaren proportzioan banatu ziren Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko probintzien artean.

1. TAULA. Familia-unitateen kopurua, lagin teorikoa geruzaren arabera, ibilbideen eta bazterkeria-zantzuak dituzten familien kopuruak

Geruza-zenbakia	Autonomia-erkidegoa	Geruza	Familia-unitateak	Lagina	Ibilbideak	Zantzuak dituzten fam.
1	Euskadi	Araba	140.218	91	8	61
20	Euskadi	Gipuzkoa	298.410	195	16	130
48	Euskadi	Bizkaia	480.876	314	26	209
	Espainia		12.483	1.042	8.322	12.483

Iturria: Geuk egina, EINen 2023ko eta EINSFOESSAren 2024ko datuetan oinarrituta.

Bazterkeria-zantzuren bat duten familia-unitateetan gehienez errore bat onartzeko diseinatuta dago lagina. Beraz, ezaugarri horiek dituzten familia-unitateen gutxieneko kopuru bat behar da. Horretarako, familia batekin harremanetan hastean, iragazki-galdetegi bat egiten zaio lehenik. Familia potentzialki baztertutzat jotzen da galdetegiko galderaren bati baietz erantzuten badio. Atal bakoitzean gehieneko kuota batzuk daude familia-unitate mota bakoitzerako. Iragazki-galdetegia egin ondoren, sailkatu den kategorian kuota librerik badago, galdetegi nagusia egiten zaio.

Hasiera batean, atal bakoitzean gutxienez 18 iragazki-galdetegi egingo zirela erabaki zen. Galdetegi horiek, ondoren, bazterkeria-zantzuak dituzten familia-unitateak haztatzeko erabiliko ziren.

Behin laginketaren lehen unitatea -errola-atala- aukeratzen denean, atalaren barruan ausazko ibilbideak eginez aukeratzen dira familia-unitateak (EINen kale-izendegiek zehazten dute atal hori). Familia-unitateak hautatzeko, arau gisa, lehen azal dutako familia-kategorien kuotak baino ez dira hartzen kontuan. Etxe batera iristean, iragazki-galdetegia egiten da, eta kuota libre batekoa bada (izan bazterkeria-arriskuan dauden familia-unitateetakoa edo ez), galdetegi osoa egiten zaio.

Familia-unitateak diren etxeetan bakarrik egin dira elkarrizketak, pertsona partikularrak bizi direnetan bakarrik, eta kanpoan utzi dira oso-osorik merkataritza-jardueretarako edo jarduera profesionaletarako erabiltzen diren etxebizitzak, edo egoitza kolektiboak direnak (zahar-etxeak, kuartel-etxeak, harrera-etxebizitzak...).

1.1. Abiapuntua eta jarraitu beharreko ibilbidea zehaztea

Hautatutako lagin-puntuaren abiapuntua, aipatu den bezala, errolda-atalean dauden helbideen artean ausaz hautatutako helbide espezifiko bat da. Helbide horretako familia-unitatearekin jartzen da harremanetan lehenik, betiere helbide hori ez badago kalearen eskuineko aldean; izan ere, ezkerreko aldean badago, eskuineko aldera pasa beharko da. Kalearen eskuinaldean eraikinik ez badago edo alde hori errolda-ataletik kanpo geratzen bada soilik has daiteke ezkerraldetik. Abiapuntua etxebizitzarik ez dagoen leku batean badago -adibidez, merkataritza-gune batean-, ausazko bideari jarraitzen zaio, eta bertan dagoen lehen etxebizitzarekin hasten da.

Abiapuntutik hasi eta eskuinaldeko etxeetan zehar egiten dira elkarrizketak, kale-amaieraraino joanda.

Elkarrizketatzailea ezin da errolda-atalaren mugetatik irten. Ibilbide bat itxitzat jotzen da behin bertako kaleetan 3 buelta eman ondoren; orduan, ibilbidea zabaltzea edo ordeztzea baloratzen da.

1.2. Etxebizitzaren hautaketa

Abiapuntutik, eta etxebizitza batetik bestera, honela hautatzen dira:

- Astegunetan, goizez, 15:00ak arte
- Astegunetan, arratsaldez, 15:00etatik aurrera
- Asteburuetan

Elkarrizketatzaileek, familia-unitateekiko lehen harremana egiteko, astegunetan arratsaldez, 15:00etatik aurrera, edo asteburuetan edozein orduetan egon behar dute familien erdiekin gutxienez. Proposatutako ordutegiak gutxi gorabeherakoak dira, familia-unitateko kideei buruz dagoen informazioaren arabera (ordutegiak, bizimoduak...) jarduten baita beti, emaitzak optimizatzeko.

Familia-unitate bat baztertu aurretik harekin egin beharreko 5 elkarrizketetatik, goizez 2 egiten dira gehienez, eta arratsaldez 2 gutxienez (15:00etatik aurrera). Gutxienez ordubete igaro behar da familia-unitate bati egindako bisita batetik bestera.

1.3. Elkarrizketarako gizabanakoaren hautaketa

Elkarrizketa adinez nagusia den pertsona bati (18 urtetik gorako bati) egin behar zaio, eta ezinbestekoa da pertsona horrek familia-unitatearen datuak nahiz bertako kideen errealitatea ondo ezagutzea. Oro har, sostengatzaile nagusia edo haren bikotekidea izaten da.

Etxebizitza batean familia-unitate bat baino gehiago biziz gero, elkarrizketatzailearekin lehen aldiz egon zena elkarrizketatzen saiatu behar da, beti alokairuaren titularra elkarrizketatzeko joera edo alborapena saihesteko.

1.4. Bisiten emaitzak

Hautatutako etxebizitzetan egindako bisita edo izandako harreman bakoitza erregistratu egiten dute elkarrizketatzaileek. Landa-lana kontratatua duen enpresak FOESSA Fundazioko talde koordinatzailearen eskura jarri zuen informazio hori, eta, ohiko ikuskapena egiteko erabiltzeaz gain, hautaketarako metodologia behar bezala bete zela egiaztatzeko ere baliatu zen.

Elkarrizketatzaileei eskatu zitzaien bisita bakoitza gertatu zen unean bertan idazteko (edo, bestela, ahalik eta lasterren). Hori ezinbestekoa zen, kontuan hartzeko zer unetan edo egunetan ez zen lortu etxe bakoitza bisitatzea, eta, hala, hurrengo bisitak une egokiagoan planifikatzeko.

Ondorengo taulan, bisiten balizko emaitzak ageri dira, bai eta haien zehaztapena eta baldintzak ere.

2. TAULA. Bisiten balizko emaitzak, zehaztapena eta baldintzak

Deskribapena	Zehaztapena	Baldintzak
Familia-unitatea prozesuan mantentzen duten bisitak. Beste bisita batzuk gehitu daitezke.		
Atzeratuta, elkarrizketarako hitzordua zehaztuta.	Harremana egin da, baina ez da elkarrizketa hasi. Egundak ordu jakin batera atzeratu da, aurrez aurre egiteko.	Beste bisita bat: egundak bat eta ordu bat gehitu behar dira.
Atzeratuta, hitzordurik zehaztu gabe (harremanetarako pertsona ez zegoen eskuragarri).	Harremana egin da familia-unitatearekin, baina ez dago eskuragarri; beraz, beste bisita bat programatu da.	Beste bisita bat: egundak bat eta ordu bat gehitu behar dira
Inor ez etxean.	Atzeratuta, hitzordurik zehaztu gabe. Ez zen aurrez aurreko harremanik izan. Ez da inorekin harremanetan jarri helbide horretan, eta, beraz, ezin izan da hitzordurik adostu. Elkarrizketatzaileak erabaki du noiz itzuli etxe horretara.	Beste bisita bat: egundak bat eta ordu bat gehitu behar dira.
Familia-unitatea prozesutik kanpo uzten duten bisitak. Ezin da beste bisitarik gehitu.		
Ez da etxebizitza; beste helburu batzuetarako da.	Emandako helbidea ez dagokio etxebizitza bati.	
Etxebizitza hutsik / Ez-okupatua	Etxebizitza hutsik dago. Ez da inor bizi.	

Eremu iritsezina.	Landa-laneko aldi osoan ezinezkoa izan da etxebizitzara iristea, eguraldi-gorabeherengatik, fisikoki sartzeko ezintasunagatik edo antzekoengatik.	Elkarrizketatzaileak koordinatzailearekin harremanetan jarri behar du, egoera baieztatzeko.
Hautatutako familia-unitatearen errefusa	Erantzuteari uko egin dio erabat. Ez dago berriro harremanetan jartzeko aukerarik.	
Errefusa, COVIDaren beldur	COVIDa dela-eta erabat uko egin dio erantzuteari. Ez dago berriro harremanetan jartzeko aukerarik.	
Hautatutako pertsona topatzea ezinezkoa izan da landa-laneko aldi osoan.	Luzaroan etxetik kanpo. Harremana egin da, baina erantzun behar duen pertsona ez da inoiz eskuragarri egongo landa-laneko aldi osoan.	
Hizkuntzaren oztopoa.	Ezinezkoa izan da elkarrizketa egitea, ezta laguntzarekin ere.	

Iturria: Geuk egina, EINSFOESSA 2024an oinarrituta.

1.5. Atalen zabalkuntza eta ordezkapena

Landa-lanean atal batzuk zabaltu edo ordezkatu egin dira, arrazoi nagusi hauengatik:

1. Muturreko arriskua egotea. Inkesta honetarako familia-unitate kalteberenek interes berezia dutenez, atal bakarra ordezkatu da arrazoi horregatik, benetan muturrekoa izateagatik.
2. Biztanle gutxiko udalerriak izatea. Kasu batzuetan, udalerriak txikiak dira, eta, beraz, beste udalerri batzuekin osatu behar izan da ibilbidea. Halakoetan, antzeko ezaugarriak dituzten udalerri hurbilenak erabili dira ibilbideak osatzeko.
3. Biztanleak topatzerik ez izatea. Batzuetan, estatistika ofizialetan nahikoa biztanle dagoela agertzen bada ere, ezinezkoa izan da topatzea. Topatzeko ahalegin guztiak egin arren, gerta daiteke oso sakabanatuta egotea hutsik dauden etxebizitzaren artean; hala gertatzen da, adibidez, nagusiki turismo-eta bizitegi-eremuak direnetan, atzeritar-ehuneko handiak dituztela-eta, baita eraikin sakabanatuak dituztenetan ere. Atal horretan lagina topatzea benetan ezinezkoa dela egiaztatu ondoren, ordezkatu egin dira.

2. Landa-lana

2.1. Fase pilotua

Landa-lana hasi aurretik, fase pilotu bat egin zen: 20 elkarrizketa egin ziren Madrilan eta Valentzian (hiri bakoitzean 10). Hauek izan ziren helburu nagusiak:

- Metodologiaren protokolo eta elementu guztiak probatzea, hala nola elkarrizketatzaileentzako jarraibideak, harremanetarako prozedurak (ausazko ibilbideak) eta inkestaren administrazioa.
- HLO galdetegiaren programazioa, fluxua, galderak ulertzeko gerta daitezkeen gorabeherak eta elkarrizketaren iraupena probatzea.
- Lortutako datuen/fitxategiaren ekoizpena probatzea.
- Elkarrizketatzaileen iruzkin eta iradokizunak jasotzea.

Metodologiari dagokionez, ausazko metodo bat erabili zen, fase nagusiko metodoaren berdin-berdina, aukeratutako errolda-atal bakoitzean helbide zehatz batetik abiatuta (hiri bakoitzean atal 1).

Bi hirietan eskarmentu handiko elkarrizketatzaile bana ibili zen elkarrizketak egiten.

Biek ala biek *online briefing* oso bat jaso zuten landa-lanaren ardura zuen enpresaren eta FOESSA Fundazioko lantaldearen eskutik, 2024ko urtarrilaren 23an. Egun berean hasi ziren lan hori egiten, eta urtarrilaren 28an amaitu zuten.

Urtarrilaren 29an, fase horretako landa-lana amaitu ondoren, *debriefing*-saio bat egin zen, taldearengandik zuzenean informazioa biltzeko eta galdetegian zuzenketa egokiak egin ahal izateko.

2.2. Landa-laneko fase nagusia

Inkestak 2024ko otsailaren 8tik uztailaren 14ra bitartean egin ziren. Jarduera ekonomikoei buruzko informazioa, bai eta pentsio eta prestazio ekonomikoei buruzkoa ere, 2023. urtean gertatutakoari dagokio.

Inkestak aurrez aurre egin ziren, elkarrizketa pertsonalen bidez, eta egituratutako eta aurrez kodetutako galdetegi batean jaso ziren erantzunak (aldagaien % 99). Elkarrizketatzaileek aurretik jaso zuten galdetegiak egiteko

prestakuntza. Euskadin, 50 ibilbidetan jardun dute lanean, 26 udalerritan banatuta, eta Espainian guztira 1.042 ibilbidetan, 524 udalerritan banatuta.

Azken gainbegiratze- eta arazketa-prozesuaren ondoren, Euskadiko familia-unitateen behin betiko lagina 600 inkestek osatu dute; horiek 1.458 pertsonari buruzko informazioa eman dute. Hala, errore-marjina $\pm\%$ 2,6 da biztanleriaren informaziorako, eta $\pm\%$ 4,0 familia-unitateen informaziorako. Espainiako lagina 12.289 familia-unitatek eta 30.935 pertsonak osatzen dute, eta errore-marjinak $\pm\%$ 0,6 eta $\pm\%$ 0,9 dira, hurrenez hurren. Bi kasuetan, errore-marjina ezin hobea da, eta informazioa unibertso osoaren adierazgarria da estatistikoki.

3. TAULA. Euskadiko eta Espainiako lagina, landa-lana amaitzean, azken gainbegiratze- eta arazketa-prozesuaren aurretik

	Egindako iragazki-galdetegiak			Egindako galdetegi nagusiak		
	Guztira	Bazterkeria-zantzurik gabeak	Bazterkeria-zantzuak dituztenak	Guztira	Bazterkeria-zantzurik gabeak	Bazterkeria-zantzuak dituztenak
Euskadi guztira	1.039	497	542	639	213	426
Espainia guztira	20.089	9.143	10.946	12.567	4.314	8.253

Iturria: Geuk egina, EINSFOESSA 2024an oinarrituta.

4. TAULA. Unibertsoa, azken lagina eta errore-marjina Euskadin eta Espainian

	Euskadi	Espainia
Biztanleriaren unibertsoa	2.207.400	48.262.420
Familia-unitateen unibertsoa	942.205	19.316.426
Biztanleriaren lagina	1.458	30.935
Familia-unitateen lagina	600	12.289
Biztanleriaren errore-marjina	±% 2,6	±% 0,6
Familia-unitateen errore-marjina	±% 4,0	±% 0,9

Iturria: Geuk egina, EINen 2023ko eta EINSFOESSAren 2024ko datuetan oinarrituta (49)

Azkenik, konfiantza-tarteak kalkulatu dira (% 95eko probabilitatea), bazterkeria-mailarako eta bazterkeria larriaren mailarako, autonomia-erkidegoen eta lurralde espezifikoaren arabera. Ondorengo taulan, Euskadirako diseinu-efektua eta lagin eraginkorra agertzen dira.

5. TAULA. Konfiantza-tarteak (% 95eko probabilitatea) Euskadirako

	Gehieneko errorea	Laginaren diseinu-efektua	Behin betiko lagina	Lagin eraginkorra
Euskadi	0,04919561	1,183689148	556	469,7

Iturria: Geuk egina, EINSFOESSA 2024an oinarrituta.

Lagin honetarako estimatutako errorea aurkitzeko, nahikoa da errorea modu normalean kalkulatzearen emaitza diseinu-efektuaz biderkatzea, edo lagin-tamaina gisa tamaina eraginkorra erabiltzea benetako tamainaren ordez, lagin-erroreak edo konfiantza-tarteak kalkulatzear.

Hau da lagin eraginkorra: ausazko laginketa sinple bat eginez gero, estimatu dugun errore bera lortzen badugu, lagin-tamaina hori izango da lagin eraginkorra. Laginaren diseinu-efektuarekin lotuta dago, hau da, ausazko laginketa sinple bat eginez benetan lortuko litzatekeen errore teorikoarekin. Beraz, lagin erreala zati diseinu-efektua eginda lortzen da lagin eraginkorra. Beste era batera esanda, kontuan hartu da lagina ez dela proportzionala ez atalen hautaketan, ezta iragazki-galdetegiak egiteko familiak hautatzean

(49) Biztanleriaren datuak INEk argitaratzen duen biztanleriaren estatistika jarraitutik atera dira, eta 2024ko urtarrilaren 1ean familia-etxebizitzetan bizi ziren biztanleei buruzkoak dira. Familia-unitateen datua iturri beretik dator, eta familia-etxebizitzetan bizi ziren pertsonen familia-unitateei buruzkoak dira.

ere, eta desproporzio txiki bat dagoela familia-unitate kalteberen eta ez-kalteberen artean.

Konfiantza-tarte horien arabera, pertsonen eta familia-unitateen estimazio guztiak milakotan eman dira, eta beherantz biribilduta ageri dira; beraz, adibide gisa baino ez dira hartu behar kontuan, eta zuhurtziaz interpretatu.

Eragindako biztanleriaren eta familia-unitateen zenbatespena egiteko, EInen biztanleriaren estatistika jarraituaren zifrak beherantz biribilduta hartu dira oinarritzat. Bi kasuetan ere, datuak 2024ko urtarrilaren 1ekoak dira, eta familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrei edo familiei dagozkie.

Batzuetan, parentesi artean eta izartxo batekin adierazi dira datuak; horiek nahikoa fidagarritasun-maila ez duten balioak dira, dela biztanleria osoa aztertzean ez delako jaso adierazleek deskribatzen dituzten egoerei dagokien kasurik batere, dela 2024rako jasotako balioak 1etik beherakoak direlako eta aldakuntza nabarmena izan dutelako, aurreko urteetako batezbestekoarekin alderatuta.

3. Landa-lanaren jarraipena eta ikuskapena

3.1. Landa-lanaren jarraipena

Landa-lanean, informazio hau jaso eta aztertu da astero:

Kontrol eta jarraipenerako panela:

- Landa-lanaren jarraipena, probintziaren/lagin-unitatearen arabera, goiburuan adierazleak jarrita
- Asteko ekoizpenaren bilakaera
- Elkarrizketa osoak, elkarrizketatzaile bakoitzeko eta eguneko
- Lagin osoa, ibilbidearen arabera, eta goiburuan zenbait adierazle jarrita

Elkarrizketa osoen oinarrizko taulak, adierazleen kalkulua barne

Elkarrizketa osoen fitxategia, SPSS formatuan

Asteroko informazio horri esker, landa-lanaren kalitatearen jarraipena egin ahal izan da, eta adierazleetan izan zitezkeen desbideratzeak hauteman ahal izan dira, zuzenketak egin ahal izateko.

3.2. Ikuskatze-lanerako protokoloa

Azterketa honek ikuskapen-protokolo espezifiko bat izan du, eta, horren bidez, honako hauek gainbegiratu dira:

- Landa-lanaren ardura duen enpresaren gainbegiratze-softwareak zehaztutako ausazko elkarrizketak (gutxienez % 10), elkarrizketatzaile guztiak barnean hartuta (elkarrizketatzaile bakoitzeko elkarrizketen % 5 gutxienez), gehi:
- GPS erregistrorik izan ez duten elkarrizketa guztiak.
- 20 minutu baino gutxiago iraun duten elkarrizketa guztiak.
- 21:00etatik aurrera hasitako elkarrizketa guztiak.
- Telefono-zenbakia bikoiztua dutenak, dela azterketa honetan dela landa-laneko enpresak egindako beste batzuetan.
- Talde teknikoak edo koordinazio-taldeak zuzendutakoak, protokolorik egin ez dela susmatzen delako edo jarraitutako protokoloari buruzko zalantzak daudelako.
- Bezeroek adierazitako elkarrizketatzaile jakinek egindakoak.

3.3. Ikuskapen-galdetegia

Ikuskatzaile-taldeak galdetegi espezifiko bat erabili du azterlan honetarako. Hala ere, gertatu ahal izan da elkarrizketatuen profilaren arabera elkarrizketak egokitu izana, eta galdetegi estandarizatua zena solasaldi moduko elkarrizketa bihurtu izana, horrela informazioa lortzen saiatzeko, egiaztatu nahian ea elkarrizketatzaileak egoki jardun duen eta ea zer informazio jaso duen.

Beraz, familia-unitateak erantzundako galdetegiaren edukia aztertu da, atal guztiak bete direla ziurtatzeko, eta elkarrizketatzailearen jardunari buruz zalantzak egonez gero, horri lotutako gai espezifikoak ere aztertu dira.

Hala, zuzeneko ikuskapena egin zen elkarrizketari erantzun zion pertsonarekin edo elkarrizketa horretan egon zen etxeko beste pertsona batekin (zeharkakoa).

Elkarrizketaren data, helbidea, iraupena eta metodologia baieztatu ziren (tableta erabili al zen eta ea elkarrizketatuari Datuen Babeserako eta Konfidentzialtasunerako politikaren berri eman zitzaion).

Espontaneoki baieztatu ziren azterlaneko talde teknikoak adierazitako aldagaiak, hala nola familia-unitatearen tamaina eta kideen lan-egoera.

3.4. Baliogabetzeko protokoloa

Ezarritako protokoloko baldintzak betetzen dituzten elkarrizketa guztiak baliozkotzat jo ziren, eta baliogabetu egin ziren protokoloarekiko aldaketa zuzendu ezinak zituztenak (ikuskapen-galdetegia egitean pertsonak emandako erantzunak ez zetozen bat elkarrizketan ageri zen erantzunarekin).

Adibidez, ikuskapena egin ondoren, honako kasu hauetan baliogabetu ziren elkarrizketak:

- 10 minutu baino gutxiago erregistratu dira, baina pertsonak dio denbora hori izan zela.
- Elkarrizketen denbora/ordutegia ez da zentzuzkoa, eta elkarrizketatutako pertsonak ez du baieztatu datuetan adierazitakoa.
- Familia-unitateko kideen kopurua (etxebizitza berean bizi diren eta etxebizitza- eta elikadura-gastuak partekatzen dituzten pertsonen kopurua) ez dator bat elkarrizketan 16 urtetik gorakoentzat erregistratutakoarekin. Elkarrizketatuak baieztatu badu familia-unitateko kideen kopurua aipatu ziola elkarrizketatzaileari, informazio hori elkarrizketatzailearekin kontrastatu da.
- Elkarrizketatua ez da bizi erregistratutako etxebizitzan.
- Telefonoak errepikatuta ageri dira.
- Metodologia okerra erabili da.

Landa-lan osoan 12.572 elkarrizketa oso egin dira guztira. Azterketa honetarako eskatutako kalitate-irizpideak ez betetzeagatik, 283 elkarrizketa baliogabetu dira ikuskapen-taldeak gainbegiratutako 3.090 elkarrizketetatik. Baliozko elkarrizketa osoak, azkenean, 12.289 izan dira.

Iragazki-galdetegiari dagokienez, beste 7.523 galdetegi egin dira (guztira 20.095 galdetegi, iragazkiak + osoak kontuan hartuta), eta horietatik 122 baliogabetu dira. Hala, baliozko galdetegiak (iragazki-galdetegiak eta galdetegi nagusiak) 19.690 izan dira.

Elkarriketatzailearen batek elkarriketa-kopuru handi batean bere lana ondo bete ote zuen susmatzeko arrazoiak egon direnean, hark egindako lan guztia balioabetu da, elkarriketaren bat edo beste behar bezala egina izan zitekeen edo ez kontuan hartu gabe.

4. Lortutako laginaren ondorengo doikuntzak

Datuen fitxategia jaso ondoren, hainbat haztapen egin dira laginaren desproporzionaltasuna zuzentzeko eta lagina populazio-datuetara doitzeko, hainbat urratsetan. Lehenik, fitxategi osoan, iragazki-inprimaki guztiekin:

1. Haztapen bat kalkulatu da atal bakoitzerako, atala hautatzeko erabilitako hautatze-probabilitatearen alderantzizkoarekin; atalean estimatutako familia-unitate pobreen kopuruarekin, alegia.
2. Estimatu da ea atalean banako batek zer probalitate duen hautatua izateko. Probabilitate hori aurrekoaren arabera da, baina egindako iragazki-elkarriketen kopuruaz biderkatua (zenbat eta iragazki-elkarriketa gehiago egin, orduan eta probabilitate handiagoa laginean sartzeko). Beraz, honela geratu zen estimazioa: Estimaturako familia-unitate pobreen kopurua*iragazki-kopurua/Guztizko familia-unitateen kopurua. Behin-behineko haztapen-koefizientea (1pisua) probabilitate horren alderantzizkoa izango da.
3. 1pisuaren batura kalkulatu da geruzaka (probintziak, uharteak eta lagin espezifikoak), eta horien batura kalkulatu da geruza bakoitzerako. Haien batura kalkulatu da probintzia-mailan, eta probintzia-koefiziente bat kalkulatu da, honela: populazioa zati geruza bakoitzeko 1pisua (prob_koef), eta hau definitzen da: $2pisua = 1pisua * prob_koef$.

Kalkulatutako haztapena erabiliz, kalteberen eta ez-kalteberen arteko proportzioa kalkulatu da atal bakoitzeko iragazki guztietan. Ondoren, galdetegi osoen fitxategian egin da haztapena.

1. Aurretik lortutako haztapena aplikatu da (2pisua).
2. Haztapen bat aplikatu da kalteberen eta ez-kalteberen galdetegietan, galdetegi osoen fitxategian eta iragazki-galdetegien fitxategian proportzioa (lehenago kalkulaturik) berdina izan dadin atal bakoitzean.

3. Fitxategiaren kalibrazioa egin da, aurreko haztapenetik abiatuta, autonomia-erkidego bakoitzean lortutako datuak doitzeko, jaiolekuaren, familia-unitate motaren eta ijito-etniakoa izatearen arabera.

5. Egindako kalibrazioaren xehetasunak

Kalibrazioa SPSSren rake prozedurarekin egin da, lagineko aldagai jakin batzuk kanpoko iturrietako datuetara egokitze, eta prozesu errekurtsibo batekin egiten da hori: lagina erabilitako aldagaien marjinaletako bakoitzera doitzuz joaten da, lagin haztatua erabilitako aldagai guztietan doitzuta geratu arte.

Fitxategi honen kalibrazioa ohikoa baino konplexuagoa da, familia-unitatearen mailan egin behar baita, ez norbanakoaren mailan. Familia-unitate bakoitzak pisu bat izan behar du, eta pisu horrek berdina izan behar du pertsona guztientzat. Beraz, aldagaia ezin dira banakako baten arabera neurtu, familia-unitatearen arabera baizik. Horrek aldagaien aukeraketa baldintzatzen du, bai eta horiek kalkulatzeko modua ere. Orain zehaztuko dugu.

Jaioterria

Beste aldagai batzuekin konbinatuko denez, eta familia-unitatearen mailan egin behar denez, hobe da bi kategoria bakarrik erabiltzea. Lortutako lagina aztertuta, ikusi da laginean gainordezkatuta daudela Amerikan eta Afrikan jaiotakoak, eta gutxi ordezkaturak europarrak; asiarrak, aldiz, batezbestekoaren mailan daude. Beraz, hauek izan dira aukeratutako banakoak sailkatzeko bi kategoriak: Europan jaiotakoak eta gainerakoak.

Familia-unitatea sailkatzeko, familia-unitatean nagusi den jaioterria erabili da: hau da, kide gehieneko jaioterria. Berdinketarik egonez gero, hau da, bi kategorietan kide kopuru bera egonez gero, Europako kategoria esleitu zaio. Atzerrian jaiotako pertsonen kopuruak azken urteotan gora egin duenez, garrantzitsua zen datu berri-berriak hartzea erreferentzia gisa. 2024rako, EINEK egin du atzerrian jaiotako pertsona kopuruaren kalkulua bat, baina ez kontinenteen arabeko banaketari buruzkoa; kontinenteen arabeko banaketari buruz eskuragarri dauden azken datuak 2023ak dira. Beraz, kontinenteen arabeko banaketari buruzko 2023ko datuak erabili dira, eta atzeritar kopuruari buruz 2024rako dauden guztizko datuekin zuzendu dira.

Familia-unitate mota

Familia-unitate mota sailkatzeko, familia-unitatearen tamaina eta bertako kideen adina konbinatu dira, eta honako kategoria hauek lortu dira:

- Pertsona bakarra, 65 urtetik beherakoa.
- Pertsona bakarra, 65 urtetik gorakoa.
- Bi pertsona, biak 65 urtetik gorakoak.
- Bi pertsona, horietako bat 65 urtetik gorakoa.
- Bi pertsona, bietako inor ez 65 urtetik gorakoa.
- Hiru pertsona.
- Lau pertsona.
- Bost pertsona edo gehiago.

Erreferentziazko datuak 2021eko erroldakoak dira.

Ijito-etniako kide izatea

Ijito-etniako kide izatearen aldagaiaren lagin-emaitez oso ezegonkorrak izan dira FOESSA inkestetan (2. taula). Horren arrazoia izan daiteke atal jakin batzuetan nahiko multzokatuta egotea eta ehuneko txikia izatea, bi faktore horiek zaildu egiten baitute zehaztasunez neurtzea. Beste aldagaietan ez bezala, ez dago ijito-etniako kide direnen zifra ofizialik. Emaizten egonkortasuna handitzeko, hau egin da: kalibrazioan aldagai hori sartu da, eta FOESSA inkestetan ijito-etniakoak diren familia-unitateei buruz lortutako ehunekoaren batezbestekora egokitu da ijito-etniako kide izatearen aldagaia, lagin bakoitzaren tamaina kontuan hartuta. Egokitzen hori autonomia-erkidegorako egin da, beste aldagaietan bezala.

6. TAULA. Ijito-etniakoak diren familia-unitateen ehunekoa FOESSA inkestetan

	Guztira (%)
2024	2,3
2021	1,7
2017	0,7
2013	2,1
2009	1,2
2007	1,7
Batezbesteko haztatua	1,6

B. GIZARTE-BAZTERKERIAREN ETA POBREZIAREN NEURKETA

1. Gizarte-bazterkeriaren neurketa

Lan honetan, honela ulertu da gizarte-bazterkeria: egiturazko fenomeno bat da, oso lotuta dagoena gizarteratze-gaitasunean eragina duten hiru eremutako ezaugarriekin eta eraldaketekin, alegia, lan-merkatuko, bizikidetzaz-moduetako eta esparru politikoko (bereziki gizarte-politiketako) ezaugarri eta eraldaketekin.

Bazterkeria multidimentsionala da, eta horrek erakusten du zer-nolako zailtasun edo oztopoak sortzen dituzten prozesu horiek pertsonengan eta familia-unitateetan, hiru ardatz nagusitan: bizitza ekonomikoan parte hartzea da ardatz horietako bat (bai aberastasunaren ekoizpenean, bai aberastasun horren banaketan); bigarrena ardatz politikoa da, eta herritarrek politikan parte hartzeko eta eskubide sozialak eskuratzeko dituzten eskubideekin lotuta dago; hirugarren ardatza gizarte-harremanei buruzkoa da, non gizarte-isolamenduko arazoak edo pertsonen arteko harreman gaiztoak, gatazkatsuak nahiz indarkeriazkoak sortzen diren. Horrez gainera, bazterkeria prozesu bat da: gizarteratze-eredu jakin batetik pixkanaka urrunduz joaten da, eta zenbait fase bereiz daitezke intentsitatearen arabera (prekariatetatik edo zaugarritasunetik gizarte-

bazterkeria muturrekoenera iristeraino); prozesu horren emaitza da gabeziak edo oztopoak metatzea eta hainbat esparrutan aukerak mugatzea (Laparra et al., 2007) **(50)**.

Planteatutako proposamenak, ikuskera teoriko hori oinarritzat hartuta, 37 adierazleko sistema bat du, Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetiko (GBIS) kalkulatzeko oinarri gisa balio duena. Adierazle horiek bitarrak dira, eta hiru ardatz nagusiri lotuta daude. Ardatz ekonomikoan, gizartearen produktuan parte-hartzeari buruzko gaiak aztertzen dira, batez ere honako adierazle hauetan islatuak: enpleguarekiko harremana eta haren kalitatea neurtzekoak, bai eta diru-sarrerekin eta gabeziekin lotutakoak ere. Ardatz politikoaren barruan, eskubide politikoekin lotutako gaiak (parte-hartze politikoan oinarrituak) eta eskubide sozialekin lotutakoak (hezkuntza, etxebizitza eta osasuna) daude. Hirugarren eta azken ardatza gizarte-harremanekin lotutakoa da, gizarte-gatazka lantzen duena (familia-gatazkak, jokabide asozialak eta delitu-jokabideak), bai eta gizarte-isolamendua ere (familiaren babesik ez izatea, auzo-gatazkak eta instituzionalizazioa). Horrela, gizarte-bazterkeriari buruzko hausnarketa teorikoen inguruan nazioarteko literaturan garatutako gai nagusiei heltzen zaie. Proposatutako sistemak definizioz “murriztaileak” diren adierazleak hartzen ditu kontuan, pertsonen bizitzan zailtasun larriak eragiten dituzten egoerak hautemateko pentsatuak.

Aurreko edizioetan egindako berrikuspen metodologikoen ondorioz eta adierazleak eransteko sistema homogeneizatu izanaren ondorioz, emaitzek aldakuntza txikiak izan dituzte aurreko edizioetan emandakoekin alderatuta. Datuen zehaztasunaz harago, iritzi diogu joeraren berri ematea eta alderaketa ahalik eta ondoen egiten zela bermatzea zela garrantzitsuena.

Bazterkeriari lotutako 37 adierazleen agregaziorako, ez ditugu galdutako balioak kontuan hartu. Adierazle horietako bakoitzak 37 arazoetako bakoitzean detektatutako kasuak identifikatzen ditu, GBISen agregazio-sisteman kasu asko ez galtzeko. Hala eta guztiz ere, gizartean oro har arazo horietako bakoitza zenbat familia-unitatetan dagoen ere estimatu da, eta horrek esan nahi du galdutako balioak halakotzat hartu behar direla eta

(50) Laparra, Miguel, Anna Obradors, Begoña Pérez, Manuel Pérez Yruela, Victor Renes, Sebastián Sarasa, Joan Subirats, eta Manuel Trujillo. 2007. «Una propuesta de consenso sobre el concepto de exclusión. Implicaciones metodológicas». *Revista Española del Tercer Sector*, 5.

estimazio horiek adierazle bakoitzean baliozkoak diren kasu guztien gainean egin behar direla.

2. GBISen eta gizarte-bazterkeriako mailen kalkulua (51)

Gizarte-bazterkeriaren indize bat sortuz lortu nahi den helburua da familia-unitateek hainbat alderdi edo dimentsiotan dituzten bazterkeria-egoerak sintetizatzea. FOESSAren adierazle-sistemak eta GBISen kalkulu-metodoak bilakaera nabarmena izan dute EINSFOESSAren edizioetan zehar. Oraintxe azalduko dugu zein izan diren egindako aldaketa nagusiak.

Aurreko seriean, EINSFOESSA 2007, 2009, 2013 eta 2018ko inkestetan, sistemak 35 adierazle zituen, 8 dimentsiotan banatuta, honela:

- Enplegua, 1etik 6ra
- Kontsumoa, 7tik 8ra
- Politikan parte hartzea, 9tik 10era
- Hezkuntza, 11tik 13ra
- Etxebizitza, 14tik 21era
- Osasuna, 22tik 27ra
- Gizarte-gatazka, 28tik 32ra
- Gizarte-isolamendua, 33tik 35era

Adierazle bakoitzari pisu espezifiko bat ematerakoan, abiapuntu gisa maiztasunen alderantzizkoa ($1/f(x)$) erabiltzea erabaki zen. Hala, ulertzen zen adierazle baten atalasea zenbat eta zorrotzagoa izan, orduan eta maiztasun txikiagoa zuela, eta, beraz, jasotako arazoaren edo gabeziaren larritasuna handiagoa zela. Gizarte Bazterkeriaren Indize Sintetikoa (GBIS) datu horiekin eraikitzen zen; hala, pertsona baten gutxieneko puntuazioa 0 zen, eta batezbestekoa, gizarte osorako, 1; gehieneko puntuazioa adierazleen metaketak ekarriko zuen, kasurik txarreanean. Gutxienekoa 0 da beti; batezbestekoa 1 da, eta gehienekoa, berriz, banaketaren arabera.

(51) Fernández Maíllo, Guillermo. 2019. VIII Informe Foessa sobre exclusión y desarrollo social en España. Madril: FOESSA Fundazioa Laparra, Miguel eta Begoña Pérez Eransus. 2010. «El primer impacto de la crisis en la cohesión social en España». Lorenzo, Francisco. 2014. VII Informe sobre exclusión y desarrollo social en España. Madril: FOESSA Fundazioa.

2021eko ediziotik aurrera, FOESSAren adierazle-sistema berrikustea erabaki da, ikuskera teoriko bera oinarri hartuta. Aldaketa horiek guztiak 2018tik aurrerako seriean aplikatu dira, aldaketak alborapen metodologikorik gabe aztertzen jarraitu ahal izateko.

Enuntziatu batzuetan aldaketak egin dira, gaur egun duten zehaztapenaren berri emateko. Gainera, sistemari beste bi adierazle gehitu zaizkio, eta egun 37 dira jada. Alde batetik, 36. adierazlea sartu da, “Zorrak metatzen dituen familia (horniduren ordainketetan atzerapenak dituen)” ardatz ekonomikoan, kontsumo-bazterkeriaren dimentsioan. Eta, bestetik, 37. adierazlea ere sartu da ardatz ekonomikoan, enplegu-bazterkeriaren dimentsioan: “Sostengatzaile nagusia aktibo duen etxea, urtebetean laneko ezegonkortasun larrian dagoena ($\cdot 3$ kontratu edo $\cdot 3$ enpresa edo $\cdot 3$ hilabete langabezian)”.

Bestalde, 2021ean hasitako serie berrian, adierazle bakoitzaren haztapena Korrespondentzia Anizkoitzen Analisisian (KAA, gaztelaniaz ACM) oinarrituta kalkulatu da (2018tik aurrerako edizioetan ere aplikatu da) **(52)**.

KAAn oinarritutako haztapan-metodo berri hori sartzearen emaitzek irudi orokor nahiko antzekoa islatzen dute multzo osorako; dena den, gizarte-bazterkeriak Espainian duen eraginari buruzko diagnostiko orokorrak apur bat okerrera egin duela adierazten dute. Bestalde, gizarte-taldeen arteko konparazio-sentsibilitatea hobetu dute, aurretik egindako analisisetan frogatu den bezala. (Laparra, Zugasti Mutilva, eta García Lautre, 2021) **(53)**.

Abantaila nagusia da sistema berri bat dugula, zorrotzagoa eta laguntza estatistiko sendoagoa ematen duena; eta aurreko analisiak legitimatzen ditu, aurreko sistemarekin agertzen ziren disfuntzionalitate batzuk zuzenduta.

(52) FOESSA (2022). Metodología de la Encuesta EINSFOESSA y cuestionarios (631.-679. or.) in Evolución de la cohesión social y consecuencias de la COVID-19 en España. Colección Estudios 50.

(53) Laparra, Miguel, Nerea Zugasti Mutilva, eta Ignacio García Lautre. 2021. «The multidimensional conception of social exclusion and the aggregation dilemma: a solution proposal based on multiple correspondence analysis». Social Indicators Research 158(2):637-66.

2.1. KAA, bazterkeria-adierazle bat lortzeko teknika gisa

Korrespondentzia Anizkoitzen Analisia (KAA), izatez, **Korrespondentzia Sinpleen Analisiaren (KSA) hedapen gisa sortu zen**, eta aldi berean bi aldagai kategoriko (kualitatibo) baino gehiago aztertzeko aukera eman zuen. KAA (baita KSA ere) **teknika faktorialen** familiakoa da, eta estuki lotuta dago **Osagai Nagusien Analisiarekin (ONA)**; horrek helburu berak lortu nahi ditu, baina aldagai kuantitatiboetarako.

Teknika faktorialen funtsa dimentsio txikiko espazio bat lortzea da (faktoreek edo ardatz faktorialek osatua), bertan datu askoko taula bateko informazioa irudikatu ahal izateko, horren zuzeneko azterketa ezinezkoa baita. Terminoak sinplifikatuz, esan dezagun teknika faktorial baten helburua dela “mapak” sortzea, jatorrizko informazioa (oso konplexua) irudikatzeko, kontuan hartuta beti galduko dela nolabaiteko informazioa. Mapa horiek datuen arteko erlazio eta desberdintasun argienak eta esanguratsuenak erakusten dituzte, eta portaera-patroirik ba ote dagoen aztertzeko balio dute.

2.1.1. Faktore edo ardatz faktorialak KAAn

KAAn faktoreak aldagai artifizialak dira, **aztertutako aldagai kualitatiboen modalitateen konbinazio lineala**. Horri esker, **pertsona bakoitzarentzat puntuazio faktorial bat lortu ahal izango da, bai eta aztertutako modalitate bakoitzerako puntuazio faktorial bat ere**.

KAAn, aztertutako aldagai kualitatiboen kategoria guztien konbinazio lineala da faktore bakoitza. Modalitate bakoitzak faktore batean duen pisua edo garrantzia desberdina da, eta horrek bereizten du faktore bakoitza.

Modalitate batek taula baten inertzia totalari (taulak duen informazioari) **egiten dion ekarpenak zehazten du zer pisu edo garrantzi duen modalitate bakoitzak faktore batean**. Esan daiteke, KAAn, modalitate batek, zenbat eta portaera desberdinagoa izan gainerako modalitateekin alderatuta, orduan eta pisu edo garrantzi handiagoa izango duela faktore baten eraketan. Pisu handien duten modalitateak maiztasun txikiagoz aukeratzen diren erantzun-modalitateak izaten dira, banakoak ondo bereizten dituztenak (erantzunak ez dira ausaz aukeratu).

Faktoreak modu sekuentzialean lortzen dira, hau da, lehen faktoreak datu-
taulako informazio maximoa biltzen du (inertzia totala edo bariantza totala).
Bigarren faktoreak gainerako informazio maximoa biltzen du, eta, gainera,
lehenbizikoarekiko ortogonal da (zuta). Eta horrela hurrenez hurren. Jakina,
faktorearen ordena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta informazio gutxiago
biltzen du, eta, beraz, interes gutxiago du hura aztertzeak.

KAAn (baita ONAn ere), lehen bi faktoreen hautaketa funtsezkoa da, horiek
baitira informazio gehien biltzen duten bi faktoreak. Lehenengo bi faktoreekin,
banakoen eta modalitateen irudikapenak lortzen dira (mapa edo plano
faktorialak deituak). Goragoko mailako faktoreak analisi espezifikoagoetarako
utzi ohi dira, batez ere lehenengo bi faktoreek datuen informazio nahikoa
(inertzia) atzematen ez duten analisietan.

2.1.2. Koordenatu faktorialak KAAn

Behin faktore bat lortuta, **norbanako bakoitzak puntuazio (koordenatu)
faktorial bat izango du**, modalitate bakoitzean emandako erantzunen arabera
-modalitate bakoitzaren pisuaren arabera haztatuta-. Baldin eta pertsona batek
ematen dituen erantzunen profila bat badator faktore batean pisu gehien duten
modalitateekin, puntuazioa (koordenatua) zerotik urrun egongo da (positiboan
edo negatiboan). Lehen bi faktoreetan modalitateen koordenatuak mapa
faktorialetan irudikatzea, beraz, oso tresna baliagarria da datuen portaera
ulertzeko, hau da, jakiteko zer modalitate dauden elkarren artean lotuago edo
zeinek duten elkarren artean portaera aurkakoagoa. Esan dezagun, asmoa ez
bada ere zehaztasunez azaltzea, oinarritzko hiru jarraibide daudela modalitateek
plano faktorial nagusian duten posizioa interpretatzeko (1. eta 2. faktoreak):

- Koordenatuen jatorritik urrun dauden modalitateak interpretatzen dira,
horiek baitira banakoak “bereizten” dituzten modalitateak, eta ardatzak
eratzen gehien laguntzen dutenak.
- Aldagai desberdinen bi modalitate plano nagusian hurbil ageri direnean,
positiboki lotuta daudela esaten da, hau da, antzeko profilak dituzten
banakoek hautatu dituztela (kasu askotan, banako berberak).
- Aldagai desberdinen bi modalitate plano nagusian kontrako posizioetan
ageri direnean, negatiboki lotuta daudela esaten da, hau da, aurkako profilak
dituzten banakoek hautatu dituztela (kasu askotan, modalitate horietan
kontrako erantzuna eman duten banako desberdinek).

2.1.3. FOESSA (2024) inkestako bazterkeria-adierazleen KAA

Bazterkeriari buruzko 2024ko analisiaren abiapuntua benetan dimentsio handiko taula bat da, 31.000 gizabanako ingurukoa (familia-unitate haztatuek) eta guztira 37 aldagai dituen (bazterkeria-adierazleak). Bazterkeria-adierazle bakoitzak bi modalitate ditu ("bai"/"ez"); beraz, guztira 74 erantzun-modalitate aztertzen dira.

Azken KAAren emaitza 29 bazterkeria-adierazlek ematen dute (58 modalitate); izan ere, 8 adierazletan (16 modalitate) baiezko erantzunen maiztasuna oso txikia da (% 2tik beherakoa). Maiztasun "arraroko" modalitateak agertuz gero, KAA desitxuratu dezakete, eta, beraz, ohikoena izaten da faktoreen eraketan kontuan ez hartzea (ez dute osatuko faktorea sortzen duen konbinazio linealik). Hala ere, 16 modalitate horien koordinatu faktorialak lor daitezke, eta datuen egituraren analisisan sartu.

Modalitate bereizleak (balio absolutu handiko koordinatuak dituztenak) bazterkeria-adierazleei emandako "ezezko" erantzunak dira, eta "baiezko" erantzunak dituzten modalitateak (askoz maiztasun handiagoz aukeratuak), berriz, zerotik hurbilago egongo dira, eta azterketan ez dira hain erabakigarriak izango.

Plano faktorial nagusian modalitateek zer koordinatu dituzten aztertuta (1. eta 2. faktoreak), ikus daiteke zein modalitate diren bereizgarrienak, zein lotzen diren elkarren artean modu positiboan, eta zein lotzen diren, berriz, modu negatiboan (kontrako erlazioak). Plano horretan, beste aldagai kualitatibo batzuen modalitateen koordinatuak ere lor daitezke (modalitate horiei osagarriak esaten zaie), eta planoaren interpretazioa eta datuen analisisa aberastuko dute. Honako testu honen helburua ez da plano hori zehatz-mehatz interpretatzea; hain zuzen ere, ondorengo txosten baterako uziko dugu hori.

2.1.4. Bazterkeria-indize bat lortzea KAAren lehen faktoretik abiatuta

KAAren lehen faktorea aldagai kuantitatiboa da, eta haren puntuazioek (koordinatuek) argi eta garbi islatzen dute aztertutako familia-unitateetan bazterkeria-maila handiagoa dela.

Erraz iristen da ondorio horretara; izan ere, 1. faktorean koordinatu negatibo handien duten modalitateek ("baiezko" erantzunen modalitateak dira; bazterkeria-faktoreen bat dagoela adierazten dute), eta "ezezko" erantzunen modalitateek, berriz, ia ez dute koordinaturik (apur bat positiboa). Lehenengo faktorean "baiezko" erantzunen modalitate baten koordinatua handiagoa edo txikiagoa izatea honen arabera izango da: zenbateraino den bereizgarria modalitate hori, familia-unitate guztien multzoak emandako erantzunekin alderatuta. Gogora dezagun faktoreak aldagai artifizialak direla, datuek duten aldakortasuna (inertzia) maximizatuz eraikiak.

2.1.5. Gizarte-bazterkeriako intentsitate-maila desberdinak dituzten familia-unitate eta pertsonen sailkapena

Orain, gizarte-bazterkeriako intentsitate-maila desberdinak dituzten familia-unitateak eta pertsonak nola sailkatzen diren agertuko dugu. Bazterkeria-adierazlerik ez duten eta GBISa 0 duten familia-unitateen egoera erabateko integratiboa dela jotzen da. Adierazleen bidez hautemandako auziak berez larriak direlako premisatik abiatuta, familia-unitateek adierazleren bat badute eta GBISa batezbestekoaren ingurukoa badute ($0 < \text{GBIS} < 2$), horrek esan nahiko du arazoren bat dutela, baina estatistikoki normalak direla, eta, beraz, ez dira asko desbideratzen gizarte osoaren integrazio-eredutik. Hortaz, integrazio prekarioko egoeran dauden familia-unitate gisa katalogatzen dira. Pobrezia monetarioaren analisietan gertatzen den antzera, hemen, batezbestekotik urrunen dauden familia-unitateak ($\text{GBIS} > 2$), arazo-kantitate bikoitza dutenak, gizarte-bazterkeriako egoeran sailkatzen ziren. Bazterkeria moderatuan kokatzen dira gizartearen batez besteko GBISa halako bi baino gehiago dutenak ($2 < \text{GBIS} < 4$), eta bazterkeria larrian, berriz, gizarte-bazterkeria moderatuko egoeran dauden familia-unitateei dagokien GBISa halako bi dutenak ($\text{GBIS} > 4$). Pobrezia monetarioaren atalaseekin gertatzen den bezala, lau talde horietan sailkatzea arbitrarioa da. Hori dela eta, kontuz ibili beharko litzateke sailkapena egitean, eta GBISa (tarterik gabe) informazio garrantzitsu gisa erabili beharko litzateke gizabanakoak eta taldeak elkarren artean konparatzeko, bai eta gizarte osoko espazio eta distantzia sozialak bistartzeko ere.

2.2. Azken hiru edizioak EINSFOESAren serie berrira egokitzea

Edizio honetan, 2018ko eta 2021eko datu-matrizeak EINSFOESSA 2024ko serie berriaren arabera egokitu dira, Korrespondentzia Anizkoitzen Analisiaren sisteman oinarrituta; beraz, horiek dira konparaketarako erabil daitezkeenak.

EINSFOESSAren hiru edizioak metodo berarekin eraiki dira, FOESSAren gizarte-bazterkeriaren adierazleen pisuak kalkulatzeko Korrespondentzia Anizkoitzen Azterketan oinarrituta. KAA azterketa hori 2021eko edizioan hasi zen erabiltzen, pisuak 2018an ainguratuta.

KAAren bidez egindako pisu-aldaketa horiei esker, analisiari jarraitutasuna eman dakioke hiru edizioen seriean; gainera, horrela, sendotu egin da aldaketa sozialak erregistratzeko adierazleek duten sentsibilitatea, bai eta sistemaren egonkortasuna ere gizarte-bazterkeriaren dinamiketara egokitzeko.

Zehaztu beharra dago, beraz, serie berrirako, 2018ko eta 2021eko edizioetan doikuntza txiki batzuk egin direla 35. adierazlea kalkulatzeko metodoan, eta, horrenbestez, aldakuntza txiki-txiki bat gertatu dela GBISen tarteen maiztasunean. Horren ondorioz, GBISen datuak 2022an argitaratutakoen oso antzekoak dira, baina ez berdinak. 2018., 2021. eta 2024. urteetako datu-matrizeetan aldaketa bat egin da 35. adierazlean (“Noizbait erakundeetan egon diren pertsonak dituen familia-unitatea -ospitaleak eta pisu psikiatrikoak, droga-mendekotasunen zentroak, adingabeentzako zentroak, espetxeak, iragaitzazkoentzako edo emakumeentzako zentroak-”), bertan zabaldu egin baita denboraren erreferentzia 3 inkestetan (2018, 2021 eta 2024), zentro horietan “bizitzan noizbait” artatuak izan diren kasuak identifikatuta, eta, hala, handitu egin da detektatzeko ahalmena.

35. adierazlearen aldaketaz gain (serie berrian 2018rako eta 2021erako ere aplikatu da, aldaketak alborapen metodologikorik gabe aztertzen jarraitu ahal izateko), beste adierazle batzuetan ere egin dira aldaketa txiki batzuk, hainbat arrazoiengatik, baina 2024rako soilik:

- 9. adierazlean (“Boto-eskubiderik gabeko helduen familia-unitatea”): elkarrekikotasun-akordioa duten herrialdeen zerrenda eguneratu da eta Erresuma Batua sartu da bertan, EBko herrialdeen zerrendatik aterata. Korea ere sartu da urte horretan.

- 13. adierazlean (“65 urte baino gehiagoko eta 5 eskolatze-urte baino gutxiagoko pertsonaren bat duen familia-unitatea”): 2024an, irizpide berria aplikatu da 69 urtetik gorako pertsona guztientzat, hau da, gutxienez 5 urtez eskolatuta egotea. 2021eko eta 2018ko oinarriak ez dira aldatu.
- 16. adierazlean (“Osasungarritasun-gabeziak dituen etxea: hezetasunak, zikinkeria eta usainak”): “izurriteak” gehitu dira.
- 20. adierazlean (“Mugikortasun urriko pertsonak eta oztopo arkitektonikoak dituen etxea”): beste gaixotasun ezgaitzaile bat sartu da 18 urtetik beherakoentzat (neurogarapeneko nahasmenduak). Gainera, etxebizitzako oztopo arkitektonikoak ez ezik, eraikinean daudenak ere hartu dira kontuan (lehen inplizituki egon zitekeen hori).
- 26. adierazlean (“Gaixotasun larria edo kronikoa duen eta urtebetea gaixotasun horretarako laguntza medikorik jaso ez duen pertsonaren bat duen familia-unitatea”): beste gaixotasun larri bat sartu da: neurogarapeneko nahasmenduak.

3. Pobrezia neurtzeko modua

Pobrezia neurtzeko, EBko estatistika-institutuetako metodologia-ikuspegi estandarra erabili da, eta, beraz, pobrezia erlatiboaren ildoak hartu da kontuan, diru-sarreraren aldagai monetarioan oinarrituta kalkulatu, eta etxeko kontsumo-unitateak eta baliokidetasun-eskalak kontuan hartuta.

Familia-unitateen pobrezia zehazki kalkulatzeko, orain azalduko dugun moduan prozesatu da informazioa.

Lehenik eta behin, jarduera ekonomikoaren araberako diru-sarrerak adierazten dituzten aldagaietan bildutako diru-sarrerak gehitu dira banakoen datu-basean (E64_1 - E64_n). Gainera, “Ez daki / Ez du erantzuten” (ED/EE) erantzuna eman duten pertsonak kendu dira.

Bigarrenik, eta datu-base berean, banakoek prestazioren bat kobratu dutela adierazten duten aldagaiak gehitu dira (E68_1 - E68_n). Aurreko aldagaietan bezala, aldagai horietako batean “ED/EE” erantzun duten banakoak kendu dira.

Ondoren, familia-unitateen datu-basean beste diru-sarrera mota batzuk jasotzen dituzten aldagaiak gehitu dira. Honako 9 aldagai hauek dira:

- E69A. Kapital higigarriaren errentak (aurrezkia, akzioak, pentsio-planak, etab.)
- E69B. Kapital higiezinaren errentak (pisuen alokairua, lurrak, etab.)
- E69C. Aseguruak, kalte-ordainak eta abar kobratzea
- E69D. Noizbehinkako beste transferentzia batzuk (herentziak, sariak, etab.)
- E69E. Aparteko ordainsariak (lanagatiko diru-sarreretan sartuta ez badaude soilik)
- E69F. 2022ko Errenta Aitorpenean itzulitako PFEZa
- E69G. Ezkontide ohiak emandako mantenu- eta/edo konpentsazio-pentsioa (benetan emana)
- E69H. Senideen edo lagunen laguntzak (erregularitasunez)
- E69I. Beste diru-sarrera batzuk (kaleratzeagatiko kalte-ordaina, etab.)

Familia-unitate berean lehen 7 aldagaietan gutxienez bi erantzunetan ED/EE ageri bazen, kendu egin da familia-unitate hori. Azken bi aldagaietako batean gutxienez ED/EE erantzun bat agertzen bazen, familia-unitate hori ere kendu egin da.

Inkestatzaileak uste izan badu familia-unitateren batean datu ekonomikoak ez direla fidagarriak, familia hori kendu egin da hiru blokeen baturatik (U5E).

Beraz, batura osoari familia-unitate horiek kentzean (dela ED/EE erantzunengatik, dela inkestatzailearen ustez datuak fidagarriak ez direlako), ateratzen den kantitate hori erabiltzen da pobrezia moderatua (mediana baliokidearen % 60) eta pobrezia larria (mediana baliokidearen % 30) definitzeko. Bi kasuetan Oxford eskala aldatua erabiltzen da (1 lehen helduarentzat, 0,5 14 urte eta gehiagoko hurrengo kideentzat, eta 0,3 14 urtetik beherako bakoitzarentzat).

Edizio honetan, egokitzen da 2018rako finkatutako pobrezia-atalasea mantentzea, euro konstanteetan, bizi-baldintzen benetako aldaketak nabarmenago egiteko. Adierazle horien maiztasun erlatiboak eta GBISen duten eragina berriz kalkulatu dira 2018., 2021. eta 2024. urteetarako.

Azken batean, pobrezia-tasa erlatiboa eta larria kalkulatzeko erabilitako atalaseak 2018an ainguratu dira. Horrek esan nahi du 2021erako eta 2024rako pobrezia larriaren tasa (diru-sarreraren medianaren % 40) eta pobrezia erlatiboaren tasa (medianaren % 60) kalkulatzeko erabilitako atalaseak 2018ko

balioetan ainguratu direla: hurrenez hurren 5.658,9 € eta 8.488,4 € kontsumo-unitate bakoitzeko.

Atalaseen aldaketa horrek hiru adierazleren kalkuluan eragin du:

- 7. adierazlea: Pobrezia larria, medianaren % 40 (5658,9) 2018an ainguratua
- 21. adierazlea: Etxebizitzaren gehiegizko gastuak. F87, medianaren % 40 (5658,9) 2018an ainguratua
- 27. adierazlea: Arazo ekonomikoengatik botikak erosteari edo tratamenduei edo dietei jarraitzeari utzi dion familia, mediana (8488,4) 2018an ainguratua

Glosarioa

Gabezia material eta sozial larria

Pertsona bat gabezia material eta sozial larrian bizi dela esaten da pertsona horrek zenbait baliabide eskuratzeko aukerarik gabe bizi denean. Adierazle hori modu bereizian kalkulatzen da, etxeko kide bakoitzarentzat eta 13 item edo osagaietatik abiatuta: horietako zazpi familia-unitate mailan definitzen dira, eta, beraz, etxe bateko pertsona guztientzat komunak dira; beste seiak maila pertsonalean zehazten dira, pertsona bakoitzarentzat desberdinak baitira (pertsona horrek 16 urte edo gehiago badu; sei elementu horiei dagozkien balioak, adingabeen kasuan, 16 urte edo gehiagoko kideentzat jasotako balioetatik abiatuta esleitzen zaizkie).

Zehazki, pertsona bat gabezia material eta sozial larrian dagoela irizten da adierazlea osatzen duten hamahiru gabezia-elementu horietatik gutxienez zazpi eragiten diotenean.

Beraz, familia-unitatean definitutako mugak edo gabeziak hauek dira: urtean astebetez bada ere oporretara joan ahal izatea; haragia, oilaskoa edo arraina bi egunean behin bada ere kontsumitzea; etxebizitza tenperatura egokian eduki ahal izatea; ustekabeko gastuei aurre egiteko gaekako erosketetan atzerapenak izatea azken 12 hilabeteetan; auto bat eitasuna izatea; etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketan edo epduki ahal izatea; eta hondatutako altzariak edo altzari zaharrak berritzea. Era berean, maila pertsonalean definitutako elementuak hauek dira: hondatutako arropa berritu ahal izatea; bi zapata pare baldintza onetan izatea; lagunekin edo familiarekin bildu ahal izatea, hilean behin bada ere, bazkaltzeko edo zerbait hartzeko; aisialdiko jardueretan erregularitasunez parte hartzea; diru kopuru txiki bat norberarentzat gastatzea; eta interneterako konexioa izatea.

Gabezia material eta sozial larria adierak ordeztzen du EINSFOESSA 2021ean erabilitako “gabezia material larriaren” adierazlea, 9 gabezia-elementuz osatua zegoena. Gehitu diren irizpideez gain, aipatzekoa da gabezien zerrendatik kendu direla telefonoa, telebista edo ikuzgailua.

DEGURBA (Degree of Urbanisation)

Sailkapen horren metodologia eta datuak hemen kontsultatu daitezke: <https://ec.europa.eu/eurostat/web/nuts/local-administrative-units>. Eurostatek sustatzen du sailkapen hori, eta EBko toki-administrazioako unitate guztiei aplikatzen zaie, biztanleriaren tamainaren eta dentsitatearen inguruko irizpideak erabiliz, hiru udalerrri mota bereizirik: dentsitate handiko hiriak eta eremuak; dentsitate ertaineko hiriak eta aldiriak; eta biztanle gutxiko landa-eremuak.

Bazterkeriako enplegua

Barne dira Gizarte Segurantzaren estaldurarik gabeko egoerak eta, halaber, lan-arloaren egiturari sarritan “marjinalizat” jotzen diren bizibide batzuk (etxez etxeko saltzaileak, kaleko laguntza-salmenta marjinala, kualifikaziorik gabeko etxeko langileak, nekazaritzako behin-behineko peoiak (sasoikako langileak), kartoi eta beste hainbat hondakinen bilketa, propaganda-banatzea eta eskean ibiltzea).

Giniren indizea

Giniren koefizienteak eskualde bateko herritarrek, denbora-tarte batean, dituzten diru-sarreraren banaketan dagoen desberdintasuna neurtzen du. Koefiziente bat denez, 0 eta 100 arteko balioak hartzen ditu, non 0 ekitate perfektuko ekonomia bati legokiokeen (pertsona guztiek diru-sarrera berdina dituzte), eta non desberdintasuna areagotzen den, 100era hurbildu ahala.

Laneko ezegonkortasun larria

Familia-unitateko sostengatzaile nagusia den pertsonak hiru kontratu edo gehiago izan du, hiru enpresa edo gehiagotan, edo hiru hilabeteko edo gehiagoko langabezia, aurreko urtean.

Sostengatzaile nagusia den pertsona

Kontzeptua sortzerakoan, sostengatzaile nagusitzat hartu da familia horretako kide bat, 16 urtetik gorakoa, etxeko diru-sarrera nagusia ekartzen duena, berdin bere enpleguaren ordainsariaren bidez ekartzen duen, edo prestazio baten bidez, edo bestelako gizarte-babesaren baten titular delako egiten duen. Familia-unitateko gastu komunak ordaintzeko ekarpenik handiena egiten duen pertsona ez bada familia horretako kide, sostengatzaile nagusitzat hartuko da familiako gastuak ordaintzeko ekarpen ekonomikoak jasotzen dituen familiako kidea. Sostengatzaile nagusia ezin da inola ere etxeko langile bat izan, ez gonbidatua, ez aopila.

Mantenu-pobrezia

Mantenu-pobrezia kontzeptuarekin adierazten da egoera horretan dagoen familia-unitatean ez dagoela diru-sarrera ekonomiko nahikorik oinarritzko premiei aurre egiteko, batik bat, elikadurari, etxebizitzari, jantziei eta oinetakoei dagozkien gastuei aurre egiteko. Pobrezia-arriskuan daude, aztertutako erreferentziako aldian, oinarritzko premia horiei aurre egiteko atalase jakin batzuk baino diru-sarrera txikiagoak dituzten pertsonak, familiak edo familia-unitateak.

PGDI metodologian, pobrezia-atalaseen kalkulua egiten da pertsonen gastuetatik abiatuta, eta ez diru-sarreretatik abiatuta; honako galdera hauek egiten dira:

- Zure familiaren egungo egoeran, zein da oinarritzko premiak asetzeko benetan beharrezkoa den gutxieneko diru-sarrera? Elikadura, jantziak eta oinetakoak eta benetan oinarritzkotzat jotzen diren gainerakoak (pobrezia-atalasea kalkulatzeko).
- Zure etxeko egungo egoeran, zein da hilaren amaierara iristeko behar duzun gutxieneko diru-sarrera? (ongizaterik ezaren atalasea kalkulatzeko).

Bi galdera horiek eta familiaren hileko batez besteko gastuak balio dute familiako adin-tarteen eta tamainaren arabera erregresioa doitzeko, eta pobrezia-atalase bat eta ongizaterik ezaren atalase bat lortzen dira.

Benetako pobrezia

Benetako pobreziaren kontzeptuan biltzen dira zenbait egoera eta inguruabar, non pobreziaren dimentsio batean nahiz bestean (mantentzea edo areagotzea) agertzen diren oinarritzko premiak behar adinako estaldurarik gabe geratzeko arrisku-egoerak ez dauden konpentsatuta herritarren eguneroko bizitzan; beraz, pobreziaren bizipenetik atera eta gutxieneko ongizate-maila lortzeko aukerak huts egiten die herritarrei. PGDI metodologian, benetako pobrezia kontzeptuak jasotzen du zer egoeratan hitz egin daitekeen -gizartearen ikuspegi orokorretik- premien estaldura eskaseko egiazko egoerez. Kasu horietan, pobreziaren edo prekarietatearen bizipena errealitate bat da, gizartean nagusi diren ikusmoldeetatik ikusita (baina ez beti errealitate horrek ukitzen dituen pertsonen beraien pertzepziotik ikusita).

S80/S20 erlazioa

Desberdintasunaren adierazle horrek jasotzen du diru-sarrera baliokide altuenak dituzten pertsonen %20k jasotako diru-sarrera guztien eta diru-sarrera baliokide baxuenak dituzten %20k jasotakoen arteko zatidura.

Errenta mediana baliokidea

Errenta mediana baliokidea da, kontsumo-unitateen errenta txikienetik handienara ordenatuta, haien %50ek lortutako errenta balio horren azpitik uzten duen balioa, eta beste %50a balio horren gainetik uzten duena. Errenta medianak hobeto erakusten du bizi-maila, batez besteko errentak baino; izan ere, errentaren banaketak asimetrikoa izateko joera du, errenta altuen taldeetan oso balio altuak dituela, eta horren emaitza da batez besteko balio altuak jasotzea.

Pobrezia-arriskua

Pobrezia-arriskuaren tasari diru-sarrera urrien edo pobrezia erlatiboaren tasa ere esaten zaio, eta agertzen du pertsona baliokide bakoitzeko medianaren %60tik beherako urteko diru-sarrera garbiak dituzten familia-unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa. Familia-unitate baten diru-sarrera garbiak pertsona

baliokide bakoitzeko diru-sarrera bihurtzean, ELGAren eskala zuzendua erabiltzen da. Eskala horrek haztapena egiten du: etxeko lehen pertsona helduari 1 esleitzen dio; gainerako pertsona helduei 0,5; eta 14 urtetik beherakoei 0,3.

Pobreziaren adierazle erlatiboa da eta, beraz, pertsona bat txirotzat jotzen da desabantaila ekonomikoko egoeran dagoenean, inguruko gainerako pertsonekin alderatuta.

Pobrezia larria

Tasa horrek pertsona baliokide bakoitzeko medianaren %40tik beherako urteko diru-sarrera garbiak dituzten familietan bizi diren pertsonen ehunekoa adierazten du.

Jarduera-tasa

Jarduera-tasak 16 urtetik gorako biztanleria aktiboak (pertsona landunak edo enplegu-bilaketa aktiboan daudenak) 16 urte eta gehiagoko biztanleria osoaren gainean duen ehunekoa adierazten du. Adierazleak Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) datuak hartzen ditu abiapuntutzat.

Enplegu-tasa

Enplegu-tasak adierazten du lanean ari diren pertsonen ehunekoa, lanerako adinean dauden pertsona guztiekiko. Pertsona landunak dira Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) egiteko erreferentziako astean besteren konturako enplegu bat zuten edo norberaren konturako jarduera bat egiten zuten 16 urteko edo gehiagoko pertsona guztiak (haien artean daude enpresaburuak, modu independentean lan egiten dutenak, lan egiten duten kooperatibetako kideak eta ordainsaririk ez duten etxeko langileak).

Non take-up tasa

Non-take-up izeneko tasak agertzen du prestazio, zerbitzu publiko edo programa sozial bat jasotzeko eskubidea izanda ere, eskatzen ez duten edo erabiltzen

ez duten pertsonen ehunekoa, prestazio, zerbitzu edo programa horretarako eskubidea duten pertsona guztietatik. Ez erabiltzeko edo eskaera ez egiteko arrazoi nagusietako batzuk dira, besteak beste, informazioa eskuratzeko zailtasunak, administrazio-oztopoak edo estigma. *Non-take up* kontzeptuak, beraz, erakusten du hainbat prestazio, zerbitzu publiko edo programa sozial gutxi erabiltzen direla, jasotzeko aukera duten pertsona batzuen aldetik; fenomeno horrek baliabide horien potentziala eta eraginkortasuna mugatzen ditu.

Langabezia-tasa

Langabezia (edo desenplegu) tasak agertzen du langabezia-egoeran dauden pertsonen ehunekoa, biztanleria aktibo osoarekiko (pertsona landunak edo enplegu-bilaketa aktiboan daudenak). Pertsona langabetzat hartzen dira Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) egiteko erreferentziako astean lanik gabe, lanerako prest eta lana aktiboki bilatzen egon edo aritu diren 16 urteko eta gehiagoko pertsonak. BAI inkestak langabetzat jotzen ditu, halaber, dagoeneko lan bat aurkitu duten baina oraindik lanean hasi ez diren pertsonak.

Iraupen luzeko langabezia-tasa

Iraupen luzeko langabeziaren (edo desenplegu) tasak agertzen du lan bila gutxienez 12 hilabetez ibili eta aldi horretan lanean aritu ez diren pertsonen portzentajea, biztanleria aktibo osoarekiko (pertsona landunak edo enplegu-bilaketa aktiboan daudenak).

ETHOS tipologia (*European Typology on Homelessness and Housing Exclusion*)

FEANTSAk garatutako tipologia europarra; etxe-gabezia eta bizitegi-bazterkeria egoeren hamahiru profil identifikatzen ditu, lau mota nagusitan multzokatuta:

- Bizilekurik gabeak: espazio publikoan bizi diren pertsonak. Egun osoa espazio publikoan igaro eta gaua aterpetxe batean igarotzen duten pertsonak.
- Etxerik gabeak: baliabide publiko/pribatueta bizi diren pertsonak, non abegi eta/edo laguntza eskaintzen dieten.

- Etxebizitza ez-segurua: bizilekuaren legezko inongo titulurik gabeko pertsonak, genero-indarkeriaren arriskuarekin edo etxetik alde egiteko jakinarazpenarekin.
- Etxebizitza desegokia: aldi baterako egituretan edo txaboletan, edo lurralde bakoitzeko bizigarritasun-araudiaren arabera egokiak ez diren lekuetan, edo modu masifikatuan (jende-pilaketa) bizi diren pertsonak.

Estatuko eta autonomia-erkidegoetako pobrezia-atalasea

Pobrezia-arriskuari buruz Bizi Baldintzen Inkestatik sortzen diren tasak bi modutan kalkulatu dira: Estatuko atalasetik abiatuta eta autonomia-erkidego bakoitzaren atalasetik abiatuta. Estatuko atalasea lagin osoaren diru-sarrerara baliokideen banaketaren mediana kontuan hartuta lortzen dena da; atalase autonomikoak kalkulatzeko, berriz, autonomia-erkidego bakoitzeko diru-sarreraren banaketa baino ez da kontuan hartzen.

Ondorengo taulak laburbiltzen ditu, 2024ko BBIren datuekin (betiere, 2023ari buruzkoak), autonomia-erkidegoetako pobeziaren eta pobrezia larriaren arriskuen tasak, bi atalaseen arabera.

Ikus daitezkeen aldeak zentzu honetan ulertu behar dira: estatuko atalasean autonomia-erkidegoen arteko konparazioak ezar daitezke; autonomia-erkidegoen atalaseei buruzko zutabeen, berriz, atalase autonomiko horietako bakoitza autonomia-erkidegoaren beraren errealitatearen arabera soilik interpretatu behar da; izan ere, lehen esan bezala, autonomia-erkidego horretan bizi den biztanleriaren diru-sarreraren arabera bakarrik kalkulatu da.

%	Pobrezia-arriskuaren tasa		Pobrezia larriaren tasa	
	Estatuko atalasea	Atalase autonomikoa	Estatuko atalasea	Atalase autonomikoa
Andaluzia	29,2	20,1	12,8	8,6
Aragoi	15,1	17,6	6,0	7,6
Asturias	15,6	18,5	6,1	6,8
Balear Uharteak	11,3	14,5	5,4	6,8
Kanariak	24,6	19,4	10,1	8,8
Kantabria	17,3	18,2	6,8	7,1
Gaztela eta Leon	18,5	19,3	8,4	8,4
Gaztela-Mantxa	27,4	18,6	8,6	6,2
Katalunia	12,9	17,4	5,6	7,5
Valentziako Erkidegoa	24,8	20,3	11,4	10,3
Extremadura	27,5	18,1	9,3	6,9
Galizia	14,2	14,8	5,9	6,2
Madril	14,3	19,4	5,6	8,2
Murtzia	26,0	19,9	11,8	9,6
Nafarroa	14,2	18,7	7,9	11,0
Euskadi	9,4	18,4	4,6	7,4
Errioxa	19,4	18,9	6,5	6,5
Ceuta	34,6	26,0	15,6	9,5
Melilla	41,4	20,8	20,8	9,3
Espainia	19,7	--	8,4	--

Iturria: Geuk egina, EInen 2024ko Bizi Baldintzen Inkestan oinarrituta.

